²⁰ 92. art. Haur hezkuntzako irakasleak. 1. Haur hezkuntzaren lehen zikloko haurren hezkuntza-arreta zuzena haur hezkuntzako espezializaziodun irakasle titulua edo titulu baliokidea duten beste profesional batzuen edo, hala denean, behar besteko prestakuntza duen pertsonalaren esku egongo da. Edonola ere, 14. artikuluan aipatutako proposamen pedagogikoa egitea eta horren jarraipena egitea haur hezkuntzako irakasle titulua edo titulu baliokidea duen profesionalaren ardura izango da. 2. Haur hezkuntzako bigarren zikloa haur hezkuntzako titulua edo haur hezkuntzako espezializazioa edo titulu baliokidea duten irakasleek emango dute, eta irakaskuntza-lanetan beste espezialitate batzuetako irakasleek laguntza eman ahal izango diete, emandako irakasgaiek hala eskatzen dutenean. 2/2006 Lege Organikoa.

²¹ Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Hezkuntza Eskubideari buruzkoa. (EAO, 1985eko uztailaren 4koa).

²² 107 art. Lege honetan araututako irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeak uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Hezkuntza Eskubideari buruzkoa, lege organiko hau eta legea garatzen duten xedapenak direla bide arautuko dira, baita aplikatzeko modukoak diren indarreko gainerako arauetan ezarritakoa dela bide, artikuluko honen hurrengo idatz-zatietan ezarritakoari kalterik egin gabe. 8/1985 Lege Organikoa.

tea, horrek ere uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikora igortzen du²³. Hezkuntza administrazioek gai honen inguruan ezarritakoa haur hezkuntzako lehenengo zikloa soilik irakasten duten ikastetxeen ezaugarrietara egokitu beharko dute²⁴. titulu honetan, 122.2 eta 3, 123.2, 3, 4 eta 5, 124, 125, 130.1, 131.2 eta 5 artikuluek ez dute oinarritzko izaerarik.

Amaitzeko, Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluaren gomendioak, 1981eko urtarrilaren 23koak, gomendatzen du etapa hau gurasoekin lankidetzan estuan antolatu behar dela, familia-hezkuntzaren osagarri gisa, behar besteko funtsekin.

2. Proposatutako Dekretuaren edukia

Eskola Kontseiluaren esku utzitako Dekretuaren zirriborroak azalpen-atala, laun titulu eta zortzi kapitulutan jasotako hogeita hamar artikulua, zazpi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, hiru azken xedapen eta xedapen indargabetzaille bat ditu.

Azalpen-atalean dekretua onestea gomendatzen duten arrazoiak justifikatu dira eta gobernuak kalitatezko, ongizatezko eta segurtasunezko hezkuntza-ingurunea sortzeko duen asmoa adierazi da. Ingurune hori helburu jakin batzuen arabera antolatuta egongo da, desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialak konpentsatzeko gai izango da eta haurrei, familiekin lankidetzan, euren nortasuna eta gaitasun guztiak behar den moduan garatzeko aukera emango die.

Atariko titulua

1. artikulua. Foru Dekretuaren objektua definitu du: haur hezkuntzako lehen zikloa arautzea, ikastetxeek bete behar dituzten betekizunak eta zikloko hezkuntza-edukiak ezartzea.

2. artikulua. Ikastetxe publiko zein pribatuak eta Foru Dekretuaren aplikazio-esparrua adierazi du.

²³ 118-2 art. Lege honetan araututako ikastetxeen parte-hartzea, autonomia eta gobernu lege honetan, Hezkuntza jasotzeko Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan eta legeak garatzeko ematen diren arauetan ezarritakoa dela bide arautuko dira. 2/2006 Lege Organikoa.

²⁴ 118-7. art. Hezkuntza administrazioei dagokie titulu honetan ezarritakoa haur hezkuntzako lehen zikloa soilik irakasten duten ikastetxeen ezaugarrietara egokitzea. Egokitzapen horrek, edonola ere, hezkuntza-komunitatearen autonomia eta parte-hartze printzipioak errespetatu beharko ditu. 2/2006 Lege Organikoa.

3 artikulua. Haur hezkuntzako lehen zikloaren irakaskuntza-jarduerak oinarri dituen printzipio orokorrak zerrendatu ditu. 11 printzipio deskribatu dira.

I. Titulua. Antolakuntza

4. artikulua. Zikloaren ezaugarriak adierazi ditu. Zero urtetik hiru urte arteko haurrak artatuko ditu. Zikloa borondatezkoa da, ezarritako ezaugarriarekin. Ziklo osoa edo urte oso bakarra duten ikastetxeetan eskaini ahal izango da.

5. artikulua. Proposamen pedagogikoa. Honetan, hezkuntza-jarduera arautzen duten helburuak, edukiak eta printzipio pedagogikoak eta ebaluaziokoak jaso dira. Edukiak garapen- eta esperientzia-esparruetan antolatzen dira, eta proposatutako dekretuaren eranskinean jaso dira.

6. artikulua. Zikloko jarduerak erdietsi behar dituen gaitasun-helburuak jaso ditu.

7. artikulua. Printzipio pedagogikoak. Hezkuntza-jardueraren orientabidea, edukiei eta lan-metodoei lotutako jardueren izaera adierazi du.

8. artikulua. Ebaluazioa. Ebaluazioaren esangura, horren edukia eta ebaluazioa egiteko prozedura adierazi ditu.

9. artikulua. Ikastetxeak familiekin lankidetzan aritu behar direla agintzen du, familien oinarriko hezkuntza-erantzukizuna errespetatzeko. Familiei euren seme-alaben hezkuntza-prozesuari buruz aldian-aldian informazioa emateko erantzukizuna dagoela adierazi du.

II. Titulua. Ekitatea hezkuntzan

I. Kapitulumua. Desberdintasunak konpentsatzea

10. artikulua. Xedapen orokorrak ezarri ditu. Ikastetxeek ikasleen artean desberdintasunak murrizteko prebentziozko eta konpentsaziozko jarduerak egin behar dituztela adierazi du. Administrazioak eta irabazteko asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuak, erakundeak eta elkar teak lankidetzan aritzea ahalbidetzen du, berdintasun-egoeran eskolatu ahal izateko.

11. artikulua. Laguntzeko beharrizan zehatzei dagozkien gaiak jorratzen ditu. Horiek definitzen ditu; beharrizan horiek dituzten ikasleak artatzeko beharrezko baliabideak ematea agintzen du. Beharrizanak goiz identifikatzea eta horiek berehala artatzea agintzen du, normalizazio eta barne-hartze printzipioak kontuan hartuta.

II. Kapitulumua. Onartzea

12. artikulua. Xedapen orokorrak ezarri ditu. Sailaren eskumena da funts publikoekin funtzionatzen duten ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozedura arau-

tzea. Hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak modu egoki eta orekatuan banatzeko printzipioa eta onartze-arauak aplikatzean berdintasuna oinarri izatea adierazi ditu. Ikastetxeetan 16 astetik beherako haurrak onartzea debekatzen du.

III. Titulua. Ikastetxeak

I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

13. artikulua. Lehen zikloko ikastetxeak definitu eta Foru Dekretuaren aplikazio-esparrutik kanpo zein gelditzen diren adierazi du.

14. artikulua. Haur hezkuntzako ikastetxeen sailkapena eta izendapena zehaztu du. Publikoak eta pribatuak izan daitezke, ezarritako inguruabarren arabera. Ikastetxeek izendapen zehatza izan behar dutela agintzen du. Lehen zikloko ikastetxeen titularrak nor izan ezin diren adierazi du.

15. artikulua. Ikastetxeen funtzionamendurako urteko gutxieneko egutegia eta ikastetxeko ordutegiaren ezaugarriak finkatu ditu eta ikasleek ikastetxean egu-nero egin beharreko gehieneko ordu kopurua ezarri du.

II. Kapitulua. Ikastetxeen betekizun fisikoak

16. artikulua. Ikastetxeen betekizun fisikoak ezarri ditu; higienari, akustikari, bizigarritasunari eta segurtasunari dagozkion baldintzak betetzeko indarreko lege-riara igorri du; izan beharreko espazio fisikoak adierazi ditu; izan beharreko segurtasun-neurriak, altzari eta ekipamendu egokiak eta gela guztietan 20 gradu zentigradu bermatzeko izan behar diren berogailu-instalazioak zehaztu ditu.

III. Kapitulua. Pertsonalaren betekizunak

17. artikulua. Haurrei arreta zuzena ematen dieten profesionalen eta beste profesional batzuen titulazioa zehaztu du. Edonola ere, proposamen pedagogikoa egitea eta horren jarraipena egitea haur hezkuntzako irakasle titulua edo titulu baliokidea duen profesional baten erantzukizuna izango da.

18. artikulua. Ikastetxean aldi berean egon behar den gutxieneko profesional kopurua eta unitate bakoitzeko ikasle kopurua ezarri du.

IV. Kapitulua. Parte-hartzea eta autonomia

19. artikulua. Hezkuntza Saila hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea arautzeko eskuduna dela ezarri du.

20. artikulua. Ikastetxeei autonomia pedagogikoa eta antolaketa kudeatzeko autonomia aitortzen die. Hezkuntza-proiektu baten eta kudeaketa-proiektu baten bidez zehaztu behar dira. Bien edukia adierazi du.

IV. Titulua. Ikastetxeak sortu eta baimentzea

I. Kapitulumua. Ikastetxe publikoak

21. artikulua. Sorrera. Hezkuntza Sailaren eta administrazio publikoen artean haur eskolak sortzeko itun-sistema ezarri du.

22. artikulua. Espedienteen izapidetzari buruz, hasteko prozesua, sortzeko eskaeraren edukia, nahitaezko txostenak, ituna sinatzeko proposamena formulatzeko eskuduna den organoa eta sortutako ikastetxea erregistratzeko izapidea adierazi dira.

23. artikulua. Ikastetxeen aldarazpenari buruz, ituna aldatzea eragiten duten inguruabarrak adierazi eta espedientea hasteko prozedura finkatu du; nahitaezko txostenak, ituna aldarazteko proposamena formulatzeko eskuduna den organoa eta ikastetxearen erregistroa aldarazteko izapidea.

24. artikulua. Ikastetxe publikoak kenduko dira alderdietako edozeinek ituna salatzen baldin badu. Ituna salatzeko arrazoiak adierazi, nahitaezko txostenak agindu eta ikastetxearen titularrari entzunaldiaren izapidea eman eta salaketa eragin duten arrazoiak ongitzeko epea ezarri du. Ikastetxea kentzeko proposamena formulatzeko organo eskuduna eta ikastetxea kentzeko eta ikastetxeari erregistroan baja-izapidea baimentzeko organo eskuduna zein diren finkatu du. ikastetxea kentzearen ondoreak aurreranzkoak izan daitezke.

II. Kapitulumua. Ikastetxe publikoak

25. artikulua. Administrazio-baimena. Administrazio-baimenaren printzipioa ezarri du.

26. artikulua. Baimena eskatzeko espedientea agintzen du. Espedientearen izapideak zein organotan egiten diren eta eskaeraren edukia zein den adierazi du. Besteak beste, sustatzailea 14-1 artikuluaaren arabera ikastetxeen titular izatea eragozten duten kasuetan erori ez dela adieraztea, ikastetxea eraikitzeke egin behar den obren proiektua.

27. artikulua. Instalazioak eskatutako betekizunei egokitzeari buruzko aurretiazko ebazpena eta hori hartzeko epea.

28. artikulua. Aurretiazko ebazpena onesten den kasuan, baimen-eskaera egiteko prozedura agintzen du. Eskaeraren edukia, nahitaezko txostenak, ituna sinatzeko proposamena formulatzeko organo eskuduna eta baimendutako ikastetxearen erregistro-izapidea, erregistroko idatz-oharraren edukia adierazita, adierazi ditu.

29. artikulua. Baimena aldaraztea. Ituna aldarazteko inguruabarrak adierazi, eta espedientea hasteko prozedura finkatu du; nahitaezko txostenak, aldarazpena

edo baimen berria ebazteko organo eskuduna, hori egiteko epea eta erregistroko inskripzioa aldarazteko izapidea.

30. artikulua. Baimena amaitzea. Baimena amaitzeko arrazoiak eta prozedura agintzen ditu. Ikastetxea bertan behera geratuko da jarduerak amaitzen direlako, Eskola Irakaskuntzen eta Irakaskuntza Profesionalen zuzendari nagusiak esanbidezko ezeztapena egin duelako eta titularrak eskatuta adostu delako. Baimena agortzeari buruzko ebazpena emateko organo eskuduna, hori egiteko epea eta erregistroko inskripzioan baja-izapidea adierazi ditu. Baimenaren ondoreak aurreranzkoak izan daitezke.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria. 1996/01/11 Aginduaren arabera lortutako aitormena lehenengo zikloa emateko nahikoa dela adierazi du, 17. artikuluan ezarritakoaz gain.

Bigarren xedapen gehigarria. Hezkuntza-eginkizuna gauzatzeko beharrezkoak diren ikasleen datu pertsonalak jasotzea ahalbidetzen du.

Hirugarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Sailak du lehen zikloan plazen eskaintza publikoa planifikatzeko eskumena.

Laugarren xedapen gehigarria. Sailari lehen zikloko profesionali zuzendutako etengabeko prestakuntza-jarduerak planifikatzea agindu dio.

Bosgarren xedapen gehigarria. Saileko Ikuskaritza Teknikoan eta Zerbitzuen Ikuskaritzaren erantzukizuna da zikloko hezkuntza-ikuskaritza egitea.

Seigarren xedapen gehigarria. Ikastetxeak sortu eta baimentzeko espedienteen ebazpen kasuetan isiltasun negatiboa ezarri du.

Zazpigarren xedapen gehigarria. 17. artikuluan profesional batzuentzat adierazitako titulazioak Gobernuak ezarriko ditu maiatzaren 3ko 2/2006 Legea garatuz.

Zortzigarren xedapen gehigarria. 2007/2008 ikasturtean zikloa ezartzea adierazi du.

Xedapen iragankorrak

Lehenengo xedapen iragankorra. Udal titulartasunpeko ikastetxeei hiru urte ematen die dekretuan ezarritako betekizunetara egokitzeko eta kasuan kasuko ikastetxea sortzea eskatzeko.

Bigarren xedapen iragankorra. Titulartasun pribatuko ikastetxeei hiru urte ematen dizkie dekretuan ezarritako betekizunetara egokitzeko eta kasuan kasuko ikastetxea sortzea eskatzeko. Epe hori igaro ondoren, ezin da mota horretako ikastetxerik egon baimen gabe.

Azken xedapenak

Lehenengo azken xedapena. Otsailaren 10eko 24/1997 FD²⁵ indarrrik gabe utzi du ziklo honi dagokionez, eta uztailaren 6ko 251/1992 FD²⁶, ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezartzen duena.

Bigarren azken xedapena. Araua erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza jaso du.

Hirugarren azken xedapena. Araua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Xedapen indargabetzailea

Xedapen indargabetzaile bakarra. Honen aurkako arau guztiak, lerrun berekoak edo lerrun txikiagokoak, indargabetu ditu.

3. Beste ohar batzuk

Abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak, 21. xedapen gehigarrian²⁷, zero eta hiru urte bitarteko haurrei begira plazen eskaintza publikoa handitzea xedatu zuen. Horretarako, 2000. urtean, 0-3 urte zikloa arautzera bideratutako prozesua hasi zen, eta haur horiek eskolatzeko ikastetxeak apurka-apurka ezarri ziren. Beraz, eskatu zuten toki-erakundeekin itunak ezartzeko prozesua abiatu zen, hauek zehazteko: funtzionamendua eta ekipamendua, finantzaketa, ikastetxeen betekizunak, profesionalen titulazioa, ratioak eskatzaileen onarpena. Gaur egun, gai horiek otsailaren 28ko 41/2005 FAK araututa ditu²⁸.

²⁵ Otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan haur hezkuntzako ikastetxe publikoen, lehen hezkuntzako ikastetxe publikoen eta haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoen erregelamendu organikoa onetsi duena (NAO, 1997ko martxoaren 14a).

²⁶ Uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezarri duena (NAO 93. zk., 1992ko abuztuaren 3a).

²⁷ Abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legea, Nafarroako Foru Erkidegoak 2000ko ekitaldirako dituen aurrekontu orokorra. (NAO 164. zk., 1999ko abenduaren 31a). Hogeita batgarren xedapen gehigarria.- Nafarroako Gobernuak, 2000-2001 ikasturtean, toki erakundeekin itunak eginda, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak artatzeko plazen eskaintza publikoa modu esanguratsuan gehituko du, legegintzaldiaren amaieran LOGSEk arlo horretan dituen errekerimenduak bete ahal izateko. Hiru hilabeteko epean, hurrengo ikasturterako plaza publikoen eskaintza berria egitea ahalbidetzen duen epean helburu hori erdietsi ahal izateko eman behar diren pausoak zehaztuko ditu. Zerbitzu horri begira egon daitekeen eskaria zehatz aztertu beharko da lehenengo.

²⁸ Otsailaren 28ko 41/2005 Foru Agindua, Hezkuntza Sailaren eta Toki Erakundeen artean lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezartzen dituen zero eta hiru urte bitarteko haurrak artatze-

Foru Dekretuaren proposamenarekin eta txostenaren eskaerarekin batera, zenbait oroitidazki gehitu dira, proposatutako dekretu-proiektuaren alderdi desberdinen inguruan. Eskolako Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatu ditu.

Arauen oroitidazkian haur hezkuntzaren inguruko gaur egungo arauak eta aurrekariak deskribatu dira.

Oroitidazki ekonomikoan, proposatutako foru-dekretuak aurrekontuan ondorioz ez duela azpimarratu da, oroitidazkiaren edukian haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzen baita ikastetxeen finantzaketa-baldintzak zehaztu gabe. Finantzaketa hori Herri Administrazioen eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzahitzarmen bidez egingo da.

Justifikazio-oroitidazkian azpimarratu da gizartean azken hamarkadan gertatutako aldaketen eraginez hezkuntza-zerbitzuen eskari handia sortu dela, batez ere, zero eta hiru arteko haurrei dagokienez. Modu berean, gaur egun, hiru urtetik beherako haurrak tipologia eta izaera desberdinetako ikastetxeetan egiten dela adierazi da: Nafarroako Gobernuaren Haur Eskolak, Udaletako Haur Eskolak, haurtzaindegi pribatuak, 2 urteko haurren gelak haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe pribatuak, etab. Amaitzeko, oroitidazkian ezarri da maiztaren 3ko 2/2006 LOk, Hezkuntzarenak, beharrezko arau-esparrua sortu duela Foru Erkidegoak, bere eskumenak egikaritzean, haur hezkuntzako lehen zikloa arautu ahal izateko.

4. Iradokizunak eta oharrik

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ustez, haur hezkuntzaren lehen zikloa arautzeko proposamenak kalitatezko hezkuntza-inguruak sortzea erraztu dezake familia-, ekonomia-, kultura- edo gizarte-arrazoiei lotutako desberdintasun pertsonalak konpentsatzeko, eta haurrei, familiekin lankidetzatuan, alderdi fisiko, afektuzko, sozial eta intelektualak garatzeko aukerak eman ahal dizkie. Era berean, zero eta hiru urte bitarteko haurren artapenak eta horretara bideratutako zerbitzuen baldintzek azkenaldian Nafarroako gizartean sortu dituzten kezkek argitu ditzake.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren aldeko iritzia eman da.

ko udalaren titulartasunpeko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko. (NAO 44. zk., apirilaren 13a).

Iradokizun eta ohar hauek egingo dira:

2. artikuluan. Aplikazio-eremua:

Artikuluaren hasieran, "Nafarroako Foru Erkidegoko" gehitzea.

"...Foru Dekretu honetan" adierazpenaren ordeztu "..."arau honetan" ipintzea.

9. artikuluan. Lankidetzaren familiekin:

Beste puntu bat gehitzea iradokizun honekin: "Hezkuntza Sailak, funts publikoekin finantzaturako ikastetxeetan, familiek eta hezitzaileek haurren hezkuntza-prozesuan lankidetzaren aritzeko bideak arautuko ditu."

15. artikuluan. Egutegia eta ordutegia:

1. puntuak, "Ikastetxea urtean 11 hilabete irekita egongo da gutxienez" adierazpenaren ordeztu, hurrengo ipintzea: "Ikasturteak 11 hilabeteko iraupena izango du gehienez".

18. artikuluan. Ratioak:

2. puntuak testu osoaren ordeztu, hau ipintzea: "Ikastetxe bakoitzean zuzendariaren irudia egongo da, eta Hezkuntza Sailak zehazturako eginkizunak izango ditu".

26. artikulua. Baimen eskaera:

5. atalean, "Era berean, gehituko dira..." adierazpenaren ostean, hurrengo ipintzea: "eraikinaren titulartasunaren egiaztapena edo", modu honetan gera dadin: "Era berean, gehituko da eraikinaren titulartasunaren egiaztapena edo ukitutako higiezinak erabiltzeko eskubidea eta erabilera horren iraupena justifikatzen duen titulu juridikoa".

28. artikuluan. Baimena:

2.c) ataleko "Hezkuntza-proiektua" testuaren ordeztu "Proposamen pedagogikoa" ipintzea.

2.d) ataleko testua honela aldatzea: "Eraikinaren jabetza egiaztatzea edo ukitutako higiezinak erabiltzeko eskubidea eta erabilera horren iraupena justifikatzen duen titulu juridikoa."

2. puntuak beste atal bat gehitzea: "e) Espazio eta instalazioak osasun, higie-ne eta segurtasun arloan egokiak direla ziurtatzea, indarreko arauekin bat etorritu."

Hau da zuri ematen zaizun irizpena.

Iruñea, 2006ko irailaren 26a

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Gurasoen Elkarteen HERRIKOA-CEAPA FEDERAZIOAREN boto partikularra Nafarroako Eskola Kontseiluaren 4/2006 Irizpenari, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen dekretuaren zirriborroari buruzkoa.

Herrikoa-Ceapa Federazioak modu positiboan baloratu du 0-3 urteko zikloan haurren hezkuntza-arreta arautzea, aurrerapausoa baita, erakunde honek eta beste gizarte-sektore batzuek luzaroan eskatutako araudia den aldetik.

Hala ere, boto partikular hau eman dugu, gure ustez, Foru Dekretuaren Proiektuan alderdi hauek ez direlako behar den beste bermatu:

- Nafarroako Gobernuak 0 eta 3 urte bitarteko haurrak etxetik kanpo artatzen dituzten ikastetxe guztiak arautu beharko lituzke. Edonola ere, Foru Dekretu honetan argi geratu behar da modu erregularrean, hau da, jarraitu eta sistematikoan, artatzen duten ikastetxe guztietan aplikatuko dela, hezkuntza izaerakoak zein aisia, arreta edo zainketa izaerakoak izan, titular tasun publiko zein pribatua badute.
- Foru Dekretu honen barruan hezkuntza-komunitateko sektore guztiek parte hartu beharko lukete Eskola Kontseiluak sortuta, beste hezkuntza-etapa batzuetan daudenen antzekoak.
- Gure erakundearen ustez, ahal den neurrian, ikastetxeek zikloaren hiru ikasurteak eskaini beharko lituzkete, horrela proiektu pedagogiko osoagoa ezarri, jarraitu eta koordinatu daitekeelako. Horrez gain, hezkuntza administrazioak ikastetxe pribatuetan “2 urteko gela” izenekoak egotea saihestu beharko luke, batetik, sareen arteko bidegabeko lehiarengatik, praktikan sare honetan plaza bermatzea ahalbidetzen dutelako eta, bestetik, zikloa makroikastetxeetan kokatzea komenigarria ez delako.
- Ikastetxeek izan behar dituzten espazioak beste autonomia-erkidego batzuetan araututakoa eta adituek gomendatutakoa baino txikiagoak direla uste dugu erabiltzaile bakoitzeko metro karratuei dagokienez, bai barruko bai kanpoko espazioetan, eta kanpoko espazio estalirik ez dela aurreikusi.
- Ikastetxe baimenduek erabilera eskusiborako kanpoko espazioa izan beharko lukete, beste hezkuntza-etapa batzuetan behar direnen antzekoak, adin hauetan are beharrezkoagoak direlako.
- Foru Dekretuaren Proiektuak ez du behar den beste garatutako oroitidazki ekonomikorik, finantzaketa egokia eta erakundeek eskariari erantzuteko konpromisoa hartzen dutela bermatzen dituena.
- Ikastetxeren kudeaketa publikoaren alde gaude, eta horien doakoak izateko joerari heldu beharko litzaioke.

Iruñea, 2006ko irailaren 26a.

STEE-EILAS sindikatuaren boto partikularra 4/2006 Irizpenari, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen dekretuaren zirriborroari buruzkoa.

Sarrera

2006ko irailaren 26an egindako batzarrean, Nafarroako Eskola Kontseiluko osoko bilkurak modu positiboan baloratu zuen Haur Hezkuntzari buruzko Dekretuaren zirriborroa. Azken botazioan, behean sinatzen duenak, STEE-EILAS sindikatuko ordezkariak, aurka bozkatu zuen, eta boto partikular honek jarrera hori arrazoitzeko balio du.

Haur Hezkuntzaren izaera

Irizpenak ontzat eman du dekretuaren zirriborroaren hitzaurrea. Hala ere, nire ustez, Haur Hezkuntzako 0-3 zikloaren arautzen den unea aprobeztatu beharko litzateke hezkuntza administrazioak arauak egiteko oinarri dituen printzipioak argi finkatu ditzan. Ziklo horrek hezkuntza-izaera duela aitortu arren, esanbidez ez zen jaso haur guztiek jaiotzen diren unetik heziketa duina jasotzeko duten esku-bidea, eskubide hori nazioarteko erakundeek behin eta berriro aitortu arren, bai UNESCOren txostenetan, bai Europako Batzordeko Haurrak Artatzeko Sarean. Dekretuaren zirriborroak ez du beste pauso bat ematen eta ez du esanbidez esaten gaur egun, XXI. mendearen hasieran, Hezkuntza Zientziek "beharrizanen haurtzaroa" lur azpian sartu dutela eta "esku-bideen haurtzaroari" buruz hitz egiten ari direla argi eta garbi. Beharrezkoa da "haurtzaindegia" lur azpian sartzea, eta hori zirriborroak egin nahi du baina artikuluetan ez da batere argi geratzen, organismo publiko eskudunen esku uzten baita Dekretuan ezarritako betekizun eta baldintzak betetzen ez dituzten "ikastetxeen askotariko tipologia" arautzea (1.2 art.). Azken finean, zer gertatuko da Dekretua argitaratu ostean haurrak pisuetan... ikusten ditugunean Dekretuko betekizunak bete gabe baina organismo eskudunen baimena eskuetan dutela?, Hezkuntza Saileko arduradunen ustez egoera hori haurren aldeko apustua egitea da beste guztiaren gainetik?. Nik ez dut horrela ikusten eta etorkizunak arrazoia eman edo kenduko du.

Hizkuntza-aniztasuna

Dekretuan ez zaio inolako aipamenik egin haurrak Foru Erkidegoan dagoen hizkuntza-aniztasunean hezteari. Hitzaurrean geografia- eta kultura-aniztasunari buruz hitz egiten da, baina hizkuntza-aniztasuna ez da aipatzen. Badirudi onartuta dagoela adin hauean barneratzeko dagoen gaitasunak hizkuntzak ikastea erraztuko lukeela, zehatz esanda, Erkidegoan dauden hizkuntzak eta atzerriko hizkuntzak. Badirudi hala ulertu zuela Hezkuntza Sailak ingelesarekin egindako esperientziaren batean, baina dirudienez, Nafarroako hizkuntza ofizial batekin, euskararekin, egitea ez da onargarria.

Zikloaren izaera

Gure ustez, LOEri esker zikloa zatitzea errazagoa da, eta ziklo osoa edo horren atal bat eskaintzen duten ikastetxeak egotea ahalbidetzen du. Esangura horretan, dekretuak ezin du alderantzizkoa esan, baina beste idazketa bat eman zezakeen eta zikloaren batasunari indarra eman. Modu horretan, 4.2 artikuluan "haurren hezkuntza ziklo osoa edo, gutxienez, urte osoa hartzen duten ikastetxeetan eskaini daiteke" esaten da, baina "daiteke" horren ordez "behar da" ipini beharko litzateke, ohar bat gehituta: "salbuespen moduan, zikloaren urtebete gutxienez eskaini daiteke".

Hezkuntza-eskaintzaren izaera publikoa

Dekretuan ikastetxe publiko eta pribatuen bikoiztasuna ezarri da. Ikastetxe publikoen inguruan egindako definizioak titulartasunera mugatu du, eta ez kudeaketara. Kudeaketa publikoa jasotzeko gaitzespenak ondorio negatibo gehiago izan ditzake. udalen autonomiaren edo beste edozein administrazio publikoren autonomiaren defentsaren aurrez aurre, haur hezkuntzako ikastetxeen kudeaketa privatizatzeko aukera dago (gauzatuta dago), eta horrek arriskuak ditu baldintza pedagogikoak eta lan-baldintzak betetzeari begira. Haurren artapena, Administrazioak dekretu honen bidez arautu nahi duena, berriro ere kolokan geratzen dela uste dugu.

Haur hezkuntzan ikastetxe bat baimentzeko ekimen pribatuari eskaini zaion tratamendua dela bide, hutsean gera daiteke Hezkuntza Administrazioak plazen eskaintza publikoa eskariari aurre egiteko behar den bestekoa izateko duen beharrizana. Eskaintza beharrizanen arabera antolatzen duen eskola-maparen beharrari buruz ez da hitz egiten, eta ekimen pribatuak nahi duen lekuan eta nahi duenean ikastetxeak sortu ahal izateko bidea irekita uzten da. Okertuta egon nahi dugu, baina hurrengo pausoa itunak 0-3 ziklora hedatzea izan daiteke eta orduan, nola arautuko da ituna ematea?. Ikastetxea funtzionatzen ari denez diruz lagundu behar dela esango da? edo beharrizanak planifikatuko dira?.

Ikastetxeen betekizunak

Dekretuan planteatutako ratioak gehiegizkoak dira haurrak erabat artatzeko, eta gure ustez, ratio horiek txikitu egin beharko lirarteke, gure zuzenketetan planteatzen dugun moduan. Dena den, albuespen kasuetan patio itxia ez eskatzearen inguruko objektioa oso larria iruditzen zaigu, zuhurtziara egindakoa izan daiteke eta. Horregatik planteatu genuen zuzenketa eztabaidan, baina ez zuen aurrera egin.

Finantzaketa

Egia da, eta hala aitortu behar da, dekretuak zenbait eranskin dituela proposamen pedagogikoarekin eta zenbait oroitidazkirekin: proiektuaren inguruko arauak eta justifikazioak. Hala ere, oroitidazki ekonomikoan gogorarazten zaigun bakarra da dekretuak ez duela finantzaketa jorratzen, zikloaren arauketa baino. Gure iritziz ez da batere positiboa dekretu honetan aurkeztutako proposamenaren kostuen kalkuluak ez ezagutaraztea. Gastuen aurreikuspenek eta horiek finantzatzeko bideek proposamenari fidagarritasun handiagoa emango liokete.

Azken oharra

Gizonezkoen uniformetasuna edo femeninoaren eta maskulinoaren arteko etengabeko bikoiztasuna gainditzen zuen hizkuntza kontuan hartzea eskatzeko zuzenketa baztertzea nahiko zinikoa iruditzen zait. Hainbat erakunde eta elkarrek Nafarroako Gobernuaren Administrazioari eskatu diote hizkuntza ez-sexistaren tratamendua kontuan hartzeko. Eskola Kontseiluak zergatik ezin du gauza bera egin?

Iruñea, 2006ko irailaren 28a

Sin.: José Luis Larrea Cenoz, STEE-EILAS sindikatuaren ordezkaria Nafarroako Eskola Kontseiluan.

Javier Marcotegui Ros jn.
Nafarroako Eskola Kontseiluaren
presidentea

José Miguel Garbayo Villanueva
jn.
Gurasoen Elkarteko ordezkaria,
CONCAPA-Navarra

Fernando Barainca Lagos jn.
Ikastetxe pribatueta irakasleen or-
dezkaria, FSIE-SEPNA.

Isabel Irigoyen Aristu and.
Gurasoen Elkarteko Federazioa,
HERRIKOA

José Luis Larrea Cenoz jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen or-
dezkaria, STEE-EILAS

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen or-
dezkaria, CC.OO.

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

5/2006 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Ba-
tzorde Iraunkorrera, 2006ko irailaren
26an egindakoa, zerrendan aipatutako-
ak bertaratu ziren, eta horiek aho batez
irizpen hau luzatu dute: "Hezkuntza
eta Zientzia Ministerioaren eta
Nafarroako Foru Erkidegoaren
artean eskola-liburutegiak hobez-
tze sinatutako hitzarmena."

1. Arau aurrekariak

Eskola Kontseiluaren mende jarritako
hitzarmena Hezkuntzari buruzko
maiatzaren 3ko²⁹ 2/2006 Lege Organi-
koaren 9. artikuluan 1 eta 2. para-
grafoetan ezarri aginduan jaso da,
hots, Estatuari lurralde-lankidetzarako
programak sustatzeko aukera zuzendu
dio, izaera orokorreko hezkuntza-hel-
buruak lortzeko, ikasleen oinarrizko

eskumenak sendotu eta horien kultura- nahiz hizkuntza-aberastasunaren ezagu-
tza eta estimuaren alde egitea.

Gainera, lege horren 2-2 artikuluan xedatutakoaren alde egiten du. Artikulu ho-
rren arabera, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko faktoreen alde egiten da, ho-
rien artean, irakurketaren sustapena eta liburutegien erabilera³⁰.

Bestalde, lege bereko II. kapituluaren IV. tituluko 113. artikuluan, ikastetxe publi-
koei buruzkoan, liburutegiak ikasleek irakaskuntzarako³¹ informazioa nahiz beste-

²⁹ 9-1 artikulua "Estatuak lurraldeko lankidetzarako programak sustatuko ditu, izaera orokorreko hez-
kuntza-helburuak lortzeko, ikasleen oinarrizko eskumenak sendotzeko, ikasleek autonomia-erkidego
ezberdinen kultura- eta hizkuntza-aberastasunaren ezagutza eta estimua bultzatzeko eta lurraldeen
arteko solidaritatearen eta ezberdintasunen ezberdintasunean lurralde-orekaren alde egiteko.

9-2 artikulua "Artikulu honetan aipatu programak hezkuntza administrazio eskudunen arteko hi-
tzarmenen edo akordioen bidez egin ahal izango dira".

³⁰ 2-2 artikulua "Botere publikoek irakaskuntza, eta, bereziki, ... irakurketaren sustapena nahiz libu-
rtegiaren erabilera bultzatzen duten faktoreei lehentasunezko arreta emango die..."

³¹ 113.2 artikulua "Eskola-liburutegiak ikasleek irakaskuntzarako informazioa eta bestelako baliabideak
eskuratzeko baliagarriak izango dira, bai eta euren erabilera kritikoa eratzeko ere. Era berean, lege ho-
nen 19.3 eta 26.2 artikuluetan xedatutakoa modu eragingarrian betetzeko baliagarria izango da"

lako baliabideak eskuratzeko baliagarriak izango direla zehaztu da. Horrez gain, legearen 19-3³² artikuluan adierazitako Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, irakurketarako ohitura sustatzeko printzipio pedagogikoa eragingarria izateko tresna da.

Hezkuntza Administrazioak, 113. artikuluan adierazitakoaren arabera, ikastetxe-etako liburutegien zuzkidura osatzen dituzte.³³

Ministroen Kontseiluak, 2006ko apirilaren 21ean hartutako akordioaren arabera, Lehen Irakaskuntzako ikastetxe publikoetan dauden eskola-liburutegiak hobetzeko 9 milioi xedatzeko erabakia hartu zuen. Gisa berean, autonomia-erki-degoetako Hezkuntza Kontseilarien eta Sailen artean³⁴ Hezkuntza Sektoreko Konferentziak hartutako irizpideen arabera banatzeko erabakia hartu zuen. Nafarroako Foru Erkidegoak, akordio horri helduta, kopuru horretatik 135.633,12 euro jasoko ditu.

Halaber, Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuaren zuzendariak irizpenaren eskabidearekin batera aurkeztutako txostenean, eskola-liburutegia gizar-tean ikasleak informazio-iturri ezberdinen kontsulta eragingarrirako trebetasunak garatzeko ezinbesteko baliabidea dela adierazi du.

Hitzarmena Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta autonomia-erkidegoen artean ezarri da Estatuaren³⁵ eskumen eskusiboan jasotzen dituen Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan aipatu administrazio-eskumen egokien eta Nafarroako Foru Erregimenaren Berrintegrazio eta Hobekuntzari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikulua arabera.³⁶

³² 19-3 artikulua "Irakurketaren ohitura sustatzeko helburuarekin, egunero epe zehatza hori egiteko erabiliko da".

³³ 113-2 artikulua "Hezkuntza Administrazioek ikastetxe publikoetako liburutegien zuzkidura pixkanaka-pixkanaka osatuko dute. ..."

³⁴ 2006ko apirilaren 28 ebazpena, Hezkuntzako Idazkaritza Nagusiak emandakoa. Hain zuzen ere, 2006ko apirilaren 21eko Ministroen Kontseiluaren akordioa argitaratu da, banaketa-irizpideak formalizatuz, baita Hezkuntza Sektoreko Konferentziak onetsitako eskola-liburutegietarako 2006ko diru-laguntzen emaitzen banaketa-irizpideak ere. (EAO, 120. zk. 2006ko maiatzaren 20koa).

³⁵ 149.1.30 artikulua "Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu edo homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko."

³⁶ 47. artikulua. "Nafarroako eskumena izango du irakaskuntzaren arlo, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztiak arautu eta administratzeko, manu konstituzionaletan, ez horiek garatzen dituzten lege organikotan, ezta ikasketa nahiz lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez Estatuak dituen eskumenei ere"

2. Proposatutako hitzarmenaren deskripzioa

Proposatutako hitzarmena sei puntuko azalpenarekin eta beste zortzi klausuletako azalpenarekin osatzen da.

Azalpenean, hitzarmena sinatzeko legitimazioa duten tituluak azaltzen dira. EKaren 27. artikuluan aitortutako hezkuntza-eskubidea ahalbidetzeko, hau da, esku-bide hori eragingarria izateko haurrei eskainitako hezkuntza kalitatezko maila altuak lortu behar ditu.

Hezkuntza Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak, bere ordezkarien bitartez, gai horri buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehaztutakoa kon-tuan hartuta, ikastetxeetako eskola-liburutegien zuzkidura egokiak eta horien erabilera irakaskuntza hobetzen dutela adierazten dute.

Horrenbestez, lankidetzaz hitzarmenaren sinadura adostu dute eta horren edukia klausula egokietan jasotzen da. Horien esangura labur-labur jarraian azaltzen da.

Lehenengo klausulan hitzarmenaren xedea definitzen da. Horren arabera, ME-Cen eta Nafarroako Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzaz-mekanismoak ezarri dira, Foru Erkidegoaren jarduketak eskola-liburutegien hobekuntzarekin bat etor-ritz egin ahal izateko.

Bigarren klausulan konpromisoen helburuarekin lotzen da. Horiek ikastetxeeta-ko eta ikasgelako liburutegien zuzkidura bibliografikoen hobekuntzari, altzarien eskuraketari, informatikako nahiz multimediako materialari, interneteko kone-xioa errazteko instalazioen egokitzapen fisikoari, ikastetxe barruko ordutegitik eta ikaskuntza-ordutegitik kanpo erabiltzeari, arretaren hobekuntzari eta liburu-tegiko erabilerei nahiz aplikazioei buruz irakasleentzako prestakuntza-programei buruzkoak dira.

Hirugarren klausulan Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari eta Nafarroako Hez-kuntza Sailari dagozkien konpromiso ekonomikoak zehazten dira. Lehenengoari dagokionez, 135.633,12 euroko zenbatekoa emateko konpromisoa hartu du 2006ko aurrekontuaren kontura. Nafarroako Gobernuak antzeko zenbatekoa emango du eta gaur egungo eta bi urte barruko aurrekontuen kontura eragin-garria egingo da.

Laugarren klausulan aipatutakoaren arabera, fondoak bigarren klausulan aipatu helburuetarako aplikatu beharko dira. Orobat, 500 eta 1500 euroko zuzkidura zehazten da liburutegi bakoitzeko, eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen erdiek hori handitzeko aukera izango dute.

Bosgarren klausulan, ordainketa-sistema Hezkuntza Ministerioarengandik Foru Erkidegoarengana instrumentalizatzen da, bai eta azken horrek gastua justifika-tzeko duen modua ere.

Seigarren klausulan eskola-liburutegiak hobetzeko programa finantzatzera zuzendutako aurrekontuaren aplikazioa jendaurrean ezagutarazteko betebeharra azaltzen da eta Foru Erkidegoak onetsitako kreditua behin betiko banatu beharko da. Gisa bertsuan, Estatuak programaren kofinantzaketa adierazi beharko du eta deialdietan ekarpena, publizitatea egiteko ekintzak, ebazpena eta jakinarazpenak aipatu beharko ditu.

Zazpigarren klausulan batzorde misto paritarioaren eraketa eta eginkizunak adierazten dira. Halaber, Batzordeak programen emaitzak jarraitu eta ebaluatu nahiz hitzarmena interpretatu eta betearazteko eginkizunak aipatzen dira.

Zortzigarren klausulan hitzarmenaren indarraldia 2008ko abenduaren 31 arte izango dela zehazten da. Hitzarmena berriztatu edo aldatu ahal izateko, esanbidezko agiria aurkeztu behar da. Ondorengo ekitaldietako kreditu berriak hitzarmenari erantsitako "addenda" agirian agerrarazi beharko dira.

Horrez gain, alderdi biak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren mende jarriko dira, hitzarmenaren betearazpenean eta ebazpenean sortzen diren auziarazoak konpontzeko xedearekin.

3. Bestelako oharrak

Hona hemen irizpenarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

1. 2006ko apirilaren 28ko ebazpenaren kopia. Horren arabera, 2006ko apirilaren 21eko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen da, banaketa-irizpideak formalizatuz, bai eta 2006rako Hezkuntza Sektoreko Konferentziak onetsitako eskola-liburutegietarako diru-laguntzak ere.
2. Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuaren zuzendariak emandako txostena, lankidetzeta-hitzarmenaren sinadura ontzat emanda.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren ustez egokia da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Hezkuntza Sailak lankidetzeta-hitzarmen hori sinatzea. Izan ere, horren betearazpenak Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako liburutegien zuzkidurak gehitzea, ekipamendua, informatikako materiala eta multimediatiko materiala hobetzea, esparru fisikoak egokitzea eta irakasleek hori kudeatzeko prestakuntza hobetzea ahalbidetuko du. Horrela, lehen hezkuntzan dauden ikasleen irakurketa sustatzeko lege-agindua modu eragingarrian betearazi ahal izango da.

Beraz, eta 2005eko azaroaren 23an egindako bileran Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakitako eginkizunen eskuordetzearen arabera, Nafarroako Hezkuntza Sailaren eta Estatuaren Ministerioaren artean eskola-liburutegiak hobetzeko lan-kidetza-hitzarmenaren aldeko sinadurari buruzko informazioa emango da.

Hau da zuri ematen zaizun irizpena.

Iruñea, 2006ko irailaren 26a

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
 Presidentea

Antonio Iriarte Moncayola jn.
 Idazkaria

Alfonso Aparicio Barauri jn.
 Gurasoen Federazioko ordezkariak -
 CONCAPA.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
 Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
 Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Javier Del Castillo Díaz jn.
 Sindikatu erakundeen ordezkaria -
 UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
 Enpresa elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
 Gurasoen Elkarteko Federazioen ordezkaria, CONCAPA

Pedro González Felipe jn.
 Hezkuntza Administrazio ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
 Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria– ANEG-FERE

6/2006 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurara, 2006ko azaroaren 7an egindakoa, zerrendan aipatutakoak bertaratu ziren, erabakiaren aldeko 20 boto eta abstentzio 1 emanaz, eta irizpen hau luzatu dute: “Uztailaren 2ko 26/2006 Foru Legeak finantzatutako eremu ez euskalduneko ikastolen Finantzaketaren Foru Legearen aurreproiektua”.

1. Arau aurrekariak

Abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legearen 9. xedapen gehigarriak³⁷ “eremu ez euskaldunetako ikastolen diru-laguntzak” izeneko Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza nagusian kokatutako partida berezia gaitu zuen, Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduko irakaskuntzak eskaini eta³⁸uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarri administrazio-baimena eskuratu ez dituzten ikastetxe batzuk finantzatzeko. Eremu

³⁷ Nafarroako 1994ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legea. (NAO, 159. zk., 1993ko abenduaren 31koa). 9. XG: “Diru-laguntzen araubide berezian mende jarriko dira eremu ez euskaldunean benetan funtzionamenduan dauden ikastolak, baimenik ez dutenean edo izaera orokorarekin ikasgela bakoitzeko ezarri kopurua biltzen ez dutenean. Diru-laguntza horiek Lehendakaritza Sailaren Hizkuntza Politikaren Programan helburu horretarako ezarri partidaren kontura ordainduko dira. Zenbatekoa 35-2 artikuluan eta 7. XGan hezkuntza maila bakoitzari begira ezarritakoa izango da.”

³⁸ Hezkuntza jasotzeko Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa. 23. artikulua “Ikastetxe publiko eta pribatuen irekiera eta funtzionamendua administrazio-baimenaren printzipioaren mende jarriko dira. Horrek baimena emango du izaera orokorarekin ezarri gutxieneko betekizunak biltzean, lege honen 14. artikuluan xedatutakoari helduta. Baimena ukatu egingo da betekizun horiek biltzen ez direnean”.

- M^a del Valle Ballano Bueno and.
Gurasoen Elkarteko Federazioa, HERRIKOA
- Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria – ANEG-FERE
- José Luis Larrea Cenoz jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS
- Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria – Nafarroako ikastolen Federazioa
- Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
- Rosa M^a Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF
- Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Federazioko ordezkariak - HERRIKOA.
- Rosario Repáraz Abaitua and.
Unibertsitateen ordezkaria, Nafarroako unibertsitatea
- Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioako ordezkaria
- euskalduna ³⁹Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Legearen 5-c artikuluan ezarritakoari buruzkoa da. Diru-laguntzen mekanismo horri 2002ko urtarrilaren bat arte eutsi zaio. Hasieran, sistema horren bidez 10 ikastetxe finantzatu ziren.
- Abenduaren 30eko 18/1999 Legearen 7. xedapen gehigarrian⁴⁰, 2000. urteko ekitaldirako aurrekontu orokorreari buruzkoa, diru-laguntzen araubide berezia ezarri zen ikastetxe horiei begira. Araubide hori unibertsitate mailakoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen ⁴¹xedapen iragankor bakarrak baieztatu du. Hala ere, ikastetxe horiek euren administrazio-egoera indarreko legeriara egokitzen dute, hots, administrazio-baimen egokia lortzen ez den heinean. Halaber, diru-laguntzen araubidea, berezia izateaz gain, iragankorra izan dela adierazten da. Araubide hori 2002. urteko urtarrilaren batetik aurrera aplikatuko da. Lege horretan 2. xedapen gehigarri bat jasotzen da eta bertan gai horri buruzko testua ageri da.

³⁹ Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea. (NAO, 154. zk. 1986ko abenduaren 23koa).

⁴⁰ Nafarroako Foru Erkidegoko 2000ko ekitaldirako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legea. (NAO, 164. zk., 1999ko abenduaren 31koa). 7. XG : "Diru-laguntzen araubide bereziaren mende jarriko dira eremu ez euskaldunetan benetan funtzionamenduan dauden ikastolak, baimenik ez dutenean edo izaera orokorrekaren ikasgela bakoitzeko ezarri kopurua biltzen ez dutenean".

⁴¹ Unibertsitate mailakoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea. (NAO, 84. zk., 2002ko uztailaren 12koa). XI bakarra: "Eremu ez euskalduneko ikastolak 2001/2002 ikasturtean funtzionamenduan badaude horretarako baimenik izan gabe, eta egoera hori indarreko legeriara egokitzen ez den bitartean, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera 2000ko ekitaldirako aurrekontuen zazpigarren XGan ezarri araubide bereziaren eta iragankorren arabera finantzatuko dira, betiere indarreko modulua irakaskuntza maila ezberdinetara".

Luis M^a Sada Enériz jn.
Tokiko erakundeen ordezkaria

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe publikoetako ordezkaria –
CC.OO.

Javier Oyaga Vélez jn.
Gurasoen Elkarteko Federazioen ordezkariak -HERRIKOA

Hain zuzen ere, aipatu xedapen iragan-korraren edukiari buruzko interpreta-zioan nahasmenak gerta daitezke, eta, ondorenez, segurtasun juridikorik gabe aurki gaitzke. Hori dela medio, ⁴²mar-txoaren 25eko 21/2003 Foru Legeak uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen 2. xedapen gehigarria indargabetu du.

Gaur egun, hauek ditugu ikastetxeak:

Arangoiti Sociedad Cooperativa Limitada; Sociedad Cooperativa de Enseñanzas “Argia Ikastola S.Coop”; Erentxun Ikastola Sociedad Cooperatva Limitada; Ibaialde Ikastola Sociedad Cooperativa.

Hezkuntza Saileko Eskola Irakaskuntzen eta Lanbide Prestakuntzaren Zuzendaritza Nagusiak, ⁴³maiatzaren 25eko 531/2006 ebazpenaren bidez, aipatu lau ikastolen itunen araubidean sartzeko jatorria adierazten du. Halaber, ebazpena ikastetxeen ondorengo administrazio-baimenaren mende jartzen du ⁴⁴ekainaren 6ko 251/1992 Foru Aginduan adierazitakoari helduta. Horrela, 2006/2007 ikasturteko itunen deialdian parte hartu ahal izango dute administrazio-baimen ego-kia eskuratzen badute.

2006ko otsailaren 15ean, aipatu ikastetxeek, baimenaren eskabidea, eta, hala de-nean, hezkuntza-ituna aurkeztuko dute.

Nafarroako gobernuaren, aipatu ikastolen eta Ikastolen Federazioaren ordezkariak egoera horren aurrean aparteko finantzaketa-sistema ezarri dute ikaste-txe horien bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, hezkuntza-ereduaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko Nafarroako herrietan kokatuta izateagatik.

Gobernuak, akordio hori aintzat hartuta, uztailaren 2ko 26/2002 Foru Agindua-ren bidez finantzatutako eremu ez euskaldunetako ikastolak Finantzatzeko Foru Legearen aurreproiektuaren izapideak egin ditu, unibertsitate mailakoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko, eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren mende jarriko da.

⁴² Unibertsitate mailakoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatu duen martxoaren 25eko 21/2003 Foru Legea (NAO, 41. zk., 2003ko apirilaren 2koa).

⁴³ Maiatzaren 25eko 531/2006 ebazpena. Kasu horretan, unibertsitate mailakoak ez diren irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeak ireki eta funtzionamenduan jartzeko prozesuan, Nafarroako Gobernuak hezkuntza-itunen araubidea Fontellaseko “Argia Ikastola”, Lodosako “Ibaialde Ikastola”, Lumbierreko “Arangoiti Ikastola” eta Vianako “Erentxun Ikastola” ikastetxe pribatueta aplikatu ahal izango da. Ez dago argitaratuta.

⁴⁴ Uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoak unibertsitate mailakoak ez diren araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezarri duena. (NAO, 93. zk. 1002ko abuztuaren 3koa).

2. Proposatutako legearen aurreproiektuaren edukia

Eskola Kontseiluaren mende proposatutako legearen aurreproiektuan zioen azalpena, bederatzi artikulua eta bi azken xedapen agertzen dira. Horrekin batera hiru eranskin ageri dira.

Zioen azalpenean, uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeak iragankortzat baieztatu eta adierazitako 2000. urteko ekitaldiaren aurrekontuen legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarri araubide berezia egiaztatzen duen arauketaren aurrekaria aipatzen da. Bestalde, horren ondorioz ukituta geratu diren ikastetxeek euren administrazio-egoera erregularizatzen dute; legearen aurreproiektuaren ondorioz ukituta geratu diren ikastetxeak aipatzen dira; ikastetxe horiek 2006ko maiatzaren 25eko 531/2006 ebazpenaren itunen araubidearen mende jartzeko adierazpena jasotzen dute; ikastetxeen bideragarritasuna bermatzeko arrazoiak aparteko finantzaketaren egiaztapen gisa adierazi ditu eta finantzaketa hori egiteko epealdia aipatzen du. Legearen proiektua onesteko Foru Erkidegoak duen eskumena adierazteaz gain,⁴⁵ maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan dagoen finantzaketa egiaztatzen da.

1. artikulua. Lege-aurreproiektuaren xedea definitzen da: uztailaren 2ko 26/2002 Legeak ezarri araubide berezia eta iragankorra duten eremu ez euskaldunetako ikastolen aparteko finantzaketa arautuko da, behin ikastetxeak baimenduta eta 2006ko irailaren 1en eta 2010eko abenduaren 31n artean.

2. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa adierazten da. Nafarroako Gobernuak ikastetxeak finantzatzeko eskuragarri duen urteko gehieneko zenbatekoa zehazten da. Finantzaketa horren helburua eta aparteko finantzaketaren kalkulua adierazten dira, baita 2006rako hori egiteko modua eta itunaren gastuaren zenbatekoa kalkulatzeko modua ere.

3. artikulua. Aparteko finantzaketaren araubidea eskuratzeko ikastoletako titularrek bildu beharreko betekizunak deskribatzen dira. Betekizun horiek⁴⁶ azaroaren 9ko 11/2205 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritakoei gehituko zaizkie. Horietako batek lau ikastolek aipatu urteko finantzaketa osoaren zenbatekoa ez gainditzea bermatzen du.

⁴⁵ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legea. (EAO, 106. zk. 2006ko maiatzaren 4koa. 122.2 artikulua. Baliabideak. Hezkuntza Administrazioek baliabide-zuzkidurak eman ahal izango dizkie ikastetxe publiko edo pribatu zehatzei, horrela egitea eskatzen duten proiektuen arabera edo eskolatzea eskaintzen duten herrien beharrezko baldintzei helduta.

⁴⁶ Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea. (NAO, 136. zk. 2005eko azaroaren 14koa).

4. artikulua. Betekizunak egiaztatzeko modua ezartzen da. Betekizunei urte osoan eutsi behar zaizkie. Sailak hezkuntza-itunaren bidez ikastetxe bakoitzak urtero ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatu behar du.

5. artikulua. Aurreikusitako diru-laguntzak zehazten dira. Aparteko finantzaketaren xede diren hezkuntza mailak, ikasgela bakoitzaren diru-laguntzen moduluak eta horien banaketa eta ikasgeletako irakaslearen ratioa adierazten dira. Modulu horiek izaera orokorrarekin ezarri dira. Horiek urtero-urtero gaurkotuko dira, ondore horretarako ezarri irizpide orokorra aintzat hartuta. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko modua ere aipatzen da.

6. artikulua. Diru-laguntzak eskatzeko epeak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta bestelako gai formalak aipatzen dira.

7. artikulua. Eskolako ikasgelei emandako diru-laguntzek aurre egin beharreko aurrekontu-partida eta diru-laguntzaren zenbatekoa emango duen administrazio-unitatea zehaztuko dira.

8. artikulua. Finantzaketaren aparteko araubideak bestelako diru-laguntzekin duen bateragarritasuna adierazten du.

9. artikulua. Azaroaren 9ko 11/2006 Foru Legean xedatutakoa lege-aurreproiektuan ezarri ez den guztiari begira dagoen ordezeko eskubide gisa adierazten da, betiere horrekin bateraezina ez den heinean.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Arauaren arauzko garapenaren gaikuntza jasotzen da.

Azken xedapenetatik bigarrena. Araua Nafarroako Aldizkari Ofiziala argitaratzen den data berean indarrean jarriko da eta gehieneko indarraldia 2010eko abenduaren 31 arte luzatuko da.

I. eranskinean diru-laguntza eskatzeko eredia zehazten da.

II. eranskinean datu ekonomiko zehatzak jasotzeko Eskola Kontseiluaren aktaren eredia adierazten da.

III. eranskinean zerga-datuak eskatzeko Hizkuntza Programazio, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuak baimena eskuratzeko eredia zehazten da.

3. Bestelako oharrak

Lege-aurreproiektuaren proposamenarekin eta txostenaren eskabidearekin batera proposatutako aurreproiektuaren alderdi ezberdinak jorratzen dituzten zenbait txosten aurkezten dira.

Aurreproiektua onesten duen gobernuaren akordio-testuak ez du lehendakari-tzako kontseilariaren datarik, ezta sinadurarik ere.

Ikasketetarako ikastetxe eta Laguntza Zerbitzuaren zuzendariak egindako txostenaren arabera, ukitutako ikastolak baimena eskuratzeko fasean aurkitzen direla adierazten da. Halaber, Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuetako Zerbitzuak itunen araubidean sartzeko aldeko informazioa eman du, administrazio-baimenaren eskuraketa uztailaren 6ko 251/1992 Foru Aginduan zehaztutakoaren arabera, ikastetxe pribatuen baimen-prozedurari buruzkoa. Gainera, 2006ko ekitaldian bereganatzen diren itun-konpromisoei aurre egiteko behar besteko aurrekontua dagoela baieztatu da.

Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako zuzendari Nagusiaren txostenak aurreproiektuaren testua aurkeztu du eta Hizkuntza Programazio, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuaren zuzendariaren txostena bere gain hartu du. Testuan adierazi denez, Nafarroako Gobernuak urtean gehienez ere gaindituko ez dituen ikastolei emandako finantzaketaren zenbatekoak adierazi dira, izenpetutako hezkuntza itunak eta aparteko ekarpenak batuta. Beraz, urteko aparteko finantzaketa aipatu gehieneko zenbatekoetatik hezkuntza-itunen ondoriozko diru-laguntzei dagozkienak kendu ondoren lortuko da. Bestalde, aurreproiektua babesten den lege-arauketa jasotzen duen zuzendari nagusiaren beste txosten bat ere badago.

Horrez gain, ⁴⁷abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 52. artikulua araberako oroitidazki ekonomikoa gehitu da. Hori Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako zuzendari nagusiak sinatu du. Hain zuzen ere, lege-aurreproiektuaren ondorioz ukitutako ikastolek jasoko duten gehieneko zenbatekoa 8.792.445 eurokoa izango da, hezkuntza-itunak eta aparteko diru-laguntzak direla medio. Horretarako, kontuan hartu dira Ikasketarako Ikastetxeen eta Laguntzen Zerbitzuak emandako informazioa eta ikasgelen aurreikuspena, oinarri gisa ikastetxeek 2006/2007 ikasturteko matrikula-datuak eta itunen moduluen balioa izanez. Bost urteetan, ukitutako ikastolek ⁴⁸abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren arabera itunen araubidearen ondorioz, gehienez ere, 6.870.588 euro jasoko dituzte. Gainera, urtero arreta 21 ikasgelei emango zaie, lehenengo urtean izan ezik, lehenengo urtean 20 ikasgela egon baitira. Lehenengo urtean 457 ikasle onuradun izan ditugu, bigarreanean 485, hirugarreanean 501, laugarreanean 507 eta bosgarreanean 515.

Aurrekontuen eta kudeaketa ekonomikoaren ataleko buruak beste txosten bat luzatu du ukitutako ikastolen itunen araubidean sartzeko kostu ekonomikoari

⁴⁷ Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa (NAO, 150. zk. 2004ko abenduaren 15ekoa).

⁴⁸ Abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretua, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onetsi duena. (NAO, 8.zk., 1993ko urtarrilaren 18koa).

buruz eta aparteko finantzaketaren aurreproiektuari buruz. Horrek emandako irizpidearen ariora, kostu gehigarria eragin du gaur egungo finantzaketari begira, 192.962,31 eurokoa, hain zuzen.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluko Osoko Bilkuraren ustez, eremu ez euskalduneko ikastolak, unibertsitateko mailakoak ez diren irakaskuntzak hobetzeari buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean xedatutakoaren arabera finantzatutakoak, itunen araubidearen mende geratzen dira, eta, era berean, aparteko finantzaketa komenigarria da ezaugarri bereziak eta kokapena aintzat hartuta.

Horrenbestez, uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeak finantzatutako eremu ez euskalduneko ikastolak Finantzatzeko Foru Legearen aurreproiektuaren aldeko informazioa eman da.

Hau da zuri ematen zaizun irizpena.

Iruñea, 2006ko azaroaren 8a

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Presidentea

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Barauri jn.
Gurasoen Elkarteko Federazioaren
ordezkariak -CONCAPA.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Javier Del Castillo Díaz jn.
Sindikatu erakundeen ordezkaria -
UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
Gurasoen Elkarteko Federazioen or-
dezkaria, CONCAPA

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen era-
kunde titularren ordezkaria- ANEG-
FERE

7/2006 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurara, 2006ko azaroaren 7an egindakoa, zerrendan aipatutakoak bertaratu ziren, erabakiaren aldeko 20 boto eta abstentzio 1 emanez, eta irizpen hau luzatu dute: "Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan parte hartzen duten ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen duen Foru Agindua".

1. Arau aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006⁴⁹ Lege Organi-koaren 27-2⁵⁰ artikuluan adierazitakoaren arabera, ikasleek bigarren maila egin badute eta hirugarrena egiteko baldintzak ez betetzeaz gain, bigarren maila errepikatu badute, curriculum ezberdinak eratzeko programan parte hartu ahal izango dute.

Lege bereko 28. artikuluan⁵¹, Nahitaezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen eba-

⁴⁹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legea. (EAO, 106. zk. 2006ko maiatzaren 4koa).

⁵⁰ 27. artikulua. Curriculum ezberdina eratzeko programak... 2. Ikasleek bigarren maila egin badute, baina hirugarren egiteko baldintzak ez betetzeaz gain, bigarren maila errepikatu badute, curriculum ezberdina eratzeko programan parte hartu ahal izango dute, ebaluazio egokia egin ondoren.

⁵¹ 28. artikulua. Ebaluazioa eta sustapena

1. Ikasleen nahitaezko bigarren hezkuntzaren ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa etengabea eta curriculumean jasotako gaien arabera ezberdinduko da.

2. Etaparen barruko maila bat edo bestea egiten ari diren ikasleen sustapenari buruzko erabakiak kasuan kasuko ikaslearen gaineko ardura duten ikasleek batera hartuko dituzte, helburuak aintzat hartuta. Titulua eskuratzeko erabakiak kasuan kasuko ikaslearen gaineko ardura duten irakasleek batera hartuko dituzte, oinarriko eskumenak eta etaparen helburuak kontuan hartuta.

3. Aurreko ataleko ondoreetarako, ikasleek maila gaintituko dute egindako gaien helburuak gaintitzean edo ebaluazio negatiboa, gehienez ere bi gaietan lortzen dutenean, eta maila errepikatuko dute ebaluazio negatiboa hiru edo gai gehiagotan lortu badute. Salbuespenez, hiru gaietan ebaluazio negatiboa lortu duen ikaslearen sustapena baimendu ahal izango da horien izaerak inolako era-

M^a del Valle Ballano Bueno and.
Gurasoen Elkarteko Federazioa, HE-
RRIKOA

Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen era-
kunde titularren ordezkaria – ANEG-
FERE

José Luis Larrea Cenoz jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen or-
dezkaria, STEE-EILAS

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen era-
kunde titularren ordezkaria – Nafa-
rroako ikastolen federazioa

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioaren orde-
zkaria

luazioa eta sustapena aztertzen da. Ebaluazioaren izaera ezartzen da, ikasle-
leen gain erabakiak hartu behar dituz-
ten pertsonak zehazten dira, bai eta
sustapenak aurrera egiteko, edo, hala
denean, errepikapenaren baldintzak
ere. Gainera, sendotze-programak
gainditzeko ebaluazioak eta curriculum
ezberdinak eratzeko programak eta
ikasturtea errepikatu behar duten ikas-
leen egoera ere adieraziko da. Horrela,
hezkuntza administrazioak eskumena
izango dute ebaluazioen gaineko eran-
tzukizuna duten irakasle-taldeen jard-
keta aztertzeko eta ebaluazioaren
aparteko probak egiteko.

Halaber, 31. artikuluan⁵² Bigarren Hez-
kuntzan gradudunaren titulua eskura-

gozpenik jartzen ez dionean hurrengo maila gainditzeko, berreskuratzeko aldeko igurikimenak di-
tuenean eta sustapen hori bere ikasketa-bilakaeraren aldekoa denean. Hezkuntza administrazioek
ebaluazioaren gaineko ardura duten irakasleen taldeen jarduketak arautuko dituzte.

4. Ikasleei ebaluazio negatiboa lortu duten gaiak berreskuratzeko helburuarekin, hezkuntza admi-
nistrazioek ikastetxeek zehaztu moduan aparteko probak antolatzen dituzten ikastetxeek bete be-
harreko baldintzak arautuko dituzte.

5. Gai guztiak gainditu gabe mailaz aldatu diren irakasle-taldeen ezarri sendotze-programak beteko
dituzte eta sendotze-programa horien ebaluazioak gainditu beharko dituzte. Inguruabar hori kon-
tuan hartuko da aurreko ataletan ezarri sustapenaren eta titulazioaren ondoretarako.

6. Ikasleak maila bera behin bakarrik errepikatu ahal izango du, gehienez ere, bi aldiz etaparen ba-
rruan. Bigarren aldiz errepikatzean, etaparen azken mailan gertatu bada, 4. artikuluan 2. paragra-
foan aipatu adinaren muga luzatu egingo da. Salbuespenaz, ikasle batek bigarren aldiz errepikatu
ahal izango du laugarren mailan etaparen aurreko mailetan errepikatu ez bada.

7. Edozein kasutan ere, errepikapenak ikaslearen curriculum-baldintzen beharrianetara egokituko
dira eta antzemandako zailtasunak gainditzera zuzendutako dira.

8. Nahitaezko bigarren hezkuntzaren laugarren maila amaitzean lege honen 31.1 artikuluan ezarri
titulazioa eskuratu ez badute, gainditu ez dituzten gaien aparteko proba egin ahal izango dute.

9. 27. artikuluko curriculum ezberdina eratzeko programan parte hartzen duten ikasleak etaparen
helburuen eta kasuan kasuko programetan ezarri ebaluazio-irizpideen arabera ebaluatuko dira.

⁵² 31. artikulua. Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan lortutako Gradudun Titulua.

1. Nahitaezko bigarren hezkuntza bukatu duten ikasleek etapako oinarrizko eskumenak eta helbu-
ruak eskuratu badituzte gradudun titulua lortuko dute Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan.

2. Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan lortutako Gradudun titulua bidez, batxilergoan, maila ertai-
neko lanbide-prestakuntzan, arte plastiko eta diseinuaren maila ertaineko zikloetan, maila ertaine-
ko kirol-irakaskuntzetan eta lan-munduan murgildu ahal izango da.

3. Nahitaezko bigarren hezkuntza egin eta artikuluko honek aipatu titulua eskuratzen ez duten ikas-
leek eskolan egindako urteen eskolatzeko-ziurtagiria jasoko dute.

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Federazioko ordezkariak - HERRIKOA.

Rosario Repáraz Abaitua and.
Unibertsitateetako ordezkaria, Nafarroako unibertsitatea

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Tokiko erakundeen ordezkaria

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria – CC.OO.

Javier Oyaga Vélez jn.
Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkariak-HERRIKOA

tzeko baldintzak zerrendatzen dira. Tituluaren ikasketa-ondoreak eta titulua ez dutenentzat beharrezkoa den ikasketa-ziurtagiria zehazten dira.

Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak⁵³ aipatu legean zehaztutako hezkuntza-sistemaren antolakuntza aplikatzeko egutegia adierazteaz gain⁵⁴, 1. xedapen iragankorra ⁵⁵ekainaren 27ko 831/2003 Errege Dekretuaren 13, 15, 18.2 eta 18.3 artikuluetan adierazitakoarekin lotzen da, hain zuzen ere, DBHn gradudunaren titulua eskuratu eta 2006/2007 ikasturtean aplikatzeko ebaluazio, sustapen eta baldintzei dagokienez.

Gaur egun, Nahitaezko Bigarren Hezkuntzari buruzko ebaluazio-, sustapen- eta titulazio-arauek behin-behineko izaera izango dute ⁵⁶abenduaren 9ko 350/2004 Foru Aginduan 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan aplikatzeko, ⁵⁷abenduaren 23ko 10/2002 Le-

ge Organikoan beren beregi adierazitakoa garatzen ez den heinean, gaur egun hasieran aipatu Lege Organikoak indargabetutakoa, alegia.

⁵³ Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua, hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarri hezkuntza-sistemaren antolakuntza berria aplikatzeko egutegia ezarri duena. (NAO, 167. zk. 2006ko uztailaren 14koa).

⁵⁴ Lehenengo xedapen iragankorra. Ekainaren 27ko 831/2003 Errege Dekretuaren indarraldia, Nahitaezko Bigarren Hezkuntzaren antolakuntza orokorra eta irakaskuntza erkideak ezarri dituen.

2006/2007 ikasturtea amaitu arte, nahitaezko bigarren hezkuntzan gradudun titulua eskuratzeko ebaluazioa, sustapena eta baldintzak ekainaren 27ko 831/2003 Errege Dekretuaren 13, 15, 18.2 eta 18.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

⁵⁵ Ekainaren 27ko 831/2003 Errege Dekretuak Nahitaezko Bigarren Hezkuntzaren antolakuntza orokorra eta irakaskuntza erkideak zehazten ditu. (EAO, 158. zk. 2003ko uztailaren 3koa).

⁵⁶ Abenduaren 9ko 350/2004ko Foru Agindua, Nahitaezko Bigarren Hezkuntza egin duten ikasle-en ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautu duena. (NAO, 4.zk. 2005eko urtarrilaren 10ekoa).

⁵⁷ Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Legea. (EAO, 2002ko abenduaren 24koa).

Gauzak horrela, beharrezkoa da aipatu FAn xedatutako edukia gaurkotzea, behin-behineko izaera duela kontuan izanda, ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuaren ⁵⁸9. artikuluan adierazitakora egokitu ahal izateko.

2. Proposatutako foru aginduaren aurreproiektuaren edukia

Eskola Kontseiluaren mende jarritako legearen aurreproiektuan zioen azalpena, hiru atal eta eranskin bat ageri dira.

Zioen azalpenean ebaluazioaren, sustapenaren eta titulazioaren arauketa gaurkotzea beharrezkotzat jotzen dituen arauketa-aurrekariak aipatzen dira.

Lehenengo atalean 2006/2007 ikasturterako DBHko ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen duten arauak onesten dira. 10 puntu ditu.

Lehenengo puntuak arau orokorrak zehazteaz gain, arau hori aplikatuko zaien subjektuak definitzen dira. Horiek Foru Erkidegoko ikastetxe publikoak eta pribatuak izango dira.

Bigarren puntuaren ebaluazioaren ezaugarri orokorrak zehazten dira. Etengabea da, eta gaien arabera ezberdinduko da. Erreferentzia nagusia gai bakoitzari dagokion etaparen helburu orokorrak eta zehatzak izango dira, otsailaren 22ko 67/1993 Foru Aginduari helduta⁵⁹. Kalifikazioetarako eskala zehazten da.

Hirugarren puntuaren ebaluazioarekin zerikusia duten prozesuaren eta agirien gaiak jorratzen dira. Ebaluazio Batzordeak puntu horren gain duen erantzukizuna adierazten da, bai eta irakasgai bakoitzaren irakaslearena, irakasle-taldearena eta irakasle tutorearena. Horrez gain, horien zerrenda jasotzen du. Ebaluazio-prozesuaren inguruan hasierako ebaluazioa, horren edukia, helburua eta horren ondoriozko curriculum egokitzeko neurriak definitzen ditu. Etengabeko ebaluazioari dagokionez, xedea eta norabidea zehazten ditu, egingo den kopurua,

⁵⁸ 9. artikulua. Nahitaezko bigarren hezkuntzan ebaluazioaren eta sustapenaren ezarpena.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 28. artikuluan araututako nahitaezko bigarren hezkuntzan parte hartzen duten ikasleen ebaluazioa eta sustapena 2007-2008 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.

2. 2006-2007 ikasturtearen amaiera arte, nahitaezko bigarren hezkuntzan parte hartzen duten ikasleen ebaluazioa eta sustapena ekainaren 27ko 831/2003 Errege Dekretuaren 13 eta 15. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Nahitaezko Bigarren Hezkuntzaren antolakuntza orokorra eta irakaskuntza erkideak ezarri dituena.

⁵⁹ Martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretua, otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua aldatu duena, Nahitaezko Bigarren Hezkuntzaren curriculum Nafarroako Foru Erkidegoan ezarri duena. (NAO, 50 zk. 2002ko apirilaren 24koa).

gurasoei emaitzari buruzko informazioa emateko betebeharra eta ikaslearentzako sendotze-neurri zehatzak zehazteko beharrezana. Azken ebaluazioaren kasuan, kasuan kasuko erabakiak jasoko dira, eta horren edukia Azken Ebaluazioa ixteko baliagarria izango da. Gainditu ez den edo ez diren gaien irailako aparteko probak arautzen dira. Ebaluazio horren akta apartekoa eta azkena izango da. Aktetan sustapenari edo ikasturte berean urte bat baino gehiago geratzeko egonaldiari buruzko erabakia jaso behar da. Laugarren mailako aktetan titulua lutzatzeko proposamena adieraziko da. Gainera, hezkuntza-neurri zehatzei, euren esanahiari eta jagoletzari buruzko Ebaluazio eta Kalifikazio Erregistroa jorratzen da. Familiak ikasleen errendimenduari buruzko idazkia idatziz aurkeztu beharko dute. Azkenik, ebaluazioarekin lotutako agiri ezberdinen jagoletza eta artxiboa jorratzen da.

Laugarren puntua ikasturtearen sustapenarekin eta erreplikapenarekin lotzen da. Sustapena erabakitzeke erantzukizuna zehazten da; azken ebaluazio arruntean edo aparteko azken ebaluazioan egin beharreko sustapenaren baldintzak zehazten dira, baita ikaslearen baldintzak sustapena gertatzen ez denerako eta kasu horretan aplikatuko zaizkion ikasketa-aukerak ere. Eduki aurrerakorren gaiak zenbatzeko modua eta horiek zeintzuk diren zehazten da. Gairen batean ebaluazio negatiboarekin sustatzen diren ikasleen lan zehatzen planak idazteko agindua ematen da.

Bosgarren puntuan garrantzitsuak edo oso garrantzitsuak ez diren egokitzapekin behar dituzten ikasleen ebaluazioa aipatzen da. Ebaluazio positiboaren kasuan, programa gainditu dela esanahi du, salbu eta edukiak ikasturtearen gutxienekoa direnean. Aparteko probak ikasle horiek egin ahal izango dituzte, AKUetan parte hartzen dituztenak izan ezik. Gainera, Curriculum Dibertsitatea, Hezkuntza Sustapena eta Konpentsazioaren programetan parte hartzen duten ikasleen ingurukoa arautzen da.

Seigarren puntuan ikasleen lekualdaketei buruzko arazoak jorratzen dira. Destinoko ikastetxera bidali beharreko informazioa eta agiriak zehazten dira, betiere ikaslearen egoera eta jatorrizko nahiz destinoko ikastetxearen erantzukizuna aintzat hartuta.

Zazpigarren puntuak titulazioa eta akreditazioa aztertu ditu. Ikasleak Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan Gradudunaren titulua eskuratzeko baldintzak zehazten dira. Irakasgai guztiak gainditu gabe titulua eskuratzeko baldintza bereziak betetzen dituzten ikasleen kasuan, Ebaluazio Aktetan erabaki hori hartzeko Batzordean lortu diren botoak zenbatuko dira.

Zortzigarren puntuan lau xedapen gehigarri ageri dira. Lehenengoan Ikuskapen Zerbitzuak ebaluazio-prozesuaren aholkularitzaren eta berrikuspenaren gain duen erantzukizuna zehazten da. Bigarrenean adierazitakoaren arabera, Foru

Aginduaren zati dira ⁶⁰abenduaren 26ko 515/1994, ⁶¹ekainaren 29ko 209/1998, ⁶²ekainaren 18ko 225/1998, ⁶³apirilaren 2ko 90/1998 Lege Organikoak eta ⁶⁴ekainaren 2ko 656/1995 Ebazpena, ebaluazio-agirien formatuei buruzkoak. Hirugarrenean pertsona helduen Oinarrizko Hezkuntzaren III. Maila egiten ari diren ikasleak aipatzen dira. Ebaluazioa ⁶⁵martxoaren 6ko 79/2000 Foru Aginduaren I, II, III eta IV. puntuetan ezarritakoaren arabera egingo da. Laugarrenean, DBH egiten ari diren ikasleen Erljio eta Hezkuntza Jarduera Antolatuen irakaskuntzak ebaluatzen dira. Gainera, abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuan zehaztutako ikasketen ondoreak adierazten dira.

Bederatzigarren puntuan irailaren 9ko 350/2004 Foru Aginduaren xedapen indargabetzailea eta horren aurka dauden maila bereko edo baxuagoko xedapenak jasotzen dira.

Hamargarren puntuan, azken xedapenean, hain zuzen, Foru Agindua garatzeko Eskola nahiz Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiaren ahalmena azaltzen da. Bigarren atalean Foru Agindua indarrean jartzeko data adierazten da.

Hirugarren atalean Foru Agindua eta eranskina aipatu Zerbitzuetara lekualdatzeko agindua ezartzen da.

Eranskinean 2006/2007 ikasturtearen amaieran ikasleak duen egoera eta 2007/2008 ikasturtera begira izan ditzakeen aukerak jasotzen dira.

3. Bestelako oharra

Foru Aginduaren zirriborro-proposamena eta txostenaren eskabidea Ikasketa Antolakuntzaren ataleko buruak sinatutako txostenarekin batera aurkezten dira, Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuaren zuzendariak hori ontzat emanda. Bertan, proposatutako Foru Aginduaren onespena egiaztatzen duen lege-oinarria eta benetako oinarria adierazten dira.

⁶⁰ Abenduaren 26ko 515/1994 Foru Agindua, Nahitaezko Bigarren Hezkuntzan parte hartzen duten ikasleen ebaluazioari eta kalifikazioari buruzkoa. (NAO, 1995eko otsailaren 6koa).

⁶¹ Ekainaren 29ko 209/1998 Foru Agindua, DBHko etapa ebaluatzeko agirien zenbait aldaketa onetsi dituen. (NAO, 1998ko uztailaren 22koa).

⁶² Ekainaren 18ko 225/1998 Foru Agindua, Bigarren mailan curriculum ezberdina eratzeko jarraibideei buruzkoa. (NAO, 95. zk. Abuztuaren 10ekoa).

⁶³ Apirilaren 2ko 90/1998 Foru Agindua, hezkuntza-sustapen eta konpentsazioko neurriak behar dituzten DBHko ikasleentzako hezkuntza-erantzun zehatzak ezartzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena. (NAO, 1998ko maiatzaren 18koa).

⁶⁴ Ekainaren 2ko 656/1995 ebazpena, nahitaezko bigarren hezkuntzan parte hartzen duen ikaslea ebaluatu eta kalifikatzeko erregistroa ezarri duena. (NAO, 1995ko ekainaren 30ekoa).

⁶⁵ Martxoaren 6ko 79/2000 Foru Agindua, Nafarroako Foru Erkidegoan Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren irakaskuntzetan parte hartzen duten ikasleak ebaluatu eta kalifikatzeko arauari buruzkoa. (NAO, 2000ko apirilaren 12koa).

Berebat, Ikasketa Antolakuntza Ataleko buruak sinatutako hiru oroitidazki aurkezten dira, Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak hori ontzat emanda.

Lehenengo oroitidazkian baieztatutakoaren arabera, proposatutako Foru Aginduaren aplikazioak ez du aurrekontu-ondorerik.

Bigarrenean, ELO eta aplikazio-egutegia onesteko, beharrezkoa da proposatutako Foru Agindua aldarrikatzea. Hala ere, ez da beharrezkoa egitasmoa jendaurrearen zuzeneko entzunaldiaren mende jartzea abenduaren 3ko 14/2004 Foru Aginduaren 60.2 artikuluari helduta⁶⁶.

Hirugarrenean Foru Aginduaren proposamena egiaztatzen dituen arauketa-erreferentziak aipatzen dira.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak uste du egokia dela proposatutako FA onestea, 2006/2007 ikasturterako duen behin-behineko izaera mugatua barne, eta abenduaren 9ko 350/2004 FAn xedatutakoa kontuan hartuta. Horrekin batera, 2006/2007 ikasturtean Nahitaezko Bigarren Hezkuntzaren ikasketak egiten ari diren ikasleak ebaluatu, sustatu eta horien titulazioa lortzeko prozesua agintzen da.

Horrenbestez, Nahitaezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen duen Foru Aginduaren zirriborroaren aldeko informazioa eman da.

Hau da zuri ematen zaizun irizpena.

Iruñea, 2006ko azaroaren 8a

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

⁶⁶ Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa (NAO, 150. zk. 2004ko abenduaren 15ekoa). "60. artikulua. Entzunaldia eta parte-hartzea. ... 2. Artikulu honen aurreko atalean ezarritako izapidea ezin izango da eskatu aipatu erakundeei dagokie-nez, baldin eta eratze-prozeduran kontsultatu badira bertan txostenen bidez parte hartu badute edo legez ezarritako organo ordezkari baten txostena ezarri denean."

8/2006 Irizpena

Javier Marcotegui Ros jn.
Nafarroako Eskola Kontseiluko presidentea

Fernando Barainca Lagos jn.
Ikastetxe pribatueta irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Elkarteko Federazioa, HERRIKOA

José Luis Larrea Cenoz jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrera, 2006ko irailaren 27an egindakoa, zerrendan aipatutakoak bertaratu ziren, eta horiek aho batez irizpen hau luzatu dute: "MECen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean irakaskuntzarako laguntza-programa garatu eta Atzerriko Hizkuntzak (PALE) ikasteko sinatu duten lankidetzaren hitzarmena".

1. Arau aurrekariak

Eskola Kontseiluaren mende jarritako hitzarmena Hezkuntzari buruzko ⁶⁷maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 9.1 eta 9.2 artikuluetan oinarritzen da. Artikulu horren arabera, Estatuari lurralde-lankidetzarako programak sustatzeko eskaera egiten zaio, hain zuzen ere, izaera orokorreko hezkuntza-helburuak lortu eta oinarritzko eskumenak sendotzeko helburuarekin, autonomia-erkidegoekin hitzarmenak edo akordioak sinatuta.

Legearen funtsezko printzipioen artean, Europar Batasunak ⁶⁸ondorengo urteetarako planteatu helburuak lortzeko hartu duen konpromisoa dago. Hirugarren helburua lortu ahal izateko, eta hezkuntza-sistema kanpora begira ireki-

⁶⁷ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO 106. zk. 2006ko maiatzaren 4koa). 9-1 artikulua "Estatuak lurralde-lankidetzarako programak sustatuko ditu, izaera orokorreko hezkuntza-helburuak lortzeko, ikasleen oinarritzko eskumenak sendotzeko, ikasleek autonomia-erki-dego ezberdinen kultura- eta hizkuntza-aberastasunaren ezagutza eta estimua bultzatzeko eta lurraldeen arteko solidaritatearen eta ezberdintasunen ezberdintasunean lurralde-orekaren alde egiteko".

9-2 artikulua "Artikulu honetan aipatu programak hezkuntza administrazio eskudunen arteko hitzarmenen edo akordioen bidez egin ahal izango dira".

⁶⁸ Atariko, 21. paragrafoa: "Lehen honen hirugarren printzipioaren arabera, Europar Batasunak ondorengo urteetarako planteatutako hezkuntza-helburuei begira konpromisoa hartu du".

....

Atariko, 23. paragrafoa "Hirugarrenez, sistema horiek munduari begira irekitzeko helburua zehaztu da. Horretarako, lan-bizitzarekin, ikerketarekin eta orokorrean gizararekin dagoen lotura estua izan behar da. Horrez gain, espiritu ekintzailea garatu, atzerriko hizkuntzen ikasketa hobetu, mugikortasuna eta eskualdaketak areagotu eta Europako lankidetzaren sendotu behar da."

tzeko, atzerriko hizkuntzak ikasi beharko dira. Hori dela medio, ⁶⁹lege honen 157. artikulua aintzat hartuta, ikaskuntzen hobekuntzarako eta irakasleen laguntzarako baliabideei buruzkoa, hezkuntza administrazioek sendotze-programak ezartzeko eskumena izango dute, batik bat, atzerriko hizkuntzak ikas ditzaten.

2006ko ekainaren 20an, Hezkuntza Sektorereko Konferentziak atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan xedatutako baliabide ekonomikoak CAA artean banatzeko irizpideak onetsi zituen. Gainera, horrek eragin berezia izan du irakasleen prestakuntzaren gain.

Hitzarmena Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean ezarri da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan aipatu administrazio-eskumenei helduta, ⁷⁰Estatuaren eskumen eskusiboak jasoz, bai eta Nafarroako Foru Erregimenaren Berrintegrazio eta Hobekuntzari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan⁷¹ ezarritakoa kon-tuan hartuta ere.

2. Proposatutako hitzarmenaren deskripzioa

Proposatutako hitzarmenean, alde batetik, azalpen-zati bat, eta, bestetik, bederatzia klausuletako beste azalpen-zati bat ageri da.

Azalpenean, hitzarmena sinatzeko legitimazioa ematen duten tituluak adierazten dira.

Hezkuntza Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak, bere ordezkarien bitartez, gai horri buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehaztutakoa aintzat hartuta, hezkuntza-sistemaren xedeetako bat ikasleek atzerriko hizkuntzan komunikatzeko eskuratu behar duten gaitasuna da. Izatez, xede hori hezkuntzari buruzko abuztuaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren printzipio batean oinarri-

⁶⁹ 157. artikulua. Irakaskuntzen hobekuntzarako eta irakasleen laguntzarako baliabideak.

1. Hezkuntza Administrazioek lege hau aplikatzeko prozesuan hurrengo puntua bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak sustatu beharko dute:

...

d) Atzerriko hizkuntzak irakasteko sendotze-programak ezaritzea.

⁷⁰ Art. 149.1.30. "Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu edo homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko."

⁷¹ Art. 47. "Nafarroak eskumena izango du irakaskuntzaren arlo, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztiak arautu eta administratzeko, manu konstituzionaletan, ez horiek garatzen dituzten lege organikotan, ezta ikasketa nahiz lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko ezarritakolari kalterik egin gabe, ezta Estatuak duen goi-ikuskaritza baldintzak arautzeari dagokionez Estatuak dituen eskumenei ere."

tzen da, EBk hurrengo urteetarako planteatutako helburuak lortzeko konpromisoan, hain zuzen. Horrekin batera, hezkuntza-sistema kanpora begira irekitzea, eta, ondorenez, hizkuntzak ikastea ditugu.

Horretarako, lankidetzeta-hitzarmena sinatu beharko da eta horren edukia klausula egokietan jasotzen da. Horien esangura jarraian labur-labur deskribatzen da.

Lehenengo klausulan MECen eta Nafarroako Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzeta-mekanismoak ezarri dira, Nafarroako Foru Erkidegoaren jarduketan alde egiteko, atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko laguntza-programarekin bat etorritz.

Bigarren klausulan jarduketak deskribatzen dira. Horien oinarria irakasleek atzerriko hizkuntzak ikasteko prestakuntza da. Jarduketak burutzen dituen irakasle-taldeak adierazten dira. Izan ere, etapa horretan, atzerriko hizkuntzan espezializatuta dauden hezkuntzako irakasle jakin batzuk hizkuntza hori irakasten dute. Horiez gain, haur hezkuntzako irakasle espezialistek jarduerak atzerriko hizkuntzan irakasten dituzte; Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle ez-espezialistek hizkuntza-proiektu berritzaileetan parte hartzen dute. Jarduera definitzen da. Horrek 200 orduko iraupena izango du, eta, ikasitako hizkuntza hitz egiten den herrian gutxienez 2 asteko egonaldia igaro beharko da.

Hirugarren klausulan Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari nahiz Nafarroako Hezkuntza Sailari dagozkion konpromiso ekonomikoak zehazten dira. Lehenengoaren arabera, 204.936 euroko zenbatekoa ekarriko da 2006ko gastuaren aurrekontuaren kontura. Nafarroako Gobernuak 2007ko gastuen aurrekontuan zenbateko hori gaituko du eta 2008ko aurrekontuan 307.405 euroko zenbatekoa xedatu ahal izango du.

Laugarren klausularen arabera, fondoak bigarren klausulan adierazitako helburuetarako aplikatu beharko dira. Horien artean, irakasle prestatzaileen gastuak, irakasleen egonaldia eta bidaiak, ordezko irakasleen ordainketa eta prestakuntza-prozesuan ekarritako materialen finantzaketa jasotzen dira. Halaber, gutxienez MECek ekarritako %80 Lehen Hezkuntzako irakasleen prestakuntzarako aplikatuko da.

Bosgarren klausulan, Hezkuntza Ministerioak Foru Erkidegoari ordainketa-sistema instrumentalizatzen dio, bai eta azken horren ordainketa justifikatzeko erabiltzen duen modua ere.

Seigarren klausulan atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikasteko laguntza-programa kofinantzatzerazuzendutako aurrekontuaren aplikazioa jendaurrean ezagutarazteko betebeharra azaltzen da eta Foru Erkidegoak onetsitako kreditua behin betiko banatu beharko da. Gisa bertsuan, Estatuak programaren kofinantzaketa adierazi beharko da eta deialdiak ekarpena inprimatutako argitalpenetan edo

elektronikoetan egiteaz gain, publizitatea egiteko ekintzak, ebazpena eta jakinarazpenak aipatu beharko ditu.

Zazpigarren klausulan batzorde misto paritarioaren eraketa eta eginkizunak adierazten dira. Halaber, Batzordeak programen emaitzak jarraitu eta ebaluatu nahiz hitzarmena interpretatu eta betearazteko eginkizunak aipatzen dira.

Zortzigarren klausulan hitzarmenaren indarraldia 2008ko abenduaren 31 arte izango dela zehazten da. Hitzarmena berriztatu edo aldatu ahal izateko, esanbidezko agiria aurkeztu behar da. Ondorengo ekitaldietako kreditu berriak hitzarmenari erantsitako "addenda" agirian agerrarazi beharko dira. Alderdien akordioa eta hitzarmenaren salaketa hitzarmena azkentzeko arrazoiak dira.

Bederatzigarren klausularen ariora, bi alderdiak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren mende jarriko dira, hitzarmenaren betearazpenean eta ebazpenean sortzen diren auzi-arazoak konpontzeko xedearekin.

3. Bestelako oharrak

Hona hemen irizpenarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

1. Nominen eta gizarte-aseguruen ataleko buruaren txostena. Txosten horretan irakasle batzuk aldatzearen ondorioz sortzen den eguneroko kostu ekonomikoa adierazten da.
2. Araubide bereziko irakaskuntzaren ataleko buruaren txostena, Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuaren zuzendariak ontzat emanda. Txosten horren ariora, hitzarmenaren zirriborroan ezarri jarduketak urtero 60 irakaslek egin ahal izango dituzte. Kopuru horretatik 45 irakaslek atzerriko hizkuntzak irakatsiko dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan; 9 hitzartutako zentrokoak dira eta 6 Bigarren Irakaskuntza elebidunetako zentrokoak. Kopuru horiek justifikatzeko arrazoiak azaltzen dira. Gainera, 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetarako aurreikusi diren gastuen aurrekontua adierazten da, gastuaren kontzeptua zehaztuta.
3. Giza Baliabideen Zerbitzuaren zuzendariaren txostena. Txosten horretan, hitzarmenaren egitasmoko jarduketak burutu ditzaketen irakasleen ordezpina aplikatzeko baliabideak adierazten dira. Izan ere, interesgarriak dira egitasmoan ezarri prestakuntza-jarduketak eta horren aldeko informazioa ematen da.
4. Ikuskapen Teknikoko Zerbitzuaren eta Zerbitzuetako zuzendariaren txostena. Txosten hori kontuan hartuta, atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan egindako aurrerapena hezkuntza-sistema guztien oinarritzko helburuetako bat da. Horrez gain, irakasleen prestakuntza hobekuntza-ildo argia

da, ikasleek eskuratutako prestakuntza-mailetan zuzeneko eragina izanez. Azkenik, hitzarmen-egitasmoari lotutako irakasleen bi asteko askatasunak sistemari begira onura handiagoa ekartzen du. Izatez, antolakuntza-nahastea sor daiteke irakasle horiek ordeztuko ikastetxeetan. Horrenbestez, hitzarmen-egitasmoaren aldeko informazioa ematen da.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren ustez egokia da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Hezkuntza Sailak lankidetzak-hitzarmen hori sinatzea. Izan ere, horren betearazpenak atzerriko hizkuntzak irakatsi edo kasuan kasuko hezkuntza-mailetan atzerriko hizkuntzako jarduerak irakasten dituzten Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle espezialisten eta ez-espezialisten gaitasuna hobetzea ahalbidetuko du.

Beraz, eta 2005eko azaroaren 23an egindako bileran Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakitako eginkizunen eskuordetzearen arabera, Nafarroako Hezkuntza Sailaren eta Estatuaren Ministerioaren artean eskola-liburutegiak hobetzeko lankidetzak-hitzarmenaren aldeko sinadurari buruzko informazioa eman da.

Hau da zuri ematen zaizun irizpena.

Iruñea, 2006ko azaroaren 28a

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Nafarroako Eskola Kontseiluko presidentea

Fernando Barainca Lagos jn.
Ikastetxe pribatueta irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Elkarteko Federazioa, HERRIKOIA

José Luis Larrea Cenoz jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS

José Luis Sesma Sánchez jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

9/2006 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrera, 2006ko azaroaren 27an egindakoa, zerrendan aipatutakoak bertaratu ziren, eta horiek aho batez irizpen hau luzatu dute: "Nafarroako Hezkuntza Sailaren eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren artean bide-hezkuntzari buruz sinatutako hitzarmena".

1. Arau aurrekariak

Eskola Kontseiluaren mende jarritako hitzarmena maiatzaren 30eko 772/1997 Errege Dekretua aldatzen

duen urtarrilaren 27ko⁷² 62/2006 Errege Dekretuan xedatutakoarekin lotu da. Hain zuzen ere, ⁷³VIII. eranskinaren 56. artikulua⁷⁴ eta 15. atala aldatu dira, ezagutzak kontrolatzeko frogak egiteko modua, bederen. Ondorenez, gida-baimena eskuratzeko Espainiako arauketa Europako arauketa egokitu ditu. Arauketa horretan ez da jaso irakurketa ulergarriko zailtasunak dituzten pertsonen administrazio-baimen horiek ezin dituztela lortu.

⁷² Gidarien Erregelamendu Orokorra aldatzen duen urtarrilaren 27ko 62/2006 ERREGE DEKRETUA, maiatzaren 30eko 772/1997 Errege Dekretuak onetsita. (EAO, 28. zk., 2006ko otsailaren 2koa)

⁷³ Hamabosgarrena. Hona hemen VI. eranskinaren A) atalaren idazkera berria:

"A) 51. artikuluan eta 71. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarri ezagutzak kontrolatzeko frogak egiteko epea minutu bakoitzekoa izango da galdera bakoitzeko.

Kasu berezi batzuetan, behar bezala justifikatuta, epe hori handitu ahal izango da."

⁷⁴ "56. artikulua. Ezagutzak kontrolatzeko frogak egiteko modua.

1. Ezagutzak kontrolatzeko frogak izangaik ezagutza egokiak dituela bermatzeko moduan egingo dira. Oro har, horiek informatikako prozeduren bidez egingo dira.

Hautagaiak egokitzat jotako erantzuna aukeratu du galdera bakoitzaren proposamenen artean.

2. Hona hemen planteatutako galdera-kopurua:

a) Baimen guztietarako ezagutzak kontrolatzeko proban, mota edozein izanda, gutxienez 30 galdera eta gehienez 50 izango dira.

b) Ezagutza zehatzak kontrolatzeko proba bakoitzean, gutxienez 16 galdera eta gehienez 40 izango dira.

c) Gidabaimena eskuratzeko ezagutzak kontrolatzeko proban, gutxienez 16 galdera eta gehienez 40 izango dira."

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak 2006/2007 ikasturtean irakurketa ulergarriko zailtasunak dituzten pertsonen ezagutzak kontrolatzeko proba egiteko, azterketa egin aurretik, 180 orduko ikastaro batean parte hartu duela egiaztatu behar da, irakurtzeko zailtasunak dituzten helduen oinarrizko mailari buruz. Ikastaro hori helduen hezkuntzaren ikastetxe publikoetan (EBPA) eskaini ahal izango da eta bide-hezkuntzari buruzko ikastaroa barnean hartu behar du.

Atzerritarren kasuan, gaztelaniaz ez dakitenek, lauhileko batean, atzerritarrentzako gaztelaniako ikastaroa egin dutela egiaztatu behar du.

2. Proposatutako deskripzioa

Proposatutako hitzarmena, alde batetik, lau puntuko azalpenarekin, eta, bestetik, zortzi klausuletako azalpenarekin osatzen da.

Azalpenean adierazitakoaren arabera, bizi-kalitatea hobetzera bideratzen dira, baina horiek erantzukizunik gabe erabiltzen badira, banakako, gizarteko eta ingurumeneko bizi-kalitate horren gain eragina izan dezaketen ondoreak sor ditezke.

Hitzarmena sinatu nahi duten alderdiek bide-hezkuntzaren garrantzia azpimarratu dute, batik bat, ekintza positiboak prebenitu eta garatzeko, eta hezkuntzaren eremu horretan esfortzuak egin eta jarduketak koordinatzeko beharrezana nabarmendu da.

Horretarako, bide-hezkuntzaren inguruko lankidetzak hitzarmena sinatu behar da, eta horren edukia klausula egokietan jasotzen da. Horien esangura jarraian labur-labur azaldu da.

Lehenengo klausula bide-hezkuntzaren inguruko lankidetzak hitzarmenaren xede gisa definitu da, indarreko legerian ezarri helburuak lortu ahal izateko.

Bigarren klausulak Hezkuntza Sailak eskuratutako konpromisoak zerrendatzen ditu. Bide-hezkuntza Haur-hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian eta helduentzako Hezkuntzan jasoko da. Horrez gain, irakasleen prestakuntza-planen artean, gai horri buruzko prestakuntza-jarduerari, berrikuntza-egitasmoen sustapena eta aipatu gaiaren inguruko jarduerari osagarrien nahiz eskolaz kanpokoen diseinua eta aplikazioa eskainiko da.

Hirugarren klausulan Trafiko Zuzendaritza Nagusiak bere eskumenen eremuan eskuratutako konpromisoak zehazten dira. Halaber, profesionalen aholkularitza, lankidetzak eta material didaktikoak aipatzeaz gain, bide-hezkuntzari buruzko hezkuntza-berrikuntzaren proiektuei emandako laguntza, hezkuntza-jarduerari buruzko jarduerari osagarrien eta eskolaz kanpokoen sustapenari emandakoa eta

gai horri buruz egiteko azpiegitura interesgarrietan ikasleak eta irakasleak parte hartzeko laguntza adierazten dira.

Laugarren klausulan bide-hezkuntzari buruzko argitalpenak eta material didaktikoak batera eskualdatu, egin eta editatzeko konpromisoa jasotzen da. Konpromiso hori alderdien aukera ekonomikoen mende geratzen da. Ez dira zehaztu baliabide ekonomikoak.

Bosgarren klausulak jarraipeneko batzorde misto paritarioaren eraketa eta eginkizunak adierazten ditu. Batzordearen eginkizun hauek aipatzen dira: ekintzen programazioa, materialen eta esperientzien hedapenaren bultzada, konprometitutako jarduketan jarraipena eta ebaluazioa eta berrien sustapena.

Seigarren klausulan lau urte ezarri dira hitzarmenaren indarraldiari begira, akordioa sinatzen denetik zenbatuta. Luzapena automatikoa izango da, salbu eta indarraldia amaitu baino hilabete lehenago alderdietatik edozeinek akordioa salatzzen duenean.

Zazpigarren klausulan adierazienez, konpromiso berriak jaso ahal izateko, azken berrikuspenaren eranskina akordioari gehitu beharko zaio.

Zortzigarren klausularen ariora, bi alderdiak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren mende jarriko dira, hitzarmenean berori betearazi eta ebazteko planteatzen diren auzi-arazoak konpontzeko xedearekin.

3. Bestelako oharrak

Hona hemen irizpen-eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

1. Dibertsitate, Kultura Aritz eta Immigrazioarako Arreta Zerbitzuaren txostena; akordioaren aldeko informazioa ematen du eta hori sinatzeko iradokizuna ematen du
2. Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuaren zuzendariaren txostena; akordioaren aldeko informazioa ematen du eta hori sinatzeko iradokizuna ematen du.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren ustez egokia da Nafarroako Foru Erkidegoaren Hezkuntza Sailak eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiak lankidetzeta-hitzarmen hori sinatzea. Izan ere, horren betearazpenak ibilgailu motordunak gidatzeko administrazio-baimena eskuratzeko aurretiatzko baldintza gi-

sa ezagutza zehatz batzuk dituztela egiaztatu behar dituzten pertsonak nahitaez egin beharreko ikastaroen kalitatea hobetuko da. Era berean, hitzarmenaren be-
tearazpenak Nafarroako eskola-hezkuntzaren kalitatea hobetuko da.

Horrenbestez, eta 2005eko azaroaren 23an egindako Kontseiluaren Osoko Bil-
kuran erabakitako eginkizunen eskuordetzearen arabera, Nafarroako Hezkuntza
Sailaren eta BARRUKO Ministerioaren Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren artean bi-
de-hezkuntzari buruz sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren alde sinatzeko eraba-
kia hartu da”.

Hau da zuri ematen zaizun irizpena.

Iruñea, 2006ko azaroaren 28a

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA -Gurasoen Federazioko
ordezkariak-

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA, Gurasoen Elkarteko Federazioa, HERRIKOA

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA, Irakasleen ordezkaria.

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA, Gurasoen Elkarteko Federazioen ordezkaria

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE -Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria-

José Luis Larrea Cenoz jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

10/2006 Irizpena

2006ko abenduaren 20an egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin batera, aho batez hurrengo irizpena eman da: " Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Ikuskaritzaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duen irailaren 13ko 369/1999 Foru Dekretua garatu duen apirilaren 26ko 83/2005 Foru Agindua aldatu duen Foru Agindua".

1. Sarrera

Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuak⁷⁵ ikuskaritza-eginkizuna arautu zuen, batik bat, kalitatezko irakaskuntza erdiesteko parte hartzen duten faktore guztiak behar bezala eta harmonian jarduten dutela behar beste egiaztatu ahal izateko.

Dekretuaren arabera, Hezkuntza eta Kultura sailburuak hori betearazi eta garatzeko beharrezkoak diren xedepanak eman ahal ditzake. Hain zuzen ere, eskumen hori apirilaren 26ko 83/2005 Foru Aginduaren bidez egikaritu zen⁷⁶. Eskola kontseiluak 2/2005 irizpena luzatu zuen, osoko bilkuran esku hartu zuten bertaratuek 2005eko martxo-

⁷⁵ Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretua, Hezkuntza eta Kulturako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Ikuskaritzaren antolakuntza eta funtzionamendua arautu duena. Horrez gain, Hezkuntzako Ikuskatzaileen kidegoan lanpostuak eskuratu eta hornitzeko sistema ezarri da. (NAO 122. zk., 1999ko urriaren 1ekoa)

⁷⁶ Apirilaren 26ko 83/2005 Foru Agindua, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duen irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretua garatu duena. (NAO 78. zk., 2005eko uztailaren 1ekoa).

Rosa M^a Pérez Bardot and.
CSI-CSIF, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA, Gurasoen Federazioko ordezkariak

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria

José Luis Sesma Sánchez jn.
CCOO, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria

ko adierazleen sistema”ren ordez “Nafarroako hezkuntzaren adierazleen sistema” esaldia ezartzea.

3^a) 54. orrialdean jasotako testu hau ezabatzea: “Hezkuntza Administrazioari begira ezarritako Informazioaren eta Komunikazioaren azken bi prozesuak: Arauketaren azterketa eta hori aplikatzeko irizpideen homogeneizazioa. Sailak eraturako epaimahaietan eta lan-taldeetan parte hartzea.”

Sailak puntu horiek onartu zituen eta azkenean onetsitako aginduaren testuan jaso ziren.

Foru Agindua berori aplikatu den epealdian agerrarazi denez, ikastetxeetako jarduera arruntean eskolako elkarbizitzarekin eta barruko diziplina-ordenarekin zerikusia duten arazoak gero eta garrantzitsuagoak dira. Bi kasu horietan aldatetako antzeman ditzakegu, zorionez oso neurri txikian, baina garrantzi handia dute ikastetxeen funtzionamenduari begira, batez ere, oihartzun mediatiko handia eragiten dutelako.

Beste aldetik, erkidegoko hezkuntza-sistemaren ebaluazioarekin lotutako jarduerak aurrera eramateko, dela ikastetxeetako dela irakaslearenak, estatistikaren eta informatikako tratamendu egokien bidezko jarduketara koordinatuak antolatuta behar dira.

Horrez gain, ikastetxe publikoetako irakasleak hautatzeko prozeduran, bestelako prozesuen artean, hezkuntza administrazioak esku hartu behar du puntu ezberdin hauek jorratzeko: merituen lehiaketaren deialdia, irizpide objektiboaren ezarpena eta hautagaien meritua eta kasuan kasuko proiektuak baloratzeko prozedura. Gainera, hori guztia hautespen-batzordean jaso beharko da.⁷⁷

ren 2an aho batez onetsi zutena. Horren arioren, Foru Aginduaren zirriborroak “365/1999 Foru Dekretuaren garapen xehea” jasotzen zuen eta “balorazio positiboa”rekin kalifikatu zen. Hala ere, jarraian azaldutako oharra jaso dira:

1^a) 31. orrialdean, 2 eta 3. lerroen artean testu hau jasotzea: “Hezkuntzako Ikuskaritza Kidegoan sartzeko curriculum-alor guztiak, kasuan kasuko lehiaketaren bidez.”

2^a) 53. orrialdean jasotako testu hau ordeztzea: “NFEko hezkuntzaren kalitatez-

⁷⁷ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (EAO 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa). 135. artikulua. Hautespen-prozedura.

Hezkuntza Ikuskaritzak bete beharreko eginkizunen artean, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 151. artikuluan ezarritakoari helduta, hauek nabarmendu ditzakegu: ikastetxeen ikuskaritza eta kontrola, hezkuntza-sistemaren eta hori eratzen duten osagaien ebaluazioan parte hartzea, legeen eta erregelamenduen, eta ikastetxe legean jasotako printzipioen eta balioen betepena zaintzea, eta hezkuntza-erkidegoko sektore ezberdinei euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkuak, orientabidea eta informazioa ematea. Halaber, eskumenen zerrrenda ez da itxia, horiei atxiki daitezkeen zerrrenda irekia baizik.⁷⁸

Aipatu legearen bidez ezarritako zenbait printzipio azpimarra ditzakegu, hala nola, errespetua eta justizia, gatazken prebentziorako eta indarkeriaren aurkako hezkuntza ematea, eskubideen eta aukeren berdintasuna, irakasleen gizarte-aintzatespena eta horien zereginari laguntza ematea, eta hezkuntza-sistema osotasunean ebaluatzea.⁷⁹

1. Ikastetxe publikoetako irakasleak hautatzeko, hezkuntza administrazioek merituen lehiaketarako deialdia egingo dute eta hautagaiaren merituen nahiz aurkeztutako proiektuaren irizpide objektiboak eta horiek baloratzeko prozedura ezarriko dira.

2. Hautespena ikastetxean Batzordeak egingo du. Batzorde hori hezkuntza administrazioko eta kasuan kasuko ikastetxeko ordezkariak osatuko dute.

3. Hezkuntza administrazioek batzordekideen kopurua zehaztu behar dute. Hain zuzen ere, gutxienez ere batzordekideen herena Klaustrak aukeratutako irakasleak izango dira eta beste heren bat irakasleak ez diren Eskola Kontseiluko kideen artean aukeratuko dira.

4. Zuzendariaren hautespena, hautagaiak egiaztatutako ikasketa- eta lanbide-merituen balorazio objektiboak eta zuzendaritza-proiektuaren balorazioa kontuan hartuko duena, batzordekideen modu demokratikoan erabakiko dute, hezkuntza administrazioek ezarritako irizpideen arabera.

5. Hautespena egiteko, lehenbizi, ikastetxeko irakasle hautagaiak aintzat hartuko dira. Izan ere, horiek lehenespena izango dute. Ikastetxeko hautagairik ez dagoenean edo halakoak hautatu ez direnean, batzordeak beste ikastetxeetako hautagaiak baloratuko ditu.

⁷⁸ 151. artikulua. Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunak.

Hona hemen Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunak:

a) Ikuspuntu pedagogikoaren eta antolatzailearen ikuspuntutik ikastetxeen funtzionamendua eta horien gain eragina duten programak ikuskatu eta kontrolatzea.

...

c) Hezkuntza-sistemaren eta hori eratzen duten osagaien ebaluazioan parte hartzea.

d) Ikastetxeetako hezkuntza-sistemaren gain eragina duten legeen, erregelamenduen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betepena zaintzea.

e) Lege honetan jasotako printzipioen eta balioen betepena eta aplikazioa zaintzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzera zuzendutakoak barne.

f) Hezkuntza-erkidegoko sektore ezberdinei euren eskubideei eta betebeharrei buruzko aholkuak, orientabidea eta informazioa ematea.

...

h) Hezkuntza administrazioek atxikitako gainerako eginkizunak, betiere bere eskumenaren barruan.

⁷⁹ 1. artikulua. Printzipioak.

Espainiako hezkuntza-sisteman, Konstituzioko balioen arabera konfiguratuta eta bertan jasotako eskubideen eta askatasunen errespetua oinarri hartuta, ondorengo printzipioak aplikatu dira:

...

Printzipio eta helburu horiek errespetu handiarekin bete ahal izateko, beharrezkoa da apirilaren 26ko 83/2005 Foru Aginduan adierazitako ikuskaritzaren lanari buruzko arlo zehatzak egokitzea. Hori dela bide, ikuskaritza-funtzionamenduan antzemandako beharrian berriak modu egokian zehaztuko dira. Bada, egokitzat jo da beharrian berri horietara doitutako alor berriak ezartzea eta ikuskatzaileen arreta urria eskatzen duten bestelakoak ezabatzea. Bestalde, apirilaren 26ko 83/2005 Foru Aginduaren 19.6 artikuluari begira, aldaketa-proposamen horren eragina jaso duena, ez da inolako oharrik aipatu Kontseilua-ren 2/2005 irizpenean.

Hezkuntza Ikuskaritzaren antolakuntza hezkuntza administrazioei dagokie, Hezkuntzari buruzko Legearen 154. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta.⁸⁰

2. Foru Dekretuaren zirriborroaren deskripzioa

Arau-proiektuaren txostenean atarikoak eta bi artikulua jaso dira.

Atarikoan proposatutako aldaketa justifikatzen duten arrazoiak jaso dira.

1. artikuluan, apirilaren 26ko 83/2005 Foru Aginduaren 19.6 artikuluan egin nahi izan den aldaketa adierazten da.

2. artikuluan, hala denean onesten diren Foru Aginduaren helarazpenak jaso dira.

c) Askatasun pertsonalaren, erantzukizunaren, herritartasun demokratikoaren, solidaritatearen, tolerantziaren, berdintasunaren, errespetuaren eta justiziaren aldeko balioak igortzea eta praktikan jartzea, bai eta mota guztietako bazterkeriak gainditzeko lagungarriak diren guztiak ere.

...

k) Gatazken prebentziorako eta horiek modu baketsuan ebazteko hezkuntza ematea, bai eta bizi-tza pertsonalean, familian eta gizartean indarkeriaren aurka borrokatzeko hezkuntza ematea ere.

l) Eskubideen eta aukeren berdintasuna garatzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea.

m) Irakaskuntza-eginkizuna hezkuntzaren kalitatearen, irakasleen gizarite-aintzatespenaren eta bere zereginen jaso beharreko laguntzaren funtsezko faktore gisa ezartzea.

...

n) Hezkuntza-sistemaren ebaluazio orokorra, dela horren programazioari eta antolakuntzari dagokienez dela irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei eta emaitzei dagokienez.

⁸⁰ 154. artikulua. Hezkuntza Ikuskaritzaren antolakuntza.

1. Hezkuntza administrazioek kasuan kasuko lurralde-eremuetan Hezkuntza Ikuskaritza garatzeko ezarri organoen egitura eta funtzionamendua arautuko dute.

...

3. Bestelako gaiak

Irizpenaren mende jarritako Foru Aginduaren zirriborroarekin batera txostena eta lau oroitidazki aurkeztu dira.

Txostenean 83/2005 Foru Aginduaren 19.6 artikulua aldatzeko proposamena egiten da eta hori egiteko justifikazioa zehazten da.

Arauketa-oroitidazkian aldaketa-proposamena aurrera eramateko arauketa-erreferentziak jaso dira.

Antolakuntza-oroitidazkian ezarritakoaren arabera, proposatutako Foru Aginduaren zirriborroaren xedea ikuskaritzaren funtzionamenduari laguntza teknikoa eskaintzen dien arlo zehatzen antolakuntza-egitura aldatzea da. Horrenbestez, arlo horiek Nafarroako hezkuntza-sistemaren funtzionamendu arruntean sortutako beharrian berrietara egokitu ahal izango dira.

Oroitidazki ekonomikoan adierazitakoa kontuan hartuta, proposatutako aldaketak ez dakar ikuskatzaileek gaur egun sortutako osagaien gehikuntza ekonomikoa. Izan ere, Foru Aginduan ezarritako koordinatzaileen kopurua ez da aldatu eta arlo zehatz batzuen izena bakarrik aldatu nahi da.

Justifikazio-oroitidazkian gai ezberdinak landu dira: eskolako elkarbizitza, erreklamazioen eta salaketen kasuetan izan beharreko esku-hartzea, irakasleak ebaluatu eta hautatzeko zereginak, betiere Hezkuntzaren Ikuskaritza eta Zerbitzuen Zerbitzuaren arreta beharrezkoa denean aipatu aldaketaren proposamena justifikatzeko.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez, apirilaren 26ko 83/2005 Foru Aginduari begira proposatutako aldaketak egokiak eta behar beste justifikatu dira. Hori dela medio, foru-aginduaren zirriborroaren aldeko irizpena eman da.

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 21ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

11/2006 Irizpena

Javier Marcotegui Ros jn.

Nafarroako Eskola Kontseiluburua

Fernando Barainca Lagos jn.

FSIE-SEPNA ikastetxe pribatueta-
ko irakasleen ordezkaria.

José Luis Larrea Cenoz jn.

STEE-EILAS ikastetxe publikoeta-
ko irakasleen ordezkaria

José Luis Sesma Sánchez jn.

CCOO ikastetxe publikoeta-
ko irakasleen ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.

HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Antonio Iriarte Moncayola jn.

Idazkaria

2006ko abenduaren 20an egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean, alboko zerrendan aipatu pertsonen parte-hartzearekin, aho batez ondorengo irizpena eman da: "MECEk eta Nafarroako Gobernuak 2007. urtean lurralde-lankidetzarako programak garatzeko sinatu duten lankidetzaz hitzarmena".

1. Arau-aurrekariak

Eskola Kontseiluaren arabera sinatutako hitzarmena Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren 9. artikuluko 1 eta 2. ataletan⁸¹ ezarritakoari helduta arautzen da. Artikulu horren ariora, Estatuak lurralde-lankidetzarako programak sustatu beharko ditu, beste helburu batzuen artean, hezkuntza-helburu orokorrak erdietsi eta ikasleen oinarrizko eskumenak sendotzeko, autonomia-erkidegoekin sinatutako hitzarmenen edo akordioen bidez.

Lege-agindu horretan adierazitakoa kontuan hartuta, Espainiako Gobernuaren Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta Nafarroako Foru Erkidegoak orain dela urteak programa ezberdinetan batera lanean jarduten dutela azpimarratu behar da. Halaber, 2007. urtean, horiek batera programa hauek jorratu dituzte: "Ibilbide bidaiariak", "Eskola bidaiariak", "Zientzia-ibilbideak" eta "Hizkuntzan murgiltzea". Hitzarmen horretan, administrazio bien arteko 2007ko lankidetzaz nabarmentzen da, aipatu programak garatu ahal izateko.

Hitzarmen horiek Kontseiluak ezagutzeaz gain, horren aldeko irizpena eman zuten, 1/2005 eta 3/2005 irizpenei helduta.

⁸¹ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa). 9-1. art.: "Estatuak lurralde-lankidetzarako egitarauak sustatuko ditu, ondoko xede hauek jadesle aldera: hezkuntza arloko helburu orokorrak iristea, ikasleen oinarrizko trebetasunak sendotzea, ikasleek Autonomia Komunitate guztien kultura- eta hizkuntza-aberastasuna ezagutu eta estima dezaten laguntzea eta lurraldeen arteko elkartzasuna eta ezberdintasunak konpentsatuz lurralde-oreka sustatzea.

9-2. art.: "Artikulu honetan aipatzen diren egitarauak hezkuntza arloan eskumenak dituzten administrazioen arteko hitzarmen edo akordioen bidez burutuko dira".

Hitzarmena Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean ezarri da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikuluan aipatu administrazio-eskumenei (Estatuaren eskumen eskusiboak jasotzen dira⁸²) eta Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 LOren 47. artikuluari helduta⁸³.

2. Proposatutako hitzarmenaren deskripzioa

Proposatutako hitzarmenean azalpen-zatia eta sei klausuletako xedapen-zatia ageri dira.

Azalpen-zatian, hitzarmenaren sinadura eta pertsegitutako xedea legitimatzen dituzten tituluak adierazten dira.

Hezkuntza Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak, euren ordezkarien bidez, eta gai horri buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOn aipatutakoa aintzat hartuta, Nafarroako Gobernuak eta Hezkuntza Ministerioak zenbait urtetatik gaur arte egin duten lana azpimarratu dute. Hori dela bide, aipatu programak garatu ahal izateko, 2007. urtean bi administrazioen arteko lankidetza ezarri behar da.

Horretarako, lankidetza-hitzarmenaren sinadura hitzartu dute. Hain zuzen ere, horren edukia klausula egokietan jaso da eta horien esangura jarraian labur-labur azaldu da.

Lehenengo klausulan, hitzarmenaren xede gisa MECen eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren arteko lankidetza-mekanismoen ezarpena definitu da, bereziki, 2007. urtean "Ibilbide bidaiariak", "Eskola bidaiariak", "Zientzia-ibilbideak" eta "Hizkuntzan murgiltzea" lurralde-lankidetzarako programak aurrera eramateko.

Bigarren klausulan, alderdi bakoitzak eskuratutako konpromisoak deskribatzen dira. Ministerioak norgehiagoka-araubidepean aipatu programetan esku hartzeko diru-laguntzak jasotzeko deialdia antolatzeko konpromisoa hartu du. Horrez gain, antolaketa nahiz garraioa kontratatzeko konpromisoa hartu du, betiere hori programen garapenerako beharrezkoa denean, bai eta programa guz-

⁸² 149.1.30 art. "Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarriko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko."

⁸³ 47. art. "Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketatitulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere".

tietako parte-hartzaileen erantzukizun zibila kontratatzekoa ere. Nafarroako Gobernuak programak antolatu, eta, deialdian ezarritako irizpideen arabera, eskolako talde parte-hartzaileak hautatuko ditu. Talde bakoitzak ikasleen eta aprobetxamendu pedagogikoaren nahiz didaktikoaren irakasle arduradunen laguntza izango dute.

Programa bakoitzaren edukian, ikasle parte-hartzaileen kopurua eta beharrezkoak diren finantza-baliabideak adierazten dira. Jarraian, horien aipamen laburra egiten da:

Literatura-ibilbideak:

- Edukia: 2005/12/27an izenpetutako hitzarmenean adierazitakoa
- Ikasleak eta irakasleak: 20 eta 24 ikasle arteko 8 talde. Horietako lau talde Foru Erkidegokoak dira eta beste lau beste erkidegoetakoak, kasuan-kasuan Foru Erkidegoko ibilbideetan parte hartuko duten bi irakasleen laguntzarekin batera.
- MECek jadanik igorritako finantza-baliabideak, 2006ko aurrekontuaren kontura: 23.174,40 euro. Horrez gain, prestaketa eta toki batetik bestera lekualdatzeko adierazi ez diren gainerakoak.
- Nafarroako Gobernuaren finantza-baliabideak: 22.100,24 euro. Gainera, irakasleak ordezteko adierazi ez diren beharrezkoak.

Ibilbide bidaiariak:

- Edukia: 1991/01/15ean izenpetutako hitzarmenean adierazitakoa
- Ikasleak eta irakasleak: 12 eta 15 ikasleen arteko 41 talde. Horietako 11 talde Foru Erkidegokoak dira eta 30 talde beste erkidegoetakoak, kasuan-kasuan irakasle baten laguntzarekin batera.
- MECen finantza-baliabideak: 32.204,10 euro, ostatu-gastuei, elikadura-gastuei eta gastu ezberdinei aurre egiteko. Horrez gain, prestaketa eta toki batetik bestera lekualdatzeko adierazi ez diren gainerakoak.
- Nafarroako Gobernuaren finantza-baliabideak: 23.424,58 euro, Nafarroako ibilbideetan parte hartzen duten ikasleen eta irakasleen ostatuari, elikadurari, jarduerari eta koordinazioari begira.

Zientzia-ibilbideak:

- Edukia: Programa Batxilergoko eta Nafarroako ikastetxe publikoetako erdi mailako prestakuntza-zikloko ikasleei zuzentzen da. Xedea autonomia-erki-

degoek antolatutako “Zientzia-ibilbideak” programen ibilbideak egitea da. Nafarroako ikasleek beste autonomia-erkidegoetako ibilbideetan parte hartzen dute eta ikasleek Nafarroako ibilbideetan parte hartzen dute. Xedea kasuan kasuko autonomia-erkidegoa ezagutzea da. Bi unetan ospatuko da: bata udaberrian, eta, bestea, udazkenean.

- Alderdi bakoitzak ostatua, elikadura, jardueren garapena, jardueren koordinazioa eta ikuskapena, ibilbideen zehaztapena eta daten ezarpena finantzatzeko beharrezkoak diren konpromisoak hartzen ditu. Horrez gain, Nafarroak erkidego horri dagokion “zientzia-ibilbidea” diseinatzeko konpromisoa hartu du. Izatez, programan koordinatzaile bat eta langile laguntzaileak eskuragarri egongo dira, batik bat, logistikako arazoak konpontzeko, garraioari buruzkoak barne, eta programan parte hartuko duten ikasle nafarrak aukeratu dira.
- Ikasleak eta irakasleak: ikasleen 12 talde. Horietako sei talde Foru Erkidegoak dira eta beste sei beste erkidegoetakoak dira, kasuan-kasuan irakasle baten laguntzarekin batera.
- MECen finantza-baliabideak: 36.000 euro, ostatu-gastuak, elikadura-gastuak eta zati batean igorri diren gastu ezberdinak ordaintzeko. Gainera, prestaketa eta toki batetik bestera lekualdatzeko adierazi ez diren beharrezkoak.
- Nafarroako Gobernuaren finantza-baliabideak: 38.757 euro, Nafarroako ibilbideetan parte hartzen duten ikasleen eta irakasleen ostatua, elikadura, jarduerak eta koordinazioa ordaintzeko. Horrez gain, irakasleak ordeztuko adierazi ez diren beharrezkoak.

Hizkuntzan murgiltzea:

- Edukia: barnetegi-araubidepeko elkarbizitza Erkidegotik kanpo kokatutako ikastetxeetan, ingelesaren hitz-jarioa hobetzeko jarduerak antolatu ahal izateko.
- Alderdi bakoitzak konpromiso egokiak hartzen ditu. Nafarroako Gobernuak ikasleak aukeratzeaz gain, aukeratutako ikasleek parte-hartzeko, talde bakoitza 3.500 euroekin finantzatu da eta barnetegira garraiatuko dira. Hezkuntza Ministerioak mailak antolatuko ditu 26 ikasleez osatutako taldeekin, eta programaren finantzaketa gehienez ere 5.500 euroekin osatuko da.
- Ikasle parte-hartzaileak: lehen hezkuntzako seigarren mailako 4 talde, Nafarroako ikastetxe publikoetan matrikulatuta.

Hirugarren klausulan, Nafarroako Gobernuak hitzarmena betearaztearen ondorioz igorpenak noiz eta nola egin diren azaltzen dituzten egiaztapenak jaso dira.

Laugarren klausulan, jarraipenerako batzorde misto paritarioaren eraketa eta eginkizunak zehaztu dira. Batzordearen eginkizunen artean, hitzarmena ikuspuntu pedagogikotik, antolatzailetik eta administratibotik ebaluatuko da.

Bosgarren klausulan, bi alderdiek programetan egindako hedapenean parte hartzeko betebeharra adierazten da, hain justu ere, Nafarroako Gobernuak edozein motatako bide erabilia egin dituen argitalpenetan eta jakinarazpenetan.

Seigarren klausulan, hitzarmenaren indarraldia zehazten da, 2007ko abenduaren 31 arte, hain zuzen. Hala ere, ondoz ondoko urteetako luzapenak egin daitezke, baldin eta indarraldia bukatu denetik gutxienez hilabeteko aurrerapenarekin berrikuspena edo salaketa proposatu ez bada. Luzapen horretan, erreferentzia-urteari begira alderdi bakoitzak egin beharreko ekarpenak zehazten dira.

3. Bestelako oharrak

Irizpen-eskabidearekin batera Araubide Bereziko Irakaskuntza Saileko buruaren eta Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariaren txostena aurkeztu behar da. Horren arabera, aurkeztutako txostena justifikatzen da, eta, programa bakoitzaren edukiak, alderdien konpromisoak, ikasle eta irakasle partehartzaileak eta ukitutako baliabide ekonomikoak jasotzen dira.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren ustez, beharrezkoa da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Sailaren eta Nafarroako Foru Erkidegoko Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzaren, adierazitako programak garatu ahal izateko. Izan ere, programa batzuen kasuan, Batzordeak jadanik horien aldeko irizpena eman du.

Halaber, horien bidez eskuratu beharreko helburuak ere egokitzen joan dira. Hain zuzen ere, programak garatzen dituzten ikasleen prestakuntza areagotuko dute.

Horrenbestez, eta Kontseiluaren osoko bilkurak 2005eko azaroaren 23an egindako bileran adostutako eginkizunen eskuordetzarekin batera, Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren Hezkuntza Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzearen aldeko irizpena eman da, 2007. urtean lurralde-lankidetzarako programak garatu daitezkeen.

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 21ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetako irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitateko ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva
jn.
CONCAPA Gurasoen Elkarreteako
Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

1/2007 Irizpena

2007ko urtarrilaren 30n egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 18 botoekin, aurkako 0 botorekin eta 3 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "ATLANTE proiektuarekin zerikusia duten agiri ezberdinak".

1. Aurrekariak

Hezkuntza Sailak, hezkuntza-gaien inguruan Hobekuntzari⁸⁴ buruzko Legearen 47. artikulua araberan Nafarroari dagozkion eskumenen ondorioz, urriaren 8ko 279/2004 Foru Agindua onetsi zuen, Haur eta Lehen Hezkuntzako oinarriko eskumenak hobetzeko xedearekin. Foru Agindu hori urtarrilaren 20ko 11/2005 Ebazpenaren, apirilaren 12ko 293/2005 Ebazpenaren, ekainaren 21eko 566/2005 Ebazpenaren eta irailaren 13ko 811 Ebazpenaren bidez garatu zen. Xedapen horien guztien testua Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Nagusiak azaroaren 4ko⁸⁵ 12/1997 Foru

⁸⁴ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

⁸⁵ Azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legea, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzaren Goi Batzardea eta Tokiko Kontseiluak arautu dituena. (NAO, 1997ko azaroaren 12koa). 7. artikulua

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Francisco Manuel Osorio Martín jn.
Toki-erakundearen ordezkaria

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA-Gurasoen Federazioko ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundearen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

Legearen 7.3 artikuluan ezarritako txostena eskatzeko agiria da.

2. Txostenean jasotako testuaren deskripzioa

Urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduan Atlante proiektua ezarri da. Atariko, bederatzi puntuko azalpen-zatia eta eranskina ageri dira.

Atarikoan ezarritakoaren arabera, Hezkuntza Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak Foru Agindua onestearen aldeko irizpena eman du. Hezkuntza Sailak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle nafarrek kalitateko irakaskuntza jaso, oinarritzko eskumenak eskuratu eta sendotu eta arlo guztietako ezagutzak ikasi eta nortasuna garatzeko proiektua egin du. Gainera, Sailaren xedea, aurreko ikasturteetan garatutako bidea kontuan izanda, haur guztiek hizkuntzaren eta matematikaren oinarritzko eskumenak nahiz ordena eta erantzukizuna oinarri duten jokabidearen ohiturak modu egokian garatzea da. Horretarako, Foru Aginduan Atlante proiektua abian jarri da. Horren bidez, egoera ahuleko ikasleen errendimendu baxuak areagotzeaz gain, gaitasun handiena dutenen ahalmen intelektuala erabat garatu nahi da, guztiek, euren gaitasunen arabera, bikaintasun egoera lortu dezaten.

Horrez gain, etaparen helburu guztiak gaindituta DBHra sustatzen diren ikasleen kopurua gehitu nahi da.

3. Hezkuntza eta Kultura sailburuak Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzaren Goi Batzordean Nafarroako Foru Erkidegoko unibertsitatekoa ez den irakaskuntzaren programazio orokorrarekin zerkusia duten bestelako gaiak aztertu ahal izango dira

Proiektuan 10 arlo kritiko zehaztu dira, hobekuntzarako 10 ildo aplikatzeko beharrianarekin. Ildo beretik, oinarrizko eskumenen ikaskuntza hobetzeko 50 helburu proposatu dira.

Sailaren konpromisoa adierazi da, beharrezkoak diren ekintzekin, koordinazio-mekanismo zehatzekin, hain zuzen.

1. puntua: arlo kritikoak, hobekuntza-ildoak, berrogeita hamar helburuak eta proiektuan aplikatu beharreko egutegia ezarri dira. Hori eranskinera igorri da.
2. puntua: proiektua betearazteko beharrezkoak diren neurrien garapena eta sarrerak nahiz giza baliabideak eta baliabide materialak adierazi dira.
3. puntua: agindua ukitutako itunpeko ikastetxe guztietan aplikatuko da.
4. puntua: proiektuaren neurriek ukitzen dituzten ikasturteak aipatzen dira.
5. puntua: Ikuskaritza-arloak proiektuaren neurriak ikuskatu eta ebaluatzeko erantzukizuna du.
6. puntua: jarraipen-batzordearen sorrera azaltzen da.
7. puntua: foru-aginduaren edukia aipatu organoei helarazi beharko zaie.
8. puntua: Zuzendaritza Nagusiak Foru Agindua garatzeko baimena du.
9. puntua: Foru Agindua indarrean jartzeko data ezarri da.

Eranskinetan lehenengo puntuan adierazitakoa azaltzen da eta proiektuaren helburu orokorrak zehazten dira.

Hona hemen arloak:

1. Ikasleen oinarrizko eskumenak.
2. Aukera-berdintasuna
3. Ebaluazioaren kultura
4. Irakasleak
5. Ikastetxeen autonomia
6. Ikasketa-emaitzen hobekuntza
7. Koordinazio didaktikoa
8. Ikaskuntza sendotu eta horri laguntza ematea
9. Hezkuntza-balioak
10. Familien parte-hartzea

Arlo bakoitzean hobekuntza-ildo bat edo arrakastarako faktore kritiko bat garatuko da. Arlo bakoitzean zenbait helburu estrategiko definitu dira, gehienez ere, 50 helburu estrategiko azalduz.

Apirilaren 12ko 293/2005 Ebazpenean, Atlante proiektua garatzeko helburuarekin, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako 2005-2007 ikasturteetarako hobekuntza-plana ezarri da. Atarikoan, 16 puntuko azalpen-zatia eta eranskina ageri dira.

Atarikoan ezarritakoaren aiora, ebazpenaren ondorioz ezarritako hobekuntza-planaren bidez Atlante proiektua ezarriko da, Sailak lehenespenez adierazitako hobekuntza-arloak aintzat hartuta. Azalpen-zatiaren 1. puntuan lehenespeneko bost arlo gisa zehaztutako arrazoiak justifikatu dira.

1. puntua: Hizkuntza Eskumena, Matematiketako Eskumena, Barruko Ebaluazioa, hezkuntza-balioak eta familiei eman beharreko informazioa lehenespeneko bost arloak izango dira. Arlo horiekin lotuta 2005/2006 ikasturterako eta hurrengorako hobekuntza-plana egingo da.

2. puntua: eranskinean xedatutakoa plana egiteko igorriko da.

3. puntua: planaren neurriak hezkuntza-proiektuan, urteko programazioan, tutoretza-ekintzaren planean eta programazio didaktikoetan jasoko dira. Ikastetxearen azken oroitidazkian erregistratutako plana aplikatzeko emaitzak eta horren ebaluazioa jasoko dira.

4. puntua: ikastetxeei autonomia emango zaie bestelako neurriak jaso ahal izateko, planean ezarritako neurriez gain.

5. puntua: Sailak aurreko bi puntuetan xedatutakoa betetzeko agindua emanango du.

6. puntua: Sailak ikastetxeei eskainitako orientabiderako materiala argitaratu beharko du, plana egin eta garatu ahal izateko.

7. puntua: Sailak irakasleen prestakuntza-planean planarekin eta Atlante proiektuarekin zerikusia duten prestakuntza jarduerak jasoko ditu.

8. puntua: Sailak plana garatu beharko du, HBBko ikasleei dagokienez.

9. puntua: Sailak ikastetxeen hobekuntza-planak jarraitu eta ebaluatzeko bi urtetik behin plana egin behar du.

10. puntua: Sailak Lehen Hezkuntzako 2, 4 eta 6. mailako kanpoko ebaluazioa egin behar du, hizkuntzaren eta matematikaren eskumenei begira.

11. puntua: Sailak 6 eta 7. puntuetan aipatutako jardunen jarraipen-txostena eta ebaluazio-oroitidazkia egin behar du.

12. puntua: Sailak 8. puntuan aipatutako jardunen jarraipen-txostena eta ebaluazio-oroitidazkia egin behar du.

13. puntua: Sailak 9 eta 10. puntuetan aipatutako jardunen jarraipen-txostena eta ebaluazio-oroitidazkia egin behar du.

14. puntua: foru-aginduren edukia aipatu organoei helarazi beharko zaie.

15. puntua: ebazpenaren argitalpena agintzen da.

16. puntua: ebazpenaren aurkako gorako errekurtsioa aurkezteko ahala aitortzen da.

Arlo bakoitzari begira jasotako eranskinean, pertsegitutako helburuak adierazten dira. Helburu bakoitzaren jardunak, arduradunak, prozedurak, errekurtsioak, jarduerak eta ebaluazioa zehazten dira.

Urtarrilaren 20ko 11/2005 Ebazpenean, gaztelaniaren, euskararen (D eta A ereduak), hurrenez hurren, eta matematikaren errendimendu-estandarrak jaso dira, Nafarroako Lehen Hezkuntzaren ziklo ezberdinei dagokienez.

Ekainaren 21eko 566/2005 Ebazpenean, Haur eta Lehen Hezkuntzako Inglesaren errendimendu-estandarrak ezarri dira.

Irailaren 13ko 811/2005 Ebazpenean, gaztelaniaren, euskararen (D eredu), euskararen (A eredu) eta matematikaren errendimendu-estandarrak ezarri dira, betiere Haur Hezkuntzaren etapari begira.

Hiru horiek egitura bera dute, hain zuzen ere, atarikoak, hiru puntuko ebazpen-zatia eta eranskina.

Aipatu lehenengo ebazpenaren atarikoan, estandar kontzeptua definitzen da. Beste bietan estandarretan aplikatu beharreko Atlante proiektuaren helburu estrategikoak aipatzen dira.

Azalpen-zatian, 1. puntuan aipatu estandarrak jasotzen dituen eranskina onetsi da.

2. puntuan ebazpenaren argitalpena agintzen da.

3. puntuan adierazitakoa kontuan hartuta, ebazpenaren edukia aipatu organoei helarazi beharko zaie.

Kasuan kasuko eranskinetan lehenengo puntu egokian aipatutakoa azaltzen da.

3. Bestelako oharrak

Kontseiluaren txostenaren mende ezarritako agiriekin batera Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuaren txostena aurkeztu da. Txosten horren arabera, Atlante proiektua eta hori garatu dituen ebazpenak ezarri dituen Foru Aginduari buruzko txostena eskatzeko beharrezana ageri da.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ustez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle nafarren hizkuntzaren eta matematikaren oinarrizko eskumenen eta euren gai-

tasunen arabera garapen pertsonala eta laneko garapena ahalbidetzen duten jarrerara-ohituren hobekuntza kalitatezko hezkuntza-sistemaren xede ukaezina da.

Hori dela bide, aginduz egin beharreko ebaluazioen emaitzei eta eskuratutako emaitzen balioari kalterik egin gabe, Kontseiluaren ustez, Hezkuntza Sailak laguntza egokia eman dio Atlante proiektuari eta ikastetxeek ere modu egokian garatu dute. Izan ere, proiektu horrekin lotutako garapen-plan egokiak, hezkuntza-proiektuetan, urteko programazioetan, ikastetxeen tutoretza-ekintzaren planetan eta sailen programazio didaktikoetan jaso direnak, kalitatezko xede horiek eskuratzeko tresna ezin hobea izan daitezke.

Horrenbestez, Kontseiluak urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduan eta apirilaren 12ko 293/2005 Ebazpenean, urtarrilaren 20ko 11/2005 Ebazpenean, ekainaren 21eko 566/2005 Ebazpenean eta irailaren 13ko 811/2005 Ebazpenean ezarritako Atlante Proiektuaren aldeko irizpena eman du.

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 1ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA-Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetako irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva
jn.
CONCAPA Gurasoen Elkarreetako
Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe
pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

2/2007 Irizpena

2007ko urtarrilaren 30ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oso-ko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 19 botoekin, aurkako 0 botoekin eta 3 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: “2006/2010 epealdian Nafarroako Hezkuntza-sistema Garatzeko Plan Gidaria”.

1. Aurrekariak

2005eko urriaren 6an egindako Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkuran, Nafarroako Gobernuari “urtebeteko epean, eta Hezkuntza Sailaren bidez, “2006/2010 epealdian Nafarroako Hezkuntza-sistema garatzeko plan gidaria egitea” eskatu zai⁸⁶. Plan horretan puntu hauek jorratu behar dira:

1. Nafarroako hezkuntza-sistema hobetzeko helburuak ezartzea.
2. Eskolako ikasleek modalitate ezberdinetan izan duten aurrerapena kontuan hartzea.
3. Beharrezkoak diren baliabideak kontuan hartzea.
4. Jarduketan egutegia.
5. Ebaluazio-adierazleak.

Hezkuntza Sailak Parlamentuak egindako eskariari erantzun dio eta plan gidari egokia egin du. Pasa den urriaren 6an Nafarroako Gobernuari ho-

⁸⁶ Foru Parlamentuaren osoko bilkuraren 55. aldizkaria. NAO n argitaratutako ebazpena, 103. zk., 2005eko urriaren 14koa.

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Francisco Manuel Osorio Martín jn.
Toki-erakundearen ordezkaria

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA-Gurasoen Federazioko ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundearen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

ratutakoei edo funtzionamenduan jasotako okerrei egokitutakoak diseinatzeko xedearekin.

Nafarroako hezkuntza-sistema, egonkortasun-baldintza horiek aplikatu gabe garatu bada ere, modu nabarian aurreratu da eta abantaila handiko egoeran kokatu da, EBK 2010erako definitutako helburu estrategikoak lortzeko.

rren berri eman zion, eta urriaren 31n luzatutako ofizioaren bitartez, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak hori Eskola Kontseiluari igorri dio, txostena ebaluatzeko Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzaren Goi Batza eta toki-kontseiluak arautu duten azaroaren 4ko 12/1997 Legearen 7-3 artikuluan ezarritakoari helduta.

Hezkuntza-plangintza Hezkuntza Sailaren ohiko praktika da. Praktika horren bidez arloko hainbat plan egin ahal izan dira, Nafarroako hezkuntza-sistemaren unitatea argi eta garbi azaldu ahal izateko. Bestalde, gizarte-dinamismoa dela eta, hezkuntza-eskari berriak sortu dira, eta horiek aztertu, eta, hala denean, kontuan hartu behar dira. ELGAren txostenean adierazita-koaren arabera, "Hezkuntzaren egoera 2006"⁸⁷ deritzo.

Hala ere, hezkuntza-sistemetan aurrerapen gehiago eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da horietan epe luzean administrazio- eta politika-egonkortasunari eustea, sistemaren sendotasunak eta ahultasunak antzematea ahalbidetzen duten mekanismo egonkorak diseinatu eta aplikatu, pertsegitutako emaitzak lortzeko ekintzei eutsi, eta, hala denean, sisteman azaleratutakoak diseinatuzkoak

⁸⁷ Education at a Glance: OCDE Indicators – 2006 Edition Regards sur l'éducation 2006. Les indicateurs de L'OCDE.

2. Plan gidariaren edukia

Txostenean jasotzeko aurkeztu den plan hori bederatzi ataletan egituratzen da; lehenengoa aurkezpena izango da, eta 7 eranskin ditu. Hona hemen atalak:

Aurkezpena;

1. Hezkuntza-plangintzaren ikuspuntua: Europa eta Espainia;
2. Hezkuntza-helburuak: Europa eta Espainia;
3. Nafarroako egoera Europako eta Espainiako hezkuntza-helburuei dagokienez;
4. Nafarroako hezkuntza-sistema hobetzeko helburuak;
5. Herritarren aurrerapena kontuan hartzea;
6. Beharrezkoak diren baliabideak kontuan hartzea;
7. Jarduketa-planak eta egutegia;
8. Sistemaren ebaluazioa.
9. Atal horietako bakoitzaren edukiak jarraian labor-labor azaldu dira.

Aurkezpenean, plan hori aurrera eramateko Parlamentuak egindako eskaria jorratzen da. Horrez gain, sailak lehenaldian egin dituen arloko planak ere barnean hartzeko beharrezkoak adierazten da, bai eta Sailak zuzendutako helburuak ere. Hori guztia kontuan hartuta, hezkuntza-sistema, nazio eta nazioarteko mailan, 2010erako definitutako Espainiako eta Europako hezkuntza-helburuak lortzeko "egoera bikainean" dago.

Hezkuntza-plangintzaren ikuspuntua: Europa eta Espainia. Erreferentzia gisa 2000ko Lisboako Europar Kontseiluaren adierazpena hartu da. Izan ere, EBk erdietsi beharreko helburu estrategikoak jasotzen dira⁸⁸. Kontseilu horretan izandako ondorioak 2003ko martxoan, 2005eko martxoan eta berriro ere abian jarritako 2005eko Lisboako Estrategian berretsi dira⁸⁹.

Agiri horiek eta erdietsi nahi diren helburuak direla medio, hezkuntza-sistema ezagutzaren gizartera eta lanaren maila nahiz kalitatea hobetzeko beharrezkoak egokitu behar da. Horretarako, herritarrek oinarritzko trebakuntzak eskuratu behar dituzte, bizitza osoan egindako ikaskuntzaz baliatuta. Ezagutzaren gizarateak herritarrei eremu pertsonal, publiko eta lan-eremuko eskumen zehatzak eskatzen dizkie. Izan ere, gizarateko kohesioa handiagoa izateko, he-

⁸⁸ 2000ko martxoaren 23 eta 24ko Lisboako Europako Kontseiluaren Lehendakariaren ondorioak. Enpleguaren, aldaketa ekonomikoaren eta gizarate-kohesioari buruz hurrengo hamarkadarako helburu estrategikoa adierazi da: "munduko ezagutza lehiakorrena eta dinamikoena oinarri duen ekonomia bihurtzea, lan gehiago eta hoberekin eskaini eta gizarate-kohesio handiagoa duen hazkunde ekonomiko iraunkorra izateko ahalmenearekin".

⁸⁹ 7619/01 CONCL 1

rritarrek informazioa jasotzeaz gain, gizarte-gaietan esku hartu eta parte hartu behar dute. Ekonomiak nazioarte mailan hedatzeko, langileek komunikazioen teknologia berriak ezagutu eta ikasi behar dituzte, bai eta etengabe egokitzeko gaitasuna izan ere.

Lisboako Estrategiari buruzko Goi taldeak 2004ko azaroan adierazi zuen oraindik helburu horiek eskuratzeko urrun gaudela. 2004ko Maastrichteko txostenean ezarritakoaren ariora, sistema ekonomikoan eskatutako eta Europak eskuratutako prestakuntza mailen artean desoreka garbia dago.

Espainiaren atalari dagokionez, atarikoan jasotako Hezkuntzaren Lege Organiakoaren funtsezko printzipioak jasotzen dira, horien artean, legeak "Europar Batasunak planteatutako hezkuntza-helburuak" atalari begira hartutako konpromisoa⁹⁰. Horrez gain, legearen 1 eta 2. artikuluetan landutako printzipioak eta helburuak aipatzen dira, hala nola, administrazioen arteko lankidetzak, bazterkeriaren aurkako printzipioa, irakasleak gizartean aintzat hartzeko helburua eta ikaslearen banakako esfortzua.

Hezkuntza-helburuak: Europa eta Espainia. Agirian Europar Batasuneko Lan eta Prestakuntza programa 2010 aipatzen da.⁹¹ Horretan helburu estrategiko batzuk adierazten dira:

1. Europar Batasuneko hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
2. Hezkuntza- eta prestakuntza-sistema guztietan parte hartzea.
3. Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak mundu osoan irekitzea.

Helburu horiek jarraian azaldutako beste hamahiru helburuetan zehazten dira.

2003an, Kontseiluan⁹² Europako batez besteko errendimenduaren bost maila zehaztu ziren:

1. Eskola gehienez ere %10ek bertan behera uzten dutela lortzea.
2. Estatu Kideen matematikak, zientziak eta teknologia irakasgaietan guxtienez ere ikasleen %15 gehitzea eta generoaren ondoriozko ezberdintasunak murriztea.

⁹⁰ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legea. (EAO, 106. zk. 2006ko maiatzaren 4koa). "Atarikoak ... Legearen hirugarren printzipioa hurrengo urteetarako Europar Batasunak planteatutako hezkuntza-helburuen aldeko konpromiso erabakigarria da".

⁹¹ 5980/01 EDUC 23.

⁹² 2003ko maiatzaren 5eko Kontseiluaren ondorioak Europako hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko batez besteko maileri buruzkoa (erreferentzia-puntuak) (Aldizkari ofiziala C 134, 2003ko ekainaren 7koa).

3. 22 urteekin goi mailako bigarren hezkuntza bukatu duten gazteen proportzioa %85era areagotzea.
4. Irakurketan oinarrizko maila eskuratzen duten 15 urteko gazteen ehunekoa bikoiztea, eta
5. Bizitza osoan ikaskuntzetan esku hartzen duten herritar helduen partehartzea gutxienez %12,5 gehitzea.

2006ko maiatzaren 2005/0221/(COD) gomendioaren arabera⁹³, pertsona guztiek hezkuntza amaitzean eskumen giltzarriak eskuratzea zaindu behar da. Helburu horretarako, eskumen kontzeptua egoera zehatz batera egokitutako eza-gutza, ahalmen eta jarrera egokien arteko nahasketa bezala definitu da. Hori dela bide, gomendioaren bitartez Europako aipamen erkidea zehazten da nazioko hezkuntza-aldaketak egin eta Estatu kideen eta Batzordearen artean informazioa eskualdatzeko. Zortzi eskumen giltzarri definitzen dira. Planaren agirian adierazi dira eta horietako bakoitzaren edukia zehazten da.

Espainiaren arabera, planean Espainiako Aldaketen Nazioko Programa aipatzen da⁹⁴, eta hori Europako Batzordean 2005eko urrian aurkeztu zen. Programan Espainiako hezkuntza-sistemaren ahuleziak adierazten dira eta horiek zuzentzeko helburu batzuk definitzen dira, Lisboako Europako Estrategiaren esparruaren barruan jaso direnak. Agirian sistemaren gaur egungo egoera jasotzen da, helburu horiei begira, baita 2008 eta 2010. urteetarako ezarri planaren helburuak ere, giza kapitalari buruzko adierazleei dagokienez.

Nafarroako egoera Europako eta Espainiako hezkuntza-helburuei dagokienez. Epigrafean azalduetakoa aintzat hartuta, foru erkidegoko hezkuntza-administrazioak Europar Batasunak zehaztutako helburuak eta Erreforma Programa Nazionalean (EPN) aipatutakoak bereganatu ditu. Halaber, Nafarroa Lisboako Estrategian adierazitako helburuak lortzeko oso hurbil dago, erreferentzia gisa aipatutako bost xedeen arabera. Gainera, Foru Erkidegoak abantaila du Espainiako Erreforma Programa Nazionalean jasotako helburuen batezbestekoari dagokionez. Horrela, helburuak lortzeko, Nafarroak eskola bertan behera goiz utzi dutenen ehunekoa 7,5 puntu soilik gutxitu behar du; matematiketan, zientzietan eta teknologian graduatutakoen ehunekoa 0,7 puntu gehitu behar du, eta 7,7 puntu areagotuko da goi mailako bigarren ikasketak 22 urteekin bukatzen dutenen gazteen ehunekoa. Bestalde, ez dira jaso irakurketaren oinarrizko mailen buruzko datuak, Hezkuntza Sailak PISA ebaluazioan lagin bereziarekin parte ez hartzeagatik. Gainera, bizitza osoan ikaskuntzetan parte hartzen duten pertsona helduen xedea gainditzen da.

⁹³ Proposition de recommandation du parlement européen et du conseil sur les compétences clés pur l'education et la formation tout au long de la vie. Bruxelles, le 10.11.2005COM(2005)548 2005eko amaiera (0221(COD)) .

⁹⁴ Konbergentzia eta enplegua. Espainiako erreforma programa nazionala. 2005eko urria. IV.3 Hirugarren ardatza: giza kapitalaren hazkundera eta hobekuntza.

EPNren helburuen kasuan, Nafarroak 2 urteko ikasleak eskolatu ahal izateko 2,73 puntu behar ditu, 2,2 puntu eskola goiz bertan behera uzteari dagokionez, eta, 2,7 puntu goi mailako bigarren hezkuntzan graduatutako atalari begira. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntzaren adierazlea, hirugarren mailako hezkuntzaren adierazlea, zientzietan, matematiketan eta teknologian eskuratutako goi mailako titulazioaren adierazlea eta etengabeko prestakuntzaren adierazlea eskuratu dira.

Nafarroako Hezkuntza-sistema hobetzeko helburuak. Atal honetan, hiru azpiatal nabarmentzen dira. Europa, Espainia eta Hezkuntza Sallaren hobekuntza-ildoak.

Agirian Nafarroako 2008 eta 2010. urteetarako Nafarroako hezkuntza-sistemari begira garatu beharreko hezkuntza-helburuak azaltzen dira. Europako Estrategian zehaztutako helburu berdinak agertzen dira, irakurketaren atalean izan ezik. Hain zuzen ere, ez dira ageri Nafarroako ikasleen egungo egoerari buruzko datuak. Zio hori dela bide, Espainiaren kasuan Europan lortutako helburuak baino zertxobait handinahi gutxiagokoak dira.

EPNren helburuen kasuan, Planean Espainiari begira zehaztutako emaitzak baino helburu handiagoak konprometitu dira. Izatez, 0-3 urte bitarteko hurren %48 eta eskariaren %100 eskolatu nahi da; gaur egun DBHn tituluak baino ehuneko 5 puntu eskuratu nahi dira, ehuneko 6 puntu gutxiago eta 14 gehiago atzerriko hizkuntzen beheko mailetan eta goiko mailetan dauden ikasleei begira, hurrenez hurren. Irakurketa-ulermenaren, matematikaren eta zientzien ezagutzaren mailetan Espainiari begira adierazitakoak onartu dira.

Horrez gain, Planean erreferentzia gisa 2006ko maiatzaren 20, 21 eta 22an Iruñean egindako jardunaldietan eskuratutako ondorioak aplikatu dira, "Behar dugun eskola" izenburupean. Horrela, jardunaldietan egindako proposamenen laburpen-taula aurkezten da.

Herritarren aurrerapena kontuan hartzea. Epigrafea hiru ataletan antolatzen da: Ziurrenik ere gerta daitekeen aurrerapena; Eskolako ikasleen aurrerapenaren balioespenak; aurreikusitako ikasleak.

Testu horretan eskolatu beharreko ikasleen tamaina funtsean zehazten duten hiru osagai aztertzen dira; jaiotza-tasa, immigrazioa eta hirigintza-garapena. Amaitzeko, Nafarroan ziurrenik ere 2022. urtean 645.000 herritar biziko dira. Herritar horien zenbait ezaugarri demografiko adierazten dira, horien artean, 15 urtetik beherako herritarren eta 20 urtetik beherako herritarren hazkundera, gaur egungoarekin erkatuta. Herritar guztiei dagokienez, adin-multzo horiek, hurrenez hurren, gaur egungo %13,4tik eta %18,7tik 2022rako balioetsitako %16,8ra eta %22ra iritsiko dira.

2010. urteko ikasleen balioespena egin da. Ildo beretik, hezkuntza-maila bakoitzean balioetsitako herritarren gehieneko eta gutxieneko balio-tartea ezarri da.

Horrekin batera, maila bakoitzeko ikasleen aurreikuspena egin da, Haur eta Lehen Hezkuntzaren 2. zikloan %100 eskolatzen dela eta 16, 17 eta 18 urteko adin-taldeetan aipatu ehunekoak eskolatzen direla kontuan hartuta.

Ikasle horiek irakaskuntza publikoan eta pribatuan banatzeko gaur egungo ehunekoari eusten zaiola uste da.

Beharrezkoak diren baliabideen balioespena. Epigrafea hiru ataletan antolatzen da: irakaskuntza-egituren plan gidaria, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.

Planean eskola-eraikuntzen plan gidariaren edukia jasotzen da, gobernua 2004ko uztailaren 10ean onetsitakoa eta 2006ko martxoaren 24ko akordioaren bidez osatutakoa. Plana bi faseetan diseinatu da; lehenengoa 2004-2007 epealdirako, eta, bigarrena 2008-2011 epealdirako. Planaren xedea erabilera publikoko eraikuntzak eta instalazioak hedatu, berraldatu eta berriak eraikitzeko beharrianak kontuan hartzea da. Horrekin batera, I. eranskina aurkeztu da eta horretan 2010. urte arte aurreikusitako jarduketak zehaztu dira.

Sare publikoan aurreko puntuan aipatutako ikasleak eskolatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak balioesten dira. Balioespen hori gaur egun ondore horretarako aplikatutako parametroen arabera egin dela ohartarazten da. Planaren helburu gisa plantilla orokorraren egonkortasuna areagotzea da. Aldi baterako kontratazioa 2010. urtean %15 gutxitu nahi da sare publikoan. Gainera, itunpeko sareari begira ere beharrezkoak diren giza baliabideak aipatzen dira.

Halaber, baliabide ekonomikoak aintzat hartzeko, ezin da ahaztu aurreikusitako helburuak erdiesteko ibilbidea jadanik ia dena eginda dagoela. Lehenaldian hartutako hezkuntza-neurriak eta baliabide ekonomikoen eragina direla medio, Nafarroa Espainian 2005eko biztanle bakoitzak egindako gastu gehien jasotako bigarren postuan kokatzen da. Zernahi gisaz, planean ezarritakoaren ariora, egoera horrek ez du inolako eragozpenik ezartzen 0-3 urte bitarteko hezkuntza-zerbitzuarekin zerikusia duten erronka berrien, eskolatzeko-baldintzen kalitatearen hobekuntzaren (eskolen eraikuntzak) eta sistemaren eraginkortasuna handiagoa izatearen aldeko konpromisoak hartu ahal izateko. Bada, urteko plangintza ekonomikoa, Nafarroaren aurrekontu orokorrak onesteko zioa dela eta, planean zehaztutako baliabide ekonomikoak bultzatu dituen tresna egokia da. Hori bai, hitzarmenaren bitartez, MECek Nafarroari begira Estatuak izaera orokorrarekin emandako baliabide ekonomikoen proportziozko zatia eman beharko dio.

Jarduketa-planak eta egutegia. Administrazio-unitate batzuen gain eragina izateagatik, horietan jasotako jarduketaren garrantzia eta denboran izandako iraupena kontuan hartuta, planaren atal horretan sailak jadanik ezarritako zenbait plan jaso dira. Plan horietako bakoitzaren bidez pertsegitutako helburuak eta xedeak labur deskribatzen dira, bai eta erreferentziako ekintza eta datu batzuk ere. Hona hemen planak:

1. Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (HLO) garapena (LOE). Espainian orokorrean ezarritako egutegia aplikatuko da⁹⁵. Honekin batera, II. eranskina aurkeztu da, eta bertan Nafarroako HLOren hezkuntza maila bakoitzean aplikatu beharreko egutegia jaso da.
2. Lanbide Heziketa. Erreferentzia gisa 2005eko Nafarroako Gobernuak hartutako akordioa ezarri da⁹⁶. Hain zuzen ere, Prestakuntzen nazioko sistema garatzeko gida-lerroak zehazten dira, horien artean, lanbide-orientabiderako sare bateratua, ikastetxe bateratuen sorrera eta arauketa, eskumena ebaluatzeko programen ezarpena eta enplegu-behato-kiaren nahiz prestakuntzen institutuaren garapena.
3. Irakasleen Prestakuntza Plana. Irakasleak urtero plana eta urruneko Prestakuntza Plana jasotzen dira. "Behar dugun eskola" hezkuntza-jardunaldietan hartutako ondorioak nabarmendu dira. Urruneko prestakuntzaren bidez, irakasleak prestatuko dira, batik bat, teknologia berriak jar-duera propio hauetara egokitu ahal izateko: prestakuntza-ibilbideak, hautespena, tutoreen prestakuntza eta jarraipena, materialak eta presta-kuntza-plataforma. Laburpen-taulan irakasleak prestatzeko aurreikuspenak zehazten dira.
4. Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena. Martxoaren 6ko 230/2006 Ebazpenaren bidez arautu da⁹⁷. Nafarroako ikastetxeetan 1998/1999 ikasturtetik egiten ari diren kalitate-ereduak ezartzeko egin den lana jasotzen da. Izatez, SGCC (Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistemak) ezarri da. Horrekin batera, III. eranskina aurkeztu da, eta bertan kalitatea kudeatzeko sistemen aurreikuspenak zehazten dira.
5. Elkarbizitzarako aholkularitza. 2006/2010 epealdiko aholkularitzaren lan-plana jasotzen da.
6. Atlante proiektua. Urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduaren bidez onetsi zen.⁹⁸ Apirilaren 12ko 293/2005⁹⁹ ebazpenaren bidez 2005/2007 ikasturteetarako hobekuntza-plana ezarri da.

⁹⁵ Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezarri duena. (NAO, 167. zk., 2006ko uztailaren 14koa).

⁹⁶ 2005eko apirilaren 4ko akordioa, Nafarroako Prestakuntzen eta Lanbide Prestakuntzaren Sistema garatzeko gida-lerroak ezarri dituena. (NAO, 60. zk. 2005eko maiatzaren 20koa).

⁹⁷ Martxoaren 6ko 230/2006 ebazpena, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan "Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Hedapena" programa abian jartzea baimendu duena.

⁹⁸ Urriaren 8ko 279/2004 Foru Agindua, Haur eta Lehen Hezkuntzako oinarriko eskumenak hobetzeko Atlante Proiektua ezarri duena. (NAO, 148. zk., 2004ko abenduaren 10ekoa).

⁹⁹ Apirilaren 12ko 293/2005 Ebazpena, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta pribatu-
tuetan 2005-2007 ikasturteetarako hobekuntza-plana Atlante proiektuaren garapen gisa ezarri duena.

7. Haur Hezkuntzaren hedapena. Lehenengo atalean, 0-3 urte bitarteko-en zikloa ezartzeko prozesua aztertzen da, eta bigarren atalean, 3 eta 6 urte bitarteko irakaskuntzaren doakotasuna zehazten da. Halaber, 2006/2010 epealdiaren zikloari buruzko ezarpen-plana aurrera eramateko, zikloaren hezkuntza-izaera eta hori hezkuntza-sistemaren barruan zehaztea kontuan hartu behar da. Haurtzaroaren eta Nerabetasunaren Nazioko Plan Estrategikoaren arabera¹⁰⁰, 2009. urtean ziklo horretan 0-3 urte bitartean artean, %33ko plaza-kopurua eskainiko da. Nafarroako planean, aldiz, %48 eskuratu nahi da. Izan ere, %33 eskuratzeko inbertsioaren balioespina egin da. Programan bigarren zikloaren doakotasuna ere eskuratzen da, Plan Estrategikoari helduta.
8. Immigrazioa. Ondorengo proiektuak jaso dira:
 - a) Eskolatzeko toki-batzordeak. 2006-2007 ikasturtetik aurrera, batzorde horiek HLOn xedatutakora egokituko dira (Berme-batzordeak).
 - b) Beharrian berezia duten ikastetxeak. Ikastetxe horietan aurreikusitako irakasleen zuzkidurari buruzko taula zehazten da, eta irakasleok definitu egiten dira.
 - c) Bigarren Hezkuntzan Gaztelaniaren hizkuntzan murgiltzeko programa. Abenduaren 16ko 253/2004 FArean arabera agindu da¹⁰¹. Programaren ezaugarriak, jasotzaileak eta irakasleek 2006-2010 epealdirako duten zuzkidura azaltzen dira.
9. arreta ematea. Aniztasunari arreta ematea hezkuntza-sisteman joera gorakorra duen beharrian gisa agertzen da. Gainera, programa horietan parte hartuko duen ikasle-mota adierazten da eta HBBren kontzeptua eta neurri-motak definitzen dira.

Proiektu hauek barnean hartzen dira:

- a) Lehenengo Hezkuntzako eskolan laguntzeko programa. 2006/2007 ikasturtean BHra hedatuko da.
- b) Bigarren Hezkuntzako sendotze- eta laguntza-programa.
- c) Ospitalean eta etxean hezkuntza-arreta emateko programa.
- d) Nafarroako hezkuntza berezia.

¹⁰⁰ Haurtzaroaren eta nerabetasunaren nazioko plan estrategikoa 2006/2009. Gizarte Zerbitzuen, Familien eta Urritasunaren Estatuko idazkaritza. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. 8.2 helburua "Gurasoen jardunaldian 3 urtetik beherako ikasleei zuzendutako zerbitzuen eskaintzaren kalitateareagotu eta hobetzea, parametro horiek Europar Batasuneko gida-lerroetara hurbilduz (Haurren zaintzari eta ikastetxe publikoen %33ko estaldura-tasei buruzko gomendioa).

Horrekin batera, IV. eranskina aurkeztu da, 2010. urte arte aniztasunari arreta emateko aurreikuspenekin batera.

10. Pertsona helduei irakaskuntza emateko mota berriak. Bizitza osoan ikaskuntzak jasotzeko 2000ko Lisboako memorandumaren printzipioak ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legean jaso dira¹⁰². Horrez gain, HLO-ren 3.9¹⁰³ artikuluan, eta Pertsona Helduen Prestakuntzaren atala IX. kapituluaz azaldu da.

Proiektu hauek barnean hartzen dira:

- a) ESPA "on line" Nafarroan. Nafarroako 2007/2008 ikasturtean ezarriko da, MOODLE plataformarekin.
- b) Zaintzailearen ikasgelak Nafarroan¹⁰⁴.

Horrekin batera V. eranskina aurkeztu da, 2010. urte arteko ikasturteetan zehaztutako aurreikuspenekin batera.

11. Hizkuntzen ikaskuntza eta ebaluazioa: Europako jarduketa-esparrua. 2004-2006 ekintza-planaren lau eremu deskribatu dira, Europako Batzordeak "Hezkuntza eta Prestakuntza 2010"¹⁰⁵ programaren esparruan sortu duena, hizkuntzen eta hizkuntza-aniztasunaren ikaskuntza sustatu ahal izateko. Nafarroan jarduera horri azaroaren 11ko 657/1991 F Aren bidez ekin zion. Izan ere, lehen aldiz eta esperimendazio izaerarekin, atzerriko hizkuntza erdi mailako zikloan aplikatu eta OHOKo goi zikloan horren ordutegia hedatu zen. Une horretatik aurrera, Nafarroa erreferentzia-puntua izango da gainerako erkidegoei begira. Agirian Europako Batzordeak 2004-2006 urteei begira lortu beharreko helburuak jaso dira, eta Nafarroako ekintza-planarekin alderatu eta 2006-2010 epealdirako ezarritakoa adierazten da. Ondorengo proiektu hauek jaso dira:

¹⁰¹ Irailaren 16ko 253/2004 Foru Agindua, atzerriko ikasleen eta gizarte- nahiz kultura-egoera ahu-leko gutxiengoari Nafarroako Foru Erkidegoan hezkuntza emateko arreta arautu duena. (NAO, 129. zk., 2004ko urriaren 27koa)

¹⁰² Ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legea, pertsona helduen hezkuntza arautu duena (NAO, 78. zk., 2002/06/28koa)

¹⁰³ 3.9 artikulua: Ikastetxeetara modu erregularrean bertaratu ezin direnen hezkuntza-eskubidea bermatzeko, urruneko hezkuntzaren eskaintza egokia, edo, hala denean, laguntza eman eta hezkuntza-arreta zehatza garatuko da

¹⁰⁴ Lanbide Prestakuntza eta Hezkuntza Berrikuntzari buruzko 2004ko abenduaren 27ko ezabazpena, Hezkuntza eta Zientzia Sailaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean "Zaintzailearen ikasgelak" proiektuan modu irekian, aske eta Internet bidez parte hartzeko lankidetzaren hitzarmena argitaratu duena (EAO, 21. zk., 2005eko urtarrilaren 25koa)

¹⁰⁵ Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari egindako komunikazioa. Hizkuntzen ikaskuntza eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea: 2004-2006 Ekintza-plana. COM (2003) 449 amaiera

- a) Ingeleseko edukien irakaskuntza. Haur eta Lehen Hezkuntzan ingeleseko irakaskuntzen ezarpen-plan aurreratua dago. Programa hori Bigarren Hezkuntzara hedatuko da.
 - b) Bigarren hezkuntzako ikastetxeen eta EOIDNarekin izan beharreko lankidetzeta-programa. Programa horretan, Urruneko Hizkuntzen eskola oinarritzko osagaia eta erreferentziazkoa da gainerako erkidegoei dagokienez. Azaroaren 15eko 339/1993 FDren bidez sortu zen¹⁰⁶.
 - c) Europako portfolioa (PEL). Europako Erreferentzia Erkidearen Esparruan proposatutako helmuga du, hots, hizkuntza guztietarako hizkuntza maila ezberdinen plataforma.
 - d) Ingelesa-gaztelania irakaskuntza elebiduna (MEC/BC programa).
 - e) Hizkuntzen eskola ofizialak. Horrekin batera, II. eranskina aurkeztu da eta bertan Hizkuntzen Eskola Ofizialen oinarritzko eta erdiko maila berriak eta maila aurreratuak ezartzeko jarduketak zehazten dira.
12. Informazioaren gizartea hezkuntza-eremuan garatzea. Ondorengo proiektu hauek jaso dira:
- a) TRENZA proiektua
 - b) Hezkuntza-baliabideak
 - c) Ikastetxetarako informatikako ekipoen eskuraketa
 - d) EDUCAT-“EDUCA” proiektua.
- Horietako bakoitzari dagokionez, jarduketan laburpen-taula azaldu da. Horrekin batera, VI. eranskina aurkeztu da, hezkuntzari buruzko informazioaren gizartea garatzeko jarduketan aurreikuspenarekin batera.

Sistemaren ebaluazioa. Epigrafean Nafarroan garatzen ari diren eta garutako ebaluazio-programak adierazi dira. 2008. urtean proposatutako helburuak deskribatutako adierazleen arabera garatuko dira, eta, hala denean, osagai zuzentzaileak jasoko dira. Gainera, erkidegoak Ebaluazio Institutuak Estatu mailan egindako ebaluazioetan parte hartzen du. Institutuak aplikatutako adierazleen aukeraketa zabaldu egin da, Lisboako Europako helburuen erreferentzia-puntuak jasotzeko xedearekin.

Hori dela bide, Foru Erkidegoak adierazleen sistema propioa garatu du. Horretarako, beharrezkoak diren ekintzak Ikuskaritza Zerbitzuaren urteko planetan ja-

¹⁰⁶ Azaroaren 15eko 339/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Urruneko Hizkuntzen Eskola Ofiziala sortu duena. (NAO, 1993ko azaroaren 24koa)

sotzen dira. Azken horiek, hain zuzen, 2005/2008 epealdirako Lau urteko Jarduketaren Plan Orokorrean jaso dira, maiatzaren 31ko 502/2005 Ebazpenean zehaztutakoak¹⁰⁷. Adierazleen sistemaren bidez pertsegitutako helburuak zehazten dira.

Foru Erkidegoak bere lagin propioarekin PISAk 2006an egindako txostenean jaso du. Ebaluazioa zientziei buruz egin da. Emaitzak 2007ko azaroan ezagutuko dira.

Planaren arabera, ez da komenigarria PIRLS ebaluazioan lagin bereizi propioarekin esku hartzea. Izan ere, Nafarroako sisteman irakurketa-eskumena garatzeko lan-planak betearazten ari dira. Lana 2006-07 ikasturtearen lehen hezkuntzako 4. ikasturtean egindako ebaluazioarekin amaituko da.

Izaera osagarriarekin, Matematiketan ebaluazioak egiteaz gain, Gaztelania eta Euskara irakasgaietan irakurketa-ulermena egin da, batik bat, 2004/05 ikasturtean DBHko 3. mailara sustatu diren zenbait ikasleei zuzenduta, DBHn titulatu eta Batxilergoko lehenengo ikasturtean eta GMko Prestakuntza Zikloen 1. mailan daudenak. Emaitzak 2006ko amaieran ezagutuko dira. Horrez gain, 2006-2007 ikasturtean bestelako ebaluazioak aurreikusi dira.

Haur Hezkuntzako (5 urte) Ebaluazio Institutuak egindako Estatu ebaluazioan lagin bereizi propiorik ekarri gabe esku hartuko da.

Hurrengo lau urteetan Erkidegoak Nafarroako ikastetxe guztietako Haur Hezkuntzaren ebaluazioan esku hartuko du. Ebaluazioaren ikuspuntua aitzindaria da Europako eremuan.

Bestalde, Erkidegoaren lagin bereizi propioarekin PISA 9000 ebaluazioan esku hartuko da.

LOGSEk ezarritako proba diagnostikoak egingo dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan.

Hona hemen agiriarekin batera aurkeztutako eranskinak:

I. eranskina: 2010. urte arteko irakaskuntzen eta aurreikuspenen Azpiegituren Plan Gidariaren laburpen-taula.

II. eranskina: HLOren garapena Nafarroan.

III. eranskina: Kalitatearen kudeaketa-sistemen aurreikuspenen laburpen-taula. Kalitate-sistemen hedapena

¹⁰⁷ Maiatzaren 31ko 502/2005 ebazpena, 2005/2008 epealdirako Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuko laurteko jarduketaren Plan Orokorra onetsi duena. (NAO, 84. zk., 2005eko uztailaren 15ekoa).

IV. eranskina: Aniztasunari arreta emateko gaiari buruzko laburpena eta aurreikuspenak.

V. eranskina: Azken lau urteetako Pertsona Helduen irakaskuntzari buruzko datuen eta 2010. urte arteko aurreikuspenen laburpena.

VI. eranskina: Hezkuntzan Informazioaren Gizartearen Garapenari buruzko aurreikuspenen laburpen-taula.

3. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez egokia da Nafarroako hezkuntza-sistema garatzeko plana onestea, batez ere, Lisboa 2000 ekitaldian Europako Kontseiluak 2010. urte arte zehaztutako helburu estrategikoak islatzen dituen, bai eta Haurtzaroaren eta Nerabetasunaren Nazioko Plan Estrategikoa eta Erreforma Programa Nazionala behar bezala jasotzen dituen ere. Gisa berean, helburu zehatz propioak definitu behar dira.

Hori guztia kontuan hartuta, 2006-2010 epealdirako Nafarroako hezkuntza-sistema garatzeko plan gidariaren aldeko txostena egin da.

Hala ere, onetsitako zuzenketak aintzat hartuta hurrengo aldaketak egiteko gomendioa ematen da:

- 1.2.4 atalean jasotako testuaren ordez ondorengoa ezartzea: "4. Ikastetxeen gobernuari dagokionez, kudeaketa- eta antolaketa-autonomiak modu arduratsuan jarduteko, Hezkuntza-erkidegoak parte hartzeko modu egokia definitu eta horren alde egin behar da, ikastetxeen kudeaketa eraginkorra izateko eta zuzendaritza-organoei etengabeko laguntza eman behar zaie". (2. zuzen^{*108}, Herrikoa).
- "Jardunaldien proposamenen laburpen-taula: "Behar dugun eskola" esaldian "agintaritza" hitza ezabatzea, 2. zutabea ("ekintzak"), 31. orrialdeko 3. taula. (3. zuzen, Herrikoa).
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustez, 6.3 "Baliabide ekonomikoak" atalean itunpeko irakaskuntzako sindikatu- eta enpresa-ordezkariekin urte anitzeko akordioa eskuratzeko borondatea azpimarratu behar da, irakasleen ordainsarien analogian aurrera egitea eta itunak ikastetxeeta-

¹⁰⁸ Zuzenketa-zenbakiari atxikitako asteriskoek hurrengoa adierazi nahi dute: zuzenketa-proposamenaren egileak onartu, eztabaidatu eta botoa jasotako ordezpen-zuzenketa.

ko beharrizanetara eta benetako gastuetara egokitzeko berrikustea. (6.* zuzen., ENB).

- Nafarroako Eskola Kontseiluaren arabera, 7.2 “Lanbide Prestakuntza” atalean, 2010. urtea baino lehen Ikastetxe Bateratu Politeknikoak gehitzeko aurreikuspenean (Plan Gidariaren 48. orri.) ikastetxe horiek titulartasun publikokoak edo gizarte-ekimenekoak izan daitezkeela adierazi behar da, eta, hala denean, diru-laguntzak eta/edo itun-bideak antolatuko dira. (7. zuzen., ENB).
- Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi duenez, “Irakasleen Prestakuntza Planean jasotako aurreikuspenen taula”n (Plan Gidariaren 53. orri.) plan horrek ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen gain eragin bera du. (8. zuzen., ENB).
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren arabera, 7.4 “Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena” atalaren lehenengo paragrafoan (Plan Gidariaren 55. orri.), ikastetxeen bost sareak titulartasun publikokoak direla adierazi behar da, hots, aipatu sarearen 53 ikastetxe (10. zuzen., 1. zatia, ENB).
- Era berean, aipatu 7.4 atalaren amaieran kalitatearen kudeaketari, eskuhartzeari eta aurreikuspenei buruzko informazioa eman behar da itunpeko ikastetxeetan. (10. zuzen., 2. zatia, ENB).
- Nafarroako Eskola Kontseiluak 2006-2010 epealdirako Plan Gidari hori Nafarroako Hezkuntza-sistema hobetzeko gizarte-itunaren esparruan jasotzea nahi du. Hori dela bide, arauketa modu egonkorrean eta lasaian garatzea ahalbidetu beharko da, eta 2010. urterako eta ondorengoetarako ezarri helburuak eskuratu beharko dira. Gizarte-itun horren bidez, horretarako legitimazioa duten aginte publikoek (Foru Gobernua eta Foru Parlamentua) bultzatuta, erakunde politikoekin eta gizarte-erakundeekin, unibertsitateekin, gurasoen elkarteekin, udalekin eta ikastetxe publiko nahiz pribatuko irakasleekin hitzarmenak sinatu beharko dira, batik bat, HLOren arauketa garatzeko oinarriak ezarri eta hezkuntza-sistema hobetzeko osagai giltzarriak eskaintzeko xedearekin, hori guztia ikastetxeen bizitzan islatzeko modua agerian utzita. (16. zuzen., ENB).

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 1ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

3/2007 Irizpena

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri
CONCAPA-Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetako irakasle-
ek ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Gurasoen Elkarreetako
Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

2007ko urtarrilaren 30ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oso-ko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 18 botoekin, aurkako 2 botoekin eta 2 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eskaintzen dituzten Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleen onarpena arautu duen Foru Dekretua" ren zirriborroa.

1. Aurrekariak

Nafarroako Foru Erkidegoak Hobe-kuntzari buruzko Legearen 47. Artiku-luaren¹⁰⁹ arabera atxikitako hezkuntza-eskumenak unibertsitatekoak ez diren hezkuntza mailetan ikasleak onartzeko gaiaren inguruan lehen aldiz otsailaren 28ko 56/1994 Foru Dekretua¹¹⁰ aldarrikatuta egikaritu zituen, martxoaren 4ko 130/1996 Foru Dekretuaren bi-dez aldatu dena. Bi arau horiek uztailaren 3ko 8/1985 LOren¹¹¹ 20 eta 53. artikuluetan aipatutako printzipioak

¹⁰⁹ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

¹¹⁰ Otsailaren 28ko 56/1994 Foru Dekretua, funts publikoekin finantzatzen diren Nafarroako Foru Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeetako ikasleen onarpena arautu duena. (NAO, 1994ko martxoaren 16koa).

¹¹¹ Hezkuntza Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea. (EAO, 1985eko uztailaren 4koa).

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE- Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE- Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Francisco Manuel Osorio Martín jn.
Toki-erakundearen ordezkaria

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

garatzen dituzte. Aipatu bi arauok onartzeko printzipioak eta prozedura direla bide, urtean Irakaskuntzetarako¹¹² ikasleak onartzeko prozesuak ireki dira.

Uztailaren 3ko 8/1985 Legean jasotako artikuluko horiek abenduaren 23ko 10/2002¹¹³ LO on jasotako xedapen indargabetzailearen bidez indargabetu ziren, eta, aldi berean, hori maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren¹¹⁴ bidez indargabetu da. Ondorenez, ordu arte ikasleak onartzeko ezarri indarreko printzipioak eta prozedurak aldatu egin dira. Bestalde, ikasleak onartzeko aipatu arauen onespina bat egiteko Nafarroako hezkuntza-sistemaren gaur egungo ezaugarriak direla medio, aipatu arauak aldatzeko gomendioa ematen da horiek sistemaren gaur egungo beharrianetara hobeto egokitu daitezela. Arrazoi horien ondorioz agerian uzten da dekretu horiek indargabetu eta ezarritako printzipio berriak jasotzen dituen beste berri bat onesteko beharrezana.

Maiatzaren 3ko 2/2006¹¹⁵ Lege Organikoaren II. tituluko III. kapitulua 84.

¹¹² Urtarrilaren 24ko 24/2006 Ebazpena; Otsailaren 14ko 133/2006 Ebazpena; Otsailaren 21eko 154/2006 Ebazpena; Maiatzaren 25eko 533/2006 Ebazpena;

¹¹³ Xedapen indargabetzaile bakarra.

...

Hona hemen indargabetutako artikulukoak: Hezkuntza Eskubidea arautu duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4, 5.5, 6, 7.2.e), 9, 10, 11, 16, 20, 22, 47, 48, 49, 52.1, 53 eta 57.d).

¹¹⁴ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa).

Xedapen indargabetzaile bakarra

1. Lege hauek indargabetuta geratu dira:

...

d) Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoa.

¹¹⁵ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa).

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA-Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

an, derrigorrezko etapen osteko etapetan ikasleak onartzeko jarraibideak zehazten dira, bai eta onarpen-arauak berdintasunean aplikatu, ikasleen onarpena orekatuta egin eta doakotasun-bermeak emateko ere. Horrez gain, udalerrri edo lurralde-eremu bereko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan Eskolatze Batzordeak eta eragin-eremu berdinak ezartzeko aukera agintzen da¹¹⁷.

artikulu¹¹⁶ ezarritakoaren arabera, hezkuntza administrazioek ikasleak eskolako irakaskuntzen ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeko eskumena dute. Arauketan, hezkuntza eskubidea, eskolako lanpostuak berdintasunean eskuratzeko eskubidea eta gurasoek nahiz tutoreek ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatu beharko dira, eta, edozein kasutan ere, laguntza-beharrizan zehatzak dituzten ikasleak ikastetxeen artean modu egokian eta orekatuan banatuko dira. Aldi berean, Legean lanpostuen eskariari aurre egiteko behar besteko plazarik ez dagoenean aplikatu beharreko irizpideak eta orientabideak ezarri dira, eta jaiotza, arraza, sexu, erlijio, irizti edo bestelako baldintza pertsonal edo gizarte-baldintzaren ondoriozko bazterkeria debekatzen da. Era bere-

2. Foru dekretuaren zirriborroaren deskripzioa

Txostenean jasotako arauaren proiektuan atarikoa eta lau kapituluetan banandutako hogeita sei artikulua, hiru xedapen gehigarri, indargabetzaille bat eta bi azken xedapen ageri dira.

Atarikoa. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Arauan jasotako bost xedek zehazten dira, baita proposatutako aldaketa egiteko arrazoiak ere. Gaur egun indarrean dagoen arauketa 2/2006 Lege Organikoan zehaztutakora egokitzea nahi da, hau da, ikasleak lanpostuak aukera berdintasunaren arabera eskuratzeko

¹¹⁶ 84. artikulua. Ikasleen onarpena.

1. Hezkuntza Administrazioek ikasleen onarpena arautuko dute ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, hezkuntza eskubidea, eskolako lanpostuak berdintasunean eskuratzeko eskubidea eta gurasoek nahiz tutoreek ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatuz. Edozein kasutan ere, hezkuntza-beharrizan zehatza behar duten ikasleak ikastetxeen artean modu egokian eta orekatuan banatuko dira.

¹¹⁷ Ikus 84. artikulua, 2, 3, 7, 9, 11. paragrafoak; 85, 86, 87 eta 88. artikulua.

eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako baldintza pertsonal edo gizarte-baldintzaren ondoriozko bazterkeriak debekatuta. Horrez gain, doako irakaskuntzetan familiek inolako zenbatekorik ez ordaintzea bermatuko da; eskaria asebetetzeko lanpostuak behar bestekoak ez direnean legeak ezarri lehenespeneko irizpideak garatuko dira, eta tokiko eskolatze batzordeak bultzatu behar dira.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak jasotzen dira. Hiru artikuluetan bereizten da.

1. artikulua. Dekretuaren xedea ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatuetan onartzea da.

2. artikulua. Eskolatze Batzorde Nagusiaren eta Tokiko Eskolatze Batzordeen eraketa adierazten da, kasuan-kasuan Dekretuaren 22 eta 23. artikuluetan zehaztutako eginkizunekin eta horietako bakoitzari begira arauz ezarritako eraketa kontuan izanda.

3. artikulua. Hezkuntza eskubidea eta lanpostua lortzeko eskubidea jaso eta bermatzen ditu; aipatu arrazoiaren ondoriozko bazterkeria debekatzen da. Gainera, gurasoek eta legezko tutoreek eta adin nagusiko ikasleek ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea adierazten da, betiere maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatutako mugen barruan; ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea aitortzen da; lanpostuak berdintasunean eskuratzeko eskubidea bermatzen da, eta ikasleek hezkuntza-proiektua eta ikastetxeen izaera propioa errespetatzeko duten betebeharra adierazten da.

II. kapitulua. Onarpen-prozedura eta -irizpideak eta ikastetxeen kokapen geografikoa ezartzen dira. 18 artikulua jaso dira.

4. artikulua. Lanpostuak zeinek eskatu behar duen adierazten da, bai eta hori egiteko tokia, eskabide-eredua eta prozesuan onartzeko betekizunekin zerikusia duten bestelako gaiak, aurkeztu beharreko eskabide-kopurua eta halakoak egiaztatzen dituzten agiriak ere.

5. artikulua. Hezkuntza Sailak beste administrazio-erakundeen laguntza eskatu ahal izango du.

6. artikulua. Onarpen-eskabidea ikastetxeetan lehenengo aldiz sartzean egingo da. Horregatik, ez da beharrezkoa urtean-urtean hori egitea, salbu eta ikastetxetik aldatu nahi denean.

7. artikulua. Hezkuntza Sailak ikastetxe bakoitzak eskaini beharreko plazak zehaztu eta ikastetxe bakoitzaren eragin-eremu geografikoak adieraziko ditu.

8. artikulua. Eskolako esparru bakoitzaren eremuko ikastetxe publikoei atxikitako bestelako ikastetxe publikoetan onarpen-prozesua agintzeko beharrezkoak diren jarraibideak ezarri dira. Sailak ikastetxeak euren artean atxikitzeko eskumena du eta atxikipen hori eskolako plangintzaren arabera aldatu ahal izango

du. Orobat, atxikipen-ikastetxean lehenespena izango dute atxikitako ikasleek, baldin eta eskaintza ez bada behar bestekoa eskariari begira.

9. artikulua. Onarpen-eskabideak ebazteko lehenespenerako irizpideak ezarri dira, baldin eta eskaintza ez bada behar bestekoa eskariari begira. Halaber, Batxilergoko irakaskuntzetara zuzendutako irizpide zehatzak gehitu dira. Onarpena egiteko irizpide esklusiboak ere jaso dira lanbide-heziketako erdi edo goi mailako prestakuntza-zikloetan. Musikako edo dantzako edo errendimendu handiko kirol-arloko irakaskuntzak eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak aldi berean egiten ari diren ikasleen kasuan, lehenespena ezarriko da zehaztutako ikastetxetan. Gainera, bestelako irizpide osagarriak ezarriko dira ezaugarri bereziak dituzten irakaskuntzetan onartu ahal izateko.

10. artikulua. Aukeratutako ikastetxean ikasleek eta bere neba-arrebek aldi berean ikasi edo gurasoek nahiz legezko tutoreek aldi berean lan egiteko aukera baloratzeko modua ezarri da.

11. artikulua. Ikasle eskatzailearen bizilekuaren eta ikastetxearen egoitzaren arteko hurbiltasuna baloratzeko modua ezarri da, bai eta egitate hori egiaztatzeke modua ere. Ordezpen-irizpide gisa gurasoen edo legezko tutoreen tokia onartzen da. Lana egiteko tokia egiaztatzeke modua ere ezarri da.

12. artikulua. Familia-unitatearen urteko errentak baloratzeko modua aipatzen da. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu behar duten nahiz salbuetsita dauden familia-unitateen urteko errentak egiaztatzeke modua adierazten da.

13. artikulua. Ikasle eskatzailearen edo bere gurasoen edota neba-arreben urritasuna baloratzeko modua ezartzen da.

14. artikulua. Ikasketa-espeditentia baloratzeko modua aipatzen da, betiere hori kontuan hartu behar denean.

15. artikulua. Sailak onarpen-irizpide osagarriak ezartzeko ahalmena du, lehenespenerakoei dagokienez.

16. artikulua. Organo eskudunak, eskainitako plazak eskariari begira behar bestekoak ez badira, aurkeztutako eskabideen baremoa zehaztu behar du. Onarpena puntuaziorik handienetik txikienera antolatuko da. Eskuratutako balorazioan berdinketa gertatuz gero, hori ebazteko modua aipatzen da.

17. artikulua. Hezkuntza Sailak onarpen-prozesua ebazteko datuak biltzen dituzten ikastetxeen igorpen-epaiek eta -mekanismoak ezartzeko ahalmena du.

18. artikulua. Prozesua ebazteko organo eskuduna zehazten da. Ikastetxe publikoen kasuan Eskola Kontseilua da, eta Eskola Kontseiluaren gainbegiratzeko prozesuaren mendeko itunpeko ikastetxeen kasuan, aldiz, ikastetxeen titularra da.

19. artikulua. Onarpen-prozesuaren emaitza interesdunei komunikatzeko modua ezarri da.

20. artikulua. Ikaslea zein plazatan eskolatuta egon eta plaza hori ez den beselako bat eskuratzen bada, orduan aipatu plaza hori galduko duela adierazten da.

21. artikulua. Hezkuntza Sailak laguntza-beharrizan zehatza behar duten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua erdietsi behar du. Horretarako, aurreinskripzioaren epealdia amaitu arte ikastetxeetako plaza batzuk erreserbatu ahal izango ditu eta ikasle bakoitzean eskolatu daitekeen ikasle-kopurua %10 gehitu ahal izango du.

III. kapitulua. Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeen antolakuntza eta funtzionamendua agintzen da. Bi artikulua jaso dira.

22. artikulua. Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eginkizunak eta eskumenak zehazten dira.

23. artikulua. Tokiko Eskolatzeko Batzordea definitzen da, bai eta bere helburuak eta eginkizunak ere. Batzorde horietan parte hartu behar duten erakundeak adierazten dira.

IV. kapitulua. Errekurtsoak eta erreklamazioak. Hiru artikulua jaso dira.

24. artikulua. Eskola Kontseiluek eta Eskolatzeko Batzorde Nagusiak ikasleen onarpenari buruz hartutako akordioak eta erabakiak erreklamatzeko ahalmena dute. Horrela, Nafarroako Gobernuan aurreko organoek horietan aurkeztutako erreklamazioei buruz aurkeztutako ebazpenen aurkako errekurtsoa jar dezakete.

25. artikulua. Ezarritako onarpen-arauek hautsi dituztenen erantzukizunak eskatzeko baimena ahalbidetzen da.

26. artikulua. Itunik gabeko ikastetxe pribatuek autonomia dute ikasleak onartzeko sistema ezartzeko.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Dekretuan ezarritako onarpen-araubidea maiatzaren 3ko 2/2006 Legearen I. tituluaren VI. kapituluan agindutako irakaskuntza artistikoen gradu eta maila ezberdinetako ikasleengana hedatzen da. Hala ere, ikasleak abenduaren 19ko 5/2002 Lege Organikoan ezarritako lanbide-heziketaren ikastetxe politekniko bateratuetan onartzeko arau zehatzak aplikatuko dira.

Bigarrena. Ikasleak hizkuntzen eskola ofizialetan eta pertsona helduen ikastetxeetan onartzeko, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluaren VII.

kapituluan eta IX. kapituluaren xedatutakoa aplikatuko da, hurrenez hurren, bai eta Hezkuntza Sailak zehaztutako arauak zehatza ere.

Hirugarrena. HBBko ikasleen onarpena ezarritako arauak zehatzaren bidez arautuko da, dekretuaren laguntza-beharrizan zehatza behar duten ikasleei begira ezarritakoari kalterik egin gabe.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Otsailaren 28ko 56/1994 Foru Dekretua, martxoaren 4ko 130/1996 Foru Dekretua eta ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak indargabetu dira.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Sailburuak foru dekretua arauz garatzeko baimena du.

Bigarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

3. Bestelako oharrik

Irizpenaren mende ezarritako Foru Aginduaren zirriborroarekin batera, lau oroitidazki eta urriaren 16ko 124/2006 Foru Aginduaren kopia aurkeztu da. Horien arabera, foru dekretuaren proiektua egiteko prozeduraren hasiera erabaki da.

Txostenean foru agindua argitaratzeko proposamena egin da, batez ere, Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eskaintzen dituzten Nafarroako Foru Erki-degoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuak onarpena arautzen duen Foru Agindua egiteko prozeduraren hasiera baimenduz.

Oroitidazki ekonomikoan adierazi denez, foru dekretuaren aplikazioak ez dakar ondore ekonomikorik.

Oroitidazki arautzailean, aldaketa-proposamen bermatzen duten arau-erreferentziak jasotzen dira. Amaitzeko, ikasleak onartzeko indarrean dauden arauak ordeztuko beharrezana agerian uzten da, Hezkuntzari buruzko maitzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakora egokitzeko helburuarekin.

Oroitidazki antolatzailean adierazitakoaren arabera, proposatutako testuaren xedea eskolatzeko-prozesua berriro antolatzea da, hori Hezkuntzari buruzko maitzaren 3ko 2/2006 Lege Organikora egokitu dadin. Gaur egun abian dauden Tokiko Eskolatzeko Batzordeak Hezkuntza Sailaren erantzukizunpean egongo dira.

Oroitidazki justifikatzailean ezarritakoa kontuan hartuta, eskolaz kanpoko irakaskuntzetan ikasleak onartzeko irizpideetan eta prozeduretan egindako aldaketan ondorioz Eskola Kontseiluaren irizpenaren mende ezarriko den araua onetsi behar da. Proposatutako testuan Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotako berrikuntzak eta lege horren babespean jadanik Nafarroan ezarritako bestelakoak zehaztu dira, hala nola, Tokiko Eskolatze Batzordeak. Irizpenaren mendeko testuan jasotako helburuak azaltzen dira.

Foru Dekretuaren proiektua egiteko prozeduraren hasiera erabaki duen urriaren 16ko 124/2006 Foru Aginduaren kopia. Foru Aginduaren arabera, beharrezkoa da foru dekretuaren proiektua egiteko prozedura abian jartzea, eta prozedura hori abian jartzeko agindua eman da. Halaber, Ikuskaritza Teknikoaren eta Zerbitzuen Zerbitzuak espediente egokia idatzi eta horren izapideak egingo ditu.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ustez egokia da eta behar beste justifikatuta dago gaur egun indarrean dauden eskolaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleak onartzeko arauketa ordeztzea, batik bat, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan adierazitako irizpide eta prozedura berrietara egokitu ahal izateko. Horrenbestez, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eskaintzen dituzten Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen onarpena arautu duen Foru Dekretuaren proiektuaren izapidetzaren aldeko irizpena eman da.

Hala ere, onetsitako zuzenketetan aipatzen den bezala, ondorengo aldaketak egitea gomendatzen da:

- Zioen azalpenean c) letra aldatzea eta idazkera hau ematea: c) *Hezkuntza eskubidea, eskolako lanpostuak berdintasunean eskuratzeko eskubidea eta gurasoek nahiz tutoreek ikasle nafar guztientzat ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatzea, eta, edozein kasutan ere, hezkuntza-laguntzarako beharrezko zehatza behar duten ikasleak ikastetxeen artean modu egokian eta orekatuan banatu beharko dira. (3. zuzen., 1. zatia,^{*118} HERRIKOAREN eskutik).*
- Zioen azalpenean, “doako irakaskuntzen” esaldiaren ostean hurrengo esaldia gehitzea: *“familiei fundazioei edo elkarteei ekarpenak egiteko beharrezko ez ezartzea, ezta ikasleen familien ekarpen ekonomikoa eska-*

¹¹⁸ Zuzenketa-zenbakiari atxikitako asteriskoek hurrengoa adierazi nahi dute: zuzenketa-proposamenaren egileak onartu, eztabaidatu eta botoa jasotako ordezen-zuzenketa.

tzen duten irakaskuntzekin zerikusia duten nahitaezko zerbitzuak ezartzea ere". (2. zuzen., 2. Zatia,* HERRIKOAREN eskutik).

- Zioen azalpenean, c) puntuak, hain zuzen, HLOren 88.1 artikuluan jasotako "doakotasun-bermeak" oso-osorik eta ez bakarrik zati batean idatzi beharko lirateke (CSI-CSIFren 3. zuzen.).
- 3.3 artikuluan, "ikastetxea" hitzaren ostean hurrengo esaldia gehitzea: "berdintasunean". (6. zuzen. HERRIKOAREN eskutik).
- 3.4 artikulua ondorengo esaldiarekin osatzea: "Edozein kasutan ere, hezkuntza-laguntzarako beharizan zehatza behar duten ikasleak ikastetxeen artean modu egokian eta orekatuan banatuko dira" (CSI-CSIFren 7. zuzen., eta HERRIKOAREN 8. zuzen.).
- 3. artikuluan puntu berria gehitzea: "5. Ikastetxe publikoek edo itunpeko ikastetxe pribatuak ezin izango dute jaso familien zenbatekoak doako irakaskuntzak jasotzeagatik, ezta fundazioei edo elkarteei ekarpenak egiteko betebeharra edo ikasleen familien ekarpen ekonomikoa eskatzen duten irakaskuntzekin zerikusia duten nahitaezko zerbitzuak ezarri ere. Hala ere, salbuetsita daude eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien, eta, edozein kasutan ere, borondatezko izaera duten eskolako zerbitzuen zenbatekoak" (HERRIKOAREN 8. zuzen.*).
- 4. artikuluan, "ikastetxean" hitzaren ostean hurrengo esaldia gehitzea: "lehendabizi eskatutako". (CCOOren 9. zuzen.).
- 7. artikuluan, "...indarreko legerian ezarritakoa" esaldiaren ostean lerrokada hau gehitzea: "ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan eragin-eremu berdinak ezarriko dira". (HERRIKOAREN 12. zuzen.).
- 11.1a) artikuluan puntuazioa ordeztea: "Ikastetxearen eragin-eremuan bizilekua duten ikasleak: 4 puntu". (HERRIKOAREN 19. zuzen.*).
- 21.1 artikuluan "emango du" esaldiaren ordeztzea "bermatuko du" esaldia ezartzea. (CSI-CSIFren 31. zuzen.).

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 1ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetako irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva
jn.
CONCAPA Gurasoen Elkartetako
Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

4/2007 Irizpena

2007ko urtarrilaren 30ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oso-ko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 18 botoekin, aurkako 2 botoekin eta 2 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "Ikasleen onarpenari buruzko __/2007 FDan ezarritako Eskola-tze Batzordeak eratu dituen Foru Agindua"ren eta "Ikasleen onarpenari buruzko __/2007 FDaren 7. artikuluan zehaztutako ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eragin-eremuak ezarri dituen Foru Agindua"ren zirriborroa.

1. Aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006¹¹⁹ Lege Organikoaren II. tituluko III. kapituluaren 84. artikuluan¹²⁰ ezarritakoaren arabera, hezkuntza administrazioek ikasleak eskolako irakaskuntzen ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeko eskumena izango dute, horietan zehaztutako printzipioei, irizpideei, orientabideei eta jarraibideei helduta¹²¹. Lege Organikoaren 86.

¹¹⁹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LO (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa).

¹²⁰ 84. artikulua. Ikasleen onarpena.

1. Hezkuntza Administrazioek ikasleen onarpena arautuko dute ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, hezkuntza eskubidea, eskolako lanpostuak berdintasunean eskuratzeko eskubidea eta gurasoek nahiz tutoreek ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea bermatuz. Edozein kasutan ere, hezkuntza-beharrizan zehatza behar duten ikasleak ikastetxeen artean modu egokian eta orekatuan banatuko dira.

¹²¹ Ikus 84. artikulua, 2, 3, 7, 9, 11. paragrafoak; 85, 86, 87 eta 88. artikulua.

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Francisco Manuel Osorio Martín jn.
Toki-erakundearen ordezkaria

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

artikuluaren¹²² zehaztuenez, hezkuntza administrazioek onarpen-arauak berdintasunean aplikatzea bermatu behar dute. Horretarako, euren eskumen propioei kalterik egin gabe, ikasleak onartzeko berme-batzordeak edo -organoak eratu ahal izango dituzte. Nolanahi ere, batzorde horiek eratu-ko dira ikastetxeko lanpostu-kopuruak eskaintza gainditzen duenean. Horrez gain, udalerrri edo lurralde-eremu bereko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan eragin-eremu berdinak ezarriko dira.

Nafarroako Foru Erkidegoak, aipatu lege-xedapenen arabera, eta ikasleak unibertsitatekoak ez diren hezkuntza mailatan onartzeko Hobekuntzari¹²³ buruzko Legearen 47. artikulua ariora horri atxikitako hezkuntza-eskumenen egikaritzea kontuan hartuta, foru dekretuaren zirriborroa egin da ikasle onarpena Unibertsitatekoak

¹²² 86. artikulua. Berdintasuna onarpen-arauen aplikazioan.

1. Hezkuntza administrazioek onarpen-arauak berdintasunean aplikatzea bermatuko dute, hots, udalerrri eta lurralde-eremu bereko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan eragin-eremu berdinak ezarriko dira.

2. Hezkuntza administrazioen eskumen propioei kalterik egin gabe, hezkuntza administrazioek ikasleak onartzeko berme-batzordeak edo -organoak eratu ahal izango dituzte. Nolanahi ere, batzorde horiek eratu-ko dira jarduketaren eremuan kokatutako ikastetxeko lanpostu-kopuruak eskaintza gainditzen duenean.

Batzorde horiek ikastetxeengandik eginkizun horiek betetzeko beharrezkoa den informazioa eta agiriak jasoko dituzte. Aipatu batzordeek ikasleak onartzeko prozesua eta hori arautzen duten arauen betepena gainbegiratu dute, eta hezkuntza administrazioei egokitzat jotako neurriak hartzeko proposamena egingo die.

Batzorde edo organo horiek hezkuntza administrazio, tokiko administrazio, guraso, irakasle eta ikastetxe publiko nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetako ordezkariak eratu dituzte.

¹²³ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauetan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

ez diren irakaskuntzak eskaintzen di-
ren Nafarroako Foru Erkidegoko ikas-
tetxe publikoetan eta itunpeko ikaste-
txe pribatuetan behar bezala aratu
dadin. Kontseiluak testua azaldu du eta
horren aldeko irizpena eman du,
3/2007 irizpenean jasotako oharrekin
batera.

Kontseiluak azaldutako foru dekretua-
ren zirriborroan, bere 2. artikuluan¹²⁴,

hain zuzen, Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeak eratu
dira eta horien kopurua garapen-arauetan zehaztuko da. Bi horiei dagokienez,
22¹²⁵ eta 23¹²⁶. artikuluetan horietako bakoitzaren eginkizunak definitzen dira eta

¹²⁴ 2. artikulua.

1. Foru Dekretu honetan ezarritakoa aplikatu ahal izateko, Eskolatzeko Batzorde Nagusia eratu da, Fo-
ru Dekretu honen (22. artikulua) III. kapituluaren atxikitako eginkizunekin, eta horren eraketa arau-
keta zehatzean zehaztutakora egokituko da.

2. Aldi berean, Tokiko Eskolatzeko Batzordeen sormena ere onetsi da, Foru Dekretu honen (23. arti-
kulua) III. kapituluaren atxikitako eginkizunekin, eta horren kopurua Hezkuntza Sailak Foru Dekretu
hau garatzen duen arauetan zehaztuko du.

¹²⁵ 22. artikulua.

1. Foru Dekretu honen 2. artikuluan aipatutako Eskolatzeko Batzorde Nagusiak eginkizun hauek bete
beharko ditu:

a) Ikasleak onartzeko prozedura osoa eta Foru Dekretu honetan ezarritakoa eta hori garatzen
duen arauketa aplikatzeko sortzen diren Tokiko Eskolatzeko Batzordeen jarduketara gidatu eta koordi-
natzea.

b) Ikastetxeei eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeei Foru Dekretu honen eta ikasleak onartzeko proze-
sua arautzeko onetsi den arauketaren edukari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.

c) Lehenengo tokian aukeratutako ikastetxean plazarik lortu ez duten ikasleak eskolatzea, Foru Dekretu
honen hurrengo artikuluan Tokiko Eskolatzeko Batzordeei atxikitako eskumenei kalterik egin gabe.

d) Hezkuntza-beharrizan zehatzak eta gizarte- nahiz kultura-egoera ahuleko ikasleen eskolatzea
kontrolatzea.

e) Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak agindutakoak betetzea.

2. Eskolatzeko Batzorde Nagusiak ikastetxeei eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeei, euren eskumenen ba-
rruan eta eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko xedearrekin, komenigarritzat jotako txostenak
eta agiriak eskatu ahal izango dizkie.

¹²⁶ 23. artikulua.

1. Tokiko Eskolatzeko Batzordea zenbait ikastetxe (publikoak eta/edo itunpeko ikastetxe pribatuak)
dauden lurralde-eremuan eraturako taldea edo organoa da, bere eremuaren barruan, ikasleak
onartzeko prozesuari buruzko informazioa eta aholkularitza eman eta horiek gainbegiratzeko hel-
buruarekin, Foru Dekretu hau garatzen duen arauketa aintzat hartuta.

2. Tokiko Eskolatzeko Batzordeek eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Plaza eskatzen duten gurasoengandik hezkuntza- eta gizarte-eremuko informazioa jasotzea.

b) Gurasoei aholkularitza ematea horien seme-alabak eskolatzean, Nafarroako Hezkuntza-sistema-
ri eta ikasleak Nafarroako Foru Erkidegoan onartzeari buruzko informazioa zabala eskainiz, berezi-
ki, bere lurralde-eremuko ikasleei dagokienez.

egitura eta kideen¹²⁷ ordezkartza ostean garatzen da. Tokiko Batzordeetan, aldiz, hezkuntza administrazioa, tokiko administrazioa, kasuan kasuko lurralde-eremu-ko ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatueta irakasleak, eta, azkenik, ikasleak ordezkartuta egongo dira.

2. Batzordeekin zerikusia duen foru aginduaren zirriborroaren deskripzioa

Txostenean jasotako arauaren proiektuan atarikoak, zortzi artikulua, hiru azken xedapen eta iragankor bat ageri dira.

Atarikoak. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Foru Aginduaren xedea Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eta Tokiko Batzordeen eraketa nahiz horiek antolatzeke kopurua zehaztea da.

1. artikulua. Eskolatzeko Batzorde Nagusiaz gain, Tokiko bost Eskolatzeko Batzorde eratu dira.

2. artikulua. Eskolatzeko Batzorde Nagusia. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Hezkuntza Sailaren organo horrek pertsegitu beharreko helburuak adierazten dira. Hezkuntza eskubidea, bermatu behar du, bai eta eskolako lanpostuak berdintasunean eskuratzeko eskubidea eta gurasoek nahiz tutoreek ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea ere. Bere eskumen-eremua unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak eskaintzen dituzten Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetara eta itunpeko ikastetxe pribatueta hedatzen da. Batzordeak egikaritzeke dituen eskumenak zerrendatzen dira, Tokiko Eskola-

c) Ikasleari buruz jasotako datuak baloratzea, eta ikastetxean eskolatzeko-proposamena egitea, lurralde-eremuko ikastetxe ezberdinen eskolatzeko-prozesuarekin zerikusia duen informazioa kontuan izanda.

d) Ikastetxeetan hezkuntza-laguntzarako beharrez zehatza behar duten ikasleen eskolatzeko modu ekitatiboan egiteke lankidetzan jardutea.

e) Gurasoei edo tutoreei, aukeratueta ikastetxeari eta Eskolatzeko Batzorde Nagusiari eskolatzeko-proposamenari buruzko informazioa ematea.

f) Izena emateke prozesuaren jarraipena egitea, eta Hezkuntza Sailaren Eskolatzeko Batzorde Nagusiak legezketasuna eta araueta betetzen direla bermatuteke du.

g) Hala denean, Eskolatzeko Batzorde Nagusiak aginduteke bestelakoak.

3. Batzorde horiek hezkuntza administrazio, tokiko administrazio, guraso, irakasle, kasuan kasuko lurralde-eremuko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu eta irakaskuntza-arloko sindikatuetako ordezkariak osatuteke dituzte.

¹²⁷ Ikus aipatu dekretuaren zirriborroaren testuan jasotako 2-1 "in fine" artikulua eta 23-3 artikulua.

tze Batzordeei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, eta azken horren funtzionamendua koordinatu eta gainbegiratuko du.

3. artikulua. Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eginkizunak. Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eginkizunak zenbatzen dira. Zerrenda irekia izango da, eta, horrenbestez, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Nagusiak agindutakoak ere bertan jasoko dira.

4. artikulua. Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eraketa. Horren eraketa lankidetzatza eta aholkularitza eskatzeko ahalmena zehazten dira.

5. artikulua. Tokiko Eskolatzeko Batzordeak. Tokiko Batzordea lurralde-eremu batean eratuko da, batik bat, lurralde horretako ikasleen onarpen-prozesuari buruzko informazioa eta aholkularitza eman eta hori gainbegiratu ahal izateko. Bost batzorde eratu dira zehatz-mehatz aipatutako eremuei begira. Iruñeko herriaren eta bere eskualdearen kasuan, bi Eskolatzeko Batzorde eratu dira kasuan kasuko eragin-eremuekin, zehazki adierazita eta mugatuta.

6. artikulua. Tokiko Eskolatzeko Batzordeen eginkizunak. Tokiko Batzordeen eginkizunak zenbatzen dira. Zerrenda irekia izango da, eta, horrenbestez, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Nagusiak agindutakoak ere bertan jasoko dira. Organo horien xedea ikasleek lurralde- edo eragin-eremuan kokatutako ikastetxeetako eskolatzeko-prozesuan aukera-berdintasunean parte hartzea bultzatu eta bermatzea da.

7. artikulua. Tokiko Batzordeen eraketa. Eskolatzeko Batzordeen eraketa zehazten da. Iruñeko eta bere eskualdeko Batzordeen eraketa eta gainerako hiru Batzordeen eraketa desberdintzen dira. Ordezkariek ikasturte bakoitzean horiek zein erakunde ordezkatu eta horiek izendatuko dituzte. Ikastetxe publikoetako zuzendariak dagokienez, Hezkuntza Sailak izendatuko ditu. Batzordeek Eskolatzeko Batzorde Nagusiari informazioa eta aholkularitza eskatu ahal izango diote. Horrek tokiko batzordeen funtzionamendua gainbegiratzeaz gain, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Nagusiari horri buruzko informazioa eman beharko dio.

8. artikulua. Tokiko Eskolatzeko Batzordeen funtzionamendua. Funtzionamenduen inguruko funtsezko moduak aipatzen dira, hala nola, bilera-tokia, urteko gutxienezko bilera-kopurua eta horien xedea. Eskolatzeko berantiarren eskabideak ebazteko modua adierazten da. Halaber, tokiko batzordearen eskolatzeko-proposamenak ukitutako ikastetxea horren mende jartzea dakar, baina ikasleentzat orientagarria da bakarrik. Eskolatzeko-mota horretan arazoak sortuz gero, Batzorde Nagusiak ebaziko ditu.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak Foru Aginduren edukia arauz garatzeko ahalmena izango du, Tokiko Eskolatze Batzordeen kopurua aldatzeko ahalmena barne hartuta.

Bigarrena. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak Eskolatze Batzordeen aurka aurkeztutako administrazio-errekurtsoak ebazteko ahalmena du.

Hirugarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

Xedapen iragankorra. Hezkuntza Sailak eta kasuan kasuko udalek gaur egungo Tokiko Eskolatze Batzordeak sortu eta horiek abian jartzeko sinatu duten hitzarmenak salatzen dituzte. Zernahi gisaz, horien funtzionamendua ahalbidetuko da Foru Aginduan xedatutakoaren aurka adierazitako guztia agortzen den heinean.

3. Eragin-eremuak ezarri dituen foru aginduren zirriborroaren deskripzioa

Txostenean jasotako arauaren proiektuan atarikoa, atal bakarra, bi xedapen iragankor eta bi azken xedapen ageri dira.

Atarikoa. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Ikastetxeen eragin-eremuetarako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86.1 "in fine" artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, Iruñeako, bere eskualdeko eta Tuterako gaur egungo eskolaren kokapen geografikoa aldatu behar da, ikastetxeen sare bakoitzerako zehatz-mehatz diseinatu dena: ikastetxe publikoak, itunpeko ikastetxeak eta D ereduko ikastetxeen sarea. Halaber, eragin-eremu horietako diseinua arauaren xedea da.

Lehenengoa. Ikastetxe publikoen eta itunpekoen eragin-eremuak, eta, hala deanean, zona mugakideak ezarri dira. Tuteraren eta Iruñearen kasuan, eragin-eremu berdinak ezarri dira. Nafarroako gainerako tokiei dagokienez, martxoaren 10eko 159/1996 FDan xedatutakoari helduko zaio¹²⁸.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. Aipatutako sei ikastetxeetarako aldi baterako atxikipen iragankorra zehazten da.

¹²⁸ Martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeen sarea berriro antolatzeari buruzkoa. (NAO, 43. zk., 1996ko apirilaren 8koa).

Bigarrena. Mendillorriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak Mendillorriko BHLri atxiki zaie, horien abian jarri ostean.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak Foru Aginduaren edukia arauz garatzeko ahalmena du.

Bigarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

4. Bestelako oharrak

4.1 Eskolatzeko Batzordeak agintzen dituen Foru Aginduaren testuaren zirriborroa. Zirriborroarekin batera Ikuskaritza Teknikoaren eta Zerbitzuen Zerbitzuko zuzendariak sinatutako lau oroitidazki aurkeztu dira. Hona hemen horien edukia:

Oroitidazki ekonomikoan adierazi denez, foru dekretuaren aplikazioak ez dakar ondore ekonomikorik.

Oroitidazki arautzailean, aldaketa-proposamena bermatzen duten arau-erreferentziak jasotzen dira. Horrez gain, Foru Aginduak Kontseiluaren txostenean jasotako Foru Dekretuaren zirriborroaren testua garatzen du Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeen inguruko guztiari dagokionez.

Oroitidazki antolatzailean ezarritakoaren ariora, proposatutako Foru Aginduaren testuan gaur egungo eskolatzeko batzordeak maiatzaren 3ko 2/2006 LOra egokitu behar dira. Batzorde horiek Hezkuntza Sailaren erantzukizunpekoak izango dira.

Oroitidazki justifikatzailean, maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez eskolatzeari buruz ezarritako aldaketak adierazten dira, eta horiek Nafarroako Eskolatzeko Batzordeen gaur egungo arauketara egokitu behar dira. Ondorenez, proposatutako testuaren xedea Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta Tokiko Batzordeak arautzea da.

4-2 Eragin-eremuak definitu dituen Foru Aginduaren testua. Testu honekin batera ere Ikuskaritza Teknikoaren eta Zerbitzuen Zerbitzuko zuzendariak sinatutako lau oroitidazki aurkeztu dira. Hona hemen horien edukia:

Oroitidazki ekonomikoan adierazi denez, foru dekretuaren aplikazioak ez dakar ondore ekonomikorik.

Oroitidazki arautzailean, aldaketa-proposamena bermatzen duten arau-erreferentziak jasotzen dira. Horrez gain, Foru Aginduaren bidez Nafarroako Foru Er-

kidegoko ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eragin-eremuak mugatzen dira.

Oroitidazki antolatzaileak zehaztutakoaren arabera, proposatutako arauak ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuetako eskolatzeko kokapen geografikoa eta eragin-eremuak hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan xedatutakora egokitu behar dira, ikastetxe horietako lanpostuen eskariaren araberrako eskaintza ahalbidetuz.

Oroitidazki justifikatzailean ezarritakoa kontuan hartuta, ikasleak onartzeko prozesuari begira ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eragin-eremuak zehazteko HLOren bidez ezarritako irizpide berriak direla medio, eragin-eremuak berriro zehaztu behar dira. Horrekin batera, Nafarroako ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen artean eskolatzeko egokia eta orekatua bermatuko da.

5. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ustez egokia da eta behar beste justifikatu da Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta Tokiko bost Eskolatzeko Batzordeak sortu eta helburuak, eginkizunak eta eraketa definitzeko beharrezana. Era berean, ikastetxeen eragin-eremu berriak definitu behar dira, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoa aintzat hartuta. Horrenbestez, "Ikasleen onarpenari buruzko ___ /2007 FDan ezarritako Eskolatzeko Batzordeak eratu dituen Foru Agindua"ren eta "Ikasleen onarpenari buruzko ___ /2007 FDaren 7. artikuluan zehaztutako ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eragin-eremuak ezarri dituen Foru Agindua"ren proiektuaren izapidetzaren aldeko irizpena eman da.

Hala ere, Nafarroako Eskola Kontseiluak, bidezko arrazoen ondorioz, Eskolatzeko Batzordeetan gurasoen ordezkariak Elkaratek proposatu beharrean Gurasoek Federazioek proposatzea gomendatzen da.

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 2an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

- Javier Marcotegui Ros jn.
Nafarroako Eskola Kontseiluburua
- Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria
- Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA ikastetxe pribatuaren ordezkaria.
- Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE ikastetxe pribatuaren ordezkaria
- José Manuel Urroz Barasoain jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria
- M^a Luisa De Simón and.
CCOO ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria.
- Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Federazioa
- Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

5/2007 Irizpena

2007ko otsailaren 6an egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 4 botoekin, aurkako 2 botoekin eta abstentzio batekin, hurrengo irizpena eman da: "Hezkuntza-lankidetzarako ekintzak garatzeko *Academie de Bordeaux* eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailaren artean sinatutako lankidetzahitzarmena".

1. Arau-aurrekariak

Eskola Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako hitzarmen honen oinarri gisa 2005eko maiatzaren 16an Espainiako Gobernuaren eta Frantziako Errepublikaren artean sinatutako esparru-hitzarmena ezarri da, 1969ko otsai-

laren 7ko Kultura, Zientzia eta Teknika Lankidetzarako Hitzarmenaren 1 eta 2. artikulua¹²⁹ aintzat hartuta.

Hitzarmen horren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, AAEEko ikastetxeetan Frantziako hizkuntza eta kultura ikasi eta hobetzeko hezkuntza-, hizkuntza- eta kultura-programak hezkuntza administrazioek eta Espainian kokatutako Frantziako Enbaxadaren Kultura Zerbitzuak eta/edo "*Rectorats de Academies*" izenekoak sinatutako administrazio-hitzarmen zehatzak dira.

Hori dela bide, maiatzaren 29an Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak eta Frantziako Kultura Zerbitzuak, Eskola Kontseiluaren aurretiazko irizpenarekin, Foru Erkidegoko ikastetxeetan lankidetzahitzarmena¹³⁰ sinatu zuten.

¹²⁹ Espainiako Erreinuako Gobernuaren eta Frantziako Errepublikako Gobernuaren artean bi estatu horietako ikastetxeen hezkuntza-, hizkuntza- eta kultura-programei buruz sinatutako esparru-hitzarmena aldi baterako ezartzea; Madril, 2005eko maiatzaren 16an. (EAO, 164. zk., 2006ko uztailaren 11koa).

¹³⁰ Ez da argitaratu NAOn.

2. Proposatutako hitzarmenaren deskripzioa

Proposatutako hitzarmenaren azalpen-zatia eta sei klausula ageri dira.

Azalpen-zatian hitzarmenaren sinadura baliozkotzeko tituluak zehazten dira; gainera, Europar Batasunaren helburuen artean, hezkuntzak eta prestakuntzak esanahi berezia dute erkidegoa garatu ahal izateko. Gisa berean, tokiko eta eskualdeetako erakundeen arteko harremanak garrantzitsuak dira erkidegoa behar bezala garatu ahal izateko.

Bestalde, *Academie de Bordeaux*ek eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak lankidetzat-lotura estuak formalizatu eta garatu nahi dituzte, hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea hobetzeko xedearekin.

Lehenengo klausulan hitzarmenaren xedea eta konpromisoak zehazten dira. Xedea lankidetzat-esparrua sortzea da, batik bat, aipatu bederatziko lankidetzat-ekintzak burutzeko.

Bigarren klausulan ezarritakoaren ariora, agiria esparru-hitzarmen gisa definitzen da, eta eranskin zehatzak gehitu behar dira alderdiek eskuratutako konpromisoak zehazteko. Ikasturte bakoitzaren lehenengo hiru hilabeteetan sinatuko dira. Halakoetan, ikasturte bakoitzerako aurreikusitako ekintza-programak, finantzaketa eta ekintza bakoitza betearazteko pertsona arduradunak jasoko dira.

Hirugarren klausulan Jarraipeneko Batzorde Teknikoaren eraketa zehazten da. Horren eraketa, bileren gutxienezko aldizkakotasuna eta eginkizunak adierazten dira, horien artean, proiektuaren koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

Laugarren klausulan adierazitakoari helduta, goian aipatutako Frantziako Errepublikako Gobernuaren eta Espainiako Erreinuaren¹³¹ artean sinatutako esparru-hitzarmenaren 4. artikularen ondorioz, Jarraipeneko Aldebiko Batzordeari hitzarmen horri buruzko informazioa eman beharko zaio. Gainera, 8. artikuluan ezarritako betebeharra ere bete behar da, hain zuzen ere, esparru-hitzarmena behar bezala betetzen dela zainduko da¹³².

Bosgarren klausularen arabera, Jarraipeneko Batzorde Teknikoak hitzarmena interpretatu edo aplikatzearen ondorioz sortutako gatazkak ebazteko ahalmena du.

Seigarren klausulan, hitzarmena indarrean jartzeko data ezarri da, betiere hori sinatu ostean, bai eta horren iraupen mugagabea, eta, ahal izanez gero, alder-

¹³¹ 4. art. ... Aurretzat Hitzarmen horretan ezarritako Jarraipeneko Aldebiko Batzordeari jakinaraziko zaio, eta diplomazia-bidearen bitartez aurretzatko komunikazioa igorriko da.

¹³² 8. art. Batzordeak ... administrazio-hitzarmenak ezagutuko ditu eta horien plangintza hitzarmen horren espiritua eta edukia errespetatuta garatuko dela zainduko du.

dien adostasunez edo alderdietatik edozeinek sei hilabeteko aurrerapenarekin hitzarmen hori ukatzeko aukera ere.

3. Bestelako oharrak

Irizpenaren mende jarritako Hitzarmenaren proposamenarekin batera Araubide Bereziko Irakaskuntza Ataleko buruak eta Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatutako txostena aurkeztu da. Txosten horretan, proposatutako hitzarmenaren eta horren edukiaren arau-aurrekariak azaltzen dira.

4. Iradokizunak eta oharrak

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren ustez hitzarmenaren bidez pertsegitutako helburuak Nafarroako hezkuntza-sistemarako onuragarriak dira. Horrenbestez, Kontseiluaren Osoko Bilkuran 2005eko azaroaren 23an egindako bileran erabakitako eginkizunen eskuordetzearen ariora, "Hezkuntza-lankidetzarako ekintzak garatzeko *Academie de Bordeaux*en eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailaren artean sinatutako lankidetzeta-hitzarmena" sinatzearen aldeko irizpena eman du.

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko otsailaren 6an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

6/2007 Irizpena

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetako irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Javier Barinaga Adrián jn.
Ikastetxeetako Administrazioiko eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen orde-
zkaria

María Luisa De Simón Caballero
and.

CCOO ikastetxe publikoetako ira-
kasleen ordezkaria.

2007ko martxoaren 5ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 17 botoekin, aurkako 5 botoekin eta 5 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko irakaskuntzen curriculuma ezarri duen Foru Dekretua" ren zirriborroa.

1. Arau-aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organi-
koaren I. tituluko I. kapituluaren 6-2¹³³
artikuluaren ezarritakoaren ariora, Espai-
niako Erreinuaren Gobernuak esku-
mena izango du hezkuntza eskubidea
arautzen duen uztailaren 3ko¹³⁴
8/1985 Lege Organikoaren 1. xeda-
pen gehigarriaren 2. atalean jasotako
c) letran adierazitako gutxieneko ira-
kaskuntzak zehazteko.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloari da-
gokionez, Estatuak eskumen hori egika-

¹³³ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatza-
ren 4koa). 6-2 artikulua. Prestakuntza erkidea ziurtatu eta kasuan kasuko tituluen baliozkotasuna
bermatzeko xedearekin, Gobernuak, helburuei, oinarrizko eskumenei, edukiei eta ebaluazio-irizpi-
deei dagokienez, Hezkuntza Eskubidea arautu duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren le-
henengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan jasotako c) letran aipatutako gutxieneko irakaskun-
tzen curriculumaren oinarrizko alderdiak zehaztuko ditu.

¹³⁴ Hezkuntza Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea (EAO, 1985eko uztailaren 4koa).
Lehenengo xedapen gehigarria.- 1. Lege hau kasuan kasuko autonomia-estatutuetan, edo, hala de-
nean, eskumenak eskualdatzeko lege organikoetan eskumena aitortuta duten autonomia-erkide-
goek garatu ahal izango dituzte. Hala ere, Lege honen arabera Estatuari atxikitako gaiak salbuesten
dira. 2. Edozein kasutan ere, eta izaera horri helduta, Estatuak eskumen hauek izango ditu:

...

c) Gutxieneko irakaskuntzak ezartzea eta Espainiako lurralde osoan baliozkoak diren ikasketa- eta
lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko gainerako baldintza guztiak arautzea.

- Javier del Castillo Díaz jn.
UGT sindikatu-erakundeen ordezkaria
- Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria
- José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria
- Fermín Eusebio Garde Mellado jn.
SORTZEN Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria
- Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.
- Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria
- Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetao erakunde titularren ordezkaria
- José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetao erakunde titularren ordezkaria
- Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria
- ritu du abenduaren 29ko 1630/2006 ED argitaratuta¹³⁵. ED horren 5-2¹³⁶ artikuluaen arabera, hezkuntza administrazioek Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren curriculuma ezarri behar dute, eta, edozein kasutan ere, gutxieneko irakaskuntzak jasoko dira.
- Hobekuntzari buruzko Legearen 47. artikuluan ezarritakoaren ariora¹³⁷, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduei, horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak eskumenei kalterik egin gabe. Horrenbestez, Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak bere eskumeneko lurralde-eremuko hezkuntza-curriculumak ezarri beharko ditu. Hori dela medio, irizpen horri begira jarraian labor-labor azaldutako Foru Dekretuaren proiektua aurkeztu da.
2. Foru dekretuaren zirriborroaren deskripzioa
- Txostenean jasotako arau-proiektuan atariko eta hamar artikulua, lau xeda-

¹³⁵ Abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak ezarri dituen (EAO, 4. zk., 2006ko urtarrilaren 4koa).

¹³⁶ 5. artikulua. Hezkuntza-edukiak eta curriculumak.

...

2. Hezkuntza Administrazioek Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko curriculumak ezarriko dute, eta edozein kasutan ere, Errege Dekretu honetan zehaztutako gutxieneko irakaskuntzak jasoko dira.

¹³⁷ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
CSI-CSIF ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria.

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Federazioko ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria

pen gehigarri, iragankor bat, indargabetzaille bat eta bi azken xedapen ageri dira.

Atarikoak. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirraborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Haurtzaroan gizakia garatzeko aurrerapenak gertatzen dira. Hori dela bide, arau-testuan haurrek euren gaitasunak ahalik gehien garatzeko beharrezkoak diren neurriak zehazten dira. Nork bere garapenera eta prestakuntzara zuzendutako hamazazpi printzipio aipatzen dira.

Aurkeztutako curriculuma Haur Hezkuntzaren bigarren zikloari buruzkoa da eta horren edukia hiru prestakuntza-arloetan banantzen da, horiek bere beregi azalduta. Curriculumaren helburuak ikasleak etapan garatu beharreko gaitasunak dira. Ebaluazioaren xedea eskuratutako ikaskuntzak identifikatzea da, eta horrekin batera, eskuratutako garapena baloratu ahal izango da. Irakaskuntza-ikaskuntzaren

prozesua ikasleen ezaugarri pertsonaletara, beharizanetara, interesetara eta ezagutzara egokitu behar da. Azkenik, familiek prestakuntza-prozesuan lankidetzan jardun behar dute.

1. artikulua. Arauaren aplikazio-eremua definitzen da. Nafarroako Foru Erki-degoko ikastetxe publikoak, pribatuak eta itunpekoak adierazten dira.

2. artikulua. Etaparen printzipio orokorrak ezarri dira. Nortasun propio hori hiru urteko bi zikloetan antolatzen da eta zero eta sei urte bitarteko hurrak biltzen dira. Gainera, bigarren zikloan borondatezkoa eta doakoa izango da.

3. artikulua. Hezkuntzaren helburuak zehaztu dira, horien artean, hurrak ikuspuntu fisiko, afektibo, gizarte eta intelektualetik garatzeko laguntza ematea.

4. artikulua. Etaparen helburuak zerrendatzen dira. Haur Hezkuntzan hemen aipatutako zazpi helburuak lortzeko haurrek behar dituzten gaitasunak garatu behar dira.

5. artikulua. Arlo ezberdinetan jasotako edukien antolakuntza zehazten da. Arloak ordena-mota guztietako ikaskuntza-esparruak dira. Hain zuzen ere, arloen helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak adierazi dira arauaren eranskinean jasotakoei begira eta lan-metodoak aipatzen dira.

6. artikulua. Adierazitako curriculuma Haur Hezkuntzaren bigarren zikloari dagokiona izan behar dela azaltzen da. Ziklo honetan atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzari ekingo zaio eta trebakuntza ezberdinen irakurketa, idazketa eta hastapen goiztiarra hasiko da, hala nola, informazioaren zenbakizko oinarriko trebakuntza, komunikazioa, ikusmen-adierazpena eta musika-adierazpena. Ikastetxeak curriculuma garatu eta osatzeko arduradunak izango dira.

7. artikulua. Ebaluazioa. Ebaluazioa prestatzailea, etengabea eta erabatekoa izango da. Eskuratutako ikaskuntzak eta haurrak aurrerapausoa emateko erri-tmoa eta ezaugarria identifikatu behar dira. Horrez gain, ikaskuntza-prozesua eta hezkuntza-praktika ere ebaluatu egin behar dira.

8. artikulua. Sailak ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolatzailea biderratu behar du, bai eta irakasleen talde-lana eta ikerketa-lana bultzatu ere. Gainera, irakasleak gizartean aintzatetsi egin behar dira. Halaber, zuzendaritza-taldearen betebeharrak zehaztu behar dira, eta familiek hezkuntza-prozesuan lankidetzan jardun eta parte hartu behar dute.

9. artikulua. Haur eta Lehen Hezkuntzaren arteko koordinazio-irizpideak ezarri behar dira.

10. artikulua. Aniztasunari arreta emateko gaia jorratzen da. Guztion garapena eta banakako arreta bateratu behar dira.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza zehazten da. Edukiak arauaren eranskinean zehaztu dira.

Bigarrena. Nafarroan euskararen euskalkien ikaskuntza eta eskolan horien erabilera bermatzen da.

Hirugarrena. Erljio-irakaskuntzak maiatzaren 3ko¹³⁸ 2/2006 Legearen 2. xedapen gehigarriaren arabera curriculumean jasota ageri behar dira. Irakaskuntza

¹³⁸ Bigarren xedapen gehigarria. Erljioaren irakaskuntza.

1. Erljio katolikoaren irakaskuntza Aulki Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaietarako Akordioa ezarritakora egokituko da. Horretarako, eta akordio horretan ezarritakoarekin bat etorritik, erlijio katolikoa kasuan kasuko hezkuntza mailetan arlo edo irakasgai gisa ezarriko da, eta derrigorrezkoa izango da ikastetxeen kasuan, eta, borondatezkoa ikasleei begira.

horiek jasotzeko borondate-izaera azpimarratzen da. Elizaren hierarkia eta erlijio agintari egokien eskumena errespetatzen da irakaskuntza horien curriculum-a definitu ahal izateko.

Xedapen iragankorra

Bakarra. Abenduaren 30eko¹³⁹ 574/1991 Foru Dekretua aplikatuko da Haur Hezkuntzaren antolamendu berria ezartzen ez den bitartean, ekainaren 30eko¹⁴⁰ EDan xedatutakoa aintzat hartuta.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Abenduaren 30eko 574/1991 Foru Dekretua eta irizpenaren mende ezarritako testuaren aurka dagoen maila bereko edo beheragoko bestelako xedapenak indargabetu dira.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru Dekretua araz garatzeko Sailburuaren baimena jasotzen da.

Bigarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

3. Bestelako oharrak

Foru Dekretuaren Zirriborroarekin batera oroitidazki hauek aurkeztu dira: justifikatzailea, ekonomikoa, arautzailea eta antolatzailea.

Oroitidazki justifikatzailea Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari nagusiaren txostenarekin eta adituen bi txostenekin osatzen da. Zuzendari nagusiak sinatutako txostenean adierazitakoaren ariora, Foru Dekretuaren zirriborroa kultura- eta pedagogia-eremuko bi espezialistek baloratu dute eta egin diren

2. Bestelako erlijioen irakaskuntza Espainiako Estatuak Espainiako Ebanjelio eta Erlijio Erakundeekin, Espainiako Israelgo Erkidegoen Federazioarekin, Espainiako Islamiar Batzordearekin sinatutako lan-kidetzakordioetan, eta, hala denean, etorkizunean beste erlijio sinetsideekin hitzartutakoetan xedatutakora egokituko da.

¹³⁹ Abenduaren 30eko 574/1991 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur hezkuntzaren curriculum-a ezarri duena. (NAO, 13. zk., 1992ko urtarrilaren 29koa)

¹⁴⁰ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamendu berriaren egutegia ezarri duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua. (NAO, 167.zk., 2006ko uztailearen 14koa).

iradokizunak eta balorazioak testuan jaso dira. Bi txostenak Dekretuaren zirriborroarekin batera aurkeztutako agiriekin batera jaso dira.

UHUNeko Hezkuntza Konparatu eta Nazioarteko Hezkuntzako José Luis Garrido katedradun jaunak sinatutako txostenean, "Ohar orokorrak" atalean, hain zuzen, hori modu positiboan baloratu daitekeela adierazi da.

UHUNeko Hezkuntzaren Ikerketa eta Diagnostiko Metodoen Ramón Pérez Juste jaunak igorritako txostenean, "Sintesia eta Balorazio Osoa" IV. atalaren 12. puntuan, hain zuzen, balorazio osoa eta positiboa aipatzen da.

Oroitidazki ekonomikoaren ezarritakoaren arabera, Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatu duena, Foru Dekretuaren aplikazioak ez dakar inolako ondorio ekonomikorik.

Oroitidazki arautzailean, Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatutakoan, aldaketa-proposamena bermatzen duten arauen erreferentziak jaso dira. Amaitzeko, irizpenaren mende ezarritako zirriborroaren Foru Dekretua indarrean jarri ostean, abenduaren 30eko 574/1991 Foru Dekretua indargabetuko da.

Oroitidazki antolatzailean ezarritakoa kontuan hartuta, Eskola eta Lanbide Iraekuntzen zuzendari nagusiak sinatu duena, testuak ez du inolako eraginik izango egituraren edo langileen gain.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez komenigarria eta egokia da Haur Hezkuntzaren bigarren zikloari begira proposatutako eskola-curriculuma, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeek hori garatu eta aplikatu dezaten. Horrenbestez, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzaren bigarren zikloaren irakaskuntzen curriculuma ezarri duen Foru Dekretuaren proiektuaren izapidetzaren aldeko irizpena eman da.

Hala ere, onetsitako zuzenketa kontuan hartuta, aldaketa hauek egiteko gomen-dioa egin da:

6. artikulua 2. puntuan "goiztiarra" hitza ezabatu behar da eta artikulua bereko 4. puntuan "errutinak" hitza ezabatu behar da. Ondorenez, testuak idazkera hau erakutsiko du:

"2. Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan ikasleek atzerriko hizkuntzen ikaskuntzari ekingo diote. Gisa berean, irakurketara eta idazkerara bideratutako lehenengo hurbilketak sustatuko dira, bai eta oinarrizko zenbakizko trebakuntzak, in-

formazioaren teknologiak, komunikazioa eta ikusmen- nahiz musika-adierazpena bezalako esperientzien garapena ere.”

“4. Hezkuntza-edukiak haurrentzat interesa eta esanahia eragiten duten jardue-
ra orokorren bidez jorratuko dira. Ikastetxean egunean-egunean gertatzen diren
egoerek jarduera horien ardatza izango dira.”

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetakoa irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Javier Barinaga Adrián jn.
Ikastetxeetako Administrazioiko eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen orde-
zkaria

María Luisa De Simón Caballero
and.
CCOO ikastetxe publikoetako ira-
kasleen ordezkaria.

7/2007 Irizpena

2007ko martxoaren 5ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oso-ko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 16 botoekin, aurkako 5 botoekin eta 4 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "Nafarroako Foru Erkidegoan Lehen Hezkuntzako irakaskun- tzen curriculuma ezarri duen Foru Dekretua" ren zirriborroa.

1. Arau-aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organi-koaren I. tituluko I. kapituluaren 6-2¹⁴¹ artikuluan ezarritakoaren arioren, Espai- niako Erreinuaren Gobernuak esku- mena izango du hezkuntza eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko¹⁴² 8/1985 Lege Organikoaren 1. xeda- pen gehigarriaren 2. atalean jasotako c) letran adierazitako gutxieneko ira- kaskuntzak zehazteko.

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloari da- gokionez, Estatuak eskumen hori egikari- tu du abenduaren 7ko 1513/2006 ED

¹⁴¹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatza- ren 4koa). 6-2 artikulua. Prestakuntza erkidea ziurtatu eta kasuan kasuko tituluen baliozkotasuna bermatzeko xedarekin, Gobernuak, helburuei, oinarritzko eskumenei, edukiei eta ebaluazio-irizpi- deei dagokienez, Hezkuntza Eskubidea arautu duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren le- henengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan jasotako c) letran aipatutako gutxieneko irakaskun- tzen curriculumaren oinarritzko alderdiak zehaztuko ditu.

¹⁴² Hezkuntza Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea (EAO, 1985eko uztailaren 4koa). Lehenengo xedapen gehigarria.- 1. Lege hau kasuan kasuko autonomia-estatutuetan, edo, hala de- nean, eskumenak eskualdatzeko lege organikoetan eskumena aitortuta duten autonomia-erkide- goek garatu ahal izango dituzte. Hala ere, Lege honen arabera Estatuari atxikitako gaiak salbuesten dira. 2. Edozein kasutan ere, eta izaera horri helduta, Estatuak eskumen hauek izango ditu:

...

c) Gutxieneko irakaskuntzak ezartzea eta Espainiako lurralde osoan baliozkoak diren ikasketa- eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko gainerako baldintza guztiak arautzea.

Javier del Castillo Díaz jn.
UGT sindikatu-erakundeen ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.

CONCAPA Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.

SORTZEN Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

argitaratuta¹⁴³. ED horren 5-3¹⁴⁴ artikulua-
ren arabera, hezkuntza administrazioek
Lehen Hezkuntzako curriculuma ezarri
behar dute, edozein kasutan ere, gutxie-
neko irakaskuntzak jasoko dira.

Hobekuntzari buruzko Legearen 47.
artikulan ezarritakoaren arabera¹⁴⁵,
Nafarroak eskumen osoa du irakas-
kuntzaren arauketan eta administra-
zioan, bere zabalera, maila eta gradu,
mota nahiz espezialitate guztietan, gai
honi buruzko konstituzio-aginduei, hori-
ek garatzen dituzten Lege Organikoei
eta Estatuak eskumenei kalterik egin
gabe. Horrenbestez, Nafarroako Foru
Erkidegoko Gobernuak bere eskume-
neko lurralde-eremuko hezkuntza-cu-
rriculumak ezarri beharko ditu. Hori
dela medio, irizpen horri begira ja-
rrian labor-labor azaldutako Foru De-
kretuaren proiektua aurkeztu da.

2. Foru dekretuaren zirriborroa-
ren deskripzioa

Txostenean jasotako arau-proiektuan
atarikoa eta hamasei artikulua, hiru xe-

¹⁴³ Abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri dituen. (EAO, 293. zk., 2006ko abenduaren 8koa).

¹⁴⁴ 5. artikulua. Curriculumak.

...

3. Hezkuntza Administrazioek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak ezarriko dute, eta edozein kasutan ere, bertan errege dekretu honetan zehaztutako gutxieneko irakaskuntzak jasoko dira. Hain zuzen ere, eskolako orduen ehuneko 65 eskatutako da, edo, ehuneko 55, hizkuntza ko-
ofiziala duten autonomia-erdegietan.

¹⁴⁵ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

- Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria
- Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria
- Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria
- Rosa M^a Pérez Bardot and.
CSI-CSIF ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria.
- Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria
- Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Federazioko ordezkariak.
- Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria
- Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundearen ordezkaria
- Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua
- José Manuel Urroz Barasoain jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria
- dapen gehigarri, iragankor bat, indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ageri dira.
- Atarikoak. Atarikoan Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Curriculumak idatzi ahal izateko, oinarri gisa ikasleen garapena eta prestakuntza modu koherentean eta etengabe ematen dituzten printzipioak ezarri dira. Halaber, hemezortzi printzipio adierazi dira.
- Aurkeztutako curriculumak Lehen Hezkuntzari buruzkoa da. Curriculumean zehaztutako oinarrizko eskumenak direla medio, ezinbestekoak diren ikaskuntzak identifika daitezke. Horrela, ikaslea garatzeaz gain, herritarren artean parte-hartzea aktiboa izango du, helduen bizitzan modu egokian sartuko da eta bizitzan zehar ikasteko gaitasuna izango du. Oinarrizko eskumena definitzen da.
- Gainera, curriculumaren helburuak etapa osotasunean hartuta planteatzen dira eta gaitasunaren kontzeptuak definitzen dira. Edukiak zikloen arabera antolatuko dira. Ebaluazio-irizpideen bidez, eskuratutako ikaskuntza-mota eta horren maila baloratuko dira eta oinarrizko eskumenak lortzeko erreferentzia-puntua izango dira.
- Hezkuntzaren esku-hartzea aniztasunari arreta emateko printzipioa izan behar du oinarri. Horri begira hartutako neurriak ikaskuntzan eta garapen pertsonalean zailtasunak antzeman bezain laster aplikatuko dira.
- Azkenik, diagnostikoaren ebaluazioa prestakuntza-tresna gisa kalifikatzen da, hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren orientabidea.
1. artikulua. Arauaren aplikazio-eremua definitzen da. Nafarroako Foru Erki-degoko ikastetxe publikoak, pribatuak eta itunpekoak adierazten dira.

2. artikulua. Etaparen printzipio orokorrak ezarri dira. Borondatezkoa eta doakoa da, eta bi urteko hiru zikloetan banantzen da. Ziklo horietan sei eta hama bi urte bitarteko hurrek parte hartuko dute eta edukiak arloetan bereiziko dira.

3. artikulua. Hezkuntzaren helburuak adierazten dira, horien artean, garapen pertsonala eta ikasketa-trebakuntza zehatzen eta gizarte-trebakuntza, lan-ohiturak, ikasketa-ohiturak eta afektibotasunaren ikuspuntua eskuratzea.

4. artikulua. Etaparen helburuak zerrendatzen dira. Lehen Hezkuntzan hemen aipatutako zazpi helburuak lortzeko hurrek behar dituzten gaitasunak garatu behar dira.

5. artikulua. Maiatzaren 3ko 2/2006 LOren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera aipatutako arloen edukien antolakuntza zehazten da. Gainera, herritarrei zuzendutako hezkuntza-arloa adierazten da. Hirugarren zikloan atzerriko hizkuntza ikasteko aukera eskaintzen da. Halaber, irakurketa-ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta balioen prestakuntza arlo guztietan landu behar dira.

6. artikulua. Curriculumaren kontzeptua definitzen da. Ikastetxeek ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasoko den curriculuma garatzeko eta osatzeko arduraz izango dute, maiatzaren 3ko 2/2006 LOren 121.1 artikulua arabera, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasoko dena.

7. artikulua. Arauaren I. eranskinean jasotako edukia adierazten da. Izan ere, Lehen Hezkuntzan erdietsi beharreko oinarrizko eskumenak zehazten dira. Behin betiko garatutako curriculumak, ikastetxeen antolakuntzak eta funtzionamenduak eta horren jarduerak oinarrizko eskumenen garapena ahalbidetu behar dute. Bereziki, hizkuntza-eskumena azpimarra daiteke. Hain zuzen ere, irakasgai eta ikasturte guztietan irakurketarako denbora-tartea eskaini behar da.

8. artikulua. Arauaren II. eranskinean jasotako edukia aipatzen da. Izan ere, irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak adierazten dira.

9. artikulua. Ebaluazioa. Ebaluazioa etengabea eta osoa izango da. Oinarrizko eskumenak eskuratzeko baliagarria izan behar da. Gisa bertsuan, hezkuntza sendotzeko neurriak hartuko dira ikaskuntzan zailtasunak antzeman bezain laster. Gainera, irakaskuntza-prozesua eta hezkuntza-praktika ebaluatu behar dira.

10. artikulua. Ikasleek zikloa amaitzean ikasturte batetik bestera sustatzeko agindua ezartzen da. Hurrengo zikloan parte hartu ahal izateko, eta, hala denean, DBHn, ikasleek oinarrizko eskumenak eta heldutasun maila egokia eskuratu izan behar dute, baldin eta gairitu gabeko ikaskuntzek hurrengo zikloa arrakastarekin burutzeko zailtasunak agerian uzten ez badituzte. Ziklo berean urtebete gehiago bakarrik iraun ahal izango da eta sendotze- edo berreskura-

tze-neurriak hartu beharko dira. DBHn parte hartzeko, betekizun horiek betetzen ez badira, ikasturtea errepikatu eta hezkuntza-arloko laguntzak jasotzeari buruzko arauan ezarritakoa agortu beharko da. Gurasoek eta tutoreek ebaluazioarekin eta sustapenarekin zerikusia duten erabakiak ezagutu behar dituzte eta ikastetxearekin lankidetzan jardun behar dute hezkuntza-aurrerapena errazteko xedearekin.

11. artikulua. Haur eta Lehen Hezkuntzaren artean eta Lehen eta Derrigorrerako Bigarren Hezkuntzaren artean koordinazio-irizpideak ezarri behar dira.

12. artikulua. Tutoretza-ekintzak ikasleen banakako eta taldeko hezkuntza-prozesuaren orientabidearen gaineko erantzukizuna du. Tutoreak irakasleek hezkuntza-arloan duten esku-hartzea koordinatzeaz gain, familiei informazio egokia eman behar die.

13. artikulua. Ikasleen banakako txostena idatzi behar du ikaskuntzen eskuraketa mailari buruz, banakako arreta bermatzeko xedearekin.

14. artikulua. Aniztasunari arreta emateko gaia jorratzen da. Guztion garapena eta banakako arreta bateratu behar dira. Sailak beharrezkoak diren curriculum- eta antolakuntza-neurriak adierazi behar ditu.

15. artikulua. Sailak ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolatzailea bideratu behar du, bai eta irakasleen talde-lana eta ikerketa-lana bultzatu ere. Gainera, irakasleak gizartean aintzatetsi egin behar dira. Zuzendaritza-taldearen betebeharrak, ikastetxeek curriculum-a garatu eta osatzeko duen eskumena, aniztasunari arreta emateko neurriak eta familiek hezkuntza-prozesuan lankidetzan jardun eta parte hartzeko beharrezkoak adierazten dira, betiere irakasleen agintaritza errespetatuta.

16. artikulua. Etaparen ebaluazioa. Ikasketa-ondorerik gabeko diagnostiko-ebaluazioa azpimarratu da, batez ere, bigarren ikasturtea amaitzen denean, ikastetxeek hirugarren zikloaren antolakuntzan eta familiei nahiz hezkuntza-erkidego osoari informazioaren inguruan prestakuntza eta orientabidea eskaintzeko. Sailak zikloetatik edozein amaitzen denean beste ebaluazio batzuk egin ahal izango ditu.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Nafarroan euskararen euskalkien ikaskuntza eta eskolan horien erabilera bermatzen da.

Bigarrena. Curriculumaren hizkuntza guztien ikaskuntza bateratua eta koordinatua eskaintzen da.

Hirugarrena. Curriculumaren arlo batzuk atzerriko hizkuntzan eskaintzeko baimena ematen da. Ikasleak ikastetxe horietan onartu ahal izateko, irizpide orokorretara egokitu beharko da, hizkuntza-betekizunak barnean hartu gabe.

Laugarrena. Erlijio-irakaskuntzak maiatzaren 3ko 2/2006 Legearen 2¹⁴⁶. xedapen gehigarriaren araberrako curriculumean jasota ageri behar dira. Irakaskuntza horiek jasotzeko borondate-izaera azpimarratzen da. Ikastetxeek, aipatutakoa kontuan hartuta, antolakuntza-neurriak garatuko dituzte erlijio-irakaskuntzak aukeratu dituzten ikasleei zuzenduta. Elizaren hierarkia eta erlijio-irakaskuntza eskumena errespetatzen da irakaskuntza horien curriculuma definitu ahal izateko. Irakaskuntza horien ebaluazioa beste arlo batzuetan egindakoaren baliokidea da, eta kalifikazioa ez da zenbatuko ikasketa-espeditenteen aldibereotasuna gertatzen den deialdietan.

Xedapen iragankorra

Bakarra. Martxoaren 16ko 100/1992 FD¹⁴⁷ aplikatuko da Lehen Hezkuntzako antolamendu berria ezartzen ez den bitartean, ekainaren 30eko 806/2006 EDan¹⁴⁸ xedatutakoa aintzat hartuta.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Martxoaren 16ko 100/1992 Foru Dekretua indargabetu da, Lehen Hezkuntzako antolamendu berri ezartzen den heinean. Horrez gain, irizpenaren mende ezarritako testuaren aurka dagoen maila bereko edo beheragoko bestelako xedapenak indargabetu dira.

¹⁴⁶ Bigarren Xedapen Gehigarria. Erlijioaren irakaskuntza.

1. Erlijio katolikoaren irakaskuntza Vatikanoko eta Estatu Espainiarrak Irakaskuntza eta Kultura-gaien arloan sinatutako Akordioan ezarritik dagoenari egokituko zaio. Horretarako, akordio horretan xedaturik dagoenarekin bat etorritik, erlijio katolikoa egoki den hezkuntza mailetan ikasteko arlo edo ikasgai gisa sartuko da; ikasgai hori nahitaez eskaini beharko dute ikastetxeek, baina ikasleentzat borondatezko ikasgaia izanen da.

2. Beste erlijio batzuen irakaskuntza Estatu Espainiarrak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Israeldar Komunitateen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamiarrekin sinatutako lankidetzak akordioetan eta, kasuan kasu, inoizkotan beste erlijio batzuekin sina daitezkeen akordioetan xedaturik dagoenari doituko zaio.

¹⁴⁷ Martxoaren 16ko 100/1992 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan Lehen Hezkuntzaren curriculumak ezarri duena. (NAO, 58. zk., 1992ko maiatzaren 13koa).

¹⁴⁸ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamendu berriaren egutegia ezarri duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua. (NAO, 167.zk., 2006ko uztailaren 14koa).

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru Dekretua arauz garatzeko Sailburuaren baimena jasotzen da.

Bigarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

3. Bestelako oharrak

Foru Dekretuaren Zirriborroarekin batera oroitidazki hauek aurkeztu dira: justifikatzailea, ekonomikoa, arautzailea eta antolatzailea.

Oroitidazki justifikatzailea Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari nagusiaren txostenarekin eta adituen hiru txostenekin osatzen da. Zuzendari nagusiak sinatutako txostenean adierazitakoaren ariora, Foru Dekretuaren zirriborroan berrikuntza bat jaso da: curriculumeko hizkuntzen irakaskuntzaren tratamendu bateratua eta koordinatua. Alderdi hori Garrido irakasleak txosten zehatz batean jorratu du. Gainera, arau-proiektua kultura- eta pedagogia-eremuko bi espezialistek baloratu dute eta egin diren iradokizunak eta balorazioak testuan jaso dira. Bi txostenak Dekretuaren zirriborroarekin batera aurkeztutako agiriekin batera jaso dira.

UHUNeko Hezkuntza Konparatu eta Nazioarteko Hezkuntzako José Luis Garrido katedradun jaunak sinatutako txostenean, "Ohar orokorrak" atalean, hain zuzen, hori modu positiboan baloratu daitekeela adierazi da.

UHUNeko Hezkuntzaren Ikerketa eta Diagnostiko Metodoen Ramón Pérez Juste jaunak igorritako txostenean, "Sintesia eta Balorazio Osoa" IV. atalaren 12. puntuan, hain zuzen, balorazio osoa eta positiboa aipatzen da.

Oroitidazki ekonomikoan ezarritakoa kontuan hartuta, Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatu duena, Foru Dekretuaren aplikazioak ez dakar inolako ondorio ekonomikorik.

Oroitidazki arautzailean, Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatu duena, aldaketa-proposamena bermatzen duten arauen erreferentziak jaso dira. Amaitzeko, irizpenaren mende ezarritako zirriborroaren Foru Dekretua indarrean jarri ostean, martxoaren 16ko 100/1992 Foru Dekretua indargabetuko da.

Oroitidazki antolatzailean ezarritakoa kontuan hartuta, Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak sinatu duena, testuak ez du inolako eraginik izango egituraren edo langileen gain.

4. Iradokizunak eta oharra

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez komenigarria eta egokia da Lehen Hezkuntzari begira proposatutako eskola-curriculuma, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeek hori garatu eta aplikatu dezaten. Horrenbestez, Nafarroako Foru Erkidegoan Lehen Hezkuntzaren irakaskuntzen curriculuma ezarri duen Foru Dekretuaren proiektuaren izapidetzaren aldeko irizpena eman da.

Hala ere, onetsitako zuzenketa kontuan hartuta, aldaketa hauek egiteko gomen-dioa egin da:

5. artikulua 8. paragrafoan zati hau gehitzea: "... eta bere lan-eritmoetara, banakako ezaugarrietara eta/edo ikaskuntza-estiloetara egokituko da".

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetakoa irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Javier Barinaga Adrián jn.
Ikastetxeetako Administrazioiko eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen orde-
zkaria

María Luisa De Simón Caballero
and.
CCOO ikastetxe publikoetako ira-
kasleen ordezkaria.

8/2007 Irizpena

2007ko martxoaren 5ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oso-ko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 16 botoekin, aurkako 5 botoekin eta 4 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "Nafarroako Foru Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezarri duen Foru Dekretua"ren zirriborroa.

1. Arau-aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organi-koaren I. tituluko I. kapituluaren 6-2¹⁴⁹ artikuluan ezarritakoaren arioren, Espainiako Erreinuaren Gobernuak eskumena izango du hezkuntza eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko¹⁵⁰ 8/1985 Lege Organikoaren 1. xedapen gehigarriaren 2. atalean jasotako c) letran adierazitako gutxieneko irakaskuntzak zehazteko.

Derrigorrezko Hezkuntzari dagokionez, Estatuak eskumen hori egikaritu du

¹⁴⁹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa). 6-2 artikulua. Prestakuntza erkidea ziurtatu eta kasuan kasuko tituluen baliozkotasuna bermatzeko xedearekin, Gobernuak, helburuei, oinarritzko eskumenei, edukiei eta ebaluazio-irizpideei dagokienez, Hezkuntza Eskubidea arautu duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan jasotako c) letran aipatutako gutxieneko irakaskuntzen curriculumaren oinarritzko alderdiak zehaztuko ditu.

¹⁵⁰ Hezkuntza Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea (EAO, 1985eko uztailaren 4koa). Lehenengo xedapen gehigarria.- 1. Lege hau kasuan kasuko autonomia-estatutuetan, edo, hala de-
nean, eskumenak eskualdatzeko lege organikoetan eskumena aitortuta duten autonomia-erkide-
goek garatu ahal izango dituzte. Hala ere, Lege honen arabera Estatuari atxikitako gaiak salbuesten
dira. 2. Edozein kasutan ere, eta izaera horri helduta, Estatuak eskumen hauek izango ditu:

...

c) Gutxieneko irakaskuntzak ezartzea eta Espainiako lurralde osoan baliozkoak diren ikasketa- eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko gainerako baldintza guztiak arautzea.

Javier del Castillo Díaz jn.
UGT sindikatu-erakundeen ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.

CONCAPA Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.

SORTZEN Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria

abenduaren 29ko 1631/2006 ED argitaratuta¹⁵¹. ED horren 6-3¹⁵² artikulua-
ren arabera, hezkuntza administrazioek Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezarri beharko dute, eta bertan gutxieneko irakaskuntzak jasoko dira.

Hobekuntzari buruzko Legearen 47. artikuluan ezarritakoaren arabera¹⁵³, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduei, horiek garatzen dituzten Lege Organiko-
ei eta Estatuak eskumenei kalterik egin gabe. Horrenbestez, Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak bere eskumeneko lurralde-eremuko hezkuntza-curriculumak ezarri beharko ditu. Hori dela medio, irizpen horri begira jarraian labor-labor azaldutako Foru Dekretuaren proiektua aurkeztu da.

2. Foru dekretuaren zirriborroaren deskripzioa

Txostenean jasotako arau-proiektuan atariko eta hogeitarteko artikulua, sei xeda-

¹⁵¹ Abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntzak ezarri dituen. (EAO, 5. zk., 2007ko urtarrilaren 5ekoa).

¹⁵² 6. artikulua. Hezkuntza-edukiak eta curriculumak.

...

3. Hezkuntza Administrazioek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak ezarriko dute, eta edozein kasutan ere, bertan errege dekretu honetan zehaztutako gutxieneko irakaskuntzak jasoko dira. Hain zuzen ere, eskolako orduen ehuneko 65 eskatutako da, edo, ehuneko 55, hizkuntza ko-
ofiziala duten autonomia-erkidegoetan.

¹⁵³ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organiko-
ei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

- Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria
- Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria
- Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria
- Rosa M^a Pérez Bardot and.
CSI-CSIF ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria.
- Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria
- Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Federazioko ordezkariak.
- Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria
- Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria
- Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua
- José Manuel Urroz Barasoain jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria
- kuratutako ikaskuntza-mota eta horren maila baloratuko dira eta oinarrizko eskumenak lortzeko erreferentzia-puntua izango dira.

pen gehigarri, iragankor bat, indargabetzaille bat eta bi azken xedapen ageri dira.

Atarikoak. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirraborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Curriculumak idatzi ahal izateko, oinarri gisa ikasleen garapena eta prestakuntza modu koherentean eta etengabe ematen dituzten printzipioak ezarri dira. Hala ere, hemezortzi printzipio adierazi dira.

Aurkeztutako curriculumak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari buruzkoa da. Curriculumean zehaztutako oinarrizko eskumenak direla medio, ezinbestekoak diren ikaskuntzak identifikatu daitezke. Horrela, ikaslea garatzeaz gain, herritarren artean parte-hartze aktiboa izango du, helduen bizitzan modu egokian sartuko da eta bizitzan zehar ikasteko gaitasuna izango du. Oinarrizko eskumena definitzen da.

Gainera, curriculumaren helburuak etapa osotasunean hartuta planteatzen dira. Gai bakoitzetik oinarrizko eskumenak garatzeko modua adierazten da. Ebaluazio-irizpideen bidez, es-

Azkenik, diagnostikoaren ebaluazioa prestakuntza-tresna gisa kalifikatzen da, hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren orientabidea.

1. artikulua. Arauaren aplikazio-eremua definitzen da. Nafarroako Foru Erki-degoko ikastetxe publikoak, pribatuak eta itunpekoak adierazten dira.

2. artikulua. Etaparen printzipio orokorrak ezarri dira. Derrigorrezkoa eta doakoa izango da, eta hamabi eta hamasei urte bitarteko haurrek burutuko dituzten lau ikasturteetan bereizten da, araubide arruntean 18 urte arte irauteko ikasleen eskubidea barnean hartuta. Edukiak irakasgaien arabera antolatzen dira.

Arreta berezia emango zaio hezkuntza- eta lanbide-orientabideari, bereziki, laugarren ikasturtean. Aniztasunari eta hezkuntza erkideari eman beharreko arretaren printzipioa nabarmenduko da.

3. artikulua. Hezkuntzaren helburuak adierazten dira, horien artean, kulturearen oinarritzko osagaiak eskuratzea, ikasketa- eta lan-ohiturak garatu eta sendotzea, eta osteko ikasketetan nahiz lan munduan parte hartzeko prestakuntza jasotzea, bai eta herritarren eskubideak eta betebeharrak betetzea ere.

4. artikulua. Etaparen helburuak zerrendatzen dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hemen aipatutako hamahiru helburuak lortzeko hurrek behar dituzten gaitasunak garatu behar dira.

5. artikulua. Lehenengo hiru ikasturteen antolakuntza zehazten da. Maiatzaren 3ko 2/2006 LOren 24-1 eta 24-2 artikuluetan adierazitakoaren arabera, lehenengo, bigarren eta hirugarren ikasturteetako irakasgaiak zehazten dira. Hiri ikasturteetan jorratuko diren irakasgaiak azaltzen dira. Horrez gain, herritarrei zuzendutako hezkuntza-arloa eskaintzen da. Ikasturteetako antolakuntza- eta banaketa-irizpide batzuk aipatzen dira. Irakurketa-ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta balioen prestakuntza arlo guztietan landu behar dira.

6. artikulua. Laugarren ikasturtearen antolakuntza. Maiatzaren 3ko 2/2006 LOren 25.1 artikuluan ezarritakoaren arabera ikasi beharreko irakasgaiak adierazten dira. Irakasgai batzuk derrigorrez ikasi behar dira, eta beste batzuk, ordea, borondatez, prestakuntza-bide koherenteak konfiguratzeko ezarri multzoak kontuan hartuta. Gainera, aukerako irakasgaia jorratu ahal izango da. Irakurketa-ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta balioen prestakuntza arlo guztietan landu behar dira. Ikastetxeen antolakuntza-irizpideak eta betebeharrak ere adierazten dira.

7. artikulua. Curriculumaren kontzeptua definitzen da. Ikastetxeek ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasoko den curriculuma garatzeko eta osatzeko arduraz izango dute.

8. artikulua. Arauaren I. eranskinean jasotako edukia adierazten da. Izan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan erdietsi beharreko oinarritzko eskumenak zehazten dira. Behin betiko garatutako curriculumak, ikastetxeen antolakuntzak eta funtzionamenduak eta horren jarduerak oinarritzko eskumenen garapena ahalbidetu behar dute. Bereziki, hizkuntza-eskumena azpimarra daiteke. Hain zuzen ere, irakasgai eta ikasturte guztietan irakurketarako denbora-tartea eskaini behar da.

9. artikulua. Arauaren II. eranskinean jasotako edukia aipatzen da. Izan ere, irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak adierazten dira.

10. artikulua. Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren artean koordinazio-irizpideak ezarri behar dira.

11. artikulua. Ebaluazioa. Ebaluazioa etengabea eta berezia izango da, irakasgai ezberdinak aintzat hartuta. Oinarrizko eskumenak eta helburuak eskuratze-ko baliagarria izan behar da. Irakaskuntza-taldeak kide anitzeko organo gisa jardungo du ebaluazio-prozesuan, baita erabaki egokiak hartzeko prozesuan ere. Hezkuntza sendotzeko neurriak hartuko dira, baldin eta ikaslearen aurrerapena egokia ez bada. Irakaskuntza-prozesua eta hezkuntza-praktika ebaluatu behar dira. Ikasleek etapa amaitzean eskuratutako ikaskuntzari, helburuari eta eskumenei buruzko txostena egin behar da.

12. artikulua. Ikasleek ikasturtea amaitzean ikasturte batetik bestera sustatzeko agindua ezartzen da. Iraileko aparteko probak baimentzen dira. Hurrengo ikasturtera sustatu ahal izateko, ikasitako irakasgaien helburuak eskuratu behar dira, edo gehienez bi irakasgai gainditu gabe eduki behar dira, edo, salbuespenez, hiru, irakaskuntza-multzoa, kasu horretan, hurrengo ikasturtea arrakastarekin gainditu badaiteke, berreskurapena egin badaiteke eta sustapenak ikasketa-ondorioak sortzen baditu. Sendotze-programei buruzko jarraibideak emango dira, irakasgai guztiak gainditu gabe sustapenik gertatzen ez denean edo sustapenik gertatu gabe zailtasunak gainditzeko plan bereziak ematen direnean. Ikasturte bera behin bakarrik, edo, etapa berean gehienez bi aldiz errepikatu ahal izango da. Laugarren ikasturtea, salbuespenez bi aldiz errepikatuzeko aukera egongo da, eta adin-muga 18 urte arte luzatuko da.

13. artikulua. Aniztasunari arreta emateko gaia jorratzen da. Guztion garapena eta banakako arreta bateratu behar dira. Sailak beharrezkoak diren curriculum- eta antolakuntza-neurriak adierazi beharko ditu.

14. artikulua. Curriculum-aniztasunaren programak. Sailak irizpideak ezarri behar ditu, ikastetxeek kasuan kasuko ebaluazioa egin ostean ikasleei zuzendutako curriculum-aniztasunaren programak antolatu ditzan. Hirugarren ikasturtean edo bigarren ikasturtetik hirugarrenera sustatu ezin eta etapan behin bakarrik errepikatu duten ikasleek parte hartuko dute. Gainera, Sailak curriculum, ikasleek parte hartzeko baldintzak eta ebaluazio-irizpideak, sustapen-irizpideak eta titulua eskuratzeko irizpideak ezarriko ditu.

15. artikulua. Hasierako lanbide-prestakuntzarako programak. Xedea DBHko graduatu-titulurik ez duten 16 urtetik gorako gazteen gizarteratzea eta hezkuntzaren nahiz lanaren munduan izan beharreko parte-hartzea sustatzea da. Salbuespenez, eta bertan aipatutako inguruabarrak aintzat hartuta, 15 urteko ikasleek ere esku hartu ahal izango dute. Sailak curriculum, ebaluazio-irizpideak, akreditazioa eta titulazioa ezarriko ditu. Programak Lanbide Prestakuntzei buruzko Katalogoaren N1 profilarren barruan jaso behar dira.

16. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren titulua. Etaparen oinarrizko eskumenak eta helburuak lortu ostean eskuratuko da. Beraz, irakasgai guztiak gainditzean lortuko da, eta titulua gainditu gabeko irakasgai bat, bi edo hirurekin ere eskuratu daiteke, baldin eta irakasle-taldearen ustez irakasgai horiek eragozpenik jartzen ez badute etaparen oinarrizko eskumenak eta helburuak erdiesteko. Titulurik ez duten ikasleek eskolatze-ziurtagiria izango dute. Urtean 18 urte-tik gorako ikasleei proba bat egingo zaie ikasturtea bukatu eta hurrengo bi urteetan titulua eskuratzen ez dutenean edo gainditu gabeko irakasgaiak gainditzeko dituztenean, horiek bost baino gehiago ez badira.

17. artikulua. Sailak ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolatzailea bideratu behar du, bai eta irakasleen talde-lana eta ikerketa-lana bultzatu ere. Gainera, irakasleak gizartean aintzatetsi egin behar dira. Zuzendaritza-taldearen betebeharrak, ikastetxeek curriculumak garatu eta osatzeko duen eskumena, aniztasunari arreta emateko neurriak eta familiek hezkuntza-prozesuan lankidetzan jardun eta parte hartzeko beharrezkoak adierazten dira, betiere irakasleen agintaritza errespetatuta. Esperimentazioak diseinatu eta lan-planak, antolakuntza-moduak eta eskolako ordutegia baldintza zehatzetan hedatzeko aukera baimenduko dira.

18. artikulua. Etaparen ebaluazioa. Ikasketa-ondorerik gabeko diagnostiko-ebaluazioa azpimarratu da, batez ere, bigarren ikasturtea amaitzen denean, ikastetxeek antolakuntza-arloko betebeharren inguruko plangintzan prestakuntza eta orientabidea eman ahal izateko, eta familiei nahiz hezkuntza-erkidego osoari horri buruzko informazioa eman ahal izateko. Sailak etapan zehar beste ebaluazio batzuk egin ahal izango ditu.

19. artikulua. Tutoretza eta orientabidea. Sailak eginkizun horiek antolatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko erantzukizuna izango du.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Pertsona helduei zuzendutako hezkuntzaren antolakuntza zehazten da. Sailak hezkuntza-mota horren eta baimendutako ikastetxeen ezaugarriak, antolakuntza, sarrera-baldintzak, ebaluazioa eta titulazioa ezartzeko erantzukizuna du.

Bigarrena. Erljio-irakaskuntzak maiatzaren 3ko¹⁵⁴2/2006 Legearen 2. xedapen gehigarriaren arabera curriculumean jasota ageri behar dira. Irakaskuntza ho-

¹⁵⁴ Bigarren xedapen gehigarria. Erljioaren irakaskuntza.

1. Erljio katolikoaren irakaskuntza Aulki Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaietarako Akordioa ezarritakora egokituko da. Horretarako, eta akordio horretan ezarritakoarekin bat etorriz, erljio katolikoa kasuan kasuko hezkuntza mailetan arlo edo irakasgai gisa ezarriko da, eta derrigorrezkoa izango da ikastetxeen kasuan, eta, borondatezkoa ikasleei begira.

riek jasotzeko borondate-izaera azpimarratzen da. Ikastetxeek, aipatutakoa kon-tuan hartuta, antolakuntza-neurriak garatuko dituzte erlijio-irakaskuntzak auke-ratu dituzten ikasleei zuzenduta. Elizaren hierarkia eta erlijio-ko agintari egokien eskumena errespetatzen da irakaskuntza horien curriculuma definitu ahal izate-ko. Irakaskuntza horien ebaluazioa beste arlo batzuetan egindakoaren baliokidea da, eta kalifikazioa ez da zenbatuko ikasketa-espeditenteen aldiberekotasuna ger-tatzen den deialdietan.

Hirugarrena. Nafarroan euskararen euskalkien ikaskuntza eta eskolan horien erabilera bermatzen da.

Laugarrena. Curriculumaren hizkuntza guztien ikaskuntza bateratua eta koor-dinatua eskaintzen da.

Bosgarrena. Curriculumaren arlo batzuk atzerriko hizkuntzan eskaintzeko bai-mena ematen da. Ikasleak ikastetxe horietan onartu ahal izateko, irizpide oroko-rretara egokitu beharko da, hizkuntza-betekizunak barnean hartu gabe.

Seigarrena. Lanbide mailako musikako araubide berezian dauden irakaskun-tzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren musikako eta gorputz-hezkun-tzako irakaskuntzen arteko baliozkotze-araubidea.

Xedapen iragankorra

Bakarra. Otsailaren 22ko 67/1993 FD¹⁵⁵, otsailaren 19ko 116/1996 Foru De-kretua¹⁵⁶, maiatzaren 19ko 135/1997 Foru Dekretua¹⁵⁷ eta martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretua¹⁵⁸ aplikatuko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendu berria ezartzen ez den bitartean, ekainaren 30eko 806/2006 EDan xedatutakoaren arabera¹⁵⁹.

2. Bestelako erlijioen irakaskuntza Espainiako Estatuak Espainiako Ebanjelio eta Erlijio Erakundeekin, Espainiako Israelgo Erkidegoen Federazioarekin, Espainiako Islamiar Batzordearekin sinatutako lan-kidetza-akordioetan, eta, hala denean, etorkizunean beste erlijio sinetsideekin hitzartutakoetan xe-datutakora egokituko da.

¹⁵⁵ Otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezarri duena. (NAO, 60. zk. 1993ko maiatzaren 14koa).

¹⁵⁶ Otsailaren 19ko 116/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezarri duen otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua aldatu duena. (NAO, 1996ko martxoaren 8koa).

¹⁵⁷ Maiatzaren 19ko 135/1997 Foru Dekretua, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren antolakuntza-eta curriculum-alderdiei begira jarraibideak eman dituena. (NAO, 1997ko maiatzaren 30ekoa).

¹⁵⁸ Martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoan Derrigorrezko Biga-rren Hezkuntzaren curriculuma ezarri duen otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua aldatu duena. (NAO, 50. zk., 2002ko apirilaren 24koa).

¹⁵⁹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez ezarritako hezkuntza-sistemaren an-tolamendu berriaren egutegia ezarri duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua. (NAO, 167.zk., 2006ko uztailaren 14koa).

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Otsailaren 22ko 67/1993 FD, otsailaren 19ko 116/1996 FD, maiatzaren 19ko 135/1997 FD eta martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretua irizpenaren mende ezarritako testuaren aurka dagoen maila bereko edo beheragoko bestelako xedapenak indargabetu dira.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru Dekretua araz garatzeko Sailburuaren baimena jasotzen da.

Bigarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

3. Bestelako oharrak

Foru Dekretuaren Zirriborroarekin batera oroitidazki hauek aurkeztu dira: justifikatzailea, ekonomikoa, arautzailea eta antolatzailea.

Oroitidazki justifikatzailea Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari nagusiaren txostenarekin eta adituen hiru txostenekin osatzen da. Zuzendari nagusiak sinatutako txostenean, kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testua justifikatzen dituen arau-erreferentziak aipatzen dira. Horrez gain, foru dekretuaren zirriborroan Nafarroako hezkuntza-politikaren alderdi bereziak jasotzen dituela adierazten da, curriculumaren oinarriko printzipioak eratzuz; era berean, curriculumean hizkuntzen irakaskuntzak modu bate-ratuan eta koordinatuan lantzeko berrikuntza jaso da. Alderdi hori Garrido irakasleak txosten zehatz batean jorratu du. Gainera, arau-proiektua kultura- eta pedagogia-eremuko bi espezialistek baloratu dute eta egin diren iradokizunak eta balorazioak testuan jaso dira. Bi txostenak Dekretuaren zirriborroarekin batera aurkeztutako agiriekin batera jaso dira.

UHUNeko Hezkuntza Konparatu eta Nazioarteko Hezkuntzako José Luis Garrido katedradun jaunak sinatutako txostenean, "Ohar orokorrak" atalean, hain zuzen, hori modu positiboan baloratu daitekeela adierazi da.

UHUNeko Hezkuntzaren Ikerketa eta Diagnostiko Metodoen Ramón Pérez Juste jaunak igorritako txostenean adierazi denez, etapa horretako ikasleen eza-gutza psikologikoak errespetatzen dira, bai eta pedagogikoak eta didaktikoak ere, curriculumaren funtsezko edukiei dagokienez.

Oroitidazki ekonomikoan adierazi denez, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak sinatu duena, foru dekretuaren aplikazioak ez dakar gastuen gehikuntza, ezta diru-sarrereren murrizketa ere.

Oroitidazki arautzailean, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak sinatu duena, aldaketa-proposamena bermatzen duten arau-erreferentziak jasotzen dira. Amaitzeko, Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako zirriborroaren Foru Dekretua indarrean jarri ostean, martxoaren 25eko 61/2002 Foru Dekretua indargabetuko da.

Oroitidazki antolatzailean ezarritakoa kontuan hartuta, testuak ez du inolako eraginik izango egituraren edo langileen gain.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez komenigarria eta egokia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloari begira proposatutako eskola-curriculuma, batik bat, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetan hori garatu eta aplikatu dadin. Horrenbestez, Nafarroako Foru Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren irakaskuntzen curriculuma ezarri duen Foru Dekretuaren proiektuaren izapidetzaren aldeko irizpena eman da.

Hala ere, onetsitako zuzenketa kontuan hartuta, aldaketa hauek egiteko gomen-dioa egin da:

Halaber, 4. artikulua 1) atalean jasotako xedea "Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutu eta baloratzea" esaldiaren ordez "Sexualitatearen giza dimentsioa aniztasun guztiarekin ezagutu eta baloratzea" esaldia ezarri behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntzak ezarri dituen 1631/2006 Errege Dekretuaren 3. artikulua k) atalean jasotako xedean ikus daitekeen bezala.

Bestalde, 12. artikulua 3. puntuan jasotako "Irakasgai guztiak gainditu gabe sustatu denak eskuratu gabeko ikaskuntzak berreskuratzera zuzendutako sendotze-programan parte hartu ahal izango du, eta programa horren ebaluazioa gainditu beharko du" esaldiaren ordez testu hau ezarri behar da: "Irakasgai guztiak gainditu gabe sustatu denak eskuratu gabeko ikaskuntzak berreskuratzera zuzendutako sendotze-programan parte hartuko du, eta programa horren ebaluazioa gainditu beharko du", HLOn eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntzak ezarri dituen 1631/2006 Errege Dekretuaren 11. artikulua 4. puntuan ezarritakoa aintzat hartuta."

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Gurasoen Federazioko
ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuetako irakasle-
en ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Javier Barinaga Adrián jn.
Ikastetxeetako Administrazioko eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
CCOO ikastetxe publikoetako irak-
asleen ordezkaria.

9/2007 Irizpena

2007ko martxoaren 5ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 17 botoekin, aurkako 5 botoekin eta 2 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: "Nafarroako Foru Erkidegoan Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen oinarrizko eta erdi mailako curriculuma ezarri duen Foru Dekretua"ren zirriborroa.

1. Arau-aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluko I. kapituluaren 6-2¹⁶⁰ artikuluan ezarritakoaren ariora, Espainiako Erreinuaren Gobernuak eskumena izango du hezkuntza eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko¹⁶¹ 8/1985 Lege Organikoaren 1. xedapen gehigarriaren 2. atalean jasotako

¹⁶⁰ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa). 6-2 artikulua. Prestakuntza erkidea ziurtatu eta kasuan kasuko tituluen baliozkotasuna bermatzeko xedarekin, Gobernuak, helburuei, oinarrizko eskumenei, edukiei eta ebaluazio-irizpideei dagokienez, Hezkuntza Eskubidea arautu duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan jasotako c) letran aipatutako gutxieneko irakaskuntzen curriculumaren oinarrizko alderdiak zehaztuko ditu.

¹⁶¹ Hezkuntza Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea (EAO, 1985eko uztailaren 4koa). Lehenengo xedapen gehigarria.- 1. Lege hau kasuan kasuko autonomia-estatutuetan, edo, hala de-
nean, eskumenak eskualdatzeko lege organikoetan eskumena aitortuta duten autonomia-erkide-
goek garatu ahal izango dituzte. Hala ere, Lege honen arabera Estatuari atxikitako gaiak salbuesten
dira. 2. Edozein kasutan ere, eta izaera horri helduta, Estatuak eskumen hauek izango ditu:

...

c) Gutxieneko irakaskuntzak ezartzea eta Espainiako lurralde osoan baliozkoak diren ikasketa- eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko gainerako baldintza guztiak arautzea.

Javier del Castillo Díaz jn.
UGT sindikatu-erakundeen ordezkaria

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.

CONCAPA Gurasoen Elkarreetako Federazioen ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.
SORTZEN Gurasoen Elkarreetako Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetakoa erakunde titularren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetakoa erakunde titularren ordezkaria

c) letran adierazitako gutxieneko irakaskuntzak zehazteko.

Halaber, lege horren 6-4¹⁶² artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, hezkuntza administrazioek lege honetan araututako curriculumak ezarri behar dute eta bertan aurreko ataletan zehaztutako oinarrizko alderdiak jasoko dira.

Araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzei dagokienez, Estatuak eskumen hori egikaritu du abenduaren 29ko 1629 ED argitaratuta¹⁶³.

Hobekuntzari buruzko Legearen 47. artikuluan ezarritakoaren arabera¹⁶⁴, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduei, horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak eskumenei kalterik egin gabe. Horrenbestez, Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak bere eskumeneko lurralde-eremuko hezkuntza-curriculumak ezarri behar ditu. Hori

¹⁶² 6. artikulua. Curriculumak.

...

4. Hezkuntza Administrazioek Lege honetan araututako irakaskuntza ezberdinen curriculumak ezarriko dute, aurreko ataletan aipatutako oinarrizko alderdiak barnean hartuta. Ikastetxeek, hala dezan, etapa eta ziklo ezberdinak garatu eta osatuko dituzte, bere autonomiaren arabera eta Lege honen V. tituluaren II. kapituluaren jaso den bezala.

¹⁶³ Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 3ko 2/2006 LOn araututako araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen curriculumaren oinarrizko alderdiak arautu dituena. (EAO, 4. zk., 2006ko urtarrilaren 4koa).

¹⁶⁴ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko
ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
CSI-CSIF ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria.

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Federazioko ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria

kuntzen irakaskuntzen helburua antolakuntza eta eskuraketa zehaztea da. Irakaskuntza horien kasuan, derrigorrezko irakaskuntzan hizkuntzak irakasteko ekarritako oinarritzko eskumenak egikaritu behar dira, eta horien xedea hizkuntzak ikasi edo horien ezagutza hobetzea da. Hiru maila daude: oinarritzkoa, erdikoa eta aurreratua. Halakoan parte hartzeko derrigorrezko bigarren ikasturtea edo antzekoa gaidituta eduki behar da, 16 urte izatea, bederen. Hala ere, adinaren kasuan salbuespenak egon daitezke.

3. artikulua. I eta II. eranskinetan adierazitako oinarritzko mailaren irakaskuntzak aipatzen dira. Erreferentzia gisa Europar Kontseiluko A2 maila ezarri da, hizkuntzei buruzko Europako Esparru Erkidean definitutakoa aintzat hartuta. Maila

dela medio, irizpen horri begira jarraian labor-labor azaldutako Foru Dekretuaren proiektua aurkeztu da.

2. Foru dekretuaren zirriborroaren deskripzioa

Txostenean jasotako arau-proiektuan atariko eta sei artikulua, lau xedapen gehigarri, iragankor bat, indargabetzailerik bat eta bi azken xedapen ageri dira.

Atarikoak. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Izan ere, HLOren bidez aplikatutako egutegiaren arabera, ekainaren 30eko 806/2006ko EDaren bidez ezarri dena, araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen oinarritzko maila eta erdi maila 2007/2008 ikasturtean ezarri behar dira.

1. artikulua. Foru dekretuaren aplikazioaren xedea definitzen da. Foru Erkidegoan alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiara jasotzen dira.

2. artikulua. Araubide bereziko hiz-

hori bi ikasturteetan antolatzen da. Bigarren ikasturtean parte hartu ahal izango da, horretarako beharrezkoak diren eskumenak egiaztatzen badira.

4. artikulua. Oinarrizko mailan egindako ebaluazioa eta probak. Oinarrizko mailaren ziurtagiria proba zehatzen bidez eskuratuko da. Erdi mailan parte hartzeko aukera eskaintzen da.

5. artikulua. III. eta IV. eranskinetan adierazitako erdi mailaren irakaskuntzak aipatzen dira. Erreferentzia gisa Europar Kontseiluko B1 maila ezarri da, hizkuntzei buruzko Europako Esparru Erkidean definitutakoa aintzat hartuta. Maila hori ikasturte bakarrean garatuko da. Batxilergo-tituluaren bidez maila horretan parte hartu ahal izango da, horretarako beharrezkoak diren eskumenak egiaztatzen badira.

6. artikulua. Erdi mailako ziurtagiriak. Ziurtagiria proba zehatzen bidez eskuratuko da. Maila aurreratuan parte hartzeko aukera eskaintzen da.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. V. eranskina aipatzen da, hain zuzen ere, irailaren 2ko¹⁶⁵ 967/1988 EDan araututako irakaskuntzen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Legean ezarritako irakaskuntzen arteko baliokidetasun-araubidea.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak bigarren eta lanbide-heziketako ikasleek hizkuntzen ezagutzari buruzko ziurtagiri ofiziala eskuratzeko proba homologatuak antolatzeko ahalmena du. Horren ikasketa- eta ziurtagiri-ondoreak hizkuntzen eskola ofizialak egiaztatzeko proben berdinak izango dira.

Hirugarrena. Hizkuntzen eskolek hizkuntzen ikastaro espezializatuak antolatu eta eskaintzeko ahalmena izango dute.

Laugarrena. Hezkuntza Sailak eskolek eurek kudeatutako merituen aintzatespen-prozesuetan luzatutako ziurtagiriak baloratzeko ahalmena izango du.

Xedapen iragankorra

Bakarra. Dekretuan adierazitako irakaskuntza mailen egutegia ezarri da, eta, ondorenez, irailaren 2ko 967/1988 EDan ezarri maila eta ikasturte baliokideak ordeztuko dira. Hori dela eta, eta V. eranskina kontuan izanda, irakaskuntzen arteko baliokidetasun egokiak ezarri dira.

¹⁶⁵ Irailaren 2ko 967/1988 Errege Dekretua, irakaskuntza espezializatuen lehenengo mailaren antolamenduari buruzkoa: Hizkuntzen Eskola Ofizialak. (EAO, 218. zk., 1988ko irailaren 10ekoa).

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Uztailaren 16ko 196/2001 FD¹⁶⁶ eta uztailaren 28ko 272/2003 FD¹⁶⁷ indargabetu dira, antolamendu berria ezartzen ez den bitartean.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru dekretua arauz garatzeko Sailburuak baimena izango du.

Bigarrena. Araua irailaren 1ean indarrean jarriko da.

3. Bestelako oharrak

Foru Dekretuaren Zirriborroarekin batera Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari nagusiaren txostenarekin eta adituen hiru txostenekin –ekonomikoa, arautzailea eta antolatzailerak osatzen da, urtarrilaren 22an Zerbitzuko zuzendariak sinatu dituenak.

Eskola Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariaren txostenean ezarritakoa kontuan hartua, alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiera hizkuntzen oinarritzko eta erdi mailako curriculumaren eduki-proposamena onesteko beharrezana agerian utzi da, bai eta irakaskuntzetan parte hartzeko alderdiak, oinarritzko eta erdi mailako oinarritzko mailekin zerikusia duten bestelako alderdiak, ezagutzaren ziurtagiri ofiziala eskuratzeko proba homologatuak, mailak ezartzeko egutegia eta irakaskuntzen baliokidetasunak ere. Ildo beretik, berak informatu eta proposatutako testuaren oinarritzko edukiak aipatzen ditu.

Oroitidazki ekonomikoan adierazi denez, foru dekretuaren aplikazioak ez dakar gastuen gehikuntza, ezta diru-sarrereren murrizketa ere.

Bada, sinatutako oroitidazki arautzailean aldaketa-proposamena bermatzen duten arau-erreferentziak jasotzen dira. Amaitzeko, Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako zirriborroaren Foru Dekretua indarrean jarri ostean, uztailaren 16ko 196/2001 eta uztailaren 28ko 272/2003 FD indargabetu dira.

Oroitidazki antolatzaileran ezarritakoa kontuan hartuta, testuak ez du inolako eraginik izango egituraren edo langileen gain.

¹⁶⁶ Uztailaren 16ko 196/2001 Foru Dekretua, hizkuntzen irakaskuntza espezializatuen Oinarritzko Zikloa agindu eta curriculuma ezarri duena. (NAO, 106. zk., 2001eko abuztuaren 31koa).

¹⁶⁷ Uztailaren 28ko 272/2003 Foru Dekretua, lehen mailako hizkuntzen irakaskuntza espezializatuen Goi Mailako Zikloa eta curriculuma ezarri duena. (NAO, 108. zk., 2003ko abuztuaren 25ekoa).

4. Iradokizunak eta oharra

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez komenigarria eta egokia da maiaztaren 3ko 3/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzetarako proposatutako eskola-curriculumak.

Horrenbestez, "Nafarroako Foru Erkidegoan Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko irakaskuntzen oinarritzko eta erdi mailaren curriculumak ezarri duen Foru Dekretuaren proiektua"ren izapidetzaren aldeko irizpena eman da.

Irizpena ikusita geratu da.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

OE

Presidenteak, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA-Gurasoen Federazioe-
tako ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
UGT ikastetxe pribatuen ordezkaria

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Gurasoen Elkarteko Fe-
derazioa

Fernando Barainca Lagos jn.
FSIE-SEPNA irakasleen ordezkaria.

Javier Barinaga Adrián jn.
Ikastetxeen Administrazioiko eta Zer-
bitzuetako ordezkaria

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

M^a Luisa De Simón Caballero and.
CCOO ikastetxe publikoetako irak-
asleen ordezkaria.

Javier del Castillo Díaz jn.
UGT sindikatu etako erakundeen or-
dezkaria

10/2007 Irizpena

2007ko martxoaren 5ean egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 18 botoekin, aurkako 0 botoekin eta 7 abstentzioekin, hurrengo irizpena eman da: " Nafarroako Foru Erkidegoan Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan araututako musikako lanbide-irakaskuntzen curriculuma ezarri duen Foru Dekretua" ren zirriborroa.

1. Arau-aurrekariak

Maiatzaren 3ko¹⁶⁸ 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluaren VI. kapituluari, irakaskuntza artistikoak definitu dira. Lege-testu horren 46. artikuluan¹⁶⁹ arabera, curriculuma lege horren 6. artikuluan ezarritako prozedurari helduta definituko da.

Aipatu Legearen 6-2¹⁷⁰ artikuluan ezarritakoaren ariora, Espainiako Erreinuaren Gobernuak eskumena izango du

¹⁶⁸ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa).

¹⁶⁹ 46. artikulua. Irakaskuntzen antolamendua.

1. Lanbide-irakaskuntza artistikoen curriculuma lege honetako 6. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez definitu da.

¹⁷⁰ 6. artikulua. Curriculuma

...

2. Prestakuntza erkidea ziurtatu eta kasuan kasuko tituluen baliozkotasuna bermatzeko xedearekin, Gobernuak, helburuei, oinarriko eskumenei, edukiei eta ebaluazio-irizpideei dagokienez, Hezkuntza Eskubidea arautu duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan jasotako c) letran aipatutako gutxieneko irakaskuntzen curriculumaren oinarriko alderdiak zehaztuko ditu.

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.
SORTZEN Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria

Esteban Garijo Pérez jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria.

Pedro González Felipe jn.
Hezkuntza Administrazioiko ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetakako erakunde titularren ordezkaria

Hezkuntza-eskubidea aratu duen uztailaren 3ko¹⁷¹ 8/1985 Lege Organikoren 1. xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan jasotako c) letran adierazitako gutxienerako irakaskuntzak zehazteko.

Halaber, 6-4¹⁷² artikuluan adierazitakoaren arabera, hezkuntza administrazioek lege horretan araututako irakaskuntza ezberdinen curriculuma ezarri behar dute, aurreko ataletan aipatutako oinarritzko alderdiak barnean hartuta.

Musikako lanbide-irakaskuntzei dagokienez, Estatuak eskumen hori egikaritu du abenduaren 22ko 1577/2006 ED argitaratuta¹⁷³.

Hobekuntzari buruzko Legearen 47. artikulua¹⁷⁴ arabera, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zaba-

¹⁷¹ Hezkuntza Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea (EAO, 1985eko uztailaren 4koa). Lehenengo xedapen gehigarria.- 1. Lege hau kasuan kasuko autonomia-estatutuetan, edo, hala deanean, eskumenak eskualdatzeko lege organikoetan eskumena aitortuta duten autonomia-erkidegoek garatu ahal izango dituzte. Hala ere, Lege honen arabera Estatuari atxikitako gaiak salbuesten dira. 2. Edozein kasutan ere, eta izaera horri helduta, Estatuak eskumen hauek izango ditu:

...

c) Gutxienerako irakaskuntzak ezartzea eta Espainiako lurralde osoan baliozkoak diren ikasketa- eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko gainerako baldintza guztiak arautzea.

¹⁷² 6. artikulua. Curriculumua.

...

4. Hezkuntza Administrazioek Lege honetan araututako irakaskuntza ezberdinen curriculuma ezarriko dute, aurreko ataletan aipatutako oinarritzko alderdiak barnean hartuta. Ikastetxeek, hala deanean, etapa eta ziklo ezberdinak garatu eta osatuko dituzte, bere autonomiaren arabera eta Lege honen V. tituluaren II. kapituluaren jaso den bezala.

¹⁷³ Maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez araututako musikako lanbide-irakaskuntzen curriculumaren oinarritzko alderdiak ezarri dituen abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretua. (EAO, 18. zk., 2007ko urtarrilaren 20koa)

¹⁷⁴ Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea (EAO, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa). 47. artikulua: Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketan eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduetan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezta horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak ikasketa-titulu eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzen arauketaren gain dituen eskumenei eta Estatuak horiek bete eta bermatzeko duen goi-ikuskaritzari ere.

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako ikastetxe pribatuetao erakundeen ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioko ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
CSI-CSIF ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria.

Carlos Pérez-Nievas L.de Goicoechea jn.
Nafarroako Parlamentuko ordezkaria

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Gurasoen Federazioko ordezkariak.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioko ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Toki-erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain jn.
STEE-EILAS ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria

dez ezarri dena¹⁷⁵, lanbide-irakaskuntza artistikoen lehenengo lau ikasturteak 2007/2008 ikasturtean ezarri behar dira. Aldi berean, urriaren 3ko¹⁷⁶ 1/1990 LO-

lera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, gai honi buruzko konstituzio-aginduei, horiek garatzen dituzten Lege Organikoei eta Estatuak eskumenei kalterik egin gabe.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Erki-degoko Gobernuak bere eskumeneko lurralde-eremuko hezkuntza-curriculumak ezarri beharko ditu. Hori dela medio, irizpen horri begira jarraian labor-labur azaldutako Foru Dekretuaren proiektua aurkeztu da.

2. Foru dekretuaren zirriborroari buruzko deskripzioa

Txostenean jasotako arau-proiektuan atariko eta hamazazpi artikulua ageri dira, zazpi kapituluetan, bi xedapen gehigarrietan, hiru iragankorretan, indargabetzaile batean eta bi azken xedapenetan bananduta.

Atariko. Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren zirriborroaren testuari buruzko proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak aipatzen dira. Izan ere, HLOren bidez aplikatutako egutegiaren arabera, ekainaren 30eko 806/2006 EDren 21. artikulua bidez

¹⁷⁵ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez ezarritako hezkuntza-sistemaren antolamendu berriaren egutegia ezarri duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua. (NAO, 167.zk., 2006ko uztailaren 14koa).

¹⁷⁶ Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Legea. (EAO, 238. zk., 1990ko urriaren 4koa).

ren bidez ezarritako musikako erdi mailako irakaskuntzen lehenengo bi zikloak azkendu egingo dira. Hurrengo urtean plan berriaren bi azken ikasturteetan ezarriko dira.

Horrez gain, musikako irakaskuntza horien curriculuma ezin da kokatu ezberdintasun tekniko instrumentalen mende. Beraz, tresna aztertzeaz gain, prestakuntza beste irakasgaien bidez ekarritako prestakuntzarekin osatuko da. Taldeko musika praktikaren inguruan garatutako irakasgaien aniztasuna irizpenaren mende ezarritako testuaren berrikuntza da. Aukerako irakasgaien gaikuntza dela eta, ibilbide ezberdinak konfiguratu ahal izango dira, ostean egindako ikasketak aintzat hartuta. Testuan musikako lanbide-irakaskuntzen helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dira, bai eta irakaskuntza erkideenak eta espezialitate ezberdinenak ere, betiere ikasleek kalitatezko prestakuntza artistikoa jaso dezaten, bai musikako adierazpenari begira bai ostean egin beharreko ikasketak erdiesteko beharrezkoa denari begira.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak jaso dira.

1. artikulua. Musikako lanbide-irakaskuntzak foru dekretuaren xede gisa definitzen dira.

2. artikulua. Aplikazio-eremua zehazten da. Ikastetxe publikoak eta baimendutako ikastetxe pribatuak jaso dira.

II. kapitulua. Irakaskuntzen helburua eta antolakuntza adierazten dira.

3. artikulua. Irakaskuntzen helburua eta antolakuntza adierazten dira. Helburua kalitatezko prestakuntza artistikoa eskaintzeaz gain, etorkizuneko musikako profesionalen prestakuntza bermatzea da. Irakaskuntzak sei ikasturteetan eta ikasi beharreko tresnaren inguruko tresna-espezialitateetan bereizten dira.

4. artikulua. Helburu orokorrak. Aipatu zazpi ahalmenez gain, hezkuntza-sistemaren ahalmen orokorren garapena eta giza balioak irakaskuntzen xedetzat jotzen dira.

5. artikulua. Helburu zehatzak. Hamabi ahalmen zerrendatzen dira eta irakaskuntzen bidez horiek eskuratu beharko dira.

6. artikulua. Irakaskuntzak antolatzeko espezialitateak adierazten dira. Hogei-ta hiru dira. Sailak aipatutakoez besteko ahalmenak ezartzeko baimena izango du.

III. kapitulua. Curriculuma aztertzen da.

7. artikulua. Curriculumaren kontzeptua definitzen da. Ikastetxeek espezialitate ezberdinak programazio didaktikoen bidez garatu eta osatzeko erantzukizuna dute. Horiek ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasoko dira.

8. artikulua. Espezialitate guztien irakasgai erkideak eta espezialitate bakoitzari dagozkionak ezarri dira. Sailak aukerako irakasgaien zerrenda ezartzeko baimena du. Irakasgai horien helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak eranskinean jaso dira.

IV. kapitulua. Irakaskuntzetan parte hartzeko modua azaltzen da.

9. artikulua. Irakaskuntzetan parte hartzea. Irakaskuntzen lehenengo ikasturtean parte hartzeko, beharrezkoa da sarrerako proba zehatza gainditzea. Gainera, hori ezinbestekoa izango da beste edozein ikasturtetan parte hartzeko, aurreko ikasturteak gainditu ez badira. Proba horiek Hezkuntza Sailak arautu eta antolatuko ditu.

10. artikulua. Hezkuntza Sailak ikasleak matrikulatzeko prozesuak arautuko ditu. Espezialitate batean ikasitako irakasgai erkideak beste edozein espezialitatean parte hartzeko baliagarriak izango dira. Halaber, inguruabar eta baldintza jakin batzuetan, ikasturte bat baino gehiagotan matrikulatzeko aukera egongo da.

V. kapitulua. Ebaluazioa, sustapena eta titulazioa.

11. artikulua. Ebaluazioa. Ebaluazioa etengabea eta integratzailea izango da, baina irakasgaien arabera bereiziko da. Erreferentzia gisa musikako lanbide-irakaskuntzen helburuak eta irakasgai bakoitzaren helburuak ezarriko dira. Irakasle-taldeak ikasleak gidatuko ditu, irakasle tutoreak modu integratuan eta koordinatuan jardunda. Azken ebaluazioa ekainean egingo da eta Sailak irailean ebaluazio negatiboa izan duten irakasgaiak berreskuratzeko aparteko probak antolatuko ditu. Ikasleen ikaskuntzaz gain, irakaskuntza-prozesuak eta irakaskuntza-praktika ebaluatu behar dira.

12. artikulua. Ikaslearen sustapena. Ikasturte batetik bestera sustatu ahal izateko, ezin izango da eduki ebaluazio negatiboa duten bi irakasgai baino gehiago. Gainditu beharreko irakasgaiak praktika instrumentalari edo ahozko praktikari buruzkoak badira, horiek hurrengo ikasturtean berreskuratu ahal izango dira, baldin eta bertan parte hartzen badute. Halakorik gertatzen ez bada, ikaslea aurreko ikasturteko irakasgai horietara bertaratu beharko da. Seigarren maila errepikatuko da hiru edo irakasgai gehiago gainditu ez badira. Aurkakoa gertatuz gero, gainditu gabeko irakasgaiak soilik egingo dira.

13. artikulua. Irakaskuntzetan gehienez ere zortzi urte iraun ahal izango dute, baina salbuespenez Sailak irakaskuntzaren iraupena urtebete gehiago luzatu ahal izango du. Ikasturte berean ezin izango da egon bi urte baino gehiago, seigarren mailan izan ezik.

14. artikulua. Titulazioa. Irakaskuntza horietako ikasketak gainditzen badira, Musikako Lanbide-titulua eskuratuko da, betiere ikasitako espezialitateari dagokionez. Batxilergoko titulua ere eskuratu ahal izango da, batxilergoko irakasgai erkideak gainditu badira.

15. artikulua. Ebaluazio-agiriak. Ebaluazio-agiriak zehazten dira. Ereduak Hezkuntza Sailak zehaztuko ditu.

VI. kapitulua. Ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolatzailea aztertzen da.

16. artikulua. Sailak ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolatzailea sustatu behar ditu. Horrez gain, irakasleen talde-lana bultzatu behar du, bai eta ikerketa-ahalmena ere. Gainera, programazio didaktikoetan curriculumak garatu eta osatzeko ikastetxeek duten eskumena zehazten da. Ikuskaritza Zerbitzuak hezkuntza-proiektua ikuskatzeko duen erantzukizuna finkatzen da, hots, irakasleek irakaskuntza-prozesuak eta -praktika ebaluatzeko duen eskumena, eta ikasleen ebaluazioa gauzatu beharko du. Ebaluazio horien emaitzak ikastetxearen urteko oroitidazkian jasoko dira eta irakaskuntza-praktika nahiz hezkuntza-proiektua aldatzeko balagarriak izango dira.

VII. kapitulua. Beste irakaskuntzekin bat etortzea.

17. artikulua. Sailak musikako irakaskuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko irakaskuntzak batera ikastea ahalbidetuko du. Ondore horretarako, ikasketak antolatu eta baliozkotuko ditu, eta ikastetxe integratuak sortzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Urritasuna duten ikasleak. Curriculumak urritasuna duten ikasle-en beharrianetara egokitu beharko da, arauan ezarritako helburuei kalterik egin gabe.

Bigarrena. Irakaskuntza horiek eskainiko dituzten ikastetxeak. Irakaskuntzak musikako kontserbatorio profesionaletan, musikako ikastetxe integratuetan eta baimendutako ikastetxe pribatuetan eskaini ahal izango dira.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. Musikako lanbide-irakaskuntzen antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezarri da, ekainaren 30eko 806/2006 EDren 21. artikuluan ezarritakolari helduta. EDan jasotako baliokidetasun-araubidea adierazten da, antolamendu berrian azkendutako lanbide-irakaskuntzetako ikasleak sartzeko xedearekin.

Bigarrena. Musikako lanbide-irakaskuntzetan, urriaren 3ko 1/1990 LOn ezarritako irakaskuntzen artean irakasgaiak gainditu gabe dituzten ikasleak sartzeko prozesua ezarri da.

Hirugarrena. Otsailaren 13ko 34/1995 FD aplikatuko da musikako lanbide-irakaskuntzen antolamendu berria ezartzen ez den bitartean, ekainaren 30eko 806/2006 EDan xedatutakoari helduta.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. Musikako irakaskuntzen erdi mailako curriculuma ezarri duen otsailaren 13ko 34/1995 FD¹⁷⁷ indargabetu da.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru dekretua arauz garatzeko Sailburuak baimena izango du.

Bigarrena. Araua indarrean jartzeko data ezarri da.

3. Bestelako oharrak

Irizpenaren mende ezarritako Foru Dekretuaren zirriborroarekin batera Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariak proposatutako txostena eta hiru oroitidazki –ekonomikoa, arautzailea eta antolatzailea– aurkeztu dira, eta horiek Zerbitzu horretako zuzendariak urtarrilaren 31n sinatu ditu.

Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzuko zuzendariaren txostenean ezarritakoaren ariora, arau-erreferentzia egokiak kontuan izanda, musikako lanbide-irakaskuntzen curriculuma Foru Erkidegoan ezarri behar dira, 2007-2008 ikasturtean hasiko den arau orokorraren bidez aplikatu beharreko egutegia betetzeko helburuarekin. Gainera, irizpenaren mende ezarritako foru dekretuaren testua egiterakoan Musikako “Pablo Sarasate” Kontserbatorio Profesionalaren zuzendaritza-taldea kontsultatu da, egiturari eta antolakuntzari, eta, bereziki, curriculum-edukiei dagokienez. Txostena proposatutako testuaren edukiei buruzko aipamen laburrarekin osatzen da.

Oroitidazki ekonomikoa adierazi denez, foru dekretuaren aplikazioak ez dakar gastuen gehikuntza, ezta diru-sarrereren murrizketa ere.

Bada, sinatutako oroitidazki arautzailean aldaketa-proposamena bermatzen duten arau-erreferentziak jasotzen dira. Amaitzeko, Kontseiluaren irizpenaren mende ezarritako zirriborroaren Foru Dekretua indarrean jarri ostean, otsailaren

¹⁷⁷ Otsailaren 13ko 34/1995 Foru Dekretua, musikako irakaskuntzen erdi mailako curriculuma ezarri duena eta Nafarroako Foru Erkidegoan maila horretan parte hartzeko alderdi orokorrak arautu dituena. (NAO, 1995eko ekainaren 9koa).

13ko 34/1995 Foru Dekretua indargabetuko da, baina kasuan kasuko zikloi eta ikasturteei begira aplikatuko da ezarpen-prozesua osatu arte.

Oroitidazki antolatzailean ezarritakoa kontuan hartuta, testuak ez du inolako eraginik izango egituraren edo langileen gain.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez komenigarria eta egokia da maiaztaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako musikako lanbide-irakaskuntzari begira proposatutako curriculum.

Ondorenez, "Nafarroako Foru Erkidegoan Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan araututako musikako lanbide-irakaskuntzen curriculum ezarri duen Foru Dekretua"ren izapidetzaren aldeko irizpena eman du.

Irizpena ikusita geratu da.

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatuetakoko irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

M^a Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetakoko irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkartearen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

11/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 13 boto, kontrako 2 boto eta 3 abstentziorekin, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz "Nafarroako Gobernuaren erabaki proposamena "Zizur Nagusia" behin-behineko izentzat izango duen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa sortzeko, Zizur Nagusiko "Santiagoko Bidea" Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikotik bananduz".

1. Aurrekariak

8/1985 Lege Organikoak, uztailearen 3koak, hezkuntzarako eskubidea arautzen duenak; 17. artikuluan¹⁷⁸ zedarrizten du zentro publikoak dagokion Erkidego Autonomoko Gobernuak edo Gobernu Kontseiluak sortuko dituela dagozkion eskumenak erabiliz.

Hobetze Legearen¹⁷⁹ 47. artikulua araberak, Nafarroari dagokio hezkuntza

¹⁷⁸ 8/1985 Legea, uztailearen 3koa, Hezkuntzarako Eskubideari buruzkoa. (BOE, 1985eko uztailearen 4koa). 17. artikulua. Bidezko autonomia erkidegoko gobernuak edo gobernu batzordeak sortu eta desageratuzko dituzten zentro publikoak, dagozkion eskumenak erabiliz.

¹⁷⁹ 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa. (BOE, 195. zk., 1982 abuztuaren 26koa). 47. artikulua. Nafarroari dagokio hezkuntza arautzea eta kudeatzea honen hedapen, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, beti ere honako hauen aurka jardun gabe: agindu konstituzionaletan eta hauek garatzen dituzten lege organikoetan gai honi buruz ezarritakoa, estatuaren eskumenak ótitulu akademiko eta profesionalak lortu, esku-

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.
SORTZEN Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako zentro pri-
batuen titularrak diren erakunde-
en ordezkariak

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako zentro pri-
batuen titularrak diren erakunde-
en ordezkariak

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioaren
ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza administrazioaren orde-
zkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza administrazioaren orde-
zkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Zentro publikoetako irakasleen or-
dezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza administrazioaren orde-
zkaria

arautzea eta kudeatzea honen heda-
pen, maila, modalitate eta espezialitate
guztietan, beti ere agindu konstituzio-
naletan eta hauek garatzen dituzten
lege organikoetan gai honi buruz eza-
rritakoaren eta estatuaren eskumenen
aurka jardun gabe.

1070/1990 Errege Dekretuak¹⁸⁰, abuz-
tuaren 31koak, Estatuko Administra-
zioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafa-
rroako Foru Erkidegoaren esku utzi
zituen. 1990eko uztailaren 30eko
Transferentzia Batzordearen erabaki-
ko I d) atalean¹⁸¹ jartzen duenaren ara-
bera, eginkizunetako bat zentro publi-
koak sortzea izango litzateke
hezkuntza maila eta modalitate guztie-
tan. Ondorioz, Nafarroako Foru Erki-
degoko Gobernuari dagokio, tresna
juridiko egokiak erabiliz, Haur Hez-
kuntzako eta Lehen Hezkuntzako zen-
tro publikoak sortzea.

24/1997 Foru Dekretuak¹⁸², otsailaren
10ekoak, Araudi Organikoa onartu
zuen Foru Erkidegoko Haur Hezkun-
tzako Eskola Publikoen, Lehen Hez-
kuntzako Ikastetxe Publikoen eta Haur
Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako
Ikastetxe Publikoen inguruan. 2. artiku-

ratu eta homologatzeko bete beharreko baldintzen arautzeari dagokionean^o eta baldintzok bete daitezten bermatzen duen Estatuko goi-mailako ikuskaritza.

¹⁸⁰ 1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, Irakaskuntza ez unibertsitarioko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Erkidegoaren esku utzeari buruzkoa. (BOE, 210. zk., 1990eko irailaren 1ekoa).

¹⁸¹ Transferentzia Batzordearen erabakia, 1990eko uztailaren 30ekoa. I d) atala: eginkizunak: zentro publikoak, unitateak eta atalak sortzea, martxan jartzea, aldatzea, eraldatzea, sailkatzea, lekuz aldatzea, ixtea eta desagertaraztea hezkuntza maila eta modalitate guztietan, bai ohiko erregimene-
koak bai erregimen berezikoak eta baita izaera esperimentalak dutenak eta urrutiko ikasketetarakoak ere modalitate ezberdinetan.

¹⁸² 24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko Haur Hezkuntzako eskola publikoei, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza-
ko ikastetxe publikoen araudi organikoa onetsi zuena. (BOE, 1997ko martxoaren 14koa).

Luis M^a Sada Enériz and.
Toki erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain
and.

Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS

luan¹⁸³ eskumena ematen dio Nafarroako Gobernuari Foru Dekretuen bidez aipatutako zentroak sor ditzan; zentro horien artean dago baita ere Eskola Kontseiluak aztertutako erabaki proposamenean aipatutako zentro mota.

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 13. artikuluan¹⁸⁴ Gobernuaren

erabakiak aurkezteko bi modu bereizten ditu: foru dekretuak eta erabakiak. Kasu honetan erabakia eman behar da.

2. Gobernuaren erabakiaren zirriborroaren edukia

Aztertutako erabaki proposamenak bi atal ditu: atarikoa eta sei puntu dituen eta erabakia jasotzen duen bigarren atala.

Atarikoa. Bertan azaltzen dira erabakia onartzeko gaitasuna eta hori egiteko modua justifikatzen duten arauen erreferentziak.

1. puntua. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa sortzen du, "Santiagoko Bidea" Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publi-

¹⁸³ 2. artikulua. Zentroak sortu eta desagertaraztea. 1. Araudi honetan aipatutako zentroak Nafarroako Gobernuak sortuko ditu Foru Dekretuen bidez Hezkuntza eta Kultura Sailburuaren proposamenak jaso ostean. 2. Nafarroako Gobernuak zentroak sortu, desagertarazi, integratu eta handiagotzeko edozein akordio egin aurretik Hezkuntza Batzorde Gorenak edo Nafarroako Eskola Batzordeak egindako nahitaezko txostenak hartu beharko ditu kontuan eta akordioak irakasleen ordezkari sindikalei jakinaraziko dizkio.

¹⁸⁴ 12. artikulua. Nafarroako Gobernuak hartutako erabakien forma.

1. Nafarroako Gobernuaren erabakiak honela ezarriko dira: legegintzako foru dekretuak, foru dekretuak edo erabakiak.

2. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 19ko 13/1982 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitako arauak onesten dituzten erabakiak foru dekretuak izango dira.

3. Foru dekretuak izango dira Nafarroako Gobernuak bere botere legegilea erabiliz onetsitako xedapen orokorrak, Nafarroako Gobernuak onesten edo emanen dituen ohorezko izendapenak eta lege xedapenen batek hala adierazten duelako foru dekretu izan behar duten ebazpenak.

4. Gainontzeko kasuetan Nafarroako Gobernuak erabakiak hartuko ditu.

5. Legegintzako foru dekretuak eta foru dekretuak Nafarroako Gobernuko presidentek edo proposamena egiteko eskumena duen kontseilariak sinatuko ditu. Proposamena departamentu batek baino gehiagok egiten badu, gaiaren arduradun izendatzen den departamenduko kontseilari titularri egokituko zaio proposamena.

6. Nafarroako Gobernuaren erabakiak kontseilari idazkariak sinatuko ditu.

kotik bananduta. Ikastetxe berriaren administrazio identifikazioa jasotzen du eta baita izaera juridikoa ere.

2. puntua. Irakaskuntza eredia zehazten du eta “Santiagoko Bidea” ikastetxe publikoan dauden lanpostuak, hauetatik banatuko baitira ikastetxe publiko berriko unitateak.

3. puntua. “Santiagoko Bidea” ikastetxe publikoan lanpostu finkoa duten langileak esleitzeko irizpideak ezartzen ditu. Lehen irizpidea borondatezko esleitzea da. Ez balego nahikoa borondatezko atxikitzerik edo beharrezkoak baino gehiago balira, irizpide objektiboak finkatzen dira atxikipena gauzatzeko.

4. puntua. Nafarroako Foru Erkidegoaren titulartasun pean dauden zentroyen sarean sartzea xedatzen du; zerranda 69/1995 Foru Dekretuan, martxoaren 13koan¹⁸⁵, zehaztu zen; 150/1996 Foru Dekretuak, martxoaren 13koak¹⁸⁶, aldaketak egin zituen eta 109/1998 Foru Dekretuak, martxoaren 30ekoak¹⁸⁷, eguneratu zuen. Barrutia zehazten da eta baita lehen eta bigarren hezkuntzako atxikipen eremua eta azpi-eremua ere eta zein udalerritako umeak eskolatuko dituen ere bai.

5. puntua. Erabakia behar diren guztiei jakinaraztea.

6. puntua. Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzen du.

3. Bestelakoak

Irizpen bihurtzeko aurkeztutako erabaki proposamenari bi txosten atxiki zaizkio.

Lehenengo txostena Hezkuntza Ikuskatzaileak sinatu du Ikuskaritza Teknikoaren eta Zerbitzuen Zuzendariaren oniritzia jasota. Txosten honetan ikastetxe berriaren atxikipen barrutia, eremua eta azpi-eremua adierazten dira.

Bigarren txostena Hezkuntza Zentroetako Ataleko buruak sinatu du Zentroyen eta Ikasteko Laguntzen Zerbitzuko zuzendariaren onespina jasota. Txosten honen “Santiagoko Bidea” ikastetxe publikoko unitateak banatu ostean legez ikastetxe berri bat sortzeko beharra adierazten du. Era berean, Nafarroako Gobernuak eginkizun hau bere gain hartzeko duen gaitasuna frogatzen duten araudiak

¹⁸⁵ 69/1995 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe-sarea berrantolatzeko arauak xedatu dituena. (NAO, 1995eko apirilaren 7koa).

¹⁸⁶ 150/1996 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe-sarea berrantolatzeari buruzkoa. (NAO, 43. zk., 1996ko apirilaren 8koa).

¹⁸⁷ 109/1998 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe-sarea berrantolatzeari buruzko martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuko (NAO, 43. zk., 1996ko apirilaren 8koa) ikastetxe zerranda eguneratu duena.

aipatzen ditu eta baita eginkizun hau gauzatzeko modua adierazten dutenak ere. Batzordeari igorritako erabakiaren zirriborroko 1, 2, 3 eta 4. puntuetan jasotako erabaki proposamena azaltzen du.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Batzordeko batzar nagusian beharrezkotzat jo da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat sortzea "Santiagoko Bidea" ikastetxe publikoaren unitateak bananduz. Beraz, "Nafarroako Gobernuaren erabaki proposamena "Zizur Nagusia" behin-behineko izentzat izango duen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa sortzeko, Zizur Nagusiko "Santiagoko Bidea" Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko-tik bananduz" izeneko dokumentuaren eta bertan jasotakoaren alde dago.

Nafarroako Eskola Batzordearen ustez, British esperientziako gaztelaniako ereduko ikastetxe publiko berri bat sortzeak asko hobetuko luke eskaintza publikoa, eta etorkizunean antzeratu litekeen eredia da.

Hala eta guztiz ere, onartu den zuzenketan adierazitakoari jarraituz, 3. puntuan ("Santiagoko Bidea" ikastetxe publikoan lanpostu finkoa duten langileak esleitzeko irizpideak ezartzen dituen) honako aldaketa hauek egitea iradokitzen da:

- Lehenengo paragrafoko bigarren esaldian honako hitzok gehitzea: "espezialitateak direla eta".

Testua honela geratuko litzateke: "Especialitateak direla eta ez balego nahikoa borondatezko atxikitzerik, honako irizpide hauek aplikatuko dira hurrenez hurren".

- a) atalean honako hitzok gehitzea: "dagokion espezialitatean".

Testua horrela geratuko litzateke: "a) etenik gabeko antzintasun txikiena, behin betikoa zentroan dagokion espezialitatean".

- Bigarren paragrafoan honako hitzok gehitzea: "dagokion espezialitatean".

Testua horrela geratuko litzateke: "Zentro berrira atxikitzeko eskaerak behar direnak baino gehiago izango balira, honako hau izango litzateke atxikitzeko aukera izateko lehentasuna izango lukeen irizpidea: etenik gabeko antzintasun handiena behin betiko lanpostua lortu nahi den zentroan dagokion espezialitatean".

Ohar hau honako hauetan oinarrituz egin da:

"Zentro berrira atxikitzeko edo ez atxikitzeko irakasleek duten eskubidea eta lehentasuna jatorrizko zentroan zuten espezialitatearen arabera da", hala zedarrizten baitu 1991ko maiatzaren 30ko Aginduak, lanpostuen alda-

keta edo desagertzearen ondorioz behin betiko lanpostua duten irakasleen lekualdatzeari buruzkoak (BOE, ekainaren 1ekoa).

Behin betiko lanpostua zuten irakasleen lanpostuak desagertu edo aldatuz gero irakasleonegoera arautzen duten irizpideak (895/1989 Errege Dekretua, uztailaren 14koa, 38. artikulua):

“Lehenengoa: Zentro publiko bateko irakasle lanpostuak aldatzean espezialitate bateko edo batzuetako lanpostuak murrizten badira, behin betiko lanpostua zuten irakasleen lekualdatzea egiteko honako irizpide hauek jarraituko dira.

Bigarrena: Espezialitate horietan lanpostu baino irakasle atxiki gehiago badaude, irakasleek lanpostua borondatez uzteko eskaera egiteko aukera izango dute.

Hirugarrena: Lanpostua uzteko eskaera handiagoa bada, behin betiko lanpostua izanik antzintasun handiena dutenek izango dute lehentasuna”.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatueta irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkartearen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

12/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 16 boto, kontrako 2 boto eta 4 abstentziorekin, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz: "Foru Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006188 LOn xedatutako Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagozkien ikasgaiak ezartzen dituen eta Foru Komunitateko irakaskuntza-zentro publiko eta pribatu-kontzertatueta irakaskuntzaren ordutegiak antolatzeke jarraibideak ematen dituen".

Irizpen honi boto partikularra eman dio Comisiones Obreras sindikatuak.

1. Aurrekariak

2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, I. tituluan, I. kapituluan, 6-4 artikuluan, Hezkuntza Administrazioen esku uzten du legeak xedatutako ikasgaien curriculumak ezartzeko eskumena.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagokienez, Nafarroako Gobernuak 23/2007¹⁸⁹ eta

¹⁸⁸ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa. (EAO, 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa). 6. artikulua. Curriculumak.

...

4. Hezkuntza arloko administrazioek honako Lege honetan arautzen diren irakaskuntza guztien curriculumak ezarriko dute; curriculum horretan, aurreko idatz-zatietan adierazi diren oinarriko aspektuak sartuko dira. Bidezkoa denean, irakaskuntzako zentroek etapa eta ziklo guztien curriculu-

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.

SORTZEN Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundearen ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundearen ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.

Nafarroako Ikastolen Federazioaren ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.

Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.

HERRIKOA Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

24/2007¹⁹⁰ Foru Dekretuak argitaratu zituen 2007ko martxoaren 19an, Hobetze Legearen¹⁹¹ 47. artikulua araberagoz dagozkion eskumenak erabiliz. Aipatutako lehenengo Foru Dekretuak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasi beharreko gutxienekoak ezartzen ditu, abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuan¹⁹² aurreikusitakoa kontuan hartuz. Bigarren dekretuak Lehen Hezkuntzan ikasi beharreko gutxienekoak ezartzen ditu, abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuan¹⁹³ adierazitakoa kontuan hartuz.

Bi foru dekretuen azken zedapenetatik lehenengoak¹⁹⁴ eskumena ematen dio Hezkuntza sailburuari behar adina xedapen egiteko aipatutako foru dekretuak gauzatu eta garatu daitezken.

Ondorioz, Hezkuntza sailburuak agintzen du hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOn ezarritako Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagozkien ikasgaiak ezartzea, eta Foru Komunitatean dauden irakaskuntza zentro publiko nahiz pribatu-kontzertatuetan ikasgai hauei dagozkien ordutegiak antolatzeke ja-

ma garatu eta osatuko dute, beren autonomia erabiliz eta honako Lege honen V. izenburuko II. kapituluaren jasoan denaren arabera.

¹⁸⁹ 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetan curriculumak ezartzen duena.

¹⁹⁰ 24/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako ikasketen curriculumak ezartzen duena. Dekretu hau NAOan argitaratzeke dago.

¹⁹¹ 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraintza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa (BOE, 195. zk., 1982ko abuztuaren 26koa).

¹⁹² 1630/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasi beharreko gutxienekoak ezartzen dituen (BOE, 4. zk., 2006ko urtarrilaren 4koa).

¹⁹³ 1513/2006 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Lehen Hezkuntzan ikasi beharreko gutxienekoak ezartzen dituen (BOE, 293. zk., 2006ko abenduaren 8koa).

¹⁹⁴ Azken Xedapenak. Lehenengoak. Arauen garapena. Hezkuntza sailburuari eskumena ematen zaio behar adina xedapen egiteko foru dekretu hau gauzatu eta garatu ahal izateko.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz and.
Toki erakundeen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS

rraibideak ematea. Hori dela eta, azaroaren 8ko 12/1997 Foru Legearen 7-1 a) artikuluan¹⁹⁵ adierazitakoa kontuan hartuz, jarraian xehetasunez deskribatzen den Foru Aginduaren proiektua aurkezten du aztertzeko.

2. Foru legearen edukia

Aztertzeko aurkeztutako arau-proiektuak atarikoa, lau artikulua, bederatz

xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Atarikoa. Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko zuzendariak aipatutako Foru Legea onestearen aldeko txostena aurkeztu duela adierazten da. Lege hau onartzea bermatzen duten arauak aipatzen dira. LOEko 6. artikuluko atarikoan aipatutako oinarrizko gaitasunak lortzeko, curriculumaren egitura osatzen duen alor bakoitza lantzeko denbora zehaztea komeni dela nabarmentzen da. Hezkuntza Sailak, egungo hainbat hezkuntza printzipio kontuan hartuz, atzerriko hizkuntzen alde egiten du; hori dela eta, umeek txikitatik ikas ditzatela ezartzen du eta curriculumeko beste alor batzuk ikasteko erabiltzearen alde agertzen da, era honetan hizkuntzen erabilera praktikoa sustatzen delako. Ikaslearen oinarrizko gaitasunak garatzeko irakurketa oinarrizko eragile komuna dela adierazten da eta eskola garai jakin bat egotzen zaio. Azkenik, Hiritartasunerako Hezkuntzaren alorra Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan irakastea erabaki dela adierazten da.

1. artikulua. Arauaren helburua eta aplikazio esparrua zehazten dira. Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateko zentro publikoetan nahiz pribatu-kontzertatuetan ikasgaien ordutegia antolatzeko jarraibideak ematen dira.

2. artikulua. Oinarri orokorrak ezartzen dira. Urteko gutxieneko eskola egun kopurua zehazten da; alde zuzeneko eskaera eginez gero ezarritako eskola ordutegia luzatzeko baimena ematen da eta ordutegia antolatzerakoan, beti ere gutxieneko ordutegia errespetatuz, irakasgaien izaera globala eta integratzailea kontuan hartzeko adierazten da.

¹⁹⁵ 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Batzordea edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak arautzen duena (NAO, 1997ko azaroaren 12koa).

3. artikulua. Ordutegia antolatzeko jarraibideak ematen dira. Eskola orduen eta atsedendien iraupena adierazten dira. Eranskinak aipatzen dira alor bakoitzeko saio kopurua adierazteko bai Haur Hezkuntzako bigarren zikloari dago-kionez (I. eranskina), bai Lehen Hezkuntzari (II. eranskina) eta baita Lehen Hezkuntzako seigarren mailari ere (IV. eranskina). Irakaskuntza zentro pribatu-kontzertatuetan, aipatutako ordutegi egitura gomendioa besterik ez dela adierazten da.

4. artikulua. Curriculum berriak ezarri eta egungoak desagertarazteko egutegia zehazten da.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Haur Hezkuntzako zentro publikoei baimena ematen zaie arloak antolatzerakoan ordutegi malguagoa izateko era horretan ikaskuntza erri-tmoei egokitu ahal izateko.

Bigarrena. Sailari eskumena ematen zaio ordutegia luzatzeko baldintzak zehazteko.

Hirugarrena. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan D eredia duten zentroe-i baimena ematen zaie atzerriko hizkuntzaren errefortzu irakaskuntza atzeratzeko.

Laugarrena. Atzerriko bigarren hizkuntza irakasteko baimenik ez duten zentroe-i berau eskatzeko baimena ematen zaie.

Bosgarrena. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOko 2. Xedapen Gehigarrian¹⁹⁶ ezarritakoa aipatzen da, erlijioei buruzko ikasgaiak emateko bai Haur Hezkuntzako bigarren zikloan bai Lehen Hezkuntzan.

Seigarrena. Erlijioei buruzko ikasgairik ez izatea erabaki dutenentzat hezkuntza arre-ta antolatzeko jarraibideak ematen dira.

¹⁹⁶ Bigarren Xedapen Gehigarria. Erlijioaren irakaskuntza.

1. Erlijioaren irakaskuntza Vatikanok eta Estatu Espainiarrak izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioaren arabera izango da. Helburu horrekin, eta aipatutako akordioan jartzen duena errespetatuz, zentroentzat derrigorrezkoa izango da dagokion hezkuntza mailetan erlijio katolikoa irakasgai edo alor gisa eskaintzea, ikasleentzat, berriz, hautazkoa izango da irakasgai hori egitea.

2. Gainontzeko erlijioen irakaskuntza Estatu Espainiarrak ondoren aipatzen diren erakundeekin izenpetutako Lankidetzako Akordioaren arabera izango da edo etorkizunean bestelako erlijioekin izenpetu litezkeen akordioaren arabera. Estatu Espainiarrarekin akordioak sinatu dituzten erakundeak: Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Espainiako Federazioa, Komunitate Israeldarren Espainiako Federazioa eta Espainiako Batzorde Islamikoa.

Zazpigarrena. Ikasleek Haur Hezkuntzan zein adinetan hasi behar duten zehazten da. Behar Bereziak dituzten Ikasleak Haur Hezkuntzan urte bete beranduago hasteko baimena ematen da.

Zortzigarrena. Berandu eskolatutako ikasleak, euren gaitasunetan ziklo bateko edo gehiagoko desfasea badute, dagokien mailaren aurrekoan eskolatzeko baimena ematen da.

Bederatzigarrena. Hezkuntza Sailari agintzen zaio Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOko 121-3 artikuluan¹⁹⁷ aipatutakoaren arabera Hezkuntza Proiektua egitea.

Xedapen iragankorra

Bakarra. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza arautzeko egun indarrean dagoen araudia aplikatzeko adierazten da, 4. artikuluan aipatutako egutegiari jarraituz irakaskuntzok arautzen dituen antolakuntza berria ezarri arte.

Xedapen indargabetzailea

Bakarra. 230/1992 Foru Agindua, maiatzaren 12koa¹⁹⁸, eta 366/2002 Foru Agindua, ekainaren 11koa¹⁹⁹, indargabetzen dira, bai eta igorritako testuaren edukia kontrakoa adierazten duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapena

Bakarra. Araua indarrean sartzeko data ezartzen da.

¹⁹⁷ 121. artikulua. Hezkuntza proiektua.

3. Hezkuntza Administrazioei dagokie zentro publiko eta pribatuek hezkuntza proiektuak egiteko esparru orokorra ezartzea. Proiektuok argitaratu egin beharko dira hezkuntza komunitateko kide guztiak ezagutu ditzaten. Era berean, Hezkuntza Administrazioei dagokie curriculuma garatzen laguntzea irakaskuntza antolakuntza eredu irekien alde eginez eta baita ikasleen nahiz irakasleen behar ezberdinak aintzat hartzen dituzten material didaktikoen alde ere.

¹⁹⁸ 230/1992 Foru Agindua, ekainaren 12koa, Haur Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituen eta jarraibideak ematen dituen curriculuma garatzeko eta Nafarroako Foru Erkidegoan zentro publikoak nahiz ordutegiak antolatzeko. (NAO, 88. zk., 1992ko ekainaren 22koa).

¹⁹⁹ 366/2002 Foru Agindua, uztailaren 5koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagokion ordutegia aldatzen duena, uztailaren 16ko 257/1998 Foru Manamenduak eta ekainaren 12ko 257/1998 Foru Manamenduak hurrenez hurren araututako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetan. (NAO, 105 zk., 2002ko abuztuaren 30ekoa).

3. Bestelakoak

Aurkeztutako foru aginduaren zirriborroarekin batera txosten bat eta honako oroitidazki hauek aurkezten dira: Ekonomikoa, Justifikaziokoa, Arau-emailea, Antolakuntzako eta Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzekoa. Dokumentu hauek guztiak Akademi Antolakuntzarako Ataleko buruak sinatu ditu eta Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko zuzendariaren oniritzia jaso dute.

Txostenean, proposamenaren oinarri diren legeak eta errealitateak aipatzen dira. Aurkeztutako testuaren ezaugarri garrantzitsuenak honako hauek dira: atzerriko lehenengo hizkuntzaren irakaskuntza Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hastea; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan atzerriko bigarren hizkuntza baten irakaskuntza ezartzeko baimena; "Hiritartasunerako Hezkuntza" ikasgai berria Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan.

Oroitidazki ekonomikoak adierazten du Foru Dekretua aplikatzeak ez dakarrela ondorio ekonomikorik.

Justifikazio Oroitidazkian, proposatutako foru agindua aldarrikatzearen beharra justifikatzen duten arrazoi legalak aipatzen dira. Testua zuzenean herritarrei aurkeztea beharrezkoa ez dela adierazten da, izan ere, Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenean aurreikusten da, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 60.2 artikuluan²⁰⁰ jarritakoarekin bat etorritz.

Oroitidazki arau-emailean, proposatutako testua babesten duten legeak jasotzen dira eta, proposatutako agindua ezarri artean, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza arautzeko egun indarrean dagoen araudia aplikatzeko adierazten da.

Antolakuntza oroitidazkian aipatzen da testuak ez duela antolamendu egituran eraginik izango.

Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzeko oroitidazkian, proposatutako testuari oniritzia ematen zaio proposatutako arauaren aplikazio alorra eta proiektuan erabilitako hizkuntza aztertu ostean, eta honako hau adierazten da aurkeztutako testuari buruz: "ez da neskak edo mutilak baztertzeko dituen neurriak jasotzen. Are gehiago, bi sexuen aukera berdintasunaren printzipioa zorrotz betetzen da". Beraz, ez da aurkeztutako testuan aldaketarik egiteko proposatzen.

²⁰⁰ 60. artikulua izapide . Argitaratzea eta parte-hartzea.

...

2. Aurreko atalean aurreikusitako izapidea ez da beharrezkoa izango aipatutako entitateen kasuan, baldin eta egite prozesuan kontsulta egin bazaie.

4. Iradokizunak eta oharra

Eskola Batzordeko osoko bilkuran onartu egin da Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza zentroetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagozkien ikasgaiak ezartzeko proposamena eta egokitzeak jo dira ikasgaion ordutegiak antolatzeke jarraibideak.

Hortaz, foru agindu honen proiektua bideratzeko oniritzia eman da: "Foru Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOn xedatutako Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagozkien ikasgaiak ezartzen dituen eta Foru Komunitateko irakaskuntza-zentro publiko eta pribatu-konzerdatuetan irakaskuntza ordutegiak antolatzeke jarraibideak ematen dituen".

Hala eta guztiz ere, onartu diren aldaketetan adierazitakoaren arabera, honako hauek kontuan hartzea iradokitzen da:

IV. eranskineko (3) oharra, Lehen Hezkuntzako 6. mailan alor bakoitzeko asteko saioak zehazten dituen, Lehen Hezkuntzako maila guztietara hedatzea irakaskuntza zentroetan atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntza sustatzeko.

Dokumentu guztietan erabilitako hizkera ordezkatzeko genero hizkera egokiagoa erabiliz.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidente, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

COMISIONES OBRERASEK "Foru Aginduaren proposamena, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOn xedatutako Haur Hezkuntzako bigarren zikloari eta Lehen Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituen eta Foru Komunitateko irakaskuntza-zentro publiko eta pribatu-kontzertatuetan irakaskuntzon ordutegiak antolatzeke jarraibideak ematen dituen" 12/2007 IRIZPENARI EMAN DION BOTO PARTIKULARRA 12/2007

Comisiones Obreraseko Irakaskuntza Federazioak beharrezkoa eta egokia irizten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatuz Nafarroan Haur Hezkuntzako etar Bigarren Hezkuntzako ikasgaien ezarpena arautzea eta aipatutako legeak ezarritako egutegia betetzeko prozedura hau ahalik eta azkarren gauzatzeko. Hala eta guzti zere, kontrako botoa eman dio Eskola Kontseiluaren irizpenari, Foru Aginduko alderdi hauen aurka baitago:

1. Zentro publikoen kasuan, ikasleen ordutegia egunean ordubete luzatu ahal izatea irakasle berriak kontratatzea derrigorrezkoa gabe.

Gure ustez, araudi honen helburua ez da zentroetako langileen inguruko gaiak arautzea. Gure iritziz, antolakuntzaren eta curriculumaren inguruan hartzen diren neurriek irakasleen lan baldintzetan eragina badute, Irakasleen Sektoreen arteko Mahaian eztabaidatu behar dira kide guztien artean.

2. Zentroetako asteroko ordutegiaren antolakuntza zurruna (50 minutuko 27 saio eta 60 minutuko saio bat, ekainean eta irailean izan ezik).

Zentro pribatuen kasuan gertatzen den bezala, irakaskuntza zentro publiko bakoitzak, duen antolamendu autonomiaren bitartez, bere ordutegia antolatzeke aukera izan beharko luke, ikasleen ezaugarrien eta irakaskuntza komunitateko ki-deene beharren arabera. Edonola ere, honako hauek zehaztu beharko lirateke: urteko gutxienezko eskola egunak, asteko gehienezko eta gutxienezko saio kopurua, saioen gutxienezko eta gehienezko iraupena eta ,dagokien kasuetan, goizeko eta arratsaldeko saioen arteko tarteara iraupena.

3. Lehen Hezkuntzan curriculumeko alor bakoitzari ezarritako ordu eta saio kopurua.

Curriculumeko arlo bakoitzari astero dagokion denbora ordutan edota zatikitan zehaztu beharko litzateke, era horretan zentroek dituzten baliabideak ahalik eta gehien ustiatu ditzaten eta ordutegia dituzten beharren eta baliabideen arabera antolatu ditzaten.

Curriculumeko alorren antolakuntzari dagokionez, honako hauek adierazi nahi ditugu:

- Irakaskuntza Artistikoaren alorrak, musika eta plastika barne hartzen dituenak, ordu kopurua handiagoa izan beharko luke.
- Ez da egokia honako alor hau gehitzea: "Hizkuntzari, matematikari edo bestelako curriculum esperientziei aplikatutako Teknologia Berriak" ez baita curriculum arlo bat. Teknologia berrien erabilera edozein curriculum arlotan sustatu daiteke bai tresna eta bai eduki gisa. Irakaskuntza zentron eskumena da teknologia berriak zein unetan erabiliko diren erabakitzea.
- Irakurmenari dagozkion edukiak hizkuntza eta literatura arloaren zatitzat hartu beharko lirateke eta baita zeharkako edukitzat ere. Irakurmena hezitzailea eta instrumentala da. Ikasteko baliabidea eta tresna da eta gaztelaniako curriculumeko edukiekin estuki lotuta dago, horretaz gain, gaitzetzeko curriculum arloetan lantzen da. Nafarroan irakaskuntza hauen curriculumeko oinarrietako batek ezarriko duen moduan *Ikasleen hezkuntza garapenari eta pertsonalari koherentzia eta jarraipena ematen dioten oinarrietako bat da eta ez da bakartutako elementutzat jo behar baizik eta beste elementu batzuekin batera... eta Irakurketa ulerkorra, idazkera eta ahozko adierazpena maila ezberdinetan alor guztietan ezarriko da.*
- Ikaslearen ordutegiaren barruan astero tutoretzarako denbora izatea.
- A/G, D eta D/A ereduetan ere G erudian beste ordu erabiltzea "Hiritartasunerako Hezkuntza" eta giza eskubideen gaietarako.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 10ean

M^a Luisa De Simón Caballero

CCOOko Irakaskuntza Federazioa.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatuetakako irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkartearen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

13/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 16 boto, kontrako 2 boto eta 4 abstentziorekin, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz: "Foru Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOan xedatutako Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituen eta Foru Komunitateko irakaskuntza-zentro publiko eta pribatu-kontzertatueta irakaskuntza ordu-tegiak antolatzeke jarraibideak ematen dituen".

Irizpen honi boto partikularra eman dio Comisiones Obreras sindikatuak.

1. Aurrekariak

2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, I. tituluan, I. kapituluan, 6-4 artikuluan²⁰¹, Hezkuntza Administrazioen esku uzten du legeak xedatutako ikasgai ezberdinen curriculumak ezartzeko eskumena.

Bigarren Hezkuntzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 25/2007 Foru

²⁰¹ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa. (BOE 106. zk., 2006ko maiatzaren 4koa). 6. artikulua. Curriculumak.

...

4. Hezkuntza Administrazioek ezarriko dituzte lege honetan araututako ikasgai ezberdinen curriculumak eta horretarako, aurreko ataletan aipatutako oinarriko alderdiak jaso behar dituzte. Irakaskuntza zentroek etapa eta ziklo ezberdinen curriculumak garatu eta osatuko dituzte, izan ere, lege honetako V. tituluko II. kapituluan adierazten denaren arabera, horretarako autonomia dute.

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.

SORTZEN Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundearen ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundearen ordezkaria

Pello Mariñelarena jn.

Nafarroako Ikastolen Federazioaren ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.

Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.

HERRIKOA Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

Paloma Roselló Fernández and.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Dekretua argitaratu zuen 2007ko martxoaren 19an²⁰² hobetze Legearen 47. artikulua arabera²⁰³ dagozkion eskumenak erabiliz. Foru Dekretu honek Nafarroako Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaien curriculuma ezartzen du. Aipatutako arauak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasi beharreko gutxienekoak ezartzen ditu, abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuan²⁰⁴ aurreikusitakoa kontuan hartuz.

Aipatutako Foru Dekretuko Azken Xedapenetatik²⁰⁵ lehenengoak eskumena ematen dio Hezkuntza Sailburuari behar adina xedapen egiteko aipatutako Foru Dekretua gauzatu eta garatu dadin.

Ondorioz, Hezkuntza Sailburuak agintzen du hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOan ezarriko Bigarren Hezkuntzari dagozkion irakasgaien ezarpena arautzea, eta Foru Komunitatean dauden irakaskuntza zentro publiko nahiz pribatu-kontzertatuetan irakaskai hauei dagozkien ordutegiak antolatzeke jarraibideak ematea. Hori dela eta, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 7-1 a)²⁰⁶ artikuluan adierazitakoa kontuan hartuz, jarraian xehetasunez deskribatzen den Foru Agindu

²⁰² 25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaien curriculuma ezartzen duena. NAO argitaratzeke dago.

²⁰³ 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraintza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa (BOE 195. zk., 2006ko maiatzaren 4koa)

²⁰⁴ 1631/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasi beharreko gutxienekoak ezartzen dituena. (BOE 5. zk., 2007ko urtarrilaren 5koa).

²⁰⁵ Azken Xedapenak. Lehenengoa. Arauen garapena. Hezkuntza Sailburuari eskumena ematen zaio behar adina xedapen egiteko Foru Dekretu hau gauzatu eta garatu ahal izateko.

²⁰⁶ 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Batzordea edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak arautzen dituena. NAO, 1997ko azaroaren 12koa.

Luis M ^a Sada Enériz and. Toki erakundeen ordezkaria	proiektua aurkezten du aztertua izan dadin.
Luis Sarriés Sanz jn. Pertsona ospetsua	
José Manuel Urroz Barasoain and. Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS	2. Foru aginduaren edukia Aztertzeo aurkeztutako arau-proiektuak atarikoak, lau artikulua, sei xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Atarikoak. Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko zuzendariak aipatutako Foru Agindua onestearen aldeko txostena aurkeztu duela adierazten da. Lege hau onartzea bermatzen duten arauak aipatzen dira.

1. artikulua. Arauaren helburua eta aplikazio esparrua zehazten dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko zentro publikoetan nahiz pribatu-kontzertatuetan ikasgaien ordutegiak antolatzeo jarraibideak ematen dira.

2. artikulua. Ordutegiaren antolamenduari dagokionez, urteko gutxieneko eskola egun kopurua zehazten da eta alde zurretik eskaera eginez gero ezarritako eskola ordutegia luzatzeko baimena ematen da. Lanaldiaren antolamendua urteko egutegi eta ordutegi orokorrean ezarritakoari lotu beharko zaio. Astean 30 saio izan beharko dira gutxienez eta horietatik bat tutoretza ordua izango da. Euskara Hizkuntza eta Literatura ezartzeko jarraibideak ematen dira, Matematika laugarren mailan antolatzeo eta Natur Zientziak hirugarren mailan.

3. artikulua. Ordutegia antolatzeo jarraibideak ematen dira. Dagozkion eranskinak aipatzen dira alor bakoitzeko saio kopurua adierazteko bai G eremuan (I. eranskina), bai D eremuan (II. eranskina).

4. artikulua. Curriculum berriak ezarri eta egungoak desagertarazteko egutegia zehazten da.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Erljioei buruzko ikasgaiak emateko martxoaren 19ko²⁰⁷ 25/2007 Foru Dekretuko 2. Xedapen Gehigarrian ezarritakoa kontuan hartzeo aipatzen da.

²⁰⁷ Bigarren Xedapen Gehigarria. Erljioaren irakaskuntza.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan erljioari buruzko ikasgaiak emango dira, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Erlijioei buruzko ikasgairik ez izatea erabaki dutenentzat hezkuntza arreta antolatzeke jarraibideak ematen dira.

Hirugarrena. Ikastetxe publikoetako erlijio irakasleek euren lan orduetako bazuetan eskolarik ez ematekotan eskola orduotan egin beharrekoa adierazten da.

Laugarrena. Bigarren Hezkuntzako curriculuma onesten duen eta laugarren mailako aukeren eta hautazko irakasgaien eskaintza eta arautzea ezartzen duen araudia aipatzen da²⁰⁸.

Bosgarrena. Baimena ematen da berandu eskolatutako ikasleak, euren gaitasunetan ziklo bateko edo gehiagoko desfasea badute, dagokien mailaren aurrekoaren edo honen aurrekoan eskolatzeke.

Seigarrena. Hezkuntza Sailari agintzen zaio Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOko 121-3 artikuluan aipatutakoaren araberrako Hezkuntza Proiektua egitea²⁰⁹.

2. Hezkuntza Sailak bermatu beharko du ikasturte hasieran adinez nagusi diren ikasleek eta ikasleen sendiek erlijioari buruzko ikasgaia izan nahi duten ala ez adierazi ahal izatea.

3. Erlijioari buruzko ikasgaia hautatzen dutenek erlijio katolikoa edo hezkuntzaren arloan Estatuarekin Nazioarteko Akordioak edo Elkarlanerakoak dituen beste edozein erlijio aukeratu ahal izango dute, -akordioetan ezarritako baldintzen pean-, edota erlijioen historia eta kultura ikastea hautatu ahal izango dute.

4. Irakaskuntza zentroek, beti ere Hezkuntza Sailak ezarritako irizpideei jarraituz, beharrezko antolakuntza neurriak hartuko dituzte erlijioari buruzko ikasgaia hautatu ez duten ikasleek hezkuntza arreta egokia izan dezaten eta, edonola ere, aukera bat edo beste egiteak inolako diskriminaziorik ez sortzea bermatu beharko dute. Aipatutako arretan ez da inolaz ere erlijioaren arloari buruzko eduki curricularrrik emango ezta maila horretako beste edozein ikasgairi buruzkoak ere. Zentroek hartzen dituzten antolamendu neurriak hezkuntza proiektuan aurkeztuko dira sendiek alde aurretik ezagutu ditzaten.

5. Erlijio katolikoari eta erlijioen historia eta kulturari buruzko ikasgaien ebaluaketa maila bereko gainontzeko ikasgaien irizpide berberak jarraituz egingo da. Estatuarekin Elkarlanerako Akordioak izenpetu dituzten erlijioei buruzko ikasgaien ebaluaketa akordiotan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

6. Elizako hierarkiak eta dagozkien erlijio agintariek dute eskumena erlijio katolikoari buruzko eta Estatuarekin Elkarlanerako Akordioak dituzten gainontzeko erlijioei buruzko ikasgaien curriculuma ezartzeko.

7. Berdintasun printzipioa eta lehia askea bermatzeko, erlijioari buruzko ikasgaietan lortutako kalifikazioak ez dira aintzat hartuko ikasketa espedienteak kontuan hartzen diren deialdietan ezta ikasleak onartzeko kontuan hartzen diren batez besteko kalifikazioetan.

²⁰⁸ Eskola Kontseilu hau araudi hau aztertzen ari da.

²⁰⁹ 121. artikulua. Hezkuntza proiektua.

3. Hezkuntza Administrazioei dagokie zentro publiko eta pribatuak hezkuntza proiektuak egiteko esparru orokorra ezartzea. Proiektuok argitaratu egin beharko dira hezkuntza komunitateko kide guztiek ezagutu ditzaten. Era berean, Hezkuntza Administrazioei dagokie curriculuma garatzen laguntzea irakaskuntza antolakuntza eredu irekien alde eginez eta baita ikasleen nahiz irakasleen behar ezberdinak aintzat hartzen dituzten material didaktikoak sustatuz.

Xedapen Iragankorra

Bakarra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arautzeko egun indarrean dagoen araudia aplikatzeko adierazten da, 4. artikuluan aipatutako egutegiari jarraituz irakaskuntzok arautuko dituen antolakuntza berria ezarri arte.

Xedapen Indargabetzailea

Bakarra. 514/1994 Foru Agindua, abenduaren 26koa²¹⁰, indargabetzen da eta baita igorritako testuaren edukiaren kontrakoa adierazten duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

Azken Xedapena

Bakarra. Araua indarrean sartzeko data ezartzen da.

3. Bestelakoak

Aurkeztutako Foru Agindu zirriborroarekin batera txosten bat eta honako oroitidazki hauek aurkezten dira: Ekonomikoa, Justifikaziokoa, Arau-emailea, Antolakuntzakoa eta Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzekoa. Dokumentu hauek guztiak Akademi Antolakuntzarako Ataleko buruak sinatu ditu eta Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko Zuzendariaren oniritzia jaso dute.

Txostenean, proposamenaren oinarri diren legeak eta errealitateak aipatzen dira. Aurkeztutako testuaren ezaugarri garrantzitsuenak honako hauek dira: "Etikari eta hiritartasunari buruzko hezkuntza" ikasgaiari emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunari arreta berezia jartzea; erlijioari buruzko ikasgaiak hautatu ez dituzten ikasleentzako hezkuntza arreta eskaintzeko antolakuntza irtenbideak; "Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak" ikasgai berria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan; DBHko laugarren mailaren orientazio izaera derrigorrezko ikasketen ondorengo ikasketei begira.

Oroitidazki ekonomikoak adierazten du Foru Dekretua aplikatzeak ez dakarrela ondorio ekonomikorik.

Justifikazio Oroitidazkian, proposatutako Foru Agindua aldarrikatzearen beharra justifikatzen duten arrazoi legalak aipatzen dira. Testua zuzenean herritarrei aur-

²¹⁰ 514/1994 Foru Agindua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituen eta ordutegia ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitateko zentroetan. (NAO, 1995eko otsailaren 17koa).

keztea beharrezkoa ez dela adierazten da, izan ere, Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenean aurreikusten da, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 60.2²¹¹ artikuluan jarritakoarekin bat etorritz.

Oroitidazki arau-emailean, proposatutako testua babesten duten legeak jasotzen dira eta, proposatutako agindua ezarri artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arautzeko egun indarrean dagoen araudia aplikatzeko adierazten da.

Antolakuntza oroitidazkian adierazten da testuak ez duela antolamendu egituran eraginik izango.

Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzeko oroitidazkian, proposatutako testuari oniritzia ematen zaio proposatutako arauaren aplikazio alorra eta proiektuan erabilitako hizkuntza aztertu ostean, eta honako hau adierazten da aurkeztutako testuari buruz: “ez da neskak edo mutilak baztertzeko dituen neurriak jasotzen. Are gehiago, bi sexuen aukera berdintasunaren printzipioa zorroztz betetzen da”. Beraz, ez da aurkeztutako testuan aldaketarik egiteko proposatzen.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Batzordeko osoko bilkuran onartu egin da Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza zentroetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzeko proposamena eta egokitzeak jo dira ikasgaion ordutegiak antolatzekeo jarraibideak

Hortaz, honako Foru Agindu proiektua bideratzeko oniritzia eman da: “Foru Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOan xedatutako Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituen eta Foru Komunitateko irakaskuntza-zentro publiko eta pribatu-kontzertatuetan ikasgaion ordutegiak antolatzekeo jarraibideak ematen dituen”.

Hala eta guztiz ere, onartu den zuzenketa kontuan hartuz, honako hau aldatzea iradokitzen da:

- Dokumentu guztietan erabilitako hizkera ordezkatzeko genero hizkera egokiagoa erabiliz.

²¹¹ 60. artikulua. Argitaratzea eta parte-hartzea.

...

2. Aurreko atalean aurreikusitako izapidea ez da beharrezkoa izango aipatutako entitateen kasuan, baldin eta egite prozesuan kontsulta egin bazaie edo txostenen bitartez prozesuan parte hartu badute edota lege ezarritako ordezkari talde batek azter dezan aurreikusita badago.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

COMISIONES OBRERASEK "Foru Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOan xedatutako Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituen eta Foru Komunitateko irakaskuntza-zentro publiko eta pribatu-kontzertatuetan ikasgaion ordutegiak antolatzeke jarraibideak ematen dituen" 13/2007 IRIZPENARI EMAN DION BOTO PARTIKULARRA:

Comisiones Obrerareko Irakaskuntza Federazioak beharrezkoa eta egokia irizten du hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatuz Nafarroan Bigarren Hezkuntzako ikasgaien ezarpena arautzea eta aipatutako legeak ezarritako egutegia betetzeko prozedura hau ahalik eta azkarren gauzatzea. Hala eta guztiz ere, kontrako botoa eman dio Eskola Kontseiluaren irizpenari Foru Agindu proposamenaren alderdi hauen aurka baitago:

1. Zentro publikoen kasuan, ikasleen ordutegia egunean ordubete luzatu ahal izatea irakasle berriak kontratatzea derrigorrezkoa izan gabe

Gure ustez, araudi honen xedea ez da zentroetako langileen inguruko gaiak arautzea. Gure iritziz, antolakuntzaren eta curriculumaren inguruan hartzen diren neurriek irakasleen lan baldintzetan eragina badute, Irakasleen Sektoreen arteko Mahaian eztabaidatu behar dira kide guztien artean.

2. Erljio irakasleen lanaldiari buruzko testua

Honako testu zatia ezabatu beharko litzateke: *"Ikastetxe publikoetako erlijio irakasleek euren lan orduetako batzuetan ikasleei eskolarik ez ematekotan, orduotan zentroan egon beharko dira eta erlijio ikasleei eskainiko zaizkien ekintzak prestatu beharko dituzte. Era berean, zuzendariak orduotan zaintzak egitea eska diezaieker irakasleoi. Ekintzak erlijio ikasgaien curriculumaren osagarri izango dira, ikasleak ez daude derrigortuta parte hartzera eta ekintzak eskola orduetatik kanpo antolatuko dira aipatutako irakasleak bertan egongo direlarik". Gai hau ez da araudi honen xedea. Hezkuntza Sailak erlijio ikasleen lan baldintzak –Eliza Katolikoaren hierarkiarekin lotuta daudenak– arautzekotan, berariazko arau batean egin beharko luke.*

3. Erljioari buruzko ikasgaia hautatzen duten ikasleei ez zaie Erljioen Historia ikasgaia eskaintzen

Erljioari buruzko irakasgaia hautatzen duten ikasleei erljioen historia ikasteko aukera eman beharko litzateke. Izan ere, horrela xedatzen du 1362/2006 Errege Dekretuak, estatuaren gutxienezko buruzkoak, bigarren Xedapen Gehiga-

rrian: Erljioari buruzko ikasgaia hautatzen dutenek erljio katolikoa edo estatuko beste erljio bat ikastea edo erljioen historia eta kultura ikastea aukera dezakete.

4. Ordubeteko saioa duten ikasgaiak.

Alderdi hau guztiz negatibotzat jotzen dugu ikasgaiok gutxiesten direla iruditzen zaigulako.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 10ean

M^a Luisa De Simón Caballero
CCOOko Irakaskuntza Federazioa.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatuetako irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkartearen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.
SORTZEN Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

14/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 17 boto, kontrako 3 boto eta 3 abstentzioekin, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz: "Foru Agindua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum ezberdinak eratzeko programak arautzen dituen Nafarroako Foru Komunitatean".

1. Aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren²¹² Atarikoan, ikasgaietara eta hauen antolamenduari buruzko I. tituluan (22-4, 5 eta 6, 24-8, 26-5), nahiz hezkuntza berdintasunari buruzko II. tituluan, beharrezko neurriak hartzeko agintzen da hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen sarbidea, iraunkortasuna eta aurreratzea bermatzeko, zuzentasunaren, aukera berdintasunaren, denontzako hezkuntzaren eta diskriminazio ezaren (1-b eta 1-c artikulua) ikuspuntutik. Hori dela eta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien antolakuntza malgua izatea agintzen du (22-4 art.) eta behar ezberdinei erantzutea (22-6 art.), ikasle guztiak etapa honetako helburu guztiak erdietsi ditzaten. Era berean, curriculum ezberdinak sortzeko programak izatea

²¹² 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa. (BOE zk.106, 2006ko maiatzaren 4koa).

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundeen ordezkariak

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundeen ordezkariak

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioaren ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

agintzen du (27. art.), ikasleek Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lor dezaten ahalbidetzeko.

Nafarroa aitzindari izan da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan izan daitezkeen behar ezberdinei erantzuteko neurriak ezartzen. Hala eta guztiz ere, eta lehen aipatutako arrazoiak direla medio, orain arte hartutako neurriak lotu egin behar zaizkio hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren 27. artikuluan²¹³ adierazitako araudiari.

Curriculum ezberdinak sortzeko programak maiatzaren 19ko 25/2007 FD-ko 14. artikuluan²¹⁴ finkatzen dira. Programa horien helburua ikasleek titulua eskuratzea da eta horretarako edu-

²¹³ 27. artikulua. Curriculum ezberdinak eratzekeo programak.

1. Etapa honetan ikasi beharreko gutxieneako zehazterakoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera curriculum ezberdinak eratzekeo baldintzak zehaztuko dira dagokien ebaluazioa egin ostean hala behar duten ikasleentzako. Kasu horietan, etapa horretako edukiak berriazko metodologia baten bidez erdietsiko dira eta horretarako edukiak, jarduera praktikokoak eta kasuan kasu ikasgaiak antolamendu orokorrean ez bezala antolatuko dira.

2. Bigarren ikasturtea egin ostean hirugarren mailara igarotzeko prest ez dauden ikasleak, Bigarren Hezkuntzan jada mailaren bat errepikatu badute, curriculum ezberdinak eratzekeo programetan sartu ahal izango dira dagokien ebaluaketa egiten zaienean.

3. Curriculum ezberdinak eratzekeo programen helburua ikasleek Eskola Graduatu-titulua lortzea da.
²¹⁴ 25/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien curriculuma ezartzen duena. NAO n argitaratzeke dago.

...

14. artikulua. Dibertsifikazio curricularra.

1. Hezkuntza sailak zehaztuko du zein testuingurutan ezarri ahal izango dituzten zentroek curriculum ezberdinak eratzekeo programak. Programotan parte hartuko duten ikasleei ebaluaketa egingo zaie eta edukien, jarduera praktikoen eta gaien antolakuntza sistema orokorrekoa ez bezalakoa behar duten ikasleak izango dira, berriazko metodologia behar dutenak etapako oinarriko helburuak eta gaitasunak eta Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzeko.

2. Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera parte hartu ahal izango dute aipatutako programetan. Bigarren maila egin ostean hirugarren mailara pasatzeko prest ez dauden eta etapa berean mailaren bat errepikatu duten ikasleek ere parte hartu ahal izango dute programa hauetan. Hala eta guztiz ere, programotan parte hartu aurretik, ebaluazio akademikoa nahiz psikopedagogikoa egingo zaie; Hezkuntza Sailak esku har lezake ebaluazioan eta ikasleak berak eta bere sendiak iritzia emateko aukera izango dute.

3. Hezkuntza Sailak ezarriko du programa hauen curriculuma, ikasleak programotan sartzeko baldintzak eta ebaluaketa prozedura eta irizpideak eta baita Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzekeoak.

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz and.
Toki erakundearen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS

kien antolamendua, jarduera praktikoen eta berariazko gaiak egokituko dira behar duten ikasleentzat hirugarren mailatik aurrera.

2/2006 LOren 6-4 artikulua araberaren²¹⁵, Nafarroako Gobernuari dagokio legeak araututako ikasgaien curriculumak zehaztea, curriculum ezberdinak eratzeko programetakoak barne. Gobernuari dagokio baita ere Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua lortzeko baldintzak zehaztea.

Bestalde, aipatutako Foru Dekretuko Azken Xedapenetatik lehenengoak²¹⁶ eskumena ematen dio Hezkuntza Sailburuari behar adina xedapen egiteko aipatutako Foru Dekretua gauzatu eta garatu dadin.

Ondorioz, Hezkuntza Sailburuak agintzen du hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 LOren ezarritako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum ezberdinak eratzeko programak Foru Komunitatean arautzea. Hori dela eta, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 7-1 a) artikuluan²¹⁷ adierazitakoa kontuan hartuz, jarraian xehetasunez deskribatzen den Foru Agindu proiektua aurkezten du aztertua izan dadin.

2. Foru legearen edukia

Aztertzeko aurkeztutako arau-proiektuak atarikoak, bederatzi artikulua, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, bi xedapen indargabetzaile eta azken xedapen bat ditu.

²¹⁵ 6. artikulua. Curriculuma.

4. Hezkuntza Administrazioek ezarriko dituzte lege honetan araututako ikasgai ezberdinen curriculumak eta horretarako, aurreko ataletan aipatutako oinarriko alderdiak jaso beharko dituzte. Irakaskuntza zentroek etapa eta ziklo ezberdinen curriculumak garatu eta osatuko dituzte, izan ere, lege honetako V. tituluko II. kapituluaren adierazten denaren arabera, horretarako autonomia dute.

²¹⁶ Azken Xedapenak. Lehenengoa. Arauen garapena. Hezkuntza Sailburuari eskumena ematen zaio behar adina xedapen egiteko Foru Dekretu hau gauzatu eta garatu ahal izateko.

²¹⁷ 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Batzordea edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak arautzen dituenak. NAO, 1997ko azaroaren 12koa.

Atarikoa. Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko zuzendariak aipatutako Foru Agindua onartzearen aldeko txostena aurkeztu duela adierazten da. Ikasle ezberdinen ezaugarri eta behar anitzei erantzutea ikasleei hezkuntza ego-kia emateko betebeharretakoa bat da eta ezinbestekoa da etapako oinarriko gaitasunak lor ditzaten. Behar hauei erantzuteko normalizazio eta denontzako hezkuntza printzipioetan oinarritu beharra dago eta xedea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu eta gaitasunak erdiestea eta ondorioz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua eskuratzea izan behar da.

1. artikulua. Arauaren helburua eta aplikazio esparrua zehazten dira. DBHko dibertsifikazio programak ezartzeko agintzen da Nafarroako Foru Komunitateko zentro publiko nahiz pribatu-kontzertatuetan.

2. artikulua. Curriculum ezberdinak eratzeko programak definitzen dira. Ikasle-
leen behar ezberdinei erantzuteko programak dira, DBHko hirugarren eta lau-
garren mailan ezarriko direnak, eta egun dauden zenbait antolakuntza neurri or-
dezkatuko dituzte. Aipatutako ezaugarriak dituzten ikasleei zuzenduta daude,
metodologia berezia erabiliko dute eta etapako oinarriko gaitasunak eta Biga-
rren Hezkuntzako Graduatu-titulua lotzea dute helburu.

3. artikulua. Programetan parte hartzeko baldintzak zehazten dira. Horretara-
rako, ikasleek bete beharreko baldintzak aipatzen dira eta ezer baino lehen ikas-
learen iritzia eta sendiarena kontuan hartu behar dela adierazten da, ikasleari
ebaluaketa akademikoa eta psikopedagogikoa egin behar zaiola eta Hezkuntza
Sailak ere erabakian esku hartuko duela adierazten da.

4. artikulua. Programetan sartzeko prozedura ezartzen da. Ebaluazio akade-
mikoa noiz egin behar den, nortzuk egin behar duten eta zein erabaki hartu be-
har den deskribatzen da. Era berean, orientatzaileak egin beharreko ebaluazio
psikopedagogikoa zehazten da. Familiari kontsulta nola adierazi eta Sailak esku
hartzen duenean jarraitu beharreko prozedura deskribatzen dira.

5. artikulua. Programa bi esparrutan eta proiektuetan antolatzeko adierazten
da. Horretaz gain, programan parte hartzen duten ikasleek, ahal den heinean, tal-
de arruntetan ikasi beharko dituzten ikasgaiak aipatzen dira. Bi esparruei, proiektu-
tuei eta gehitutako ikasgaiak dagozkien oinarriko alderdiak aipatzen dira. Erlji-
oari buruzko ikasgaia 2. XGn²¹⁸ eta martxoaren 19ko 25/2007 FDn

²¹⁸ Bigarren Xedapen Gehigarria. Erljiioaren irakaskuntza.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan erljiioari buruzko ikasgaiak emango dira, Hezkuntzari bu-
ruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren
arabera.

2. Hezkuntza Sailak bermatu beharko du ikasturte hasieran adinez nagusi diren ikasleek eta ikasle-
en sendiek erljiioari buruzko ikasgaia izan nahi duten ala ez adierazi ahal izatea.

3. Erljiioari buruzko ikasgaia hautatzen dutenek erljiio katolikoa edo hezkuntzaren arloan Estatua-
rekin Nazioarteko Akordioak edo Elkarlanerakoak dituen beste edozein erljiio aukeratu ahal izan-

aurreikusitakoari lotuz ikasiko dute ikasleek. Bi eranskin aipatzen dira esparru bakoitzeko eta gai bakoitzeko ordutegia zehaztu ahal izateko eta programaren curriculumaz ezartzeko.

6. artikulua. Programa hauetan parte hartzen duten ikasleei orientazioa eta tutoretza eskaintzeko lehentasuna nabarmentzen da.

7. artikulua. Programak garatzerakoan jarraitu beharreko metodologiaren ezaugarri nabarmenenak aipatzen dira. Programak testuinguru funtzional gisa sortzen dira, hortaz, edukiak modu praktikoa eta motibagarria aurkeztu behar dira.

8. artikulua. Ebaluazioari eta tituluari buruzkoa. Ebaluazioa egiteko kontuan hartuko dira oinarrizko gaitasunak eta etapako helburuak eta ebaluazioari, ikasurtea pasatzeari eta titulazioa lortzeari buruzko egungo arauak. Ebaluazioa positiboa baldin bada arlo eta ikasgai guztietan, ikasleak Bigarren Hezkuntzako Gradu-titulua lortuko du. Irakasle taldeak hala erabakitzen duen kasuetan, ikasleek titulua lortu ahal izango dute ikasgai bat edo bi gainditu gabe izanda ere eta zenbait kasutan baita hiru ikasgai gainditu gabe izanda ere. Programan dauden ikasleek maila errepikatze baldintzak zehazten dira, beti ere ikasleek maila errepikatu behar dutenean 19 urte ez badituzte.

9. artikulua. Irakasleei buruzkoa. Alorrek zein irakasleek eman behar dituzten zehazten da, bai alorrek emateko irakasleak dauden zentroetan baita irakasle mota hau ez duten zentroetan. Proiektuak eta Teknologien inguruko edukiak nori eman behar dituen zehazten da. Programazio didaktikoak programan parte hartzen duten irakasleek egingo dituzte elkarlanean.

go dute, -akordioetan ezarritako baldintzen pean-, edota erlijioen historia eta kultura ikastea hautatu ahal izango dute.

4. Irakaskuntza zentroek, beti ere Hezkuntza Sailak ezarritako irizpideei jarraituz, beharrezko antolakuntza neurriak hartuko dituzte erlijioari buruzko ikasgaiak hautatu ez duten ikasleek hezkuntza arreta egokia izan dezaten eta, edonola ere, aukera bat edo beste egiteak inolako diskriminaziorik ez sortzea bermatu beharko dute. Aipatutako arretan ez da inolaz ere erlijioaren arloari buruzko eduki curricularrik emango ezta maila horretako beste edozein ikasgaiari buruzkoak ere. Zentroek hartzen dituzten antolamendu neurriak hezkuntza proiektuan aurkeztuko dira sendiek alde zurretik ezagutu ditzaten.

5. Erlijio katolikoari eta erlijioen historia eta kulturari buruzko ikasgaien ebaluaketa maila bereko gainontzeko ikasgaien irizpide berberak jarraituz egingo da. Estatuarekin Elkarlanerako Akordioak izenpetu dituzten erlijioei buruzko ikasgaien ebaluaketa akordiotan ezarritako irizpideen arabera egingo da.

6. Elizako hierarkiak eta dagozkion erlijio agintariak dute eskumena erlijio katolikoari buruzko eta Estatuarekin Elkarlanerako Akordioak dituzten gainontzeko erlijioei buruzko ikasgaien curriculumaz ezartzeko.

7. Berdintasun printzipioa eta lehia askea bermatzeko, erlijioari buruzko ikasgaietan lortutako kalifikazioak ez dira aintzat hartuko ikasketa espedienteak kontuan hartzen diren deialdietan ezta ikasleak onartzeko kontuan hartzen diren batez besteko kalifikazioetan.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Zentro publikoek izan beharreko gutxienezko curriculum ezberdineko talde kopurua zehazten da.

Bigarrena. Hirugarren eta laugarren mailan taldekako antolamendua duten zentro pribatuak curriculum desberdinak eratzeko programak sortzera behartzen ditu. Taldekako antolamendurik ez duten zentroek irakaskuntza eskaintza berarekin jarrai dezakete horrek hitzarmenean inolako eraginik izango ez duelarik.

Hirugarrena. Esparru praktikoetan behin-betiko lanpostua duten LHko irakasle teknikoek egoera administratibo berean jarraitu ahal izango dute.

Laugarrena. Berandu sartutako ikasleek 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte curriculum ezberdinak eratzeko programetan parte hartu ahal izango dute.

Xedapen Iragankorra

Bakarra. Curriculum ezberdinak eratzeko programak aplikatzeko egutegia ezartzen da.

Xedapen Indargabetzailea

Lehenengoa. 225/1998 Foru Agindua, ekainaren 18koa²¹⁹, indargabetuko da programak ezartzen diren heinean.

Bigarrena. Igorritako testuaren edukiaren kontrakoa adierazten duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak indargabetzen dira.

Azken Xedapena

Bakarra. Araua indarrean sartzeko data ezartzen da.

3. Bestelakoak

Aurkeztutako Foru Aginduaren zirriborroarekin batera Aniztasunaren, Kultura aniztasunaren eta Immigrazioaren beharrei Erantzuteko Zerbitzuko Zuzendariak sinatutako txostena aurkeztu da eta baita honako oroitidazki hauek ere: Ekono-

²¹⁹ 514/1994 Foru Agindua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasgaiak ezartzen dituena eta ordutegia ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitateko zentroetan. (NAO, 1995eko otsailaren 17koa).

mikoa, Justifikaziokoa, Arau-emailea, Antolakuntzako eta Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzekoa. Oroitidazki hauek Hezkuntza eta Etengabeko Prestakuntza Ataleko Buruak izenpetu ditu eta Aniztasunaren, Kultura aniztasunaren eta Immigrazioaren beharrei Erantzuteko Zerbitzuko Zuzendariaren onespena dute.

Egungo araudiaren eta abenduaren 19ko 1631/2006 EDn behar ezberdinei erantzuteko ezarritako sistemaren arteko ezberdintasunak deskribatzen dira txostenean eta arau-proposamenaren xedea azaltzen da.

Justifikazio oroitidazkian ikasleen interes, ezaugarri eta gaitasun anitzei erantzuteko neurriak diseinatzea komeni dela nabarmentzen da. Erreferentziatzen hartzten dira maiatzaren 3ko 2/2006 LOren Atarikoan aipatutako printzipio orokorrak. Behar ezberdinei erantzutea oinarrizko hezkuntzako funtsezko printzipioa dela adierazten da eta ezinbestekoa dela ikasle guztiek, baita behar ezberdinak dituztenak ere, etapa honetako oinarrizko gaitasunak lor ditzaten. Horregatik izan daitezke batera etapa honetan ohiko hezkuntza eta behar bereziei erantzuna ematekoa.

Oroitidazki Arau-emailean proposatutako testua babesten duten legeak aipatzen dira.

Antolakuntza Oroitidazkian curriculum ezberdinak eratzeko programen antolakuntza nolakoa den deskribatzen da.

Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzeko oroitidazkian, proposatutako testuari oniritzia ematen zaio proposatutako arauaren aplikazio alorra eta proiektuan erabilitako hizkuntza aztertu ostean, eta honako hau adierazten da aurkeztutako testuari buruz: “ez da neskak edo mutilak baztertzen dituen neurririk jasotzen. Are gehiago, bi sexuen aukera berdintasunaren printzipioa zorrotz betetzen da”. Beraz, ez da aurkeztutako testuan aldaketarik egiteko proposatzen.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluko Batzar Orokorrean onartu egin da Nafarroako Foru Komunitateko zentroetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan curriculum ezberdinak eratzeko programak ezartzeko proposamena.

Hortaz, honako Foru Agindu proiektua bideratzeko oniritzia eman da: Foru Agindua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum ezberdinak sortzeko programak arautzen dituen Nafarroako Foru Komunitatean”.

Hala eta guztiz ere, onartu diren zuzenketak kontuan hartuz, honako hauek aldatzea iradokitzen da:

- 2. artikuluko 1. puntutik honako zati hau ezabatu dadila: “era malguan eta emandako baliabideak erabiltzeko autonomiaz”. Esaldia horrela geratuko litzateke: *I. Currciulum ezberdinak eratzeko programak, behar ezberdinak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko programak dira eta hezkuntza zentroek DBHko hirugarren eta laugarren mailan ezarriko dituzte. Programa hauek egun maila hauetan dauden behar bereziei erantzuteko antolakuntza neurriak ordezkatuko dituzte.*
Eskaera hau guztiz justifikaturik dago “curriculum ezberdinak eratzeko programak ikasleen beharren araberakoak izango direlako”.
- 5. artikuluko 5. puntuan “Etikari eta hiritartasunari buruzko hezkuntza” gehitzea, ahanztzia izan dela ondorioztatzen baita artikuluko be-
reko 1. puntuan jarritakoa kontuan hartuz.
- I. eranskinetik VI. eranskinera ezabatzea, errepikatuta baitaude.
- Dokumentu guztietan erabilitako hizkera ordezkatzeko genero hizkera egokiagoa erabiliz.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatueta irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkartearen ordezkaria

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.
SORTZEN Guraso Elkartearen Federa-
razioaren ordezkaria

15/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 13 boto, kontrako 2 boto eta 3 abstentzioekin, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz: "Foru Agindua, hautazko ikasgaiaren curriculum onartzen duena, eta ikasgaiaren irakaskuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailari dagozkion aukerak arautzen dituen Nafarroako Foru Erkidegoko zentro publiko nahiz pribatu-kontzertatuetan".

Irizpen honi boto partikularra eman dio Comisiones Obreras sindikatuak.

1. Aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan²²⁰, 24-5 artikuluan, Bigarren Hezkuntzako lehenengo hiru mailako ikasgaiaren antolakuntzari dagokionez, adierazten da ikasleek hautazko ikasgaiaren bat egin ahal izango dutela eta horien artean atzerriko bigarren hezkuntza bat izan daitekeela. Era berean, 25-2 artikuluan adierazten dira laugarren ikasturteko ikasleek derrigorrezkoen osagarri gisa egin ditzaketelarik hautazkoak, horietatik hiru aukeratu beharko dituztelarik. 25-6 artikuluan adierazten den bezala, laugarren mai-

²²⁰ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, hezkuntzari buruzkoa (BOE 106 zk.de 2006ko maiatzaren 4koa).

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundeen ordezkariak

José Jorge Lanchas Rivero jn.
ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundeen ordezkariak

Pello Mariñelarena jn.
Nafarroako Ikastolen Federazioaren ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Guraso Elkarteen Federazioaren ordezkaria

laren izaera orientatzailea kontuan hartuta, ikasgaiok aukera ezberdinetan multzokatuko dira. Horietaz gain, ikasleek hautazko ikasgai bat edo gehiago egin ahal izango dituzte.

Nafarroako Gobernuak 25/2007 Foru Dekretua²²¹ argitaratu zuen 2007ko martxoaren 19an Hobetze Legearen²²² 47. artikulua arabera dagozkion eskumenak erabiliz. Foru Dekretu honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako antolakuntza printzipioak jasotzen ditu. 5-7 artikuluan²²³ lehenengo hiru mailetan hautazko ikasgai bat egiteko aukera dagoela adierazten da. 6. artikuluan²²⁴ laugarren maila antolatzen da; hautazko ikasgaiak zehazten dira eta ikasleek horien artean hiru aukeratu behar dituztela ezartzen da; ikasgaiak curriculum aukeren arabera taldekatuta eskaini behar direla adierazten da eta aipatutako ikasgaiez gain beste hautazko bat -Hezkuntza

²²¹ 25/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien curricula ezartzen duena. NAOng argitaratzeke dago.

²²² 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa (BOE, 195 zk., 1982 abuztuaren 26koa).

²²³ 5. artikulua. Lehenengo hiru mailen antolakuntza.

...

7. Era berean, hiru mailetak bakoitzean ikasleek hautazko bat egingo dute Hezkuntza Sailak ezarritakoen artean.

²²⁴ 6. artikulua. Laugarren mailaren antolakuntza.

...

2. Aurreko atalean aipatutakoez gain, ikasleek ondorengo ikasgai hauetatik hiru egin beharko dituzte: Biologia eta geologia; Plastika- eta ikus-hezkuntza; Fisika eta kimika; Informatika; Latina; Musika; Atzerriko bigarren hezkuntza; Teknologia.

...

4. Artikulu honetako aurreko ataletan aipatutakoez gain, ikasleek hautazko bat egin ahal izango dute Hezkuntza Sailak ezarritakoen artean.

5. Zentroek ikasleak orientatuko dituzte curriculum aukerak, ikasgaiak edo taldekatzeak (artikulu honetako 2., 3. eta 4. ataletan aipatutakoak) hautatzerako orduan, ikasleen orientazio akademikoa eta profesionala bideratzeko edo, kasuan kasu, oinarriko ikasgaiak sendotzeko.

Paloma Roselló Fernández and. Hezkuntza administrazioaren ordezkaria	Sailak zehaztutakoen artean- egiteko aukera eskaintzeko bidea ematen da.
Luis M ^a Sada Enériz and. Toki erakundeen ordezkaria	Aipatutako Foru Dekretuko Azken Xedapenetatik lehenengoak ²²⁵ esku- mena ematen dio Hezkuntza Sailburuari behar adina xedapen egiteko aipatutako Foru Dekretua gauzatu eta garatu daitezten.
Luis Sarriés Sanz jn. Pertsona ospetsua José Manuel Urroz Barasoain and. Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS	Hau guztia kontuan hartuta, Hezkuntza sailburuak hautazko ikasgaien curriculumak onartzeko eskatzen du eta baita ikasgaien irakaskuntza nahiz Derri- gogorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako aukerak arautzea ere. Hori dela eta, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 7-1 a) artikuluan ²²⁶ adierazitakoa kontuan hartuz, jarraian xehetasunez deskribatzen den Foru Agindu proiektua aurkeztu du aztertua izan dadin

2. Foru legearen edukia

Aztertzeko aurkeztutako arau-proiektuak atarikoak, bederatzi artikuluko, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Atarikoak. Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko zuzendariak aipatutako Foru Legea onestearen aldeko txostena aurkeztu duela adierazten da. Hautazko antolatze Sailak aplikatutako irizpideak zehazten dira. Irizpideak ikasleek beharrik eta interesak, hezkuntza sistemari buruz egindako kanpo eta barne ebaluaketak eta egungo gizartearen eskaerak kontuan hartu dituztela adierazten da. Laugarren mailako ikasgaiak hiru curriculum aukeretan antolatzen dira (Zientifikoa, Humanistikoa eta Teknologikoa). Teknologikoa aukera erdi mailako lanbide heziketa ikasketak egiteko asmoa duten ikasleei zuzenduta dago. Tutorearen eginkizuna ikasleei beren interesekin, gaitasunekin eta beharrekina bat datorren curriculum aukera hautatzen laguntzea dela adierazten da.

²²⁵ Azken Xedapenak. Lehenengoak. Arauen garapena.

Hezkuntza Sailburuari eskumena ematen zaio behar adina xedapen egiteko Foru Dekretu hau gauzatu eta garatu ahal izateko.

²²⁶ 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Batzordea edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak arautzen dituenak. NAO, 1997ko azaroaren 12koa

1. artikulua. Arauaren helburua eta aplikazio esparrua zehazten dira. Hautazko ikasgaien curriculumak onartzen da, ikasgaion irakaskuntza arautzen da eta laugarren mailako aukerak zehazten dira. Xedatutakoa Nafarroako Foru Komunitateko zentro publiko eta pribatu-kontzertatuetan aplikatuko da.

2. artikulua. Hautazko ikasgaien eta laugarren mailako curriculum aukeren helburua adierazten da. Ikasgaiak eta aukerak oinarritzko gaitasunak eta etapako helburuak lortzen lagundu behar dute.

3. artikulua. Hautazko ikasgai buruzkoa. I. eranskina aipatzen da etapako lehenengo hiru mailatan hautazko ikasgaiak antolatzeke eta ikasgai bakoitzak astean izan beharreko saio kopurua zehazteke. Artikuluan aipatzen den III. eranskinean aipatutako hautazko ikasgaien curriculumak jasotzen dira. Martxoaren 19ko 25/2007 EDko II. eranskinean zehazten da honako ikasgai hauen curriculumak: "Atzerriko Bigarren Hizkuntza", "Plastika- eta ikus-hezkuntza", "Musika", "Teknologia", "Informatika", "Latina", "Biologia eta Geologia" eta "Fisika eta Kimika".

4. artikulua. Laugarren mailako hautazko ikasgaiak antolatzeke curriculum aukerak zehazten dira eta aukera bakoitzean hainbat ikasgai multzokatzen dira. Artikuluan aipatzen den II. eranskinean aukera bakoitzeko ikasgaien egitura zehazten da eta ikasgai bakoitzak astero izan beharreko saio kopurua. Zentro guztiek, baimen espresa jasotzen dutenek izan ezik, hiru curriculum aukerak eskaini beharko dituzte.

5. artikulua. Zentroek hautazko ikasgaien curriculumak garatu eta osatu behar dituztela agintzen da.

6. artikulua. Zentroek diseinatzen dituzten hautazko ikasgai buruzkoa. Zentroei eskumena ematen zaie hirugarren eta laugarren mailan ikasgai bana diseinatzeke teknologiko aukeran. Ikasgaiok emateko baimena lortzeko jarraitu beharreko prozedura zehazten da. Baimen hori hiru urterakoa izango da.

7. artikulua. Hautazko ikasgaiak emateko baldintzak ezartzen dira. Bestelako baimenik eman ezean, hogeit hamar ikasle izan behar dira gutxienez ikasgai. "Atzerriko Bigarren Hezkuntza" ikasgia hautatzen duen edozein ikasleri emango zaio. Hautazko ikasgai bakoitzaren irakaskuntza sail jakinei egokituko zaio. Hala ere, aurreko baldintza ez betetzeko baimena eman ahal izango da.

8. artikulua "Atzerriko Bigarren Hizkuntza" ikasgaiari buruzkoa. Ikasgai hau etapa osorako aukeratuko da. Hala eta guztiz ere, maila nahikoa izanez gero, edozein mailatan has daiteke ikasgai honetan. Hori dela eta, zenbait kasutan, edukien maila ezberdina zehaztu beharko da. Hala eta guztiz ere, edozein ikasurteren amaieran ikasgai hau uzteko baimena eska daiteke eta salbuespen gisa baimen hori eman egingo da.

9. artikulua "Lanbide Hastapena-Bizitza Heldu eta Aktibora Igarotzea" ikasgaiaren helburua azaltzen da: familia profesionalen batekin lotutako programa praktikoak egiteko aukera. Ikasgaiaz arduratu behar den saila zehazten da.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Zentroetako Urteko Programazio Orokorrean ikasturte bakoitzean eskainiko diren hautazkoak agertzea agintzen da, hala nola aukera bakoitzeko ikasgaiak eta dagozkien programazio didaktikoak.

Bigarrena. I. eranskineko hautazkoen eskaintza handitu edo aldatzeko esku-mena ematen zaio Hezkuntza Sailari.

Xedapen Iragankorra

Bakarra. Indargabetua izan den arren, 152/2004 FL, ekainaren 15ekoa, aplikatzea agintzen da Bigarren Hezkuntzako antolamendu berria ezarri arte.

Xedapen Indargabetzailea

Bakarra. 152/2004 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa²²⁷, indargabetzen da eta baita igorritako testuaren edukiaren kontrakoa adierazten duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

Azken Xedapena

Bakarra. Araua indarrean sartzeko data ezartzen da.

3. Bestelakoak

Aurkeztutako Foru Agindu zirriborroarekin batera txosten bat eta honako oroitidazki hauek aurkezten dira: Ekonomikoa, Justifikaziokoa, Arau-emailea, Antolakuntzako eta Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzekoa. Dokumentu hauek guztiak Akademi Antolakuntzarako Ataleko buruak sinatu ditu eta Eskola Antolakuntza eta Hobetze Zerbitzuko Zuzendariaren oniritzia jaso dute.

²²⁷ 152/2004 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hautazko ikasgaien curriculum onartzen duena eta DBHko laugarren mailako hautazko ikasgaien irakaskuntza arautzen duena Nafarroako Foru Komunitatean (NAO 78 zk. 2004ko ekainaren 30ekoa).

Txostenean, proposamenaren oinarri diren legeak eta errealitateak aipatzen dira.

Aurkeztutako testuaren ezaugarri garrantzitsuenak honako hauek dira: DBHko lehenengo eta bigarren mailako hautazkoak zehazteko egungo irizpideak mantentzea proposatutako testua indarrean sartu arte; hirugarren mailako hautazkoak honako hauek izatea: "Atzerriko Bigarren Hizkuntza", "Kultura klasikoa" eta zentroak diseinatzen duen hautazkoa; DBHko laugarren mailako curriculum aukerak zehaztea; DBHko laugarren mailako hautazkoak D ereduko berezko ikasgaiak izango dira.

Oroitidazki ekonomikoan adierazten da Foru Dekretua aplikatzeak ez dakarrela ondorio ekonomikorik.

Justifikazio Oroitidazkian, proposatutako Foru Agindua aldarrikatzearen beharra justifikatzen duten arrazoi legalak aipatzen dira. Testua zuzenean herritarrei aurkeztea beharrezkoa ez dela adierazten da, izan ere, Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenean aurreikusten da, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 60.2 artikuluan²²⁸ jarritakoarekin bat etorritz.

Oroitidazki Arau-emilean proposatutako testua babesten duten legeak aipatzen dira eta adierazten da, proposatutako agindua ezarri artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hautazko ikasgaien curriculum onartzen duen eta DBHko laugarren mailako hautazko ikasgaiak arautzen dituen egungo araudiak indarrean jarraituko duela bigarren eta laugarren mailatan.

Antolakuntza oroitidazkian adierazten da testuak ez duela antolamendu egituran eraginik izango.

Sexua dela eta izan daitekeen eragina justifikatzeko oroitidazkian, proposatutako testuari oniritzia ematen zaio proposatutako arauaren aplikazio alorra eta proiektuan erabilitako hizkuntza aztertu ostean, eta honako hau adierazten da aurkeztutako testuari buruz: "ez da neskak edo mutilak baztertzen dituen neurririk jasotzen. Are gehiago, bi sexuen aukera berdintasunaren printzipioa zorrotz betetzen da". Beraz, ez da aurkeztutako testuan aldaketarik egiteko proposatzen.

²²⁸ 60. artikulua. Entzunaldia eta partaidetza.

2. Arestion aipatu erakundeei dagokien artikulua honen aurreko idatz-zatian aurreikusirik dagoen izapidea ez da eskatzen ahal, baldin eta erakundeei gertutze-prozeduran kontsultak egin bazaizkie edo baldin prozedura horretan txostenen bidez parte hartu badute, edota legez ezarriko dagoen ordezkaritza-organoren batek txostena egitea aurreikusirik badago.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Kontseiluko Batzar Orokorrean ontzat jo da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hautazko ikasgaien curriculumen proposamena, ikasgaiok emateko araudia eta laugarren mailarako curriculum aukerak.

Hortaz, honako Foru Agindu proiektua bideratzeko oniritzia ematen da: "Foru Agindua, hautazko ikasgaien curriculuma onartzen duena, eta ikasgaien irakaskuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailari dagozkion aukerak arautzen dituena Nafarroako Foru Erkidegoko zentro publiko nahiz pribatu-kontzertatuetan".

Hala eta guztiz ere, onartu diren zuzenketak kontuan hartuz, honako hauek aldatzea iradokitzen da:

- DBHko 4. mailako aukera humanistikoko hautazko ikasgaiak ondorengo taulan adierazten diren moduan idatzirik agertzea:

Curriculum aukerak (3 ikasgai) (II. eranskina)

1. Latina (3 ordu)	3. Hauetatik bat aukeratu: – Atzerriko bigarren hizkuntza – Plastika- eta Ikus-hezkuntza – Musika	G	D/A
2. Ekonomi Geografia edo Literatura Unibertsala (3 ordu)		3h	2h
		3h	2h
		3h	2h

Hautazkoak (2 ikasgai) (I. eranskina)

DBH 4.	G eredua
AUKERA HUMANISTIKOA	– Literatura Unibertsala edo Ekonomi Geografia (curriculum aukera gisa aukeratu ez dena) (2h) – Informatika (2h)

Gomendio hau ondorengo baieztapenean oinarritzen da:

"II. eranskinean ezarritakoak ez du zentzurik azken kasu honetan aukera humanistikoan Latina eta Informatika daudelako. Are gehiago hautazkoak Ekonomi Geografia edo Literatura Unibertsala izango lirakeela kontuan hartuz. Era honetan, DBHko 4. mailako ikaslea beharturik dago nolabait Gizarte Zientziak soilik hautatzera (Geografia aukeratzen badu) edo Giza Zientziak (Literatura aukeratzen badu). Aurkeztutako proposamenak aukera zabalagoa eskaintzen du, malguagoa eta ikasleentzako eraginkorragoa".

- DBHn euskara bigarren hizkuntzat hartzen dadila gomendatzen da, era horretan hiru alor edo curriculum aukeretan hautatu ahal izango da (II. eranskina) eta astean hiru orduz emango da. Horrela, ikasgaiak duen saio kopurua mantenduko da 2 ordutara murriztea pedagogikoki bideraezina baita.
- Dokumentu guztietan erabilitako hizkera ordezkatzeko genero hizkera egokiagoa erabiliz.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILBURU JAUN AGURGARRIACOMISIONES OBRERASEK "Foru Agindu Proposamena: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hautazko ikasgaien curriculuma" 15/2007 IRIZPENARI EMAN DION BOTO PARTIKULARRA:

Comisiones Obreraseko Irakaskuntza Federazioak beharrezkoa eta egokia irizten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatuz Nafarroan Haur Hezkuntzako etar Bigarren Hezkuntzako ikasgaien ezarpena arautzea eta aipatutako legeak ezarritako egutegia betetzeko prozedura hau ahalik eta azkarren gauzatzea. Hala eta guztiz ere, kontrako botoa eman dio Eskola Kontseiluaren irizpenari Foru Agindu proposamenaren alderdi hauen aurka baitago:

1. Hautazko ikasgaiak ezartzea

Proposatutako hautazko ikasgai gehienek ikasle guztiek edo aukera batzuetako ikasleek egingo dituzten ikasgaien curriculuma zabaltzen edo indartzen dute. Gure aburuz, hautazkoen helburua ez da soilik ikasgai bakoitzeko helburu orokorrak lortzen laguntzea, baizik eta ikasleen interes eta motibazioei erantzutea euren curriculumean sartzea errazteko. Hautazkoak helburu horrekin diseinatu beharko lirateke.

1., 2. eta 3. mailako hautazkoen egiturak ikasleak aukera jakinak egitera bultzatzen ditu. 1. mailan oinarrizko matematikak aukeratzen dituen ikaslea, behartuta dago, neurri handi batean, 2. mailan oinarrizko gaitasun linguistikoak aukeratzera. 1. mailan Literatur Sorkuntza aukeratzen duen ikasleak, ez du ziur aski, 2. mailan matematikan sakontzea interesik izango, ezta oinarrizko gaitasun linguistikoetan. Litekeena da aukera batek ere ez erantzutea bere interesei eta hezkuntza beharrei. Hautazkoek aukera eman beharko lukete ezagutza alor bakoitzeko edukiei jarraipena emateko.

4. mailan bi hautazko eskaintzen dira aukerako, beraz, ikasleek dituzten aukerak mugatuak dira. Bestalde, zientziak aukeratzen dituzten ikasleek bi hautazko dituzte soilik gaietan sakontzeko eta gainera, horietatik bat matematikan sakontzea da, ikasgai hori egiteko aurretik bi aukera izanda ere. Gure iritziz, beharbada hautazko guztiak ez, baina zenbait aukera guztietako ikasleei eskaini beharko litzaizkieke. Bestalde, hautazkoak ezartzeko zentroek autonomia handiago izan dezatela proposatzen dugu.

2. Hautazko ikasgaien saio kopurua

2 orduko ikasgai gehiago izatea ez dugu ontzat jotzen ezta DBHko 4. mailako D ereduan hautazkorik ez izatea.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 10ean

M^a Luisa De Simón Caballero
CCOOk Irakaskuntza Federazioa.

16/2007 irizpena

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatuetako irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkarteen ordezkaria

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 14 boto, kontrako 2 boto eta abstentziorik gabe, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz: "Nafarroako Gobernuaren akordio proposamena "Pedro Ursua" behin-behineko izentzat izango duen Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzeko Iruñean".

1. Aurrekariak

8/1985 Lege Organikoak, uztailaren 3koak, hezkuntzarako eskubidea arautzen duenak; 17. artikuluan²²⁹ zedarritzen du zentro publikoak dagokion Komunitate Autonomoko Gobernuak edo Gobernu Kontseiluak sortuko dituela dagozkion eskumenak erabiliz.

Hobetze Legearen 47. artikularen²³⁰ arabera, Nafarroari dagokio hezkuntza arautzea eta kudeatzea honen hedapen, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, beti ere agindu konstituzio-

²²⁹ 8/1985 Legea, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubideari buruzkoa. (1985eko uztailaren 4ko BOE). 17. artikulua. Dagokion autonomi komunitateko Gobernuak edo Gobernu Batzordeak sortu eta desagertaraziko ditu zentro publikoak, dagozkion eskumenak erabiliz.

²³⁰ 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa. (BOE, 195 zk., 1982 abuztuaren 26koa). 47. Artikulua. Nafarroari dagokio hezkuntza arautzea eta kudeatzea honen hedapen, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, beti ere honako hauen aurka jardun gabe: agindu konstituzionalean eta hauek garatzen dituzten lege organikoetan gai honi buruz ezarritakoa, estatuaren eskumenak ótitulu akademiko eta profesionalak loratu, eskuratu eta homologatzeko bete beharreko baldintzen arautzeari dagokionean ó eta baldintzok bete daitezten bermatzen duen Estatuko goi-mailako ikuskaritza.

José Miguel Garbayo Villanueva jn.
CONCAPA Guraso Elkarteen Federazioaren ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.

SORTZEN Guraso Elkarteen Federazioaren ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundeen ordezkariak

José Jorge Lanchas Rivero jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundeen ordezkariak

Pello Mariñelarena jn.

Nafarroako Ikastolen Federazioaren ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

naletan eta hauek garatzen dituzten lege organikoetan gai honi buruz ezarritakoaren eta estatuaren eskumeneren aurka jardun gabe.

1070/1990 Errege Dekretuak²³¹, abuztuaren 31koak, Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatearen esku utzi zituen. 1990eko uztailaren 30eko Transferentzia Batzordearen akordio-ko²³² I d) atalean jartzen duenaren arabera, eginkizunetako bat zentro publikoak sortzea izango litzateke hezkuntza maila eta modalitate guztietan. Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari dagokio, tresna juridiko egokiak erabiliz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentro publikoak sortzea.

25/1997 Foru Dekretuak²³³, otsailaren 10ekoak, Araudi Organikoa onartu zuen Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako Institutuen inguruan eta 2. artikuluan²³⁴ eskumena ematen zaio

²³¹ 1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, Irakaskuntza ez unibertsitarioko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatearen esku uzteari buruzkoa. (BOE, 210 zk., 1990eko irailaren 1ekoa).

²³² Transferentzia Batzordearen akordioa, 1990eko uztailaren 30ekoa. I d) atala: eginkizunak: zentro publikoak, unitateak eta atalak sortzea, martxan jartzea, aldatzea, eraldatzea, sailkatzea, lekuz aldatzea, ixtea eta desagertaraztea hezkuntza maila eta modalitate guztietan, bai ohiko erregimenekoak bai erregimen berezikoak eta baita izaera esperimentalak dutenak eta urrutiko ikasketetarakoak ere modalitate ezberdinetan.

²³³ 25/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoei, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoei eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoei buruzko Araudi Organikoa onetsi zuena. (1997ko martxoaren 14ko BOE).

²³⁴ 2. artikulua. Zentroak sortu eta desagertaraztea.

1. Araudi honetan aipatutako zentroak Nafarroako Gobernuak sortuko ditu Foru Dekretuen bidez Hezkuntza eta Kultura Sailburuaren proposamenak jaso ostean.

2. Nafarroako Gobernuak zentroak sortu, desagertarazi, integratu eta handiagotzeko edozein akordio egin aurretik Hezkuntza Batzorde Gorenak edo Nafarroako Eskola Batzordeak egindako nahi-taezko txostenak hartu beharko ditu kontuan eta akordioak irakasleen ordezkari sindikalei jakinaraziko dizkio.

- Rosa M^a Pérez Bardot and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.
- Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria
- Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria
- Luis M^a Sada Enériz and.
Toki erakundearen ordezkaria
- Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua
- José Manuel Urroz Barasoain and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS
- Legareen 7-3 a) artikuluan²³⁶ adierazitakoa kontuan hartuz, jarraian xehetasunez deskribatzen den Foru Agindu proiektua aurkezten da aztertua izan dadin.
- Nafarroako Gobernuari Foru Dekretuen bidez aipatutako zentroak sor ditzan; zentro horien artean dagoelarik Eskola Kontseiluak aztertutako akordio proposamenean aipatutako zentro mota.
- Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 12. artikuluan²³⁵ Gobernuaren erabakiak aurkezteko bi modu bereizten ditu: foru dekretuak eta akordioak. Kasu honetan erabakia akordio moduan aurkeztu beharko da.
- Hau guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak agintzen du "Pedro de Urrua" behin-behineko izentzat izango duen Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzeko akordio baten bitartez. Hori dela eta, azaroaren 4ko 12/1997 Foru

2. Gobernu akordioaren zirriborroaren edukia

Aztertutako akordio proposamenak bi atal ditu: atariko eta bost puntu dituen eta akordioa jasotzen duen bigarren atala.

²³⁵ 12. artikulua. Nafarroako Gobernuak hartutako erabakien forma.

1. Nafarroako Gobernuak hartzen dituen erabakiek Foru Dekretu Legegileak, Foru Dekretuak edota Akordioak izango dira.

2. Nafarroako Foru Erantza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 19ko 13/1982 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitako arauak onesten dituzten erabakiak Foru Dekretuak izango dira.

3. Foru Dekretuak izango dira Nafarroako Gobernuak bere botere legegilea erabiliz onetsitako xedapen orokorrak, Nafarroako Gobernuak onesten edo emanen dituen ohorezko izendapenak eta lege xedapenen batek hala adierazten duelako Foru Dekretu izan behar duten ebazpenak.

4. Gainontzeko kasuetan Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak Akordioak izango dira.

5. Foru Dekretu Legegileak eta Foru Dekretuak Nafarroako Gobernuko Presidenteak sinatuko ditu edo dagokion proposamena egiteko eskumena duen kontseilariak. Proposamena Departamentu batek baino gehiagok egindakoa balitz, gaiaren arduradun izendatzen den Departamenduko Kontseilari titularrari egokituko zaio proposamena.

6. Nafarroako Gobernuak egindako Akordioak Idazkari Kontseilariak sinatuko ditu.

²³⁶ 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Batzordea edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak arautzen dituena. NAO, 1997ko azaroaren 12koa.

Atarikoa. Bertan azaltzen dira akordioa onartzeko gaitasuna eta hori egiteko modua justifikatzen duten arauen erreferentziak.

1. puntua. Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzen da. Ikastetxe berriaren administrazio identifikazioa jasotzen du eta baita eskainiko diren hizkuntza ereduak ere.

2. puntua. Hezkuntza Sailari eskumena ematen zaio zentro berriaren izaera juridiko-administratiboa zehazteko.

3. puntua. Zentroa Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasun pean dauden zentroen sarean sartzea xedatzen da; zerrenda 69/1995 Foru Dekretuan²³⁷, martxoaren 13koan, zehaztu zen; 150/1996 Foru Dekretuak²³⁸, martxoaren 13koak, aldaketak egin zituen eta 109/1998 Foru Dekretuak, martxoaren 30ekoak, eguneratu zuen.²³⁹ Barrutia zehazten da: bigarren hezkuntzako eremu bat, derrigorrezko bigarren hezkuntzako azpi-eremu bat eta lehen hezkuntzako beste azpi-eremu bat.

4. puntua Akordioari dagokion pertsonari jakinaraztea agintzen da.

5. puntua Akordioa NAOean argitaratzeko agintzen da.

3. Bestelakoak

Aztertua izateko aurkeztutako akordio proposamenari bi txosten atxiki zaizkio

Lehenengo txostena Hezkuntza Ikuskatzaileak sinatu du Ikuskaritza Teknikoaren eta Zerbitzuen Zuzendariaren oniritzia jasota. Txosten honetan Iruñako Mendillori zentroaren eta Huarte Ikastetxe publikoaren atxikitze barrutia, eremua eta azpi-eremua adierazten dira.

Bigarren txostena Hezkuntza Zentroetako Ataleko Buruak sinatu du Zentroen eta Ikasteko Laguntzen Zerbitzuko Zuzendariaren onespina jasota. Gobernuak eginkizun hau bere gain hartzeko duen gaitasuna frogatzen duten araudiak aipatzen ditu eta baita eginkizun hau gauzatzeko modua adierazten dutenak. Ba-

²³⁷ 69/1995 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko zentro sarea berantolatatzeko arauak ezartzen dituena. (1995eko apirilaren 7ko NAO).

²³⁸ 150/1996 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko zentro sarea berantolatatzeko arauak ezartzen dituena. (NAO, 43 zk., 1996eko apirilaren 8koa).

²³⁹ 109/1998 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko zentoren sarea berantolatzen duen martxoaren 3ko 150/1996 Dekretu Foraleko zentro zerrenda eguneratu zuena. (BOE 43. zk., 2007ko apirilaren 8koa).

tzordeari igorritako akordioaren zirriborroko 1, 2 eta 3 puntuetan jasotako akordio proposamena azaltzen du

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Batzordeko batzar nagusian beharrezkotzat jo da Bigarren Hezkuntzako Institutu berria sortzea.

Beraz, "Nafarroako Gobernuaren akordio proposamena "Pedro Ursua" behin-behineko izentzat izango duen Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzeko Iruñean" izeneko dokumentuaren eta bertan jasotakoaren alde dago.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Kontseiluburua

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Salvador Balda Setuain jn.
Zentro pribatuetako irakasleen ordezkaria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
HERRIKOA Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen ordezkaria

María Luisa De Simón Caballero and.
Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Sindikatuaren ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresa elkarteen ordezkaria

17/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2007ko maiatzaren 9ko osoko bilkurara alboko zerrendan agertzen diren pertsonak joan ziren eta, aldeko 11 boto, kontrako 3 boto eta 2 abstentzioarekin, ondoren agertzen den adierazpena onartu zen honako zirriborro honi buruz: "Nafarroako Gobernuaren akordio proposamena "Doña Mayor de Navarra" behin-behineko izentzat izango duen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe Publikoa sortzeko Iruñean".

Irizpen honi boto partikularra eman dio Irizpen honi boto partikularra eman dio HERRIKOA gurasoen federa-
razioak.

1. Aurrekariak

8/1985 Lege Organikoak, uztailaren 3koak, hezkuntzarako eskubidea arautzen duenak; 17. artikuluan²⁴⁰ zedarritzen du zentro publikoak dagokion Komunitate Autonomoko Gobernuak edo Gobernu Kontseiluak sortuko dituela dagokion eskumenak erabiliz.

Hobetze Legearen 47. artikulua araberan²⁴¹, Nafarroari dagokio hezkun-

²⁴⁰ 8/1985 Legea, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubideari buruzkoa. (1985eko uztailaren 4ko BOE). 17. artikulua. Dagokion autonomi komunitateko Gobernuak edo Gobernu Batzordeak sortu eta desagertaraziko ditu zentro publikoak, dagokion eskumenak erabiliz.

²⁴¹ 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa. (BOE, 195 zk., 1982 abuztuaren 26koa). 47. Artikulua. Nafarroari dagokio hezkuntza arautzea eta kudeatzea honen hedapen, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, beti ere honako hauen aurka jardun gabe: agindu konstituzionalean eta hauek garatzen dituzten lege organikoetan gai honi buruz ezarritakoa, estatuaren eskumenak ótitulu akademiko eta profesionalak loratu, eskuratu eta homologatzeko bete beharreko baldintzen arautzeari dagokionean ó eta baldintzok bete daitezten bermatzen duen Estatuko goi-mailako ikuskaritza.

José Miguel Garbayo Villanueva jn.

CONCAPA Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

Fermín Eusebio Garde Mellado jn.

SORTZEN Guraso Elkartearen Federazioaren ordezkaria

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundearen ordezkariak

José Jorge Lanchas Rivero jn.

ANEG-FERE Nafarroako zentro pribatuen titularrak diren erakundearen ordezkariak

Pello Mariñelarena jn.

Nafarroako Ikastolen Federazioaren ordezkaria

Javier Navallas Rebolé jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.

Zentro publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

tza arautzea eta kudeatzea honen he-
dapan, maila, modalitate eta espezialitate guztietan, beti ere agindu konstituzionaletan eta hauek garatzen dituzten lege organikoetan gai honi buruz ezarritakoaren eta estatuaren eskumenen aurka jardun gabe.

1070/1990 Errege Dekretuak, abuztuaren 31koak²⁴², Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatearen esku utzi zituen. 1990eko uztailaren 30eko Transferentzia Batzordearen akordio-ko I d) atalean²⁴³ jartzen duenaren arabera, eginkizunetako bat zentro publikoak sortzea izango litzateke hezkuntza maila eta modalitate guztietan. Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari dagokio, tresna juridiko egokiak erabiliz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentro publikoak sortzea.

24/1997 Foru Dekretuak²⁴⁴, otsailaren 10ekoak, Araudi Organikoa onartu zuen Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoen, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen inguruan. 2.

²⁴² 1070/1990 Errege Dekretua, abuztuaren 31koa, Irakaskuntza ez unibertsitarioko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatearen esku uzteari buruzkoa. (BOE, 210 zk., 1990eko irailaren 1ekoa).

²⁴³ Transferentzia Batzordearen akordioa, 1990eko uztailaren 30ekoa. I d) atala: eginkizunak: zentro publikoak, unitateak eta atalak sortzea, martxan jartzea, aldatzea, eraldatzea, sailkatzea, lekuz aldatzea, ixtea eta desagertaraztea hezkuntza maila eta modalitate guztietan, bai ohiko erregimene-koak bai erregimen berezikoak eta baita izaera esperimentalak dutenak eta urrutiko ikasketetarakoak ere modalitate ezberdinetan.

²⁴⁴ 24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoei, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoei eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoei buruzko Araudi Organikoa onetsi zuena. (1997ko martxoaren 14ko BOE).

Pedro Rascón Macías jn.
HERRIKOA Guraso Elkarteen Federa-
razioaren ordezkaria

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza administrazioaren orde-
zkaria

Luis M^a Sada Enériz and.
Toki erakundearen ordezkaria

Luis Sarriés Sanz jn.
Pertsona ospetsua

José Manuel Urroz Barasoain
and.

Zentro publikoetako irakasleen or-
dezkaria, STEE-EILAS

artikuluaren²⁴⁵eskumena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Dekretuen bidez aipatutako zentroak sortu izan; zentro horien artean dagoelarik Eskola Kontseiluak aztertutako akordio proposamenean aipatutako zentro mota.

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 12. artikuluan²⁴⁶ Gobernuaren erabakiak aurkezteko bi modu bereizten ditu: foru dekretuak eta akordioak. Kasu honetan erabakia akordio moduan aurkeztu beharko da. Kasu honetan erabakia akordio moduan aurkeztu beharko da.

Hau guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak agintzen du “Doña Mayor de Navarra” behin-behineko izentzat izango duen Haur Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza Ikastetxe Publikoa sortzeko akordio baten bitartez. Hori dela eta, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 7-3 a) artikuluan²⁴⁷ adierazitakoa kontuan

²⁴⁵ 2. artikulua. Zentroak sortu eta desagertaraztea. 1. Araudi honetan aipatutako zentroak Nafarroako Gobernuak sortuko ditu Foru Dekretuen bidez Hezkuntza eta Kultura Sailburuaren proposamenak jaso ostean. 2. Nafarroako Gobernuak zentroak sortu, desagertarazi, integratu eta handiagotzeko edozein akordio egin aurretik Hezkuntza Batzorde Gorenak edo Nafarroako Eskola Batzordeak egindako nahitaezko txostenak hartu beharko ditu kontuan eta akordioak irakasleen ordezkari sindikalei jakinaraziko dizkio.

²⁴⁶ 12. artikulua. Nafarroako Gobernuak hartutako erabakien forma.

1. Nafarroako Gobernuak hartzen dituen erabakiek Foru Dekretu Legegileak, Foru Dekretuak edota Akordioak izango dira.

2. Nafarroako Foru Erentza Berrezarri eta Hobeteari buruzko abuztuaren 19ko 13/1982 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitako arauak onesten dituzten erabakiak Foru Dekretuak izango dira.

3. Foru Dekretuak izango dira Nafarroako Gobernuak bere botere legegilea erabiliz onetsitako xedapen orokorrak, Nafarroako Gobernuak onesten edo emanen dituen ohorezko izendapenak eta lege xedapenen batek hala adierazten duelako Foru Dekretu izan behar duten ebazpenak.

4. Gainontzeko kasuetan Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak Akordioak izango dira.

5. Foru Dekretu Legegileak eta Foru Dekretuak Nafarroako Gobernuko Presidenteak sinatuko ditu edo dagokion proposamena egiteko eskumena duen kontseilariak. Proposamena Departamentu batek baino gehiagok egindakoa balitz, gaiaren arduradun izendatzen den Departamenduko Kontseilari titularriari egokituko zaio proposamena.

6. Nafarroako Gobernuak egindako Akordioak Idazkari Kontseilariak sinatuko ditu.

²⁴⁷ 12/1997 Foru Legea, azaroaren 4koa, Nafarroako Eskola Batzordea edo Hezkuntza Batzorde Nagusia eta tokiko kontseiluak arautzen dituen. NAO, 1997ko azaroaren 12koa.

hartuz, jarraian xehetasunez deskribatzen den Foru Agindu proiektua aurkezten du aztertua izan dadin.

2. Gobernu akordioaren zirriborroaren edukia

Aztertutako akordio proposamenak bi atal ditu: atarikoa eta bost puntu dituen eta akordioa jasotzen duen bigarren atala.

Atarikoa. Bertan azaltzen dira akordioa onartzeko gaitasuna eta hori egiteko modua justifikatzen duten arauen erreferentziak.

1. puntua. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe Publikoa sortzen da. Ikastetxe berriaren administrazio identifikazioa jasotzen du eta baita izaera juridikoa ere.

2. puntua. Hezkuntza Sailari eskumena ematen zaio zentro berriaren izaera juridiko-administratiboa zehazteko maila eta etapa bakoitzean eta eskainiko den hizkuntza eredu zehazten da.

3. puntua. 3. puntua. Zentroa Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasunpean dauden zentzoren sarean sartzea xedatzen da; zerrenda 69/1995 Foru Dekretuan, martxoaren 13koa²⁴⁸, zehaztu zen; 150/1996 Foru Dekretuak, martxoaren 13koa²⁴⁹, aldaketak egin zituen eta 109/1998 Foru Dekretuak, martxoaren 30ekoak²⁵⁰, eguneratu zuen. Barrutia zehazten da, zentroa bigarren hezkuntzako zein eremutan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako zein azpi-eremutan izango den.

4. puntua Akordioari dagokion pertsonari jakinaraztea agintzen da.

5. puntua Akordioa NAOean argitaratzeko agintzen da.

3. Bestelakoak

Aztertua izateko aurkeztutako akordio proposamenari bi txosten atxiki zaizkio

²⁴⁸ 69/1995 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko zentro sarea berantolatatzeko arauak ezartzen dituena. (1995eko apirilaren 7ko NAO).

²⁴⁹ 150/1996 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko zentro sarea berantolatatzeko arauak ezartzen dituena. (NAO, 43 zk., 1996eko apirilaren 8koa).

²⁵⁰ 109/1998 Foru Dekretua, martxoaren 30koa, Nafarroako Foru Erkidegoko zentzoren sarea berantolatzen duen martxoaren 3ko 150/1996 Dekretu Foraleko zentro zerrenda eguneratu zuena. (BOE 43. zk., 2007ko apirilaren 8koa).

Lehenengo txostena Hezkuntza Ikuskatzaileak sinatu du Ikuskaritza Teknikoaren eta Zerbitzuen Zuzendariaren oniritzia jasota. Txosten honetan Iruñako Zentroak Ezkaban izango duen atxikitze barrutia, eremua eta azpi-eremua adierazten dira.

Bigarren txostena Hezkuntza Zentroetako Ataleko Buruak sinatu du Zentroen eta Ikasteko Laguntzen Zerbitzuko Zuzendariaren onespina jasota. Gobernuak eginkizun hau bere gain hartzeko duen gaitasuna frogatzen duten araudiak aipatzen ditu eta baita eginkizun hau gauzatzeko modua adierazten dutenak. Batzordeari igorritako akordioaren zirriborroko 1, 2 eta 3 puntuetan jasotako akordio proposamena azaltzen du

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskola Batzordeko batzar nagusian beharrezkotzat jo da Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe Publiko berria sortzea.

Beraz, "Nafarroako Gobernuaren akordio proposamena "Doña Mayor de Navarra" behin-behineko izentzat izango duen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe Publikoa sortzeko Iruñean" izeneko dokumentuaren eta bertan jasotakoaren alde dago.

Irizpen hau azter dezazun bidali dizugu.

Iruñean, 2007ko maiatzaren 9an

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

“HERRIKOA-CEAPA” FEDERAZIOAK “Nafarroako Gobernuaren akordio proposamena “Doña Mayor de Navarra” behin-behineko izentzat izango duen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Ikastetxea sortzeko Iruñean” 17/2007 IRIZPENARI EMAN DION BOTO PARTIKULARRA:

HERRIKOA-CEAPA, Nafarroako ikasleen Gurasoen Federazioak, adierazitako zentroa sortzea beharrezkoa dela uste du, baina ez dago batere ados zentzoko hizkuntza eredu gaztelaniazkoa izatearekin.

Federazio honek beti defendatu du hezkuntza zentro publikoek gurasoek eskatutako hizkuntza ereduak eskaintzea eta ereduok ezberdinak izanda ere zentro berean izatea posible delako, integrazio, elkarbizitza eta ikaskuntza eredu direlako eta familiek aukeratutako eskolatzeko beharrei ongien erantzuten diotenak direlako.

Urteetan zehar Antsoingo Ezkaba HLHIPk eta bertoko hezkuntza komunitateak soberan frogatu dute elkarbizitza posiblea ez ezik onuragarria dela ikasle guztien garapenerako.

Hortaz, eta Antsoingo zentroa beterik dagoenez “Doña Mayor de Navarra” HLHI berrira etorriko diren ikasle gehienak Antsoingoak direla kontuan hartuta, nahitaezkoztat jotzen dugu hezkuntza eredu guztiak izatea.

Irizpen hau bideratzen ari zen bitartean, Antsoingo Ezkaba HLHIPko ikasleak hezkuntza ereduaren arabera banatzeko Hezkuntza sailak iragarritako neurriak eman dira ezagutzera. Zentro berrira G nahiz A ereduko ikasleak joango dira, guztiz segregatzailea den neurria, elkarbizitza, integrazioa, kultura aniztasuna eta abarren gisako baloreak sustatu behar dituen hezkuntza sistema baten aldetik guztiz desegokia.

Hau guztia dela eta, gure aburuz “Doña Mayor de Navarra” behin-behineko izentzat izango duen Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe Publikoa ezin da Nafarroako Gobernuaren akordio proposameneko baldintzen pean sortu eta horregatik aurkako botoa eman diogu Nafarroako Eskola Kontseiluak aztertu beharreko irizpenari. Honako hau da gure boto partikularra.

Pamplona/Urruñá 2007ko Maiatzaren 11n

Pedro Rascón Macías,

“HERRIKOA - CEAPA” Federazioko Presidentea

Nafarroako Eskola Kontseiluko batzordekidea.

Javier Marcotegui Ros jn.
 Presidentea

Antonio Iriarte Moncayola jn.
 Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
 CONCAPA-Gurasoen Federazua-
 ren ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
 Hezkuntzako Administrazioaren or-
 dezkarria

Salvador Balda Setuain jn.
 Ikastetxe pribatueta irakasleen or-
 dezkarria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
 Gurasoen Elkartearen Federazioa,
 HERRIKOA

Fernando Barainca Lagos jn.
 Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
 Nafarroako Unibertsitatearen orde-
 zkarria

María Luisa De Simón Caballero
 and.
 Ikastetxe publikoeta irakasleen or-
 dezkarria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
 Erakunde sindikalen ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
 Enpresako elkarteen ordezkaria

18/2007 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2007. urteko ekainaren 26an egindako bilkuran (bertan ondoan adierazitako lagunek parte hartu zuten), aldeko 19 boto, aurkako 0 boto eta 0 abstentzio egonik, hurrengo txostena eman du " Martxoaren 19ko 22/2007 F.D.an araupe-
 tutako araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarriko eta erdiko mailen antolaketeta xedatzen duen Foru Aginduaren" zirriborroari buruz.

1. Arau aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 59. artikulua²⁵¹ helburutzat adierazten du ikasleak trebatzea hizkuntzak egoki erabil ditzaten hezkuntza-sistemaren etapa arruntetatik kanpo. Irakaskuntza hauek oinarriko, erdiko eta goiko mailetan antolatzen ditu, eta hezkuntza Administrazioei eskumena ematen die bere ezaugarriak eta antolamendua ezartzeko.

Estatuko Gobernuak, aipatutako Legearen 6-2²⁵² artikuluaekin bat etorri-

²⁵¹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (2006. urteko maiatzaren 4ko 106. BOE).

59. artikulua. Antolaketa.

1. Hizkuntzen irakaskuntzen xedea da ikasleak trebatzea hizkuntza horiek egoki erabil ditzaten hezkuntza-sistemaren etapa arruntetatik kanpo, eta hurrengo maila hauetan antolatzen dira: oinarrikoa, erdikoa eta goikoa.

Oinarriko mailaren irakaskuntzek Hezkuntza Administrazioek erabakitzen dituzten ezaugarriak eta antolaketa izango dituzte.

²⁵² 6-2 artikulua. Prestakuntza komuna ziurtatzeko eta dagozkion tituluen baliozkotasuna bermatzeko xedez, Gobernuak, helburu, oinarriko gaitasun, eduki eta ebaluazio-irizpideekin lotuta, guxieneko irakaskuntzak osatzen dituen curriculumaren oinarriko alderdiak finkatuko ditu. Hezkun-

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria– ANEG-FERE

José Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria, ANEG-FERE

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Federazioaren ordezkariak -HERRIKOA.

dagozkion eskumenen arabera (irakaskuntza berezi hauei buruzkoa da), abenduaren 29ko 1629 E.D.aren bidez²⁵³ hezkuntzarako eskubidea araupezen duen uztailaren 3ko²⁵⁴ 8/1985 Lege Organikoaren 1. D.Aren 2. atalaren c) letrak aipatzen dituen gutxieneko irakaskuntzak finkatu ditu.

Nafarroako Gobernuak, berriz, aipatutako lege horren 6^o-4²⁵⁵ artikulua aitortzen dizkion eskumenak ere erabiliz, martxoaren²⁵⁶ 19ko 22/2007 F.A.ren bidez, alemanera, euskara, frantses, ingeles eta italiera hizkuntzen irakaskuntza hauen oinarritzko eta erdiko mailen curriculumak finkatu du, bertan aipatutako gutxieneko irakaskuntzak jasota.

Ondorioz, Foru Erkidegoan 2007-08ko ikasturtean uztailaren 16ko²⁵⁷

tzarako Eskubidea Araupetzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. atalaren c) letra aipatutako irakaskuntza horietaz aritzen da.

²⁵³ Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua. Beraren bidez, maiatzaren 3ko 2/2006 L.O.ak araupetutako araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarritzko alderdiak finkatzen dira. (2006. urteko urtarrilaren 4ko 4. BOE).

²⁵⁴ Hezkuntzarako Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea. (1985. urteko uztailaren 4ko BOE). Lehenengo Xedapen Gehigarria.- 1. Lege hau bere Autonomia Estatutuetan edo, egonez gero, eskumenen transferentziako Lege organiko egokietan horretarako eskumena aitortuta duten Autonomia Erkidegoek garatu ahal izango dute. Hala ere, Lege honek bere erregulazioa Gobernuari agintzen dion gaiak salbuetsita daude. 2. Edozelan ere, eta bere izaera dela kausa, Estatuari honakoa:

...

c) Gutxieneko irakaskuntzak finkatzea eta gainerako baldintzak erregulatzea titulu akademikoak eta profesionalak, Espainiako lurralde osoan balio dutenak, eskuratu, luzatu eta homologatzeko.

²⁵⁵ 6. artikulua. Curriculumak.

...

4. Hezkuntzako Administrazioek Lege honetan araupetutako irakaskuntza guztien curriculumak ezarriko dute, eta honen barruan aurreko ataletan adierazitako oinarritzko alderdiak jasoko dira. Ikastetxeek etapa eta zikloen curriculumak garatu eta, beharrezkoa bada, osatuko dute bere autonomia erabiliz, Lege honen V. tituluaren II. atalean jasotzen den bezalaxe .

²⁵⁶ Martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretua. Beraren bidez, Nafarroako Foru Erkidegorako Hezkuntzari buruzko 2/2006 L.O.aren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailen curriculumak ezartzen da. (2007. urteko maiatzaren 4ko 56. N.A.O.).

²⁵⁷ Uztailaren 16ko 196/2001 Foru Dekretua. Beraren bidez, hizkuntzen irakaskuntza espezializatuaren Oinarritzko Zikloa antolatzen da eta bere curriculumak ezartzen da. (2001. urteko abuztuaren 31ko 106. N.A.O.).

Paloma Roselló Fernández and. Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria	196/2001 Foru Dekretuan araupetutako hizkuntza irakaskuntzen 1., 2. eta 3. mailen ordezkari beharko diren oinarritzko eta erdiko maila hauen antolaketa ezartzea bidezkoa da.
Luis M ^a Sada Enériz jn. Tokiko erakundearen ordezkaria	
José Manuel Urroz Barasoain jn. Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS	2. Foru aginduaren zirriborroaren deskribapena

Bere txostena egin den arau-proiektuak hitzaurrea eta 19 artikulua, hiru xedapen gehigarri eta amaierako hiru xedapen ditu.

Hitzaurrea. Bertan Kontseiluaren txostenaren mende geratutako foru aginduaren testuaren proposamena justifikatzen duten arau-erreferentziak adierazten dira. Adierazten du martxoaren 19ko F.D. an araupetutako hizkuntza irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailak antolatzea bidezkoa dela. Halaber, adierazi ere egin du ezen, LOE aplikatzeko egutegiarekin bat etorritik, berau ekainaren 30eko 806/2006 E.D. ak ezarrita, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen maila hauen ezarpena 2007/2008 urtean egin behar da.

1. artikulua. Foru dekretuaren xedea eta aplikazio-esparrua zehazten ditu. Oinarritzko eta erdiko mailak antolatu nahi ditu eta Foru Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialetan aplikatuko da.

2. artikulua. Bi mailak egituratzen diren ikastaro bakoitzaren iraupena, gutxienez, 130 ordutan finkatzen du.

3. artikulua. Zuzeneko irakaskuntzarako orduko hiru modalitate zehazten ditu eta antolaketako bi modalitate baimentzea ahalbidetzen du. Bata trinkoa edo beste bat erdi-zuzenekoa, eta bere ezaugarriak deskribatzen ditu. Aldi berean, urrutiko irakaskuntzen modalitatea Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean egingo dela adierazten du.

4. artikulua. Taldeko ikasle kopurua 25ekoa dela adierazten du eta ikaslearen justifikatu gabeko absentiengatik matrikula indargabetzeko agintzen du.

5. artikulua. Ikasleak onartzeko prozedurari buruz. Onartzeko arauak jendaurrekoak izango dira eta eskola ofizialek finkatuko dituzte. Plazen adjudikazioa zozketa bidez egingo da eskolako postuen eskaria eskaintza baino handiagoa bada. Ikastaroetan sartzeko eskabidea sailkapen proben bidez egitea ahalbidetzen du.

6. artikulua. Ikaslearen matrikulazioari buruz. Ikasketak jarraitzeko eskubidea duten ikasle ofizialentzat plazak erreserbatzea ahalbidetzen du.

7. artikulua. Hizkuntza berean matrikulen bikoiztasuna debekatzen du.

8. artikulua. Matrikulari uko egiteko ebazpen epeak, arrazoiak eta prozesua adierazten ditu. Ikastaro bakoitzeko ezeztapen bat baino ez da baimentzen.

9. artikulua. Zentro ofizial batetik bestera matrikula eramatea araupetzen du ikasturtean zehar.

10. artikulua. Oinarrizko eta erdiko mailaren ziurtagiriak eskuratzeko ikasle libreen inskripzioari buruz.

11. artikulua. Ikastaroetan sartzea ahalbidetzen du sailkapen-probaren bitartez, bete beharreko baldintza akademikoak alde batera utzi gabe. Proben emaitzek ez dute ondorio akademikorik eta bere eraginek ikasturte egokia baino ez dute hartzen.

12. artikulua. Ebaluazioa araupetzen du. Bere xedea zehazten du. Ikasleen hasierako ebaluazioa burutzea xedatzen du, bai eta hiru hilean behin egin beharreko etengabe eta diagnostikokoa ere. Hasierako ebaluazioak ikaslean goiko ikastaroetan sartzea proposatu ahal izango du. Programazio didaktikoen edukien arabera.

13. artikulua. Kalifikazioei buruz. Lau trebetasunei buruzkoak izango dira, gai edo ez gai terminoak erabilita. Lau trebetasunak gainditzeak gaiko kalifikazio globala ekarriko du.

14. artikulua. Sustapen eta iraunkortasunari buruz. Sustapenerako gaiko kalifikazio globala erdieste beharrezkoa izango da. Ikasle ofizial gisa errepikatzea ikastaro bakoitzeko behin bakarri egin daiteke. Ikasle ofizialaren izaera berreskuratu daiteke izaera hau etenda eduki ostean bi ikastaroz jarraian.

15. artikulua. Espediente akademikoa eta kalifikazio aktak ebaluazioko agiri gisa zehazten ditu. Horietako bakoitzaren edukia zehazten du.

16. artikulua. Mailak eskuratzeko amaierako proben zehaztapen orokorrak adierazten ditu. Departamentu didaktikoen prozedurari, ziurtatzeko probei, ebaluatzeko irizpideei eta kalifikazioei buruzko informazio garrantzitsua eman behar dute. Hezkuntza Sailari bestelako zehaztapenak ezartzea ahalbidetzen dio.

17. artikulua. Oinarrizko mailaren ziurtagiriari buruz. Eskola Ofizialak ziurtagiria luzatuko du eta trebetasun guztiak gainditu dituela esan nahiko du.

18. artikulua. Erdiko mailaren ziurtagiriari buruz. Hezkuntza Sailak ziurtagiria luzatuko du, eta horretarako trebetasun guztiak gaintzea beharrezko duen proba gainditzea beharrezkoa izango da. Proba bakarra izango da eta aldi berean egingo da Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan, ahozko zatia izan ezik. Ikasleek mailaren berezko trebetasun batzuk gainditu izanaren ziurtagiri akademikorako eskubidea dute.

19. artikulua. Ikasleek helburu, eduki, ebaluazio eta kalifikazioko irizpide, eskatzen diren gutxieneko eduki eta ebaluazioko prozedurei buruz beharrezkoa den informazioa ezagutzeko duten eskubidea araupetzen du. Ahoz eta idatzizko erreklamazioetarako prozesua antolatzen da, bai eta bere ebazpena ere, amaierako probetan neurtutako trebetasun guztietan erdietsitako kalifikazioen gainean desadostasunak egonez gero.

Xedapen Gehigarriak

Lehenengoa. Probak modu arruntean egitea eragozten duen elbarritasunen bat ziurtatzen duten ikasleei probak egiteko denbora eta medioak egokitzea ahalbidetzen du.

Bigarrena. Atzerriko ikasleei bere ama hizkuntzaren besteko hizkuntzak ikastea eta ikasle libre gisa azterketa egitea ahalbidetzen ditu.

Hirugarrena. Ikastaro monografikoak baimendu eta egiteari buruz.

Amaierako Xedapenak

Lehenengoa. Foru Agindua garatzeko Eskola eta Lanbideko Irakaskuntzen Zuzendari Orokorrari emandako baimena jasotzen du.

Bigarrena. 2007. urteko irailean 1a finkatzen du araua indarrean sartzeko datatzat.

Hirugarrena. Foru Aginduaren edukia beharrezko lekualdaketa antolatzen ditu.

3. Bestelakoak

Txostena jaso beharreko Foru Dekretuaren zirriborroarekin batera Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzuaren Zuzendariaren txostena eta hiru memoria –Ekonomikoa, Arauemailea eta Antolaketakoa–, arauaren proiektuaren edukia Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialen zuzendaritza-taldeei igorri zaiela adierazten duen idazkia ematen dira. Agiri guztiak aipatutako Zerbitzu Zuzendariak sinatu ditu maiatzaren 15ean.

Eskolako Antolaketa eta Berrikuntzako Zerbitzuaren zuzendariaren txostenak arauaren proposamena justifikatzen duen araudia adierazten du, bere edukia alderdi nagusien deskribapena azaletik egiten du eta ondorioztatzen du marxoaren 19ko 227/2007 F.D.ak araupetutako araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailen antolaketa ezartzea bidezkoa dela.

Memoria ekonomikoak adierazten du foru agindua aplikatzeak ez dakarrela gastuak handitzea, ezta diru-sarrerak murriztea ere.

Antolaketako memoriak adierazten du aipatzen duen testuak ez duela eraginik egitura edo plantillan.

4. Iradokizunak eta oharrak

Eskolako Kontseiluaren osoko bilkurak martxoaren 19ko 2272007 F.D.ak araupetutako araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailarako proposatutako antolaketa egokia, bidezkoa eta komenigarria dela uste du.

Ondorioz, "Martxoaren 19ko 22/2007 F.D.an araupetutako araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailen antolaketa xedatzen duen Foru Agindua" izapidetzearen aldeko txostena eman du.

Txosten hori zure irizpena eman dezazun aurkeztu da.

Iruñean, 2007ko ekainak 26

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
Presidentea

Antonio Iriarte Moncayola jn.
Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
CONCAPA-Gurasoen Federazua-
ren ordezkariak.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
Hezkuntzako Administrazioaren or-
dezkarria

Salvador Balda Setuain jn.
Ikastetxe pribatueta irakasleen or-
dezkarria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
Gurasoen Elkartearen Federazioa,
HERRIKOA

Fernando Barainca Lagos jn.
Irakasleen ordezkaria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
Nafarroako Unibertsitatearen orde-
zkaria

M^a Luisa De Simón Caballero and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen or-
dezkarria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
Erakunde sindikalen ordezkaria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
Enpresako elkarleen ordezkaria

19/2007 Irizpena

2007ko ekainaren 26an egindako Na-
farroako Eskola Kontseiluaren Osoko
Bilkuran, alboko zerrendan jasotako
pertsonen parte-hartzearekin, aldeko
19 botorekin, aurkako 0 botorekin eta
0 abstentziorekin, hurrengo irizpena
eman da "Hezkuntzari buruzko
maiatzaren 3ko 2/2006 Lege
Organikoak ezarritako musika-
ko lanbide ikasketetan sartzeko
arauak Nafarroako Foru Komu-
nitatean ematen dituen Foru
Aginduaren" zirriborroaren ingu-
ruan.

1. Arau aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organi-
koaren VI. Kapituluaren 45. artikuluan
(printzipioak) eta 46.ean²⁵⁸ (antola-
mendua) ezarritakoaren arabera,
lanbide ikasketa artistikoetan biltzen
da musika eta aipatutako legearen 6.
artikulua heltzen du prestakuntza cu-
rriculuma definitzeko prozedurak ze-
hazten dituen ondorioetarako. Kapi-
tuluaren 1. atalean, 48. art.²⁵⁹, ikasketa

²⁵⁸ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa. (EAO, 106. zk.2006ko maiatzaren 4koa).

45. artikulua. Printzipioak.

...

2. Hona hemen arte-irakaskuntzak:

...

b) Lanbideko arte-irakaskuntzak. Izaera hori izango dute musika eta dantzako lanbide-irakaskuntzek, bai eta arte plastikoaren eta diseinuaren erdi mailak eta goi mailak ere.

...

46. artikulua. Irakaskuntzen antolamendua.

1. Lanbideko arte-irakaskuntzen curriculum Lege honen 6. artikuluan ezarritako prozeduraren bi-
dez definituko da.

²⁵⁹ 48. artikulua. Antolakuntza.

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria– ANEG-FERE

José Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria, ANEG-FERE

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

horien antolamendua definitzen da sei ikasturtetan eta hezkuntza administrazioen eskumenak onartzen dira horien ezaugarriak eta antolaketa definitzerakoan. 49. artikuluan²⁶⁰, mota horietako ikasketetarako sarrera arautzen da.

Estatuko Gobernuak, ikasketa berezi horiei buruzko aipatutako Legearen 6.2²⁶¹ artikulua eman dizkion eskumenen arabera, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985²⁶² Lege Organikoaren 1. XG-aren 2. atalaren c) letrak jasotako gutxieneko ikasketak zehaztu ditu abenduaren 22ko 1577 EDaren²⁶³ bitartez.

1. Musika eta dantzako oinarriko irakaskuntzek hezkuntza administrazioek zehaztutako ezaugarriak eta antolakuntza izango dituzte.

2. Musika eta dantzako lanbide-irakaskuntzak sei ikasturteko iraupena duten maila ezberdinetan antolatuko dira. Ikasleek, salbuespenez eta irakasleen aurretiazko orientabidearekin, ikasturte bat baino gehiagotan izena eman ahal izango dute, baldin eta horien ikaskuntza-gaitasunak hori ahalbidetzen badu.

²⁶⁰ 49. artikulua. Sarrera.

Musika eta dantzako lanbide-irakaskuntzetan sartzeko, beharrezkoa izango da hezkuntza administrazioek arautu eta antolatutako sarrera-proba zehatza gainditzea. Era berean, ikasturte bakoitzean sartu ahal izango da aurreko ikasturteak gainditu gabe, baldin eta proba baten bidez izangaik kasuan kasuko irakaskuntzak probetxuz ikasteko behar besteko ezagutzak dituela egiaztatzen bad

²⁶¹ 6-2 artikulua. Guztien prestakuntza ziurtatu eta kasuan kasuko tituluaren baliozkotasuna bermatzeko xedearekin, Gobernuak, xedek aintzat hartuta, oinarriko eskumenak, edukiak eta balorazio-irizpideak ezarriko ditu, hots, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2.atalaren c) letran adierazitako gutxieneko irakaskuntzak eratzen dituzten oinarriko alderdiak

²⁶² Hezkuntzarako Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea. (EAO, 1985eko uztailaren 4koa). Lehenengo xedapen gehigarria.- 1. Lege hau autonomia-erkidegoek garatuko dute, baldin eta euren autonomia-estatutu egokietan, edo, hala denean, eskumenak eskualdatzeko lege organiko egokietan horretarako eskumena aitortuta badute. Hala ere, Lege honen arabera Gobernuak arautu beharreko gaiak salbuesita daude. 2. Nolanahi ere, eta berezko izaera dela eta, Estatuari ondoko eskumenak dagozkie:

...

c) Gutxieneko irakaskuntzak zehaztea eta Espainiako lurralde osoan baliozkoak diren ikasketa- eta lanbide-tituluak eskuratu, igorri eta homologatzeko gainerako baldintzak arautzea.

²⁶³ Maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez araututako musikako lanbide-irakaskuntzaren curriculumaren oinarriko alderdiak zehaztu dituen abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretua. (EAO, 18. zk., 2007ko urtarrilaren 20koa)

- Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Federazioaren ordezkariak
-HERRIKOA.
- Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
- Luis M^a Sada Enériz jn.
Tokiko erakundearen ordezkaria
- José Manuel Urroz Barasoain jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS
- Bestalde, Nafarroako Gobernuak, aipatutako legeak ere 6.4²⁶⁴ artikuluan onartzen dizkion eskumenak erabilita, musikako lanbide ikasketen curriculum-a ezarri du martxoaren 19ko 21/2007 FD²⁶⁵ bidez eta aipatutako gutxieneko ikasketak bilduz.
- Gauzak horrela, beraz, musikako lanbide ikasketetarako sarbidearen baldintzak arautzea egoki da, matrikulazioaren inguruko aldeak bezalaxe. Horrela, lehenengo lau mailak 2007-2008 ikasturtean ezarri beharko dira Foru Erkidegoan, eta azken biak 2008-2009 ikasturtean. Aldi berean, aipatutako lehenengo urtean, otsailaren 13ko 34/1995 Foru Dekretuak²⁶⁶ araututako erdi mailako ikasketen lehenengo bi zikloak kenduko dira eta, bigarren urtean, hirugarrena.

2. Foru aginduaren zirriborroaren deskripzioa

Txostenpean jarritako arau proiektuak hitzaurrea, 12 artikulua eta azken xedapen bat ditu.

Hitzaurrea. Bertan, Kontseiluaren iritzipean jarritako foru aginduaren zirriborroaren testu proposamena justifikatzen duten erreferentzia arautzaileak adierazten dira. Azpimarratzen da beharrezkoa dela musikako lanbide ikasketetarako sarbidea eta matrikulazioari buruzko gaiak arautzea. Halaber, ekainaren 30eko 806/2006 EDak ezarritako ELOa aplikatzeko egutegiaren arabera, ikasketa horien lehenengo lau mailak 2007-2008 ikasturtean ezarri behar direla adierazten da Foru Erkidegoan, eta azkeneko biak, berriz, 2008-2009 ikasturtean. Era bere-

²⁶⁴] 6. artikulua. Curriculum-a.

...

4. Hezkuntza Administrazioek Lege honetan araututako irakaskuntza ezberdinen curriculum-a ezarriko dute, eta horren zati izango dira aurreko ataletan adierazitako oinarriko alderdiak. Ikastetxeek, hala denean, etapa eta ziklo ezberdinen curriculum-a garatu eta osatuko dute, betiere autonomia-erabilaren arabera, eta Lege honen V. Tituluaren II. Kapituluan jasotako moduan.

²⁶⁵ Martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bidez araututako musikako lanbide-irakaskuntzen curriculum-a ezarri duena, Nafarroako Foru Erkidegoaren eremuan. (NAO, 56. zk., 2007ko maiatzaren 4koa).

²⁶⁶ Otsailaren 13ko 34/1995 Foru Dekretua, erdi mailako musikako ikasketen curriculum-a ezartzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatean maila horretara iristeko arau orokorrak erregulatzen dituena (1995eko ekainaren 9ko NAO).

an jakinarazi da aipatutako ezarpena gauzatzean erdi mailako musika ikasketen lehenengo bi zikloak kenduko direla adierazitako lehenengo urtean eta bigarrenean, berriz, hirugarren zikloa.

1. artikulua. Foru aginduaren xedea eta aplikazio eremua definitzen ditu. Musikako lanbide ikasketetarako sarrera arautzen du Nafarroako Foru Komunitatean.

2. artikulua. Sartzeko betekizunak. Ikasketen lehenengo ikasturtera eta aurrekoak egin gabe beste maila batean sartzeko betekizunak ezartzen ditu. Bi kasuetan beharrezkoa izango da proba zehatza gainditzea sartzeko.

3. artikulua. Sartzeko proba zehatzei buruz. Sartzeko proba zehatzak urtean behin egingo den deialdian izango dira, ekainean.

4. artikulua. Maila eta espezialitate jakin batean sartzeko probak egiteko, ize-na ematea beharrezkoa dela zehazten da.

5. artikulua. Probaren edukiari buruzkoa. Proba instrumentu bakoitzaren espezialitatean egingo da. Egitura eta eduki orokorra adieraziko da. Eranskin bat aipatzen da lehenengo ikasturtean sartzeko proban interpretatzeko errepertorioa adierazteko. Beste maila batzuetan sartzeko errepertorioa hezkuntza proiektuan sartuko da.

6. artikulua. Proben kalifikazioari buruz. Probaren zati bakoitzak kalifikazioa izango du, Otik 10era bitarteko puntuazioarekin. Probaren kalifikazio orokorra kalifikazio partzialetatik abiatuz lortuko da, adierazten den haztapen zehatzaren bitartez nabartuta. Zatiak eta azterketa osoa gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira. Probaren zati bakoitza gainditzea beharrezko betekizun izango da azterketa osoa gainditzeko.

7. artikulua. Sartzeko proben epaimahaiei eta aktei buruzkoak arautzen ditu. Kalifikazioak publikoak izango dira.

8. artikulua. Erreklamazio prozesua arautzen du, lehenik eta behin ikastetxearen zuzendaritzaren aurrean eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren aurrean bigarrenik, sartzeko proben kalifikazioen inguruan. Ikuskapenaren ebazpenak administrazio bidea agortzen du.

9. artikulua. Probaren eraginak. Probaren eraginak egiten diren ikasturtea amaitzean agortzen direla ezartzen da.

10. artikulua. Hezkuntza Sailari baimena ematen zaio ikasturte eta espezialitate bakoitzean izango diren plazak ezartzeko.

11. artikulua. Plazak esleitzeko moduari buruz. Eskatzaileei eskaintako plazen esleipena probaren kalifikazioen arabera egingo da.

12. artikulua. Ikastetxeko ikasleentzat plazak gordetzeari, matrikulazio prozesuari, espediente akademikoa lekualdatzeari, matrikulari uko egiteari, espezialitate ezberdinetan ikasketak aldi berean egiteari eta matrikula zabaltzeari buruzko antolaketa aldeak ordenatzen ditu.

Azken xedapena.

Bakarra. Arauaren hutsaldia zehazten da.

3. Beste gai batzuk

Irizpenpean jarritako Foru Aginduaren Zirriborroa proposamen txosten batekin aurkeztu da. Txostena Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuaren zuzendariarena da, maiatzaren 18koa. Horrez gain, sinatu gabeko beste hiru memoria "Ekonomikoa, Arautzailea eta Antolaketakoa" eta idazki bat ere aurkeztu dira, azken hori ere sinadurarik gabekoa. Bertan, arauaren zirriborroaren berri "Pablo Sarasate" Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eman zaiola jakinarazi da, horrelako arte ikasketak eskaintzen dituen bakarra izaki Komunitatean.

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuaren zuzendariaren proposamen txostenak dio musikako lanbide ikasketetako sarbidearen baldintzak eta matrikulazioari uztarturiko beste alde batzuk arautu behar direla.

Txosten ekonomikoak dio foru dekretuaren aplikazioak ez duela hazkunderik ekarriko gastuetan edota diru-sarrereren gutxitzerik.

Memoria arautzaileak aldarazpen proposamena defendatzen duten arau erreferentziak biltzen ditu eta ondorioztatzen, arauaren xedea otsailaren 22ko 55/1995 Foru Aginduaren²⁶⁷ edukia ordezkatu eta egokitzea dela.

Antolaketaren memoriak dio aztertutako testuak ez diola kalterik ekartzen antolaketari edota plantilari.

4. Iradokizunak eta oharrik

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez, egokia, komenigarria eta garai onean datorrena da martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretuaren bidez araututa-

²⁶⁷ Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan kokaturiko musikako lanbide kontserbatorioetan eta erdi mailako ikastetxe baimenduetan urriaren 3ko 1/90 Legearekin bat etorritik musika-ko erdi mailako ikasketetara sartzea arautzen duen otsailaren 22ko 55/1995 Foru Agindua. (1995eko martxoaren 17ko NAO).

ko musikako lanbide ikasketetarako sarbidearen eta horrekin uztarturiko beste gai batzuen erregulazioa.

Ondorioz, aldeko irizpena ematen du "Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako musikako lanbide ikasketetan sartzeko arauak Nafarroako Foru Komunitatean ematen dituen Foru Agindua" izapidetzeko.

Zure iritzia jaso dezan aurkezten den irizpena da.

Iruñean, 2007ko ekainaren 26an.

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Javier Marcotegui Ros jn.
 Presidentea

Antonio Iriarte Moncayola jn.
 Idazkaria

Alfonso Aparicio Basauri jn.
 CONCAPA-Gurasoen Federazuiaren ordezkarria.

Francisco Arteaga Ruiz jn.
 Hezkuntzako Administrazioaren ordezkarria

Salvador Balda Setuain jn.
 Ikastetxe pribatueta irakasleen ordezkarria, UGT

M^a del Valle Ballano Bueno and.
 Gurasoen Elkartearen Federazioa, HERRIKOA

Fernando Barainca Lagos jn.
 Irakasleen ordezkarria, FSIE-SEPNA.

Gerardo Castillo Ceballos jn.
 Nafarroako Unibertsitatearen ordezkarria

María Luisa De Simón Caballero and.
 Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkarria, CC.OO.

Javier del Castillo Díaz jn.
 Erakunde sindikalen ordezkarria, UGT

Francisco José Flores Pérez jn.
 Enpresako elkarteen ordezkarria

20/2007 Irizpena

2007ko ekainaren 26an egindako Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuran, alboko zerrendan jasotako pertsonen parte-hartzearekin, aldeko 19 botorekin, aurkako 0 botorekin eta 0 abstentziorekin, hurrengo irizpena eman da "Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen dituen musikako lanbide ikasketen egitura eta ordutegia Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen dituen Foru Aginduaren" zirriborroaren inguruan.

1. Arau aurrekariak

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren VI. Kapitulua 45. artikuluan (printzipioak) ezarritakoaren arabera, lanbide ikasketa artistikoetan biltzen da musika. 48. artikuluan²⁶⁸ hezkuntza administrazioen eskumena onartzen du haren ezaugarriak eta antolaketa zehazteko.

Estatuko Gobernuak, egokitu zaizkion eskumenen arabera, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 1. XG-aren 2. atalaren c) letrak²⁶⁹ jasota-

²⁶⁸ 48. artikulua. Antolakuntza.

1. Musika eta dantzako oinarriko irakaskuntzek hezkuntza administrazioek zehaztutako ezaugarriak eta antolakuntza izango dituzte.

2. Musika eta dantzako lanbide-irakaskuntzak sei ikasturteko iraupena duten maila ezberdinetan antolatuko dira. Ikasleek, salbuespenaz eta irakasleen aurretiazko orientabidearekin, ikasturte bat baino gehiagotan izena eman ahal izango dute, baldin eta horien ikaskuntza-gaitasunak hori ahalbidetzen badu.

²⁶⁹ Hezkuntzarako eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Legea. (EAO 1985eko uztailaren 4koa).

Ignacio Iraizoz Zubeldía jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria– ANEG-FERE

José Jorge Lanchas Rivero jn.
Nafarroako ikastetxe pribatuen erakunde titularren ordezkaria, ANEG-FERE

Javier Navallas Rebolé jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pedro Olangua Baquedano jn.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Rosa M^a Pérez Bardot and.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, CSI-CSIF.

Pedro Rascón Macías jn.
Gurasoen Federazioaren ordezkariak -HERRIKOA.

Paloma Roselló Fernández and.
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Luis M^a Sada Enériz jn.
Tokiko erakundearen ordezkaria

José Manuel Urroz Barasoain jn.
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEE-EILAS

ko gutxieneko ikasketak zehaztu ditu abenduaren 22ko 1577 EDaren²⁷⁰ bitartez.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak, aipatutako legeak ere 6.4 artikuluan onartzen dizkion eskumenak erabilita, musikako lanbide ikasketen curriculum-a ezarri du martxoaren 19ko 21/2007 FD²⁷¹ bidez eta aipatutako gutxieneko ikasketak bilduz. Dekretu horrek, 2. azken xedapenean, Hezkuntza kontseilariari baimena ematen dio dekretua garatu eta aplikatzeko behar izan daitezkeen xedapen guztiak egiteko

Arrazoi hori dela eta, lanbide ikasketen egitura eta ordutegia arautzea egoki da espezialitate bakoitzean. Horrela, lehenengo lau mailak 2007-2008 ikasturtean ezarri beharko dira Foru Erkidegoan, eta azken biak 2008-2009 ikasturtean. Aldi berean, aipatutako lehenengo urtean, otsailaren 13ko 34/1995 Foru Dekretuak²⁷² araututako erdi mailako ikasketen lehenengo bi zikloak kenduko dira eta, bigarren urtean, hirugarrena.

2. Foru aginduaren zirriborroaren deskripzioa

Azterketapean jarritako arau proiektuak hitzaurrea eta 2 puntu ditu.

²⁷⁰ Maiatzaren 3ko 2/2006 LOren bidez araututako musikako lanbide-irakaskuntzaren curriculumaren oinarriko alderdiak zehaztu dituen abenduaren 22ko 1577/2006 Errege Dekretua. (EAO, 18. zk., 2007ko urtarrilaren 20koa)

²⁷¹ Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bidez araututako musikako lanbide-irakaskuntzen curriculum-a ezarri duen martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoaren eremuan. (NAO, 56. zk., 2007ko maiatzaren 4koa).

²⁷² Otsailaren 13ko 34/1995 Foru Dekretua, erdi mailako musikako ikasketen curriculum-a ezartzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatean maila horretara iristeko arau orokorrak erregulatzen dituena (1995eko ekainaren 9ko NAO).

Hitzaurrea. Bertan, Kontseiluaren iritzipean jarritako foru aginduaren zirriborroaren testu proposamena justifikatzen duten erreferentzia arautzaileak adierazten dira. Azpimarratzen da beharrezkoa dela lanbide ikasketen antolaketa eta ordutegia arautzea espezialitate bakoitzerako. Halaber, ekainaren 30eko 806/2006 EDak ezarritako ELOa aplikatzeko egutegiaren arabera, ikasketa horien lehenengo lau mailak 2007-2008 ikasturtean ezarri behar direla adierazten da Foru Erkidegoan, eta azkeneko biak, berriz, 2008-2009 ikasturtean. Era berean jakinarazi da aipatutako ezarpena gauzatzean erdi mailako musika ikasketen lehenengo bi zikloak kenduko direla adierazitako lehenengo urtean eta bigarrenean, berriz, hirugarren zikloa.

1. puntua. Arauaren xedeari buruz. Musikako espezialitate bakoitzeko gradu eta mailen egitura ezartzearena da. Ikasgaiak eta eskola orduak banatzeko eranskina biltzen du.

2. puntua. Arauaren hutsaldia zehazten da.

3. Beste gai batzuk

Irizpenpean jarritako Foru Aginduaren Zirriborroa proposamen txosten batekin aurkeztu da. Txostena Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuaren zuzendariarena da, maiatzaren 28koa. Horrez gain, sinatu gabeko beste hiru memoria ?Ekonomikoa, Arautzailea eta Antolaketakoa? eta idazki bat ere aurkeztu dira, azken hori ere sinadurarik gabekoa. Bertan, arauaren zirriborroaren berri "Pablo Sarasate" Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eman zaiola jakinarazi da, horrelako arte ikasketak eskaintzen dituen bakarra izaki Komunitatean.

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuaren zuzendariaren proposamen txostenak dio musikako goi mailako ikasketetako espezialitate bakoitzari dagozkion ikasgaien antolaketa eta ordutegia arautu behar dela.

Txosten ekonomikoa dio foru dekretuaren aplikazioak ez duela hazkunderik ekarriko gastuetan edota diru-sarreren gutxitzerik.

Memoria arautzaileak aldarazpen proposamena defendatzen duten arau erreferentziak biltzen ditu eta ondorioztatzen, arauaren xedea espezialitate bakoitzarentzat maila bakoitzean eman beharreko ikasgaien banaketa zehazte dela, kasuan kasuko ordutegiarekin batera.

Antolaketaren memoriak dio aztertutako testuak ez diola kalterik ekartzen antolaketari edota plantilari.

4. Iradokizunak eta oharra

Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren ustez, egokia, komenigarria eta garai onean datorrena da martxoaren 19ko 21/2007 Foru Dekretuaren bidez araututako musikako goi mailako ikasketen egituraren eta ordutegiaren inguruan proposatutako erregulazioa.

Ondorioz, aldeko irizpena ematen du "Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen dituen musikako lanbide ikasketen egitura eta ordutegia Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen dituen Foru Agindua", izapidetzeko.

Zure iritzia jaso dezan aurkezten den irizpena da.

Iruñean, 2007ko ekainaren 26an.

OE

Presidentea, Javier Marcotegui Ros

Idazkaria, Antonio Iriarte Moncayola

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARI
JN.TXIT ARGIA.

Eranskinak

I. Eranskina

Nafarroako Eskola Kontseiluak Autonomia
Erkidegoetako eta Estatuko Eskola
Kontseiluen XVII. Topaketan Aurkezturiko
Ponentzia

Gaia: "Irakaskuntza artistikoak"

Nafarroako Eskola Kontseiluak aurkeztutako esperientziak

Iruña, 2007ko urtarrilak 26

1. "Vázquez de Mella" musikako zentro integratua, Iruña

Nafarroako Foru Komunitateak Musikako Zentro Integratu bat du 1991z geroztik eta horko eskaintza interesgarria eta berezia da. Interesgarria erregimen bereziko ikasketak (hizkuntzak, artea eta kirola) eta erregimen orokorrekoak batera egiteko aukera eskaintzen duen zentro orotan bezala. Berezia eredu honetan zentro bat berean integratzen baitira haur eta lehen hezkuntza eta musikako irakaskuntza ez-arautuak, hau da, musika-eskoletan eskaintzen diren bezalakoak. Horrek zenbait abantaila ditu Zentroaren autonomia pedagogikoei dagokienez, eta ematen dituen musika irakaspenekin lotuta daude. Irakaskuntza ez-arautua denez, ez da behin betiko curriculum itxirik bete behar; Zentroaren esku daude eskaintzaren diseinua, musika irakaskuntzen antolamendua, espezialitateen curriculum eta erabilitako metodologia didaktikoa, nahiz eta hori guztia Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak kontrolatzen eta gainbegiratzen duen.

Iruñeko "Vázquez de Mella" ikastetxe publikoko haur hezkuntzako ikasle guztiak musikan sartzeko "Bizi musika" izeneko irakasgai bat dago. Astean bi saio izaten dituzte (berrogeita hamar minutukoak) eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan astean bi saio izaten dituzte "Musikako hizkuntzarako hastapenak" gairekin. Ikasturte bakoitzeko lehen hiruhilekoan Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek Instrumentuen Erronda egiten dute eta horren bidez, irakasleen laguntzarekin, Lehen Hezkuntza amaitu arte ikasiko duten instrumentua hautatzen dute. Zentroak instrumentuen espezialitate hauek eskaintzen ditu: Eskusoinua, Klarineta, Zeharkako Txirula, Gitarra, Pianoa, Biolina eta Biolontxelo. Hirugarren mailatik seigarrenera ikasle bakoitzak 30 minutuko banako klaseak izaten ditu eta 50 minutuko taldeko klaseak astean behin; horiez gain, Musika-hizkuntzari buruzko bi saio izaten dituzte astean. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek prestakuntza hori osatzeko astean saio bat izaten dute Abesbatza multzoarena edo Instrumentu multzoarena.

Nafarroan zenbait hizkuntz eredu ditugunez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ordutegia ere horren mende dago eta horri esker, musikako irakasgaietarako erabil ditzakegu ordu batzuk. Ordutegia betetzen dela ziurtatzeko, Abesbatza Multzoa eta Instrumentu Multzoa gaiak Zentroak eskola ordutegia zabaltzeko duen denboran ematen dira, Hezkuntzako Departamentuak baimenduta. Instrumentuen praktika borondatezkoa den arren, zentroko ikasle guztien musika prestakuntza sustatzen da aipaturiko beste asignatura komunen bidez.

Musikako irakasgaietarako, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Iruñeko "Vázquez de Mella" ikastetxe publikoari bederatzi irakasle ematen dizkio lanaldi osoan eta bat lanaldi erdian. Titulazioan profil bikoitza izan beharra daukate: Musika Hezkuntzako Maisu eta Musikako Erdi Mailako Titulua dagokion

espezialitatean. Horri esker, irakasle gisa integratu daitezke Zentroan eta Lehen Hezkuntzan laguntzeko eta indartzeko saioak ere eman ditzakete.

2. "Formarte" esperientzia Iruñeko Arte Ikastetxean.

2004-2005 ikasturteaz geroztik, Iruñeko Arte Ikastetxeko eskaintza aberastu egin da proposamen berri eta interesgarri bati esker. Proposamenaren izena da Lanbide Hastapen Bereziko Programa (LHB) Arte Plastikoetan eta Diseinuan. LHB horiek derrigorrezko hezkuntzaren ondoren adimen urriko ikasleei hezkuntza eskaintza bat egiteko sortu ziren; ikasle horiek DBH ohiko zentroetan egina zuten integrazio erregimenean eta euren prestakuntza Gizarte-garantia berezien Programen barruan jarraitzeko moduan zeuden. Gazte ezindu hauek 16 urte baino zaharragoak dira eta 21 baino gazteagoak eta oinarrizko ikasketak bigarren hezkuntzako titulaziorik gabe amaitu dituzte. Gazte horien prestakuntza beharrari erantzuteko sortu zen eta heziketa bereziko zentroetan egin daitekeen arren, ohiko zentro batzuetan ere egin daiteke. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eskaintzen ditu eta hiru ikasturte irauten dute. Helburu bikoitza dute: batetik, ikasleen oinarrizko heziketa osatu nahi dute helduaroan autonomia pertsonal handiagoa izateko eta gizarteratzeko; eta, bestetik, bizitza aktibora eta lan mundura egoki igarotzeko gaitasunak garatu nahi dituzte gazte hauengan. Oinarrizko zeregin polibalentek irakasten zaizkie euren gaitasunekin bat datozen betebeharrak garatzeko. Bi alorren arabera artikulatzen dira: oinarrizko prestakuntzaren eta Lanerako prestakuntzaren eta orientazioren Alorra eta lanerako berariazko prestakuntzaren Alorra.

Iruñeko Arte Ikastetxean garatzen den programak badu berrikuntzarik, berariazko prestakuntzak izaera artistikoa baitu. Zehatz esateko, Arte Plastikoen eta Diseinuaren markoan artikulatu da, "Moldeak eta erreproduzioak" espezialitatearen inguruan. Hori dela eta, Oinarrizko Prestakuntzako edukiez gain (logiko-matematikoa eta sozio-kulturala), Lanerako prestakuntza eta orientazioa, Jarduera osagarriak (heziketa fisikoa, kultur jarduerak eta aisiako jarduerak) eta Tutoretzaz gain (eraikuntza pertsonala, integrazioa eta gizarte kohesioa) ikasleak jarduera polibalentek egiten ditu eta berariazko tailerrak ere bai: zirriborroak eta konposizioa, bolumenak eta moldeak eta hustuketak. Hau da, gazte hauek garatzen dituzten gaitasunei esker, artearekin lotutako jarduerak dituzten enpresetan lana errazago aurkituko dute.

Programako ikasleen kargu Pedagogia Terapeutikoko irakasle bat dago eta hori da tutorea ere; horrez gain Arte Plastikoen eta Diseinuko Tailerreko maistra bat dago "Molde eta erreproduzio" espezialitatekoa, Heziketa Fisikoko irakasle bat

eta orientatzaile bat. Lehenbiziko biak lanaldi osoan aritzen dira. Momentuz, sortutako espektatibak baino askoz hobeak dira programaren emaitzak eta Iruñeko Arte Eskolako antolakuntza bikainari esker eta Pedagogia Terapeutikoan espezializatuak koordinatutako irakasleen lan bikainari esker, Programako ikasleak "Formarte" izeneko esperientzia garatzen ari dira. Esperientzia horren formulaz gizarte kooperatiboaren ezaugarriak hartu dira, zerbitzu artistikoak eskaintzea da helburua eta hamasei lankidetzaz hitzarmen egin dira zazpi erakunde laguntzailerekin. Hitzarmenak sinatu dira arte galeria batekin, paperdenda eta material artistikoko denda batekin, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin, Iruñeko Udaleko Gazteriaren Etxearekin, koadroak markoetan sartzen dituen lantegi batekin, optika batekin eta arte grafikoen enpresa batekin.

II. Eranskina

Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko
Eskola Kontseiluen XVII. Topaketetako
Ondorioak Eta Jarduteko Proposamenak

Gaia: "Irakaskuntza artistikoak"

2007ko apirilaren 18tik 21era izan dira Balear Uharteetan Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XVII. Topaketak eta hezkuntza sisteman Irakaskuntza Artistikoek duten egoeraz eztabaidatu eta hausnartu da.

Topaketa hauetan Azkeneko Agiri bat onartu da "Irakaskuntza Artistikoak" izenekoak. Agiri horretan irakaskuntza horien dimentsioak eta helburuak datoz, marko legala eta Europako ingurua, irakasleak, didaktika, ikasleak eta irakaskuntza horiek ematen dituzten zentroak.

Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluak irakaskuntza ez-unibertsitarioko kontsulta eta partaidetza demokratikoko organoak dira hezkuntza erkidegoan eta euren proposamenak eta iradokizunak helarazi nahi dizkiete gizarteari eta eskumendun Administrazioei, irakaskuntza horien arauzko garapenak Ondorioen atalean jasotako ikuspegiak eta hausnarketak kontuan har ditzan. Horren bidez, gizartea planteatzen ari den hezkuntza beharrei erantzun egokia emango zaie.

Gainera, taldeko hausnarketa aberastu da beste agiri batzuen ekarpenei esker. Agiri horiek adostutako gidoeikin egindakoak dira eta Autonomia Erkidegoetan irakaskuntza artistikoek duten egoerari buruzko datuak emateaz gain, XVII. Topaketan irakaskuntza hauen isla izan diren esperientziak eta proiektuak ere badatoz. Esperientzia eta proiektu horiek kalitateagatik, originaltasunagatik, berariazkoak direlako edo interesgarriak direlako aurkeztu dira Topaketa hauetan.

Jardunaldietan zegozkien hausnarketak egin eta gero, Irakaskuntza Artistikoen egoerari buruzko azterketaren ondorio nagusiak daude ondoren. Zenbait alderdi garrantzitsu azpimarratu dira, eta alderdi horiei arreta gehiago jarri behar zaie eta lehentasunezko ahaleginak eskaini ere bai.

Ondorioz, Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluek kontsiderazio eta jarduteko proposamen hauek aurkezten dituzte:

A: IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK ETA IKASLEEN PRESTAKUNTZA

1. Irakaskuntza artistikoen ekarpena ikasle guztien prestakuntzan

Eskola Kontseiluek azpimarratu nahi dute Irakaskuntza Artistikoek balio paregabea dutela pertsonen prestakuntzan eta ongizatean balio kognitibo eta afektibo ugari eskaintzeaz gain adierazpena, sormena eta emozioak adierazteko gaitasuna sustatzen baitituzte. Era berean, hezkuntza artistikoak ekarpen handia egiten die gizarteko balioei; sozializatzeko tresna dira, komunikatzekoak, gizartean sartzekoak, parte hartzekoak eta, azken batean, gizartea

kohesionatzekoak. Izan ere, hizkuntza unibertsala eta kulturartekoa eraikitzen dute, elkarrekin harremanak izateko tresna da hizkuntza hori eta gizarteko kide bakoitzaren ondare ere bada.

Hori guztiagatik ondorioztatzen da hezkuntza integralaren barruan irakaskuntza hauek eskaintzeko beharra; ikasleen nortasuna garatzeko balio baitu eta bereziki komenigarria da erregimen bereziko irakaskuntza artistikoei buruzko informazioa egoki zabaltzea, prestakuntza pertsonalean eta profesionalean beste aukerak bezain baliagarria izan baitaiteke.

Herritarren prestakuntza kulturalak eta artistikoak zerikusi handia du hezkuntza-politikarekin eta horregatik funtsezkoa da harreman estua eta koordinatutako lana egotea hezkuntza eta kultur kontseilaritzen artean.

2. Zentro integratuak edota irakaskuntza integratuak:

Musika eta dantzako oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza profesionalak egiterakoan ikasleak Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa edo LH egiten jarduten direnez, ezinbestekoa da bi ikasketa horiek uztartzeko neurriak areagotzea, hala nola, konbalidazioak, curriculum egokitzapenak eta, batez ere, irakaskuntza orokorrekin integratutako musika eta dantzako zentroak. Era berean, biak batera egiteko aukera dutela jakin behar dute ikasleek, batzuk hala egiten ariko diren arren, beste batzuk ere egin nahi izango baitituzte agian.

Beharrezkoa da, halaber, irakaskuntza artistikoko zentroak eta ohiko erregimenekoak lankidetzan aritzea eta elkar mesedetzea, nola kultur jardueretan hala curricularretan. Zentzu honetan, bi zentro motetako irakasleen arteko lankidetzaren erabilgarria izan daiteke aholkularitza eta gai batzuei buruzko berriazko prestakuntza banatzeko.

3. Arteetako Batxilergoa.

Batxilergo mota hau ikasleen esku dagoela ziurtatzeko, komenigarria da orientabidearen garrantzia azpimarratzea ikasleen interesak eta gaitasunak egokitu ahal izateko komeni zaien ibilbide akademikoa aukeratzeko; komenigarria da, halaber, Arteetako Batxilergoari buruz informazio-bide bereziak ezartzea ere: bideen eskaintza, zentroak, gaien konbalidazioa, erregimen bereziko irakaskuntzekin uztartzea, etab.

B: IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK ARAUTZEA

Arauek aldatzen ari diren aldi honetan, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSerenak) ezarritako arau zabal haietatik maiatzaren 3ko 2/2006 Lege

Organiko berrira (LOErena) eta garatzen duten Errege Dekretu berrietara, Eskola Kontseiluek argi utzi nahi dute horri buruz pentsatzen dutena:

1. Musika eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak

Kontuan izanda Autonomia Erkidego bakoitzak errealitate desberdina duela oinarrizko irakaskuntzen garapen, antolakuntza eta azpiegitura aukerei buruz, Autonomia Erkidego bakoitzeko hezkuntza Administrazioei dagokie kontserbatorioetan oinarrizko irakaskuntzak arautzea.

Era berean, beharrezkoa da oinarrizko musika eta dantza irakaskuntzen eskaintza publikoa finkatzea eta zabaltzea; hezkuntza administrazio guztien koordinazioa nahi da, curriculumeko alderdi desberdinak araututa hezkuntzaren kalitatea berma dadin.

2. Musika eta Dantzako Lanbide Irakaskuntzak

Musika eta Dantzako Lanbide Irakaskuntzei dagokienez, Eskola Kontseiluaren iritziz korrelazio argia ezarri beharko litzateke Kualifikazio Profesionalen Katalogoarekin, dagozkien lanbide-familietan kokatzeko eta irakaskuntza hauen berariazko kualifikazio mailak eman ahal izateko.

Beharrezkoa litzateke, halaber, Musika eta Dantzako lanbide zikloaren eta goi zikloaren arteko koordinazioa berrikustea.

Era berean, Eskola Kontseiluek gomendatzen diete Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako administrazioei, beharrezko koordinazioa susta dezatela ikasleen mugikortasuna erraztu ahal izateko.

3. Prestakuntza zikloak

Egokia litzateke "Arteen eta Artisautzaren" lanbide familia izatea, hor sartu ahal izateko alor artistikoarekin oro har lotutako beste lanbide batzuk. Familia horretan eskaini ahal izango liriateke mundu artistikoak eskatzen dituen profil profesionalen araberako prestakuntza zikloak: luthierrak, moldaketa egileak, afinatzaileak, tramoariak, etab. horiek guztiek kualifikazio ofizial baten bidezko aitortza behar baitute. Bertatik bertarako ikuskizun arteen teknikak (makinaria teknikariak, eskenatokietakoak, kudeaketakoak, luminoteknikakoak, tresneriakoak, etab.) arte plastikoaren eta diseinuaren prestakuntza zikloetarako ezarritako modu berean arautu ahal izango liriateke; horren bidez, antzerkian eskari handia duten lanbideei aitorpen akademikoa emanda.

Era berean, egokia da arte plastikoetako eta diseinuko prestakuntza zikloen iraupena eta lanbide heziketako zikloetarako aurreikusten dena parekatzea; arte

plastikoetako ikastetxeetan hartutako kualifikazioak kreditatzen dituzten profesionalak kontratatu nahian dabilzan enpresekin harremanak sustatzea ere egokia da; baita curriculum berria ezartzea ere, irakaskuntza batzuk alor profesionalean desagertu diren prozesuetan oinarritzen baitira, batez ere, digitalizazioa aplika daitekeen guztietan; eta, era berean, arte plastikoetako prestakuntza zikloetan egindako moduluak konbalidatzeko aukera ere kontuan hartu beharko litzateke, lanbide heziketako beste modulu batzuk konbalidatzen diren bezala.

4. Goi mailako irakaskuntza artistikoak:

Eskola Kontseiluak ohartzen dira Goi mailako Irakaskuntzak ematea zaila dela DBHko erregimen orokorreko ikastetxeetako enprezako antolakuntza markoan, ez baita bere markoa. Baina ohartzen dira Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espazioan bat egiteko erronkak direla eta, beharrezkoa dela:

- goi mailako irakaskuntzak ematen dituzten zentroein baldintza horri egokitutako mekanismoak ematea, hau da, nortasun juridikoa eta autonomia administratibo eta akademiko gokiak.
- goi mailako irakaskuntza artistikoak egokitu beharra dagoela Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Espaziora.
- irakaskuntza hauetako ikasleei eta titulatuiei beste ikasleei eta unibertsitariei ematen zaizkien baldintza berdinak eman beharra dagoela unibertsitatara sartzeko.

Era berean, egokia dirudi Autonomia Erkidego bakoitzean erakunde bat sortzea goi mailako arte irakaskuntzen koordinazioaz arduratuko dena eta beharrezko koordinazioa ezarriko duena duela gutxi sortutako AAIko Kontseilu Nagusiarekin.

5. Irakaskuntza artistikoak ematen dituzten zentrozen berariazko araudiak

Beharrezkoa eta premiazkoa da hezkuntza administrazioek, euren eskumenen arloan oraindik horri buruzko legerik ez badute, beharrezko araudia egitea irakaskuntza artistikoak ematen dituzten zentrozen araudi organikoak egiteko; hori guztia hezkuntzako legeek aurreikusitakoaren arabera gobernu organoiei, partaidetza organoiei eta koordinazio organoiei buruz eta beharrezko arreta jarrita zentro horien kudeaketa autonomiari eta autonomia pedagogikoari.

C: IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK EMATEN DITUZTEN IRAKASLEEN EGOERA

1. Irakasleen prestakuntza:

Eskola Kontseiluen iritiz beharrezkoa da irakasleen hasierako prestakuntza ezartzea, ezagutza egokiak eta berariazko didaktikak bermatu ahal izateko, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea ere eta irakasle guztiek atzerriko hizkuntzak jakitea, dena delako espezialitatea izanda.

Prestakuntza hau bermatzeko, hezkuntza administrazioek euren ahaleginak bikoiztu egin beharko lituzkete eta laguntza eta erraztasun gehiago eman hasierako prestakuntzarako eta prestakuntza jarraiturako honakoetako irakasleen kasuan: musika, dantza, arte dramatikoa, arte plastikoak eta diseinua eta ondasun kulturalen zaintza eta zaharberritzea. Prestakuntza jarraituaren barruan berariazko lerroak sustatu behar lirатеke, baita irakasle hauek eskatutako prestakuntzak dituzten erakundeekin suskripzio hitzarmenak sustatu ere eta horietan lortzen den prestakuntza kreditatzeko erraztasun gehiago eman.

2. Irakaskuntza-praktika artistikoaren konpatibilitatea:

Irakasle hauen kualifikazioa trebetasun teknikoak edo mekanikoak ezagutzari eta menderatzeari eta horiek igortzeko gaitasunari lotuta dago; baina obrak interpretatzeko edo ekoizteko gaitasunari lotuta ere badago. Beraz, egokia litzateke irakasleek euren irakasle zeregina beste jarduera profesional batzuekin konpatibilizatzea. Horretarako beharrezkoa litzateke Administrazioak horiek modu eraginkorrean arautzea hezkuntza zerbitzuaren prestazioan kalitatea bermatuta beti.

D: IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK, IRABAZ ASMORIK GABEKO TOKI ERAKUNDEAK ETA KULTUR ETA HEZKUNTZA ERAKUNDEAK.

Aitortu beharra dago irabaz asmorik gabeko toki, kultur eta hezkuntza erakundeek protagonismo berezia izan dutela Estatu guztian musika eta dantza ikastetxeak sortzerakoan, baita arte plastikoak eta antzerkia erakusten den ikastetxeak sortzerakoan ere, hein txikiagoan izan arren. Hori horrela izanik, horrela jarraitzea nahi genuke eta, ahal izanez gero, administrazio publiko desberdinen arteko babesa eta koordinazioa areagotzea ere bai.

Azaldutako guztia laburbilduaz, Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluek hezkuntza komunitateari eta gizarteari igorri nahi diote pertsonen prestakuntza integralerako irakaskuntza artistikoak zein garrantzitsuak diren.

Horregatik, Hezkuntza Administrazioei ondorio eta proposamen hauek egiten dizkiete:

- euren eskumenen barruan irakaskuntza artistikoen antolakuntza globalarekin jarrai dezatela, gure gizartearen eboluzioak eskatutako irakaskuntza berriak dituen.
- irakaskuntza artistikoen mapa koherentea egin dezatela eskumen autonomikoen banaketa markoan, hezkuntza inbertsioaren koordinazio eta egokitzapen hobea lortzeko.

Eta, azken batean, hezkuntza politika argia eta etorkizunari begirakoa egin dezatela irakaskuntza hauentzat; euren berariazko ekarpenak egiteaz gain oso onuragarriak baitira pertsonen garapen eta ongizate osorako eta harremanak izateko, parte hartzeko eta gizarte kohesiorako tresna izan daitekeen hizkuntza unibertsala osatzen baitute.

Palma de Mallorca, 2007ko apirilak 21.

